

Miguel Unamuno

Laino

euskaratzailea: Mikel Garmendia

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Mikel Garmendia.

Euskarazko edizioa: Elkar, 1998

Jatorrizkoaren data: 1914

Miguel Unamuno euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=318>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=838>

HITZAURREA

Nik egin behar omen diot hitzaurrea, horretan lehiatzen baita don Miguel de Unamuno, Augusto Perez nire lagun onaren istorio benetan tristea eta heriotza misterioitsua kontatzen dituen bere liburu honi, eta idatzi egin behar, Unamuno jaunaren nahiak manuak baitira niretzat, hitz horren adierarik berezkoenean. Nire lagun Perez gizajoaren eszeptizismo hamletiarrreraino heldu ez banaiz ere, erabat sinetsita nago behintzat, nik ez daukadala psikologoek hautamen librea deitzen duten horrelakorik, nahiz eta, nire kontsolagarri, don Miguelek ere halakorik ez izan nire ustez.

Arraroa irudituko zaio beharbada gure irakurleren bati nik, letra espainiarren errepublikan batere ezaguna ez naizen honek egitea hain zuzen ere eremu horretan dagoeneko sobera ezaguna den don Miguelen liburu baten hitzaurrea, ohitura bestelakoa baita, hau da, hitzaurreetan idazle ezagunenek hain ezagun ez direnen aurkezpena egitea. Bat etorri gara, ordea,

don Miguel eta biok eta ohitura kaltegarri hori aldatzea erabaki dugu, hau da, gauzak atzekoz aurrera jarri eta ezezagunak egin dezala ezagunaren aurkezpena. Azken finean, liburuak testuarengatik erosten baitira hitzaurrearengatik baino areago, eta normala baita, beraz, nire moduko gazte hasberri batek bere burua ezagutarazi nahi izanez gero, letretan trebatua den bati aurkezpen-hitzaurrea egiteko eskatu beharrean, haren obretariko batean bere hitzaurrea paratzen uzteko eskatzea. Horra, bidenabar, gazteen eta zaharren arteko betiereko auzi horren arazoetako bat konpondua.

Ez dira gutxi, gainera, don Miguel eta biok lotzen gaituzten lokarriak. Jaun horrek liburu honetan, nobela nahiz *nibola* izan —eta *nibola* delako hori nik asmatua da, hain zuzen ere—, nik Augusto Perez gizajoarekin izandako hainbat hitz eta solasaldi jasotzen dituela eta Victor nire semetxoaren jaiotza berantiarra kontatzen duela alde batera utzirik, ba omen dut, antza, urrutiko ahaidetasunen bat don Miguelekin, haren asabetariko baten deitura bera omen dut-eta, erudizioaren arloan hain ezaguna den nire lagun Antolin

S. Paparrigopulos-en genealogi ikerketa oso landuen arabera.

Ezin aldez aurretik jakin zer-nolako harrera egingo dioten *nibola* honi don Miguelen ohiko irakurleek, ez don Miguel bera nola hartuko duten ere. Arretaz ari natzaio jarraitzen azken bolada honetan don Miguelek jendearen inozotasunaren kontra hasitako borrokari, eta txunditurik nago inozotasun hori zein sakona eta xaloda den ikusita. Don Miguelek «Mundo Gráfico» eta antzeko beste aldizkari batzuetan egin dituen artikuluak direla eta, zenbait gutun eta probintzietako egunkari-errekorte jaso ditu, zeinetan agerian gelditzen baitira gure herrian oraindik bizirik dirauten xalotasun inozo eta pellokeri altxorrak. Batean Cervantes jaunari halako buru argitasunik falta ez zitzaiolako esaldia (don Miguelena) aipatzen dute, eta sutan jartzen dira nonbait tamaina horretako begirunerik eza dela eta; beste batean bihotza hausten zaie hosto erortzeari buruz egin dituen gogoeta malenkoniatsu horiek direla eta; beste batean gogoberotu egiten dira inork hil gabe ere gizonak hil egiten direla ikusteak sortutako minak botarazi zion

«gerrari gerra!» oihuarekin; beste batean hitzez hitz pasatzen dituzte hark argitaratutako egia ez-paradoxikoen zerrenda hartakoak, kafetegi, lagunarte eta taldetxo guztietatik jasoak, non erabiliaren erabiliaz usteldurik eta arrunkeki kiratsa zeriela baitzebiltzan, eta horrexegatik ikusi baitituzte beraienak bailiren, eta sumindu egin den onkotarik ere izan da, don Miguel logomako honek batzuetan Kultura K larriz idazten duelako eta, gauza entretenigarriak asmatzeko halako trebezia azaldu ondoren, ateraldi eta hitz jokorik asmatzeko gauza ez dela aitortzen duelako, jakina baita halako jende lañoarentzat horietara mugatzen direla buru argitasuna eta entretenimendua: ateraldi eta hitz jokoetara.

Eta eskerrak irakurlego laño horrek ez dion, dirudienez, antzik eman don Miguelek egindako beste deabrukeria horietako bati, ze maizko egiten baitu listopasauarena, hala nola, artikulua bat idatzi ondoren, bertatik itsumustuan aukeratutako hitz batzuk azpimarratzea, zein hitz aukeratzaren zuen ez jakitearren orrialdeei buelta emanda. Hori egin zuela aitortu zidanean, zergatik egin zuen galdetu nion eta hark erantzun: «Nero-

nek ba al dakit bada... umore onagatik edo! Txilipurdi bat egitearren! A, eta gainera, gogaitu egiten nautelako eta sutan jartzen azpimarrek eta letra etzanezko hitzek! Irakurleari irain egitea da hori, baldar deitzea, zera esatea: errepara ongi, gizona, errepara ongi, honek badu-eta halako esanahaia! Eta horrexegatik gomendatzen nion nik jaun bati artikuluak goitik behera letra etzanez idaztea, irakurlea artikulu esanahiz beteta zegoela ohar zedin, lehen hitzetik hasi eta azkeneraino. Izkribuen pantomima besterik ez da hori; haietan azentuaren eta entonazioaren bitartez adierazten ez dena keinuaren bitartez ordezkatu nahi izatea. Errepara iezaiezu, lagun Victor, eskuin muturreko aldizkariei, integrismoa deitzen dugun horretakoei, eta ikusiko duzu nola erabiltzen dituzten neurririk gabe letra etzanak, letra larri txikiak, letra larriak, harridurak eta tipografiako baliabide oro. Pantomima, pantomima, pantomima! Halakoxea baita haien espresabideen sinpletasuna, edota beren irakurleen sinpletasun inozoaren kontzientzia, hobeki esatearren. Eta akabua eman behar zaio inozotasun horri».

Beste batzuetan, entzun izan diot don Migueli esaten hor barna umorismoa deitzen dioten hori, benetakoa ordea, Espainian ez dela ia bate-re errotu, eta nekez errotuko dela, gainera, denbora askoan. Hemen bere burua umoristatzat dutenak, dio, satirikoak dira batzuetan eta ironikoak beste batzuetan, edo barre-eragile hutsak zenbaitetan. Taboadari umorista deitzea, esate baterako, hitz hori neurritz kanpo erabiltzea da. Eta ez dago umorismo gutxiagoko gauzarik Quedoren satira garratz bezain argi eta gardena baino, zeinetan berehala antzematen baitzaio predikuari. Cervantes izan dugu umorista bakarra, eta berpiztuko balitz, a ze barreak egingo lituzkeen —esaten zidan don Miguelek— nik berari buru-argitasunik falta ez zitzaiola esateagatik mindu zirenen bizkar, eta a ze barreak egingo lituzkeen, batez ere, haren adar jotze zorrotzenetakoren bat serio hartu dutenen kontura! Zalduntzari buruzko liburuei egiten zien burlaren —oso seriotan egindako burlaren— barruan sartzen baitzen, dudarik gabe, haien estilo berbera erabiltzea, eta harako *no bien el rubicundo Febo*, etc. hura, zenbait Cervantes-

zale inozok estilo eredutzat jartzen dutena, literatur barrokiaren karikatura xeble bat besterik ez da. Eta zer esanik ez kapitulu hasiera bateko *la del alba sería* hura esamolde jatortzat hartzeaz, aurreko kapitulua hora hitzaz bukatzen da-eta.

Gure irakurlea, kultura apaleko irakurle oro bezala, susmakorra da berez, halakoxea baita gure herria ere. Hemen inork ere ez du nahi izaten inork adarra jotzerik, ez tontoarena egiterik, ez eta inork ziria sartzerik ere, eta hala, batek hitz egiten digun orduko, berehala jakin nahi izaten dugu zeri atxiki, eta bromatan ala benetan ari den jakin. Ez dut uste beste inongo herritan hain gogaikarri gertatzen denik burlak eta benetako gauzak elkarrekin nahastea, eta kontua benetan esan den ala ez ongi ez bereizteari dagokionez, ba al da gure artean halakorik jasan dezakeenik? Askoz gehiago kostako da edozein espainiar susmakor arrunt kontura dadin, gauza bat aldi berean benetan eta txantxetan esana dela, zinez eta burlaz, eta hari berari jarraikiz.

Arduratuta dabil don Miguel arlote tragikoarekin, eta behin baino gehiagotan esan dit ez

lukeela hil nahi arlotada tragiko bat edota tragedia arlote bat idatzi gabe, baina ez alderdi arlotea edo barregarria eta tragikoa nahasirik edo bata bestearen ondoan jarririk, baizik eta bat eginik eta batean bildurik. Eta hori erromantizismorik nabarmenena zela esan nionean, erantzun zidan: «Ez dizut ukatuko, baina gauzei gaitzizena jarrita ez da ezer konpontzen. Klasikoen irakaskuntzan hogei urtetik gora eman ditudan arren, ez zait buruan sartzen klasizismoa erromantizismoaren kontra jartzea. Helenismoaren ezaugarri omen da bereiztea, finkatzea, mugatzea; nirea, berriz, mugagabetzea, nahastea».

Eta horren funtsean kontzepzio bat besterik ez dago, edota kontzepzioa bainoago, bizitzaren sentimendu bat, ezkorra deitzen ausartzen ez naizena, bai baitakit don Miguelek hitz hori ez duela gogoko. Bere ideia finko, monomaniako hori, hau da, bere arima hilezkorra ez bada, ez eta gainerako gizon eta gauza guztiena ere, Erdi Aroko katoliko inozoek uste zuten gisa berberetan hilezkor gainera, orduan, hala ez bada, deusek ere ez duela balio, eta ez dagoela ahaleginik merezi duenik. Eta hortik dator Leopardiren'

gogaitzearen doktrina, bere azken muturrerainoko engainua ahitu ondorengoa, *ch'io eterno mi credei*, alegia, bere burua betiereko uste izatea. Eta horra zergatik diren don Miguelen hiru autore begikoenetarikoak Senancour, Quental eta Leopardi.

Baina umorismo nahaspilazale latz eta garratz hori, gure jendeen susmakortasuna mintzeaz gain, solasaren hasieratik jakin nahi izaten baitute zeri atxiki, enbarazugarri gertatzen da askorentzat. Barre egin nahi dute, bai, baina liseriketa hobeto egiteko eta penak ahazteko, eta ez desegokiro irentsi eta agian kalte ere egin liezaiekeena botatzeko, eta are gutxiago penak liseritzeko. Eta behin eta berriro esaten du don Miguelek jendeari barre eragin behar zaiola, bai, baina ez diafragmaren uzkurduren bidez digestioa errazteko, irentsitakoa botarazteko baizik, askoz ere argiago ikusten omen baita bizitzaren eta unibertsoaren zentzua baraurik, sabela gozoki eta jakiz beteta baino. Eta ez du onartzen delako ironia garratzasunik gabea ez eta umorismo zuhurra ere, zeren, hark dioenez, garratzasunen bat ez dagoen lekuan ez omen dago ironia-

rik, eta zuhurtzia ez omen dator bat umorismoa-
rekin, edo malumorismoarekin, berari deitzea
gustatzen zaionez.

Horrek guztiak bultzatzen du lan benetan
desatsegin eta esker txarrekoa egitera, herria-
ren inozotasunaren masajea besterik ez omen
dena, ea gure herriaren buru argitasuna pixka-
naka-pixkanaka bizkortzen eta zorrozten doan.
Bere onetik ateratzen baitu gure herria, hegoal-
dekoa batez ere, argia dela entzuteak. «Ongi
pasatzera zezenketetara joan, eta ikuskizun ezin
sinpleago hori eder eta aberats ikusten duen
herriak, bistan da zer-nolako pentsamoldea dau-
kan», dio. Eta gaineratzen du ez dagoela pentsa-
molde sinple eta arruntagorik zezenzale batena
baino. Zoaz umore on edo ez hain oneko parado-
xak kontatzera Vicente Pastorren ezpatakada
ikusi eta txoratzen dagoenari! Gorroto dio zezen-
keten berri-emaielen jai giroko generoari, hitz
jokoen eta asmamen merkearen zabor guztiaren
apezak baitira horiek.

Kontuan izanik, aurrekoaz gain, oso atsegin
zaizkiola kontzeptu metafisikoen jokoak, ulerga-
rria da nola aldentzen den hainbat jende, atseka-

bez aldendu ere, haren irakurgaietatik, horrelako gauzek buruko mina sortzen dietelako batzuk, eta beste batzuk, berriz, harako *sancta sancte tractanda sunt* esaldia gogoan, alegia, gauza santuez santutasunez aritu behar delakoa, kontzeptu horiek burla edo jolaserako kontuak ez direla uste dutelako. Hark ez omen daki, ordea, zer dela eta ahalegindu behar duten halako gauza batzuk serioski har daitezen, gauza santuenei ere, hau da, beren lagun hurkoen sinesmen eta itxaropen kontsolagarrienei ere, burla egin zietenen seme espiritual direnek. Jainkoari berari burla egin dionik ere izan bada, zergatik ez diogu, bada, burla egingo Arrazoiari, Zientziari eta baita Egiari ere? Eta gure bizi itxaropen preziatu eta barrukoena kendu badigute, zergatik ez dugu, bada, oro nahasiko denbora eta betierekotasuna hil eta mendeku hartzeko?

Ez litzateke harritzekoa, era berean, baten batek esango balu liburu honetan badela pasarte labainik, edo, nahiago bada, pornografikorik; aldez aurretik esana dit, ordea, don Miguelek neronek *nibola* honetan horri buruzko zerbait ere aipatzeko. Eta prest dago halako leporaketari

aurre egiteko, zeren, hark dioenez, hemen topa daitezkeen gordinkeriak ez baitira haragi bekatariaren gosea pizteko asmoz eginak, eta ez baitute beste helbururik, bestelako burutazioetarako irudimenezko abiapuntu izatea baizik.

Aski ongi dakite hura ezagutzen dutenek nazka diola edozein pornografi moduri. Eta ez soilik ohiko arrazoi moralengatik, adimen galgarrikerik handiena lizunkeria dela uste duelako baizik. Pornografi idazleak, edo besterik gabe erotikak idazleak, motzenak iruditzen zaizkio, tontoenak, azken finean. Entzuna diot grina txarren ohiko hirukotetik —emakumeak, jokoa eta ardoa—, adimenarentzat kaltegarriagoak direla bi lehenak hirugarrena baino. Eta argi gera bedi don Miguelek ura besterik ez duela edaten. «Mozkorti bati hitz egin dakioke —esaten zidan behineta zer edo zer esan ere egiten du, baina nork jasan dezake jokozale edo andrezale baten solasa? Haren azpian zezenzale baten solasa besterik ez dago, ergelkeriaren azken mutur eta gailurra».

Ez nau harritzen, bestalde, erotikoaren eta metafisikoaren arteko batasun horrek, zeren,

oker ez banago, gure herriak, beren literaturek erakusten digutenez, gudukari eta erlijiosoak baitziren hasieran, gero erotiko eta metafisiko bilakatzeko. Zorroztasun kontzeptistak gurtzen ziren garaian hasi ziren emakumea gurtzen. Gure herrien sorrera espiritualean, Erdi Aroan alegia, barbaroen gizartea erlijioa goratuz bizi zen eta baita mistikotasuna eta gudua ere —ezpatak gurutzea dauka giderrean—, emakumeak, aldiz, oso leku txikia eta bigarren mailakoa zuen haien irudimenean, eta filosofia hutseko ideiak lo antzean zeutzan, teologian bilduta, komentuetako klaustroetan. Parez pare garatzen dira erotika eta metafisika. Erlijioa gudukaria da; metafisika, ordea, erotikoa edo lizuna.

Erlijiozaletasunak egiten du gizona guduzale edo borrokalari, edota, bestela, borrokazaletasunak egiten du erlijiozale, eta, bestalde, sen metafisikoak, axola ez zaiguna jakin nahiak, jatorrizko bekatuak azken batean, egiten du gizona sentsual, edo, bestela, sentsualitateak pizten dio, Evari bezala, sen metafisikoak, ongiaren eta gaizkiaren zientzia ezagutzeko grina. Eta hor

dugu mistika ere, erlijioaren metafisika baita, borrokazaletasunaren sentsualitatetik sortua.

Ondotxo zekien hori Teodota andre kortesano atenastar hark, Jenofontek bere «Oroitzapenak» liburuan esaten digunez halako elkarrizketa bat izan baitzuen Sokratesekin, eta bertan proposatu, liluraturik haren ikertzeko edo, hobeki esatearren, egia erditzen laguntzeko moduarekin, bere zelestino bilakatu eta lagunak harraipatzen laguntzeko. (Synthrates, ehizakide, dio testuak, don Miguelek dioenez, grekera irakaslea baita eta hari zor baitiot berri interesgarri bezain argitzaile hori). Eta Teodota andre kortesanoaren eta Sokrates filosofo erditze-laguntzailearen arteko elkarrizketa ezin interesgarriago hartan argi eta garbi ikusten da bi ofizio horien artean dagoen ahaidetasun estua, eta nola filosofia, neurri handi batean, amodio bitartekotza den, eta nola amodio bitartekotza ere filosofia den.

Eta hori guztiori nik diodan bezala ez bada, inork ez dit ukatuko zorrotza behintzat badela, eta horrekin aski.

Ondo dakit, bestalde, ez dela bat etorriko nik erlijioa eta guduzaletasuna batetik eta filosofia

eta erotika bestetik jarriz egiten dudan bereizketan honekin don Fuljenzio Entrambosmares del Aquilon nire maisu maitea, zeinaren berri «Amor y Pedagogía» nobela edo *nibolan* eman baitigu zehatz-mehatz don Miguelek. Egingo nuke «Ars Magna Combinatoria»ren egile ospetsuak honela bereiziko lituzkeela: erlijio guduzalea eta erlijio erotikoa, metafisika guduzalea eta metafisika erotikoa, erotismo erlijioso eta erotismo metafisikoa, guduzaletasun metafisikoa eta metafisika erlijioso, eta, beste alde batetik, erlijio metafisikoa eta metafisika erlijioso, erotismo guduzalea eta guduzaletasun erotikoa, eta gaineratu horri erlijio erlijioso, metafisika metafisikoa, erotismo erotikoa eta guduzaletasun guduzalea. Hamasei binako konbinazio ateratzen zaizkigu guztira. Eta zer esanik ez gisa horretako hirunakoekin hasiz gero, hala nota erlijio metafisiko-erotikoa edota metafisika guduzale-erlijioso! Nik ez izaki, ordea, don Fuljenzioaren konbinazio zorrotasun nekaezinik, ez eta don Miguelen indar nahasle eta mugagabetzailerik ere.

Gauza asko datozkit burura istorio honen ezusteko bukaerari eta don Miguelek nire lagun

Augusto gizajoaren heriotzaz ematen duen bertsioari buruz, bertsiokoerra delakoan bainago; ez naiz, alabaina, orain eta hemen, hitzaurre honetan, hitzaurrea egin diodanarekin eztabaidan hasiko. Argi utzi nahi dut, halere, nire kontzientzia lasaitzearren, bete-betean uste dudala Augusto Perez-ek bete egin zuela harekin izan nuen azken elkarrizketan jakinarazi zidan suizidatzeko asmoa, benetan egin zuela bere buruaz beste, eta ez ideal edo nahimen mailan soilik. Froga sendoak ditut, nik uste, nire iritziari eusteko; hainbeste eta halakoak, non iritzi soil izateari utzi eta jakintza bilakatu baita.

Eta, horrenbestez, amaitu dut.

VICTOR GOTI

HITZAURRE ONDOKOA

Atsegin handiz eztabaidatuko nituzke hemen hitzaurrea egin didanaren, Victor Gotiren zenbait baieztapen; neronek dakit, ordea, bere existenziaren —Gotirenaren— sekretua, eta nahiago dut, horrenbestez, bere gain utzi hitzaurre honetan dioenaren erantzukizun osoa. Gainera, neuk erregutu nion idazteko, eta aldez aurretik agindu nion —*a priori*, alegia— berak niri eman eta zegoen-zegoenean onartuko nuela. Ez da bidezko, hortaz, nik orain hura ez onartzea, ez eta orain, egindakoaren gainean —*a posteriori*, alegia— zuzenketak egiten hastea ere. Besterik da, ordea, bere zenbait aburu erantzuteke uztea.

Ez dakit zenbateraino ote den zilegi adiskidetasunik estuenaren baitan esandakoez baliatu eta lagunaren zenbait iritzi eta aburu irakurleengana helaraztea, lagun horrek halako asmorik ez izanik. Eta horixe da Gotik bere hitzaurrean egin duen arinkeria: sekula argitaratzeko asmorik ez nuen nire zenbait iritzi argitara ematea. Ez nuen,

behintzat, lagun artean azaltzen nituen bezain gordin argitaratzerik nahi.

Eta bere baieztapen horri buruz, alegia, harako gizajoak... Baina zergatik gizajoa? Ongi da; demagun gizajoa izan zela. Bere baieztapen horrek, diot, hau da, Augusto Perez gizajo edo dena delakoak bere buruaz beste egin zuela eta ez zela nik kontatzen dudan moduan hil, hots, nire hautapen edo erabaki hutsez, irribarrea sortzen dit. Halaxe da, bai, iritzi batzuk ez dute irribarrea besterik merezi.

Eta kontu handiz ibili beharko du hitzaurrea egin didan lagun Gotik nire erabakiak horrela eztabaidatzerakoan, ze, benetan haserrarazten banau, azkenean bere lagun Perezekin egindakoa egingo baitut, hiltzen utziko dut edo hil egingo dut medikua banintz bezala. Eta badakite nire irakurleek medikuek bi aukera hauek izaten dituztela: eria hiltzen utzi, berek hilko ez ote duten beldur, ala eria hil, hilko ote zaien beldur. Era berean, kapaz naiz ni ere Goti hiltzeko hilko zaidala ikusten badut, edo hiltzen uzteko neronek hilko ote dudan beldur izanez gero.

Eta ez naiz gehiago luzatuko hitzaurre ondo-ko honetan, aski baita ongiatorria emateko nire lagun Victor Gotiri, zeini eskerrak ematen baitizkiot egindako lanagatik.

M. de U.

Etxe atarira irten zenean, Augustok eskuineko besoa luzatu zuen, esku barrena behera eta zabalik, eta zerura begira geldirik egon zen une batez, estatua handikia bailitzan. Ez zen mundua bereganatzen ari, euririk bazenentz ikusten baizik. Eta esku gainean xirimiri mantsoaren freskura sumatzearekin batera begitartea zimurtu zuen. Eta ez lanbroa gogaikarri zitzaiolako, euritakoa zabaldu beharragatik baizik. Hain zegoen dotore, hain lerden, tolestaturik eta bere zorro barruan! Euritako itxia dotorea den hein berean da itsusia euritako zabaldua.

«Zoritxarrekoa gauzez baliatu behar hau —pentsatu zuen Augustok—, gauzak erabili beharra. Erabilerak hondatu ez ezik suntsitu ere egingen du edertasun oro. Objektuen eginkizunik sotilena ikusgai izatea da. Bai ederra laranja, sabeleratu aurretik! Hau zeruan aldatuko da, gure zeregin guztia Jainkoari eta Harengan gauza guztiei so egitera mugatuko edo, hobeki esanda, zabalduko denean. Hemen, bizitza

pobre honetan, Jainkoaz baliatzeaz baino ez gara arduratzen, zabaldu egin nahi izaten dugu, aterki baten modura, gaitz guztietatik babes gaitzan».

Bere baitan hala zioela, galtzak jasotzera makurtu zen. Azkenean aterkia zabaldu eta une batez koloka eta pentsakor gelditu zen: «Eta orain norantz abiatuko naiz?; ezkerraldera ala eskuinaldera joko dut?» Augusto ez baitzen ibiltaria, bizitzako pasealaria baizik. «Zakurren bat pasa arte itxarongo dut —esan zuen berekiko— eta hark hartzen duen bidetik abiatuko naiz».

Hartan ari zela, kaletik zakurrik ez, baina neska lirain bat pasa zen, eta haren begien atzetik joan zen Augusto, erakarria eta zertan ari zen konturatu ere egin gabe.

Eta hala kalerik kale.

«Baina mutiko hura —zioen Augustok bere artean, pentsatu bainoago bere buruari hitz egiten baitzion— zer ariko da han, lurrean buruz behera etzanda? Txindurriren bati begira, seguru! Txindurria, ba!, animaliarik hipokritenetariko! Paseatu eta gur lan egiten duela sinestara zi, ez duaskoz gehiagorik egiten. Alfer hori beza-

lakoa da, abiada bizian eta berekin gurutzatzen diren guztiei ukondokadak emanez doana, ziur nagoen arren ez duela beste zereginik. Zer zeregin izango du, bada! Alferra da, ni bezain... Ez, ni ez naiz alferra! Nire irudimenak ez du deskantsurik. Alferrak haiek dira, lan egiten dutela esan eta zorabiatu eta pentsamendua ito besterik egiten ez dutenak.

Ze, bestela, bere burua gur erakustearren hor, beiraduraren atzean, biraderari eragiten jarzten den txokolatari txorimalo hori, lanean ari dela erakutsi nahi duen hori; zer da alferra besterik? Eta gur zer, hark lan egiten duen ala ez? Lana! Lana! Zurikeria! Hor erdi arrastaka doan elbarri horrena, hori bai lana... Zer dakit nik, ordea? Barkatu, anaia! —hori ozenki esan zion—. Anaia? Zertan anaia? Elbarritasunean! Denok omen gara Adanen seme-alaba. Eta hau, Joakinito, Adanen seme al da hau ere? Agur, Joakin! Arraioa, hemen al dauzkagu dagoeneko betiko automobilak, zarata eta hautsa? Eta zer aurreratzten dugu distantziak horrela desagertaraziz? Bidaiatzeko maniaren sorburua topofobia da eta ez filotopia; asko bidaiatzen duena, uzten duen

leku bakoitzari ihes eginez dabil, eta ez heltzen den leku bakoitzaren bila. Bidaiatu... Bidaiatu... Bai tramankulu nekosoa aterkia... Ixo, zer da hau?»

Eta neska lirain hura, bere begiek erakarrita atzetik jarraitu ziona, sartu zen etxearen atarian gelditu zen. Eta orduan konturatu zen Augusto hari segika etorri zela. Ateko atsoak begi maltzurrez begiratzen zion, eta begirada hark iradoki zion Augustori zer egin behar zuen orduan: «Zer-bera hau —esan zuen berekiko— segika etorri natzaion andereñoaren izen eta gainerako xehe-tasunak noiz galdetuko zain dago, eta, egia esan, horixe da bidezkoa orain. Bestela, segizioa burutzeke uztea izango litzateke, eta hori ez, hasitako obrak bukatu egin behar dira. Gorroto diot inperfekzioari!» Eskua faltrikeran sartu eta duro bat besterik ez zuen atzeman. Kontua ez zen orduan aldatzera joatea; horretan denbora eta beta galtzea litzateke.

— Esaidazu, andre on horrek —galdegin zion atezainari hatz erakuslea eta erpurua faltrikeratik atera gabe—, esan al zeniezadake, konfian-

tzan eta gure artean, hemen sartu berri den andereñoaren izena?

— Hori ez da isilean edukitzekoa, ez deus txarrik ere, jauna.

— Horregatik, bada.

— Eugenia Domingo del Arco du izena.

— Domingo? Dominga izango da...

— Ez, jauna, Domingo; Domingo du lehen deitura.

— Bada, emakumeentzat izaki, deitura horrek Dominga beharko luke bilakatu. Bestela, non dago komunztadura.

— Ez dut ezagutzen jauna.

— Eta esaidazu... esaidazu... —hatzak faltrikeratik atera gabe—, nolatan irteten da horrela, bakarrik? Zer da, ezkongai ala ezkondua? Ba al du gurasorik?

— Ezkongai da eta umezurtza. Osaba-izeba batzuekin bizi da.

— Aitaren aldekoak ala amarenekoak?

— Osaba-izebak dituela besterik ez dakit.

— Nahikoa eta sobera.

— Piano-klaseak ematen ditu.

— Eta ondo jotzen al du?

— Hainbesteraino ez dakit.

— Ongi da, aski da; eta hartzazu endredoagatik.

— Eskerrik asko, jauna, eskerrik asko. Beste-rik behar al duzu? Beste ezertan zerbitzatzerik ba al dut? Enkargurik ematea nahi?

— Baliteke... baliteke... Oraingoz ez... Agur!

— Zure esanetara, jauna, eta zuhurtasun osoz gainera.

«Horra, bada —zioen bere baitan Augustok atezaintsarengandik urrunduz—, nola gelditu naizen andre horri hitz emanda. Orain, duintasunez, ez baitut kontua horrela uzterik. Zer esango du, bestela, atezain zintzo horrek. Hortaz... Eugenia Dominga, ez, Domingo del Arco? Oso ongi, idatzi egingo dut, ahanz ez dakidan. Ez dago poltsikoan memori liburu bat eramatea bezalako arte mnemoteknikorik. Esana zuen nire Leontzio jaun gogoangarriak: ez sartu buruan poltsikoan sartzen zaizuena! Eta hauxe erantsi beharko litzaioke horri, osagarri gisa: ez sartu poltsikoan buruan sartzen zaizuena. Eta atezaina, zein da atezainaren izena? Zenbait pauso egin zituen atzera.

— Esaidazu beste gauza bat, andre on horrek...

— Zuk esan...

— Eta zuk, nola duzu izena?

— Nik? Margarita.

— Oso ongi, oso ongi... Eskerrik asko!

— Ez horregatik.

Alde egin zuen berriro Augustok, eta denbora gutxiren buruan Zumardiko pasealekuan zen.

Ateri zen jadanik. Aterkia itxi, tolestu eta zorroan sartu zuen. Eserleku batera hurbildu zen; ukitu eta hezea zegoela ohartu zen. Egun-karia atera, eserlekuan jarri eta eseri egin zen. Jarraian kartera atera eta estilografikoa astindu zuen. «Hau bai tramankulu baliagarria —esan zion bere buruari—; bestela lapitzaz idatzi behar-ko nuke andereño horren izena eta ezabatu ere egin liteke. Ezabatuko al da bere irudia nire gogotik? Nolakoa da, ordea? Nolakoa da Eugenia goxoa? Begi batzuk ditut soilik gogoan... Begi batzuen deia sumatzen dut. Lirikoki aiko-maiko nenbilela, begi batzuen tiramen eztia sentitu nuen nire bihotzean. Ea bada! Eugenia Domingo, bai, Domingo, del Arco. Domingo? Ez zait sartzen

bere deitura Domingo izate hori... Ez; aldarazi egin behar diot deitura, Dominga bilaka dadin. Gure semeek, alabaina, Dominga izan beharko al dute bigarren deitura? Eta nirea, Perez desegoki hau, kendu eta P. soilik utzi beharko dutez, gure semeak Augusto P. Dominga izan beharko al du! Baina.... nora naramazu, irudimen ero horrek?» Eta karteran idatzi zuen: Eugenia Domingo del Arco. Zumardiko ibilbidea, 58. Ohar horren ganean honako bi bertso hauek zeuden:

*Sehaskatik datorkigu tristezia
sehaskatik, orobat, alegantzia...*

«Horra —esan zuen Augustok bere artean—, Eugenia honek, piano irakasleak, moztu egin dit poesia liriko traszendentaleko hasiera bikain hori. Etenda gelditzen zait. Etenda?... Bai, gizonak gertakarietan, zoriaren gorabeheretan gai bila ibili besterik ez du egiten, bere jaiotzetiko tristezia edo alegantzia osatzeko. Kasu berbera tristea zein alegera izan daiteke gure sortzetiko jarreraren arabera. Eta Eugenia? Idatzi egin

behar diot, baina ez hemendik, etxetik baizik. Kasinora joango ote naiz, bada? Ez, etxera, etxera. Honelako gauzak etxetik, etxe girotik. Etxe giroa? Nire etxean ez dago etxe girorik. Etxe giroa... Etxe giroa... Hautsontzia, areago! Ai, Eugenia nirea!»

Eta etxera itzuli zen Augusto.

II

Morroiak atea ireki zion eta...

Augusto, gizon dirudun eta seniderik gabea, bere ama xaharra gertakari xume hauek baino sei hilabete soil lehenago hil baitzen, morroia eta sukaldari batekin bizi zen, etxean aspaldidanik zerbitzari eta etxe berean zerbitzatutako beste batzuen seme-alaba biak ere. Morroia eta sukaldaria ezkontuta zeuden elkarrekin, baina ez zuten seme-alabarik.

Morroiak atea ireki eta Augustok, kanpoan izan zen bitartean inor izan zenez galdetu zion.

— inor ere ez, jauna.

Sakramentuzko galde-erantzunak tiren, Augustok apenas izaten baitzuen bisitarik etxean.

Bere kabinetean sartu, kartazal bat hartu eta hauxe idatzi zuen: «Eugenia Domingo del Arco andereñoa. Eskuz Esku.» Eta jarraian, paper zuriaren aurrean, ukondoak mahai gainean jarri eta buruari bi eskuez eutsiz, begiak itxi zituen. «Pentsa dezadan aurrenik hartaz», esan zion

bere buruari. Eta halabeharrez bereganatu zuten beste begi haien dirdiraz jabetzen ahalegindu zen iluntasunean.

Hala egon zen denbora puska batez Eugeniaren irudia gogora ekarri nahiz, eta doi-doi ikusi besterik egin ez zuenez, irudikatu egin behar izan zuen. Ebokazio lan horri esker, ametsetan bildutako irudi mugikorra taxutzen hasi zen bere fantasia. Eta loak hartu zuen. Loak hartu zuen, gau txarra pasea baitzen lorik egin ezinik.

— Jauna!

— Zer? —oihukatu zuen iratzarririk.

— Mahai gainean duzu gosaria.

Zerk esnatu zuen, goseak ala gose horren oihartzun baino ez zatekeen morroiaren aho-tsak? Misterio psikologikoak! Hala pentsatu zuen Augustok, eta jangelara abiatu zen bere baitan zioela: «O, psikologia!»

Gustura gosaldu zuen egunerokoa: arrautza frijitu pare, xerra patatekin eta Gruyère gazta pusketa bat. Gero kafea hartu eta kulunkaulkian etzan zen. Habano bat piztu, ahora eraman eta, «Ai, Eugenia nirea!» esanez hasi zen Eugeniaren pentsatzen.

«Eugenia nirea, bai, nirea —zioen berekiko—, neure kasa taxutzen ari naizen hau, eta ez bestea, ez hezur-haragizkoa, ez ustekabeko agerraldian etxeko atetik pasatzen ikusi dudana, ez atezainak aipatu didana! Ustekabeko agerraldian? Eta zer agerraldi ez da ustekabeko? Zein da agerraldien logika? Zigarroaren ke bolada hauek bata bestearen atzetik eratzen dituzten irudiena. Halabeharra! Munduaren barne erritmoa da halabeharra, poesiaren arima. A!, halabeharreko Eugenia nirea! Nire bizitza geldo, beti berdin, umil hau oda pindariko bat da, egunerokotasunaren mila xehetasunez ehundua. Egunerokotasuna! Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia! Emaizkidazu, Jauna, eguneroko mila xehetasunak. Gizasemeok ez dugu behea jotzen ez pena handiengatik, ez pozkario handiengatik, pena eta pozkario horiek gertakari tipiz osaturiko laino zabal batek estalirik heltzen baitzaizkigu. Eta horixe dugu bizia, lainoa. Lanbroa dugu bizia. Orain Eugenia sortu zaigu bertatik. Eta nor da Eugenia? A, bai!, aspalditik nabil bere bila. Eta ni bere bila ibilki, bidera atera zait. Ez ote da hori zerbait aurkitzea? Batek bila dabilena topatzen

duenean, ez ote zaio agerpena bera, bere bila-kuntzaz kupiturik, bidera atera? Ez al zen Amerika Colonen bila atera? Ez al da Eugenia nire bila etorri? Eugenia, Eugenia, Eugenia!»

Eta hara nola ikusi zuen Augustok bere burua Eugeniaren izena ozenki ahoskatzen. Deika ari zela entzun eta, morroia, kasualitatez jangela ondotik pasa baitzen, sartu egin zen esanez:

— Deika, jauna?

— Ez, zuri ez! Baina, zaude, zuk ez al duzu Domingo izena?

— Bai, jauna —erantzun zuen Domingok, entzundako galderagatik batere harridurarik azaldu gabe.

— Eta zergatik duzu izena Domingo?

— Hala deitzen didatelako.

«Ondo, oso ondo —esan zuen Augustok bere-kiko—; nola deitzen diguten, halakoa dugu izena. Homeroren garaian pertsonak eta gauzek bina izen zituzten, bata gizonak eta bestea Jainkoak emana. Nola deitzen ote dit Jainkoak? Eta zergatik ez ote dut besteak ematen didatenaz bestelako izenik? Zergatik ez diot bada Eugenia-

ri bestek, Margarita atezainak, emandakoaz bestelako izenik emango? Nola deituko diot?»

— Joan zaitezke —esan zion morroiari.

Kulunkaulkitik altxa, langelara joan, idazluma hartu idazteari ekin zion:

«Andereño: Gaur goizean berean, zerutikako xirimiri atseginpean, dagoeneko etxe girorik ez dudan arren bertan bizi naizen etxearen ataritik pasa zara, halabeharrezko agerraldian. Esnatu naizenean, zurearen atera joan naiz, non ez baitakit etxe girorik ba ote duzun. Zure begiek eraman naute hara, zure begiek, izar biki distiratsuak baitira nire munduko lanbroan. Barkatu, Eugenia, eta utzidazu gure artean izen goxo hori ematen; barka lirikotasuna. Ni betirako lirikotasun infinitesimalen bizi naiz.

Ez dakit besterik zer esan. Bai, badakit. Hainbeste eta hainbeste gauza esan behar dizkizut, ordea, ezen uste baitut hobe dela elkar ikusi eta elkarrekin mintzatzeko garenarako uztea. Hori desiratzen baitut orain, elkar ikusi eta elkarrekin mintzatzea, elkarri idaztea, elkar ezagutzea.

Gero... Erabaki bezate Jainkoak eta gure bihotzek gerokoa!

Eskainiko al didazu, bada, Eugenia, nire eguneroko bizian eztiki agertu zaren horrek, eskainiko al didazu arretarik?

Neure biziko lainoan murgildurik, erantzungo didazulakoan.

Augusto Perez».

Eta sinatu egin zuen esanez: «Alferrikakoa delako dut gustukoa sinatzeko ohitura hau».

Kartazala itxi eta berriro kaleratu zen.

«Jainkoari esker —zioen berekiko Zumardiko ibilbiderantz zihoala—, jainkoari esker badakit nora noan eta badut nora joan! Jainkoaren bedeinkapen bat da Eugenia hau. Helburu bat, zedarri bat jarri die nire kalerik kaleko harat-honatei. Badut dagoeneko zein etxeren inguruan ibili; badut atezain salatari bat...»

Bere buruari hala mintzo zihoala, Eugeniarekin gurutzatu zen, haren begien distiraz ohartu ere egin gabe. Trinkoegia zen laino espirituala. Eugeniak ordea bai, begiz jo zuen eta esan zion

bere buruari: «Nor ote da gazte hori? Ez du itxura txarrik eta aberatsa dirudi!»

Kontua da, ohartu ere egin gabe, goizean segika ibili zitzaion bat aurkitu zuela. Emaztekiek beti jakiten dute noiz ari zaizkien so, nahiz eta ikusi ez, eta noiz diren ikusiak, nahiz eta so egin ez.

Eta Augustok eta Eugeniak nork bere bideari jarraitu zioten, beren arimez kaleko amaraun espiritual korapilotsua hautsiz. Kaleak halako sare bat eratzen baitu, non elkar gurutzatzen diren desira, bekaizkeria, erdeinu, kupida, amodio eta gorrotozko begiradak, inoiz izandako espiritua jadanik kristaldua duten hitzak, pentsamenduak... bete-beteko oihal misterioitsu bat, pasatzen direnen arimak estaltzen dituen.

Azkenean berriro ere Margarita atezainaren aurrean zen Augusto, Margaritaren irribarrearen aurrean. Augusto ikusi bezain pronto atera zuen eskua amantaleko poltsikotik.

— Arratsalde on, Margarita.

— Arratsalde on, jauna.

— Augusto, andrea, Augusto.

— Don Augusto —hark arrapostu.

— Gizon guztiei ez zaie berdin gelditzen jaun deitze hori —esan zuen berak—. Juan izatetik don Juan izatera alde izugarria dagoen bezala, hala Augustotik don Augustura. Baina... tira! Atera al da Eugenia andereñoa?

— Bai, orain dela oso gutxi.

— Norantz jo du?

— Harantz.

Eta harantz abiatu zen Augusto. Baita laster itzuli ere. Gutuna ematea ahaztu zitzaion.

— Helaraziko al duzu, mesedez, gutun hau Eugenia andereñoaren esku zurietaraino?

— Atsegin handiz.

— Haren esku zurietaraino beretaraino, gero, e? Ferekatzen dituen piano teklak bezain esku zuri marfilezkoetaraino.

— Bai, bai, bestetan bezalaxe.

— Bestetan? Zer esan nahi duzu horrekin?

— Baina horietako lehen gutuna dela uste al du jaun horrek?

— Horietakoa? Ba al dakizu, ordea, zer-nolakoa den nire gutuna?

— Bai horixe, besteak bezalakoa.

— Besteak bezalakoa? Zein beste?

— Ez du, bada, jarraitzaile gutxi izan andereñoak...

— A, baina libre al dago orain?

— Orain? Ez, ez, jauna; badu halako senargai moduko bat, nahiz eta nire ustez senargai izan nahiko bat besterik ez den... aproban edukiko du beharbada... behin-behinekoa izango da agian...

— Eta zergatik ez zenidan esan?

— Galdetu ez zenidanez...

— Egia da. Hala eta guztiz ere, emaiozu gutun hau eta eskuz esku, ulertzen? Borroka egingo dugu! Eta tori beste duro bat!

— Eskerrik asko, jauna, eskerrik asko.

Kostata aldendu zen handik Augusto. Margarita atezainaren berriketa lainotsu, egunerokoa, laket gertatzen hasia baitzitzaion. Ez al zen, bada, denbora pasatzeko modu bat?

«Borroka egingo dugu! —zioen berekiko Augustok, kalean behera—. Bai, borroka egingo dugu! Baduela beste senargai bat, senargai izan nahi duen beste bat?... Borroka egingo dugu! *Militia est vita hominis super terram*. Badu helburu bat nire biziak; badut burutu beharreko konkista bat. O, Eugenia, Eugenia nirea, neurea

behar duzu izan! Nire Eugenia behintzat; begi haiek ikusiz geroztik, nire lanbroko izar hura ziztu bizian ikusita nire baitan irudikatu dudan hau; neurea behar du izan horrek, eta bestea, atezainarena, izan belli edonorena. Borroka egingo dugu! Borrokatu eta irabazi egingo dut. Badakit garaipenaren sekretua. A. Eugenia, Eugenia nirea!»

Eta konturatu orduko kasinoaren atean zen, han baitzuen jadanik Victor, eguneroko xake partida egiteko zain.

III

Berandu samar hator gaur, motel —esan zion Victorrek Augustori—, beti puntu-puntu etortzen haiz eta!

— Zer nahi duk... eginbeharrak...

— Eginbeharrak, hik?

— Zer uste duk, bada, burtsan aritzen direnek bakarrik dituztela eginbeharrak ala? Hik uste baino askoz ere korapilatsuagoa duk bizia.

— Edo hik uste baino xingleagoa ni...

— Balitekek.

— Tira, hasi!

Augustok bi lauki aurrera eraman zuen errege pioia, eta ohi bezala hortz artean opera zatiak kantatu ordez, honela hasi zen berekiko: «Eugenia, Eugenia, Eugenia nirea, nire biziko xede, izar bikien distira laino artean, borroka egingo dugu! Honetan bai dagoela logika, xake jokoan, eta bai dela, hargatik ere, lanbrotsua, bai halabeharrezkoa! Ez ote logika bera ere halabeharrezkoa, zoriaren arabera! Eta Eugenia nirea

agertze hori, ez ote gauza logikoa? Ez ote xake joko jainkotiar baten ondorio?

— Baina, motel —moztu zion Victorrek—, ez al genian esan ez duela balio jokaldia atzera itzultzeak? Fitxa ukitua, fitxa jokatua!

— Hori esan genian, bai.

— Bada, hori eginez gero, musu truk jango diat alfil hori.

— Egia, egia; distraitu egin nauk.

— Ez, bada, distraitu; jokoan ari denak buru-belarri aritu behar dik eta. Eta badakik: fitxa ukitua, fitxa jokatua.

— Bai, bai, ez duela erremediorik, alajaina!

— Horrela behar dik. Horixe baita joko honen alde hezitzailea.

«Eta zergatik ez du distraitu behar batek jokoan? —zioen bere baitan Augustok—. Bizia joko bat da ala ez? Eta zergatik ez ote du balio behar jokaldiak atzera itzultzeak? Horra logika! Beharbada eskutan izango du dagoeneko gutuna Eugeniak. *Alea iacta est!* Egina egina duk. Eta bihar? Biharkoa Jainkoarena da! Eta atzokoa, norena ote? O, atzokoa, indartsuen altxorra!

Atzoko dontsua, eguneroko lainoaren sustantzia!»

— Xake! —eten zion berriro Victorrek.

— Egia, egia... Nolatan utzi diat, ordea, gauzak puntu honetaraino heltzen?

— Beti bezala motel, distraitu egin haiz eta. Hain distraitua ez bahintz, jokalari onenetakoa hindukegu.

— Baina esaidak, Victor, zer duk bizia, joko ala distrazio?

— Jokoa ez baita distrazioa besterik.

— Hortaz, zer axola zioke modu batera edo bestera distraitzeak?

— Bada, jokatzekotan, ongi jokatu.

— Eta zergatik ez gaizki jokatu? Eta zer duk ongi jokatzea eta zer gaizki jokatzea? Zergatik ez ditiagu fitxa hauek ohi ez bezala mugitu behar?

— Horixe duk tesia, nire lagun Augusto, hik heuk, filosofo bikain horrek, irakatsi didanez.

— Entzun, aparteko berri bat eman behar diat eta.

— Bota!

— Harritu hadi, baina, motel.

— Ni ez nauk *a priori* edo aldez aurretik harritzen direnetakoa.

— Hor zoak bada: ba al dakik zer pasatzen zaidan?

— Gero eta distraituago habilela.

— Hara, maitemindu egin nauk.

— Ba! Horrenbeste banekian neuk ere.

— Nola bahekiela?

— Bai horixe, jaio hintzenetik hago hi maiteminduta, *ab origine*; berezko maitemina daukak.

— Bai gu jaiotzearekin batera jaiotzen duk maitasuna.

— Ez diat maitasuna esan, maitemina baizik. Eta banekian nik, heuk esan gabe ere, maitemindurik hengoela, edo maite zoraturik, hobeki esan. Hik heuk baino hobeto nekian nik.

— Norekin, baina? Esaidak, norekin?

— Nik bezainbat dakik hik hori.

— Hago, arrazoi duk agian...

— Esan ez diat bada? Eta bestela, esaidak: zer duk, ilehoria ala beltzarana?

— Bada, egia esan, ez zakiat. Baina ez dik ez bata ez bestea izan behar; ile-nabarra, alegia.

— Zer duk, luzea ala mozkotea?

— Hortaz ere ez nauk bada ongi akordatzen. Baina hortxe tartekoa izan behar dik. Baina begiak, motel, haiek dituk begiak ene Eugeniarenak!

— Eugenia?

— Bai Eugenia Domingo del Arco, Zumardiko ibilbidea, 58.

— Piano irakaslea?

— Hori bera. Baina...

— Bai, ezagutzen diat. Eta orain..., xake berriz ere!

— Baina...

— Xake esan diat!

— Beno...

Eta erregea zaldi batez babestu zuen Augustok. Eta azkenean galdu egin zuen partida.

Agurtzerakoan, Victorrek eskubiko besoa uztarri gisa lepagainean jarri eta honela xuxurlatu zion belarrira:

— Eugenia pianista, beraz, ezta? Ondo, Augusto, ondo; heurea izango duk lurra.

«Diminutibo horiek baina —pentsatu zuen Augustok—, diminutibo eramanezin horiek!» Eta kalera irten zen.

IV

«Zergatik ote diminitiboa txera-seinale? — zioen berekiko Augustok etxera bidean—. Txikitu egiten ote du maitasunak maitatzen den gauza? Maitemindua ni! Ni maitemindua! Nork esan behar zuen!... Baina arrazoi ote du Victorrek? *Ab initio* maitemindua ote naiz? Nire maitasuna objektua bera baino lehenagokoa da, beharba-da. Areago, maitasun honek berak sortu du hura, kreaioaren lainotik atera baitu. Baina dorre hura aurreratu banu ez zidan materik egingo, ez horixe. Eta zer da maitasuna? Nork definitu zuen maitasuna? Maitasuna definituz gero ez da maitasun... Baina, Jainkoarren, nolatan uzten du alkateak dendetako errotuluetarako hain letra itsusiak erabiltzen? Alfil harekin gaizki jokatu dut lehen. Eta nolatan maitemindu naiz, ez baitut, egia esan, hura ezagutzen dudarik ere esaterik? Ba!, gerora ezagutuko dut. Maitasuna ezaguera baino lehenagokoa da, eta gainera horrexek hiltzen du hura. *Nihil volitum quin praecognitum*, erakutsizidan aita Zaramillok, baina ni kontrako

ondoriora iritsi naiz, hau da, nihil cognitum quin praevolitum'. Ezaguera edukitzea barkatzea omen. Ez, barkatzea da ezaguera edukitzea. Lehenik maitasuna, ezaguera gero. Baina nolatan ez naiz ohartu mate egin behar ziola babesik gabeari? Eta zerbait maitatzeko, zer da aski? Sumatzea! Sumatzea; horra maitasun intuizioa, lainotan erdikustea. Gero dator zehaztea, ikusmen perfektoa, lainoa ur tanta edo kazkabar bilakatzea, edo elur, edo harri. Harri jasa da zientzia. Ez, ez, lainoa, lainoa! Arrano nahi nuke izan, hodei artean paseatzeko! Eta hauen artetik, su lanbrotsu gisa orobat, eguzkia ikusteko.

O, arranoa! Zer-nolako gauzak esango zizkio-ten elkarri Patmoseko arranoak, eguzkiari aurrez aurre begiratzen zionak eta gauaren ilunean ikusten ez zuenak, eta Minervaren hontzak, gauaren ilunean ikusten zuenak baina eguzkiari begiratu ezin zionak, bata San Joanen aldame- netik eta besteak Olinpotik alde eginda elkarre- kin topo egin zutenean!»

Puntu horretara heltzean, Eugeniarekin guru- tzatu zen Augusto, baina ez zion erreparatu.

«Ezaguera gero dator... —jarraitu zuen bere baitan—. Baina... zer izan da hori? Zin egingo nuke nire orbitatik bi izar biki distiratsu eta mistiko pasa direla... Bera izan ote da? Bihotzak esaten dit... Baina, ixo, etxean nago eta!»

Eta sartu egin zen.

Gelara joan zen, oheari begiratu eta esan zuen:

«Bakarrik! Bakarrik lo egitea! Bakarrik amets egitea! Inorekin lo egiten denean, ametsak komuna behar du izan, halako jario misterio-tsuek batuko dituzte bi buruak. Ala, ez ote da gertatzen, zenbat eta gehiago elkarretaratu bihotzak, are bereiztenago direla buruak? Baliteke. Elkarren kontrako jarreretan egongo dira agian. Bi maitalek gauza bera pentsatzen badute, batak bestearen kontrakoa sentituko du; maitasun sentimenduan bat etorri gero, nork berea pentsatzen du, batak bestearen kontrakoa agian. Emakumeak gizona maitatuko badu, honek ez du hark bezala pentsatu behar, alegia, pentsatu egin behar du. Azter ditzagun senar-emazte ondraduok».

Arratsetan, ohera baino lehen, tutean egiten zuen askotan Augustok Domingo morroiarekin eta, bitartean, haren emaztea, sukaldaria, nola jokatzeko zuten begira egoten zen.

Has zen partida.

— Kopatan hoge! —esan zuen Domingok.

— Esaidazue —esan zuen bat-batean Augustok ozenki—. Eta ezkonduko banintz?

— Ondo egina, jauna —esan zuen Domingok.

— Segun eta nola, jauna —ausartu zen iradokitzena Liduvina, haren andrea.

— Ez al zinen zu ezkondu, ordea?

— Segun eta nola, jauna.

— Segun eta nola zer? Esazu argi.

— Ezkontzea oso erraza da; ezkondu eta gero, ordea, ez hain erraza.

— Herri esaerak dira horiek, eta horietatik etortzen dira...

— Eta zure emazte izango denari dagokionez, bada... —gaineratu zuen Liduvinak, Augustok bakarriketa luzea botako ez ote zion beldur.

— Zer, nire emazte izango denaz, zer? Tira, esazu, emakumea, esazu behingoz.

— Bada jaun hori hain ona izaki...

— Tira, esazu, emakumea, esazu behingoz.

— Gogoan izango duzu etxekoandreak esaten zuena...

Bere amaren doluzko aipamena entzutean, mahai ganean utzi zituen kartak Augustok, eta aiko-maiko gelditu zitzaion une batez gogoia. Askotan esana zion amak, zorigaitzaren alaba izandako andre goxo hark: «Ni ez nago honezkeror luzerako, seme; deika ari zait zure aita. Nire beharra zuk baino gehiago izango du beharbada. Hortaz, ni mundu honetatik joan eta bertan bakarrik gelditzen zarenean, ezkon zaitetz, ezkon zaitetz lehenbailehen. Ekar ezazu etxera aginduko duen andrea. Eta ez pentsa gure zerbitzari leialengan konfiantzarik ez dudarik, ez. Baina ekar ezazu etxekoandre bat. Eta etxekoandre izan dadila, seme, etxekoandre izan dadila. Egin ezazu zure bihotzaren, zure poltsaren, zure jakitokiaren, zure sukaldearen eta zure erabakien jabe. Bila ezazu emazteki bat, maitatzen dakiena... eta baita zu zeu gobernatzen ere».

— Nire emazteak pianoa joko du —esan zuen Augustok bere malenkonia eta oroitzapenak uxatuz.

— Pianoa! Eta zertako balio du horrek? —galdetu zuen Liduvinak.

— Zertako balio duen? Horretantxe datza bere xarma, ez duela ezertako balio, ez duela inolako zerbitzurik egiten. Leporaino nago zerbitzuez...

— Gureaz?

— Ez; zuenaz, ez! Eta, gainera, egiten du, bai, zerbitzurik pianoak... alegia, harmoniaz betetzen ditu etxeak, hautsontzi izan ez daitezten.

— Harmonia! Eta nola jaten da hori?

— Liduvina..., Liduvina...

Makurtu egin zuen burua sukaldariak errieta goxo hura entzutean. Hala zuten ohitura elkarren artean.

— Bai; pianoa joko du, piano irakaslea baita, hain zuzen.

— Orduan ez du joko —gaineratu zuen tinko Liduvinak—. Bestela, zertarako ezkondu behar du?

— Nire Eugenia... —has zen Augusto.

— A! Eugenia izenekoa eta piano irakaslea? —galdetu zuen sukaldariak.

— Bai, zer bada?

— Izeba-osaba batzuekin bizi dena, Zumardi-ko ibilbidean, Tiburtzio jaunaren dendaren gainean?

— Hori bera. Ezagutzen al duzu, bada?

— Bai... bistaz...

— Ez; bada besterik, Liduvina, bada besterik. Tira, hitz egizu. Konturatu zaitetz zure nagusiaren etorkizuna eta zoriona daudela jokoan...

— Neska ona da, bai, neska ona...

— Tira, hitz egizu, Liduvina... nire ama zena-gatik!

— Gogoan izan haren aholkuak, jauna. Baina, nor dabil sukaldean? Baietz katua izan?

Eta zutitu eta atera egin zen neskamea.

— Bukatuko dugu, edo zer? —galdetu zuen Domingok.

— Egia, Domingo, ezin partida horrela utzi. Nor da ateratzen?

— Zu, jauna.

— Tira bada.

Eta galdu egin zuen, oraingoan ere, distraiturik aritzeagatik.

«Ene Jainkoa —zioen berekiko gelara bidean—, denek ezagutzen dute, nik izan ezik.

Horra maitasunaren obra. Eta bihar? Zer egingo dut bihar? Ba! Egunean egunekoa. Orain, ohera».

Eta ohean sartuta, honela jarraitu zuen: «Kontua da konturatu gabe aspertzen egon naitzela, bi urte luzez egon ere... nire ama ona hil zenez geroztik... Bai, bai, bada halako aspertze oharkabe bat. Gizon gehienak aspertzen gara oharkabean. Asperra da biziaren funtsa, eta asperrak asmatu ditu jokoak, denbora pasak, nobelak eta maitasuna. Biziaren lainoak aspergoxoa hedatzen du, likore gazi-goxoa. Eguneroko gertakari hutsal hauek guztiak, solasaldi goxo hauek guztiak, denbora pasa eta bizia luzatzearen egiten ditugunak, zer dira goxo-goxo asperetzea besterik? O, Eugenia, Eugenia nirea, nire biziko asper oharkabearen lore, lagun nazazu nire ametsetan, egizu amets nigan eta nirekin».

Eta loak hartu zuen.

V

Hodeiak zeharkatuz zihoan, arrano distiratsua, ihintzezko hegal indartsu perla kolorekoez, begi harrapariak eguzki-lainoan jarririk, bihotza asper gozoan ekaitzetan zaildutako bularraren babespean; inguruan, urrundik lurreko harrabotsek eragindako isiltasuna, eta han goian, zeru gailurrean, bi izar biki, baltsamo ikustezina zerie-la. Garrasi izugarri batek hautsi zuen isiltasuna: «La Correspondencia!» Eta egun argia ikusi zuen Augustok.

«Ametsetan ari naiz ala bizirik? —galdetu zuen burua mantaz estaliz—. Arrano naiz ala gizon? Zer ote dio paper horrek? Zer berri ekarriko ditu egun honek berekin? Lurrikararen batek irentsiko ote du Corcubion pasa den gau honetan? Eta zergatik ez Leipzig? O, ideien asoziazio lirikoa, desordena pindarikoa! Kaleidoskopio bat da mundua. Gizonak jartzen du logika. Zoria da arte gorena. Egin dezadan, bada, beste pixka batez lo». Eta alde batera egin zuen bira ohean.

«La Correspondencia»...! Ozipin saltzailea! Eta gero zaldi-kotxe bat, eta gero auto bat, eta gero haur batzuk. «Ezin! —esan zion berriro ere bere buruari Augustok—. Bizia da hori, berriro datorrena. Eta horrekin batera maitasuna... Eta zer da maitasuna? Ez al da horren guztiaren destilazioa? Ez al da asperraren zukua? Pentsa dezadan Eugeniaz, ordu aproposa da-eta horretarako».

Eta begiak itxi zituen Eugeniaz pentsatzeko. Pentsatu?

Deseginez, urtuz joan zitzaion, alabaina, pentsamendu hura, eta handik gutxira polka bilakatu, esku-piano bat gelditu baitzen bere gelako leihopean eta handik ateratzen baitzen soinu hura. Eta Augustok nota haiek durundatzen zuten bere buruan, ez zuen pentsatzen.

«Musikala da munduaren funtsa —esan zuen Augustok berekiko, pianotxo haren azken nota iraungi zenean—. Eta Eugenia nirea, ez al da musikala bera ere? Lege guztiak erritmoaren lege dira, eta erritmoa maitasuna da. Hona nola goiz jainkotiarrek, egunaren birjintasuna denak, zera deskubriarazten didan: maitasuna erritmoa

da. Erritmoaren zientzia matematikak dira; maitasunaren espresio sensiblea musika da. Haren espresioa, ez haren errealizazioa, esan dezagun argi».

Ate kolpetxo batek etenarazi zion.

— Aurrera!

— Deika, jauna? —esan zuen Domingok.

— Bai... gosaria!

Ohi baino gutxienez ordu eta erdi lehenago deitu zion konturatu ere egin gabe, eta behin deituz gero eskatu egin behar gosaria, ordua ez izan arren.

«Maitasunak gosea eragin eta aurreratu egiten du —jarraitu zuen Augustok berekiko—. Bizi egin behar da maitatzeko! Bai, eta maitatu egin behar da bizitzeko!»

Jaiki egin zen gosaltzera.

— Zer moduzko eguraldia dugu, Domingo?

— Beti bezalakoa, jauna.

— Horixe, ez ona ez txarra.

— Horixe!

Teoria hori zuen morroiak, hura ere ez baitzen nornahi.

Garbitu, orraztu, jantzi eta prestatu egin zen, bizian jadanik helburu bat baduenaren modura, bizitzeko barne grinaz beterik, baina malenkoniatsu halere.

Kalera irten zen, eta berehala ernarazi zuen bihotzak. «Egon —esan zion bere buruari—, ikusia nuen-eta, aspaldidanik ezagutzen nuen-eta; bai, haren irudia nire baitako dut ia! Ama maittea, babes nazazu!» Eta aldamenetik Eugenia pasa zitzaionean, elkar gurutzatu zirenean, sonbreiruarekin bainoago agurtu zuen begiekin.

Buelta ematekotan egon zen, atzetik jarraitzekotan, baina zentzuz jokatu zuen, atezainarekin hitz egiteko gogoia baitzuen gainera.

«Bera da, bera da —jarraitu zuen bere artean—, bera da, berbera, jakin gabe ere urte askotan bila ibili naizena; bera da nire bila ibili dena. Elkarrentzat izatekoak ginen aurretik ezarritako harmonian; bi monada gara, bata bestearen osagarri. Familia da gizartearen benetako zedula. Eta ni molekula bat baino ez naiz. Zein poetikoa den zientzia, alajainkoa! Ama, ama neurea, hona zure semea; emaidazu aholku zerutik! Eugenia, Eugenia neurea... !»

Alde guztietara begiratu zuen ea inork begiratzen ote zion, airea besarkatzen ari zela konturatu baitzen. Eta esan zuen: «Estasia da maitasuna; gure onetik ateratzen gaitu».

Margaritaren irribarreak errealitatera — errealitatera?— itzularazi zuen.

— Eta... ez al da berririk? —galdetu zion Augustok.

— Ezta batere, jauna. Oso goiz da oraindik.

— Ez al zizun ezer galdetu eman zenionean?

— Ezer ere ez.

— Eta gaur?

— Gaur bai. Zure helbidea eskatu dit, eta ea ezagutzen zaitudan, eta ea nor zaren. Ahaztu egin omen zitzaizun zure helbidea jartzea. Eta mandatu bat eman dit gero...

— Mandatu bat? Zer mandatu? Bota.

— Berriro etortzen bazinen, hitz emanda dagoela, senargaia baduela esateko agindu zidan.

— Baduela senargaia?

— Esan nizun nik, jauna.

— Ez dio axolarik! Borroka egingo dugu!

— Beno, egingo dugu bada borroka.

— Agintzen didazu lagunduko didazula, Margarita?

— Bai, noski.

— Irabazi egingo dugu, bada!

Eta joan egin zen. Zumardira joan zen, berdetasunari begira eta txoriei beren maitasunak kantatzen entzunez emozioak freskatzera. Berde bilakatzen zitzaion bihotza, eta kantuz ari zitzaizkion bihotz barnean haurtzaroko oroitzapen hegodunak, urretxindorrak bailiren.

Amaren oroitzapenen zerua nagusitzen zitzaion, gainerako oroigai guztietan sutargi urtu eta ezta isurtzen baitzuen.

Aitarekin ez zen ia akordatu ere egiten; han urrunean galtzen zitzaion itzal mitikoa zen, ilunabarreko hodei odoltsua. Odoltsua zeren, artean haur zelarik odoletan bustia ikusi baitzuen ok egite batean, eta hilotz itxurarekin. Eta bere bihotzean durundatzen zuen, hain urrundik etorrira ere, amaren «serre!» oihuak; ez baitzekien etxea urratu zuen oihu hura hiltzori zegoen aitari zuzendua zen ala berari, Augustori, heriotzaren misterioaren aurrean harri eta zur geldituari.

Handik gutxira, amak, atsekabez dardarka, bere altzoan besarkatu eta, ene seme!, ene seme!, ene seme! letania errepikatzen ziola, suzko malkotan bataiatu zuen. Negar egin zuen berak ere, amari lotzen zitzaiola eta taupadaka ar zen altzoko iluntasun goxo hartatik burua ateratzen ez begiratzen ausartzen ez zela, beldur baitzen ez ote zuen Mamuaren begi gosetiekin topo egingo.

Eta hala pasa ziren egunak, aieneka eta ilun, harik eta malkoak barnerantz joan eta etxea belztasunak argitzen has zen arte.

Etxe gozo-epela zen. Kortinatxoetan brodatutako lore txurien artetik sartzen zen argia. Beso zabalik zeuden butakak, kuttunki, urteen poderioz haur bilakaturiko agure bailiren. Han egoten zen beti hautsontzia, aitak erretako azken puruaren hauts eta guzti. Eta han, horman, bien erretratua, aita eta amarena, alargunarena ordurako, ezkondu ziren egunean berean egina. Aita, garaia baitzen, eserita, zango bat bestearen gainean gurutzatuta, botaren mingaina erakutsiz, eta ama, txikia baitzen, haren aldamean zutik eta eskua, heltzeko ez, baina usoak

bezala pausatzeko egina zirudien esku fin hura, senarraren sorbaldan jarrita.

Hara eta hona ibiltzen zen ama soinurik egin gabe, txoritxo bat bezala, beltzez jantzia beti, begi zelatariek bilduriko irribarrea beti ahoan, alargunaldiko lehen egunetako malkoen hondar. «Zuretzat bizi behar dut, zuretzat baino ez, Augusto», esaten zion gauez, oheratu aurretik.

Eta artean malkoz bustitako muxua eramaten zuen Augustok ametsetera.

Amets goxoan zihoakien bizia.

Gauez zer edo zer irakurtzen zion amak, santuaren bizitza batzuetan, Julio Vernereren nobelaren bat edo ipuin xalo eta sinpleren bat bestetan. Eta aldian behin barre ere egiten zuen, behialako malkoak gainditzen zituen barre isil eta gozoa.

Gero institutuan sartu zen, eta arratsetan amak galdetzen zizkion lezioak. Eta ikasteari ere ekin zion, galdetu ahal izateko. Historia unibertsaleko izen arraro haiek denak ikasi zituen, eta honela esaten zion irribarrez: «Zer astakeriak ez dituzten egin gizonek, Jainko maitea!» Matematika ikasi zuen, eta horretan agertu zen iaioen

emakume gozo hura. «Nire amak matematiken bidetik jarraitu izan balu..», esaten zuen Augustok berekiko. Eta gogoan zuen zein arreta handiz jarraitzen zion bigarren graduako ekuazio baten garapenari. Psikologia ere ikasi zuen, eta horixe egiten zitzaion zailen. «Hori da gauzak konplikatu nahia!», esan ohi zuen. Fisika eta kimika ikasi zituen eta baita naturaren historia ere. Naturaren historiatic ez zitzaizkion atsegin animalia eta landareei ematen zizkieten izen arraroak. Fisiologiak ikara ematen zion, eta uko egin zion semeari halako leziorik galdetzeari. Bihotza edo birrikak diren bezala erakusten zituzten laminak ikusi hutsarekin senarraren heriotza odoltsua etortzen zitzaion gogora.

«Arras itsusia da hori guztiori, seme —esaten zion—; ez medikutarako ikasi. Barrualdeko gauzak nola dauzkagun ez jakitea onena».

Augusto batxiler egin zenean, amak besoe-tan hartu, begiratu eta hala esan zion negar batean: «Aitak ikusiko bazintu!...» Gero magalean eserarazi zuen, lotsaturik, mutil handia baitzen ordurako, eta hala eduki zuen, isilik, bere senar zenaren hautsontziari begira.

Eta gero etorri ziren haren karrera, unibertsi-tateko lagunak eta ama gaixoaren malenkonia, semeak alde egingo ziola ikusten baitzuen. «Ni zuretzat, ni zuretzat! —esaten zion—, eta zu, auskalo beste norentzat!... Horrelakoxea da mundua, seme».

Zuzenbideko lizentzia jaso zuen egunean, etxera iritsi zenean, amak eskua hartu eta, barregarri gertatzen zen komeria eginez, musu eman zion, eta gero, besarkatu eta hala esan zion belarrira: «Aitak bedeinka zaitzala, seme!»

Ama ez zen inoiz oheratzen harik eta hura ohean sartu, musu eman eta bertan uzten zuen arte. Inoiz ez zuen, hortaz, gaupasarik egiteko aldarterik izan. Eta jaikitzerakoan ama ikusten zuen aurrena. Eta mahaian amak ez zuen jango Augustok jaten ez zuen hartatik.

Askotan ateratzen ziren elkarrekin paseatze-ra, eta hala joaten ziren, isilik, zerupean, amak senarra zena eta Augustok, berriz, begien aurretik pasatzen zitzaion aurreneko gauza gogoan. Eta amak beti gauza berak esaten zizkion, gauza arruntak, oso zaharrak eta ia beti berriak. Horie-

tako asko hala hasten ziren: «Ezkontzen zarenean..».

Haien aldamenetik neska galant edo politen bat pasatzen zen aldiero, betertzez begiratzen zion amak Augustori.

Eta heriotza etorri zen, heriotza geldo, larri eta gozoa, minik gabekoa, hanka puntetan eta txintik egin gabe sartu baitzen, pasoko hegazti baten gisan, eta hegaldi geldian eraman zuen ama, udazkeneko arrats batez.

Eskua semearen eskuan eta begiak semearen begietan jarrita hil zen. Eskua hozten ari zela, begiak ez hara ez hona gelditzen zirela sumatu zuen Augustok. Esku hotzean musu bero bat emanik, bertan behera erortzen utzi eta begiak itxi zizkion. Ohe alboan belaunikatu eta berdin-berdin joandako urte haietako historia pasa zitzaion gogotik.

Eta han zegoen, Zumardian, txorien txorrotxioak goian eta Eugenia gogoan. Eta Eugeniak bazuen senargaia. «Horrexen beldur naiz, seme —esan ohi zion amak—, zure biziko bidean topatuko duzun lehen arantzaren beldur». Nahi luke

hura hemen balego, lehen arantza hau arrosa bilakaraz lezan!

«Nire ama biziko balitz, aurkituko lioke irtenbidea honi —esan zuen Augustok berekiko—, ze, nolana ere, ez baita bigarren graduko ekuazio bat baino zailagoa. Eta, funtsean, horixe besterik ez da: bigarren graduko ekuazioa».

Halako intziri ahul batzuek, animalia eriren batenak nonbait, eten zioten bakarrizketa. Begiez arakatu eta azkenean, sastraka berde baten erdian, zakurkume gaixo bat aurkitu zuen, norabide bila zirudiena. «Gaixo txikia! —esan zuen berekiko—. Hiltzen utzi dute jaioberria; ez dute akatzeko adorerik izan».

Eta hartu egin zuen.

Amaren bular usainean zebilen animaliatxoa. Augusto zutitu eta etxera itzuli zen, berekiko hala zioela: «Eugeniak hau jakiterakoan, ederra kolpea nire arerioarentzat! Bai xarmanki maitatu behar duela animaliatxo gaixoa! Eta polita da, oso polita. Gaixo txikia, nola miazkatzen didan eskua!..».

— Ekarri esnea, Domingo, ekarri azkar gero!
—esan zion morroiari, hark atea ireki bezain pronto.

— Baina zakurra erostea bururatu al zaizu oraingoan, jauna?

— Ez dut erosi, Domingo; zakur hau ez da gatibua, librea baizik; aurkitu egin dut.

— Tira, abandonatua dela, alegia.

— Denok gara abandonatuak, Domingo. Ekarri esnea.

Ekarri zion esnea eta baita esponja txiki bat ere aiseago xurrua zezan. Gero bibiroi bat ekartzeko agindu zuen Augustok zakurtxoarentzat, Orfeorentzat, hala bataiatu baitzuen, ez jakin zergatik, ezta berak ere. Eta harrezkero Orfeok entzungo zituen leialki haren bakarrizketak, Eugeniarenganako maitasunaren sekretuak.

«Entzun, Orfeo —esaten zion isilka—, borroka egin behar diagu. Zer egin beharko nitek hire ustez? Nire amak ezagutu izan bahindu... Baina ikusiko duk, Eugeniaren altzoan lo egitean duanean, haren esku epel eta gozoaren azpian. Eta orain, zer egingo diagu, Orfeo?»

Malenkoniatsua izan zen egun hartako gosaria, malenkoniatsua paseoa, xake partida ere malenkoniatsua eta malenkoniatsua gau hartako ametsa.

VI

«Erabakiren bat hartu behar dut —zioen bere artean Augustok, Zumardiko ibilbideko 58. etxearen aurrean paseoan zebilela—; ez dago honela jarraitzerik».

Hori esan eta zabaldu egin zen Eugenia bizi zen bigarren pisuko balkoietako bat, eta andre zimel eta ile-zuri bat azaldu zen, eskuan kaiola bat zuela. Kanarioa eguzkitan jartzera zihoan. Baina, jartzera zihoala, iltzeak huts egin eta han erori zitzaion kaiola goitik behera. Oihu egin men andreak etsiturik: «Ai, ene Pitxin!». Korrika batean joan zen Augusto kaiola jasotzera. Hegaldaka zebilen barruan kanario gaixoa, izuturik.

Etxera igo zen Augusto, kaiolan batera eta bestera zebilen kanarioarekin eta arnasestuka. Zain zeukan andrea.

— O! Eskerrik asko, jauna!

— Eskerrak zuri, andrea.

— Ene Pitxin, ene Pitxintxo! Ea, lasaitu! Sartu nahi al duzu, jauna?

— Atsegin handiz, andrea.

Eta sartu egin zen Augusto.

Egongelara eramán zuen andreak eta esan: «Zaude pixka batean, nire Pitxin uztera noa eta».

Eta bakarrik utzi zuen. Orduan adineko gizon bat sartu zen egongelan, Eugeniaren osaba, dudarik gabe. Antiojo ilunak zituen begietan eta fez bat buruan. Augustorengana hurbildu, aldamenean eseri eta hitz hauek bota zizkion:

— (Esperantozko esaldi bat hemen, esan nahi baitu: Eta ez al duzu nik bezala uste bake unibertsa laster iristekoa dela esperantoari esker?)

Ihes egitea pentsatu zuen Augustok, baina Eugeniaganako maitasunak geldiarazi zuen. Besteak hizketan jarraitu zuen, esperantoz oraingoan ere. Ausartu zen Augusto azkenean.

— Ez dizut hitz bat bera ere ulertzen, jauna.

— Egingo nuke esperanto deitzen dioten mordoilo horretan ari zitzazula —esan zuen izeba sartu berriak. Eta jarraian esan zion senarrari—: Fermin, gizon hau da kanarioarena.

— Nik zuri esperantoz egiten dizudanean ulertzen didazun bezainbeste ulertzen dizut, bada, orain —erantzun zion senarrak.

— Gizon honek jaso du nire Pitxin gaixoa, kalera erori baitzait, eta ekarri egin dit jator asko. Eta zu —jarraitu zuen Augustorengana itzuliz—, nor zaitugu...?

— Augusto Perez naiz, andrea, Perez Roviraren alargun zenaren semea; ezagutuko zenuen akaso.

— Soledad andrearena?

— Hori da, Soledad andrearena.

— Bai horixe, ondo asko ezagutu nuen andre on hura. Alargun eta ama zintzoa izan zen. Zorionak, alde horretatik.

— Zorioneko ezbeharra, zuek ezagutzeko aukera eman didana.

— Zorionekoa? Zorionekoa deitzen diozu halako ezbeharrari?

— Niretzat bai.

— Eskerrik asko, jauna —esan zuen Fermin jaunak, eta gaineratu—: Gizonak eta beren gauzak gobernatzen dituzten legeak ulertezinak diren arren, antzeman diezaieke gizonak. Nik, jauna, neure ideiak dauzkat gauza gehienek gainean...

— Uztazu zure betiko lelo hori, gizona —esan zuen izebak ozenki—. Eta nolatan joan ahal izan zara hain azkar Pitxini laguntzera?

— Egia esango dizut, andrea, nire barrua hustuta. Etxe inguruan nenbilen.

— Etxe honen inguruan?

— Bai, andrea. Iloba zoragarria duzue.

— Ez gehiago esan, jauna. Ulertzen dut, bai, zorioneko ezbeharra. Eta bada kanario probidentzialik ere, ikusten dudanez.

— Nork ezagutzen ditu Probidentziaren bideak? —esan zuen Ferminnek.

— Nik, gizona, nik ezagutzen ditut —esan zuen andreak ozenki; eta Augustorengana itzuliz—: Zabalik dituzu etxe honetako atea... Bai horixe! Soledad andrearen semea... Hara nondik lagundu behar didazun gure neskatoari buruan sartu zaion apetatxo kentzen...

— Eta askatasuna? —esan zuen ahapeka Fermin jaunak.

— Zaude isilik, gizona, eta gorde zeuretzat zure anarkismoa.

— Anarkismoa? —galdetu zuen Augustok harrিতuta.

Bete-beteko poza erakusten zuen Fermin jaunaren aurpegiak, eta ahalik eta ahots gozoenaz esan zuen:

— Bai, jauna, anarkista nauzu ni, anarkista mistikoa, baina teoriaz, kontuz gero, teoriaz. Ez izan beldur, adiskidea —eta hori esaterakoan belaun gainean jarri zion eskua maitekiro—, ez dut bonbarik jaurtitzen. Espirituala baino ez da nire anarkismoa. Zeren nik, adiskidea, neure ideiak dauzkat gauza gehienen gainean...

— Eta zu, ez al zara anarkista zu ere? —galdetu zion Augustok izebari, zerbait esatearren.

— Ni? Burugabekeria da hori, inork ez agintze hori. Inork agintzen ez badu, nork obeditu behar du? Ez al duzu ikusten ezinezkoa dela hori?

— Fede gutxikoak zuek, ezinezko deitzen baitiozue... —has zen Fermin jauna.

Eta izebak berehala:

— Ondo, beraz, nire jaun Augusto, eginda dago tratua. Gizon bikaina zara nire irudiko, gizabidetsua, familia onekoa, errenta polita duena... Askiki, askiki, zu zara gaugerero nire hautagaia.

— Ohore handia da, andrea...

— Bai; zentzarazi beharra dago neskato hori. Ez da gaiztoa, badakizu, bai apetatsua ordea... Gainera, hain bigun hezi zuten!... Nire anaia gizajoaren kontu ikaragarri hura gertatu zenean...

— Kontu ikaragarria? —galdetu zuen Augustok.

— Bai, eta nornahik dakienez, ez dizut zertan ezkutatu. Eugeniaren aitak bere buruaz beste egin zuen burtsa operazio zoritxarreko baten ondoren eta hura ia miserian utzita. Etxe bat gelditu zitzaion, baina errenta guztiak jaten dizkion hipoteka batek zamatuta. Eta hipoteka kentzeko adina pilatu arte, lanean irabazten duenetik aurreratuz joaten lehiatu da neska gaixoa. Pentsa, ezta piano klaseak ematen hirurogeita hamar urtez arituta ere!

Hori entzun bezain pronto, eskuzabaltasun eta heroitasunezko ekintza bat egitea bururatu zitzaion Augustori.

— Ez da neska txarra —jarraitu zuen izebak—, baina hura ulertuko duenik ez da.

— Esperantoz ikasiko bazenute —hasi zen don Fermin.

— Emaiguzu bakea hizkuntza unibertsalekin. Lehen ere ez dugu elkar ulertzen dauzkagunekin, eta zera ekarri behar duzu beste bat...

— Baina ez al duzu uste, andrea —galdetuzion Augustok—, on litzatekeela hizkuntza bakar bat izatea?

— Hori, hori! —oihukatu zuen don Ferminek poz-pezik.

— Bai, jauna —esan zuen izebak tinko—; hizkuntza bakar bat: gaztelania, eta gehienez ere bablea, neskame zentzugabeekin mintzatzeko.

Asturiarra zen Eugeniaren izeba eta bazuen neskame bat, asturiarra hura ere, zeini bablez egiten baitzion errieta emateko.

— Dena dela, teorian baldin bada —jarraitu zuen—, ez zait gaizki iruditzen hizkuntza bakar bat izatea. Nire senar hau, teorian, ezkontzaren kontrako ere bada eta.

— Zera —esan zuen Augustok zutiturik—, molestutzen ari natzaizue beharbada...

— Zuk ez duzu sekula molestutzen, jauna —erantzun zion izebak—, eta hitz emanda zaude etxe honetara berriro itzultzeko. Badakizu, zu zara nire hautagaia.

Ateratzerakoan, don Fermin hurbildu zitzaion une batez eta esan: «Ken ezazu hori burutik!». «Zergatik, ordea?», galdetu zion Augustok. «Susmoak, gizona, susmoak...» Agurtzerakoan, hauexek izan ziren izebaren azken hitzak: «Badakizu, zu zara nire hautagaia».

Eugenia etxeratu zenean, honela esan zion izebak ikusi bezain pronto:

— Ba al dakin, Eugenia, nor izan den hemen? Augusto Perez jauna.

— Augusto Perez... Augusto Perez... A, bai! Eta nork ekarri du?

— Pitxinek, nire kanarioak.

— Eta zertara etorri da?

— A ze galdera! Hire atzetik.

— Nire atzetik eta kanarioak ekarrita? Ez dut, bada, ulertzen. Hobe esperantoz mintzatuko bazina, osaba Fermin bezala.

— Hire atzetik zebilen eta gizon gaztea dun, ez dun itsusia, dotorea dun, ondo ikasia, zintzoa, eta batez ere aberatsa, neska, aberatsa batez ere...

— Gorde ditzala, bada, bere diru guztiak, nik ez baitut nire burua saltzeko lan egiten.

— Eta nork aipatu din hi saltzeko konturik, bihurria halakoa?

— Tira, izeba, utz ditzagun bromak alde batera.

— Ikusiko dun, umea, ikusiko dun bera, eta aldatuko zaizkin ideiak.

— Hori...

— Ezin esan ur horretatik ez dut edango.

— Misteriotsuak dira Probidentziaren bideak!
—oihukatu zuen don Ferminetik—. Jainkoa...

— Baina, gizona —esan zion emazteak—, nola lotzen dira Jainkoa eta anarkismoa? Hamai-ka bider esana dizut. Inork agindu behar ez badu, nondik nora Jainkoa?

— Nire anarkismoa, beste hamaika bider entzun didazunez, mistikoa da, andrea, anarkismo mistikoa. Jainkoa bera ere anarkista da. Jainkoak ez du agintzen, baizik eta...

— Obeditu egiten du, ezta?

— Zerorrek esan duzu, andrea, zerorrek esan duzu. Jainkoak berak egin dizu argi. Bai, Jainkoak obeditu egiten du... obeditu...

— Bai, teorian, ezta? Eta hik, Eugenita, utzi alde batera txorakeriak, mauka ederra dun-eta aurrean.

— Anarkista naiz ni ere, izeba, baina ez osaba Fermin bezalakoa, ez mistikoa.

— Tira, ikusiko dinagu! —amaitu zuen izebak.

VII

«Ai, Orfeo!— zioen Augustok, etxean baitzen jadanik, zakurrari esnea ematen ziola—. Ai, Orfeo! Egin diat pauso handia, zirt ala zarteko pausoa: bere etxean sartu nauk, bere santutegian. Ba al dakik zer den zirt ala zarteko pausoa egitea? Zoriaren haize boladek egiten zigutek bultza eta zirt ala zartekoak dituk gure pausoak oro. Gureak? Gureak al dituk pauso horiek? Bidezidorrik gabeko oihan zakar eta nahaspilatsuan barna gabiltzak, Orfeo nirea. Geure oinez egiten diagu bidezidorra, galdu-gordean aurrera egin ahala. Izar bati darraiotelakoan zaudek batzuk; ni izar bikoitz bati, izar biki bati narraiolakoan nagok. Eta izar hori ez duk bidezidorrak zeruan duen errainua besterik, halabeharrean duen errainua bera.

Zirt ala zarteko pausoa! Eta esaidak, Orfeo, zer behar zagok Jainkorik, mundurik edo beste deusik ere izan dadin? Zergatik behar dik izan zerbaitek? Ez al zaik iruditzen beharraren ideia

hori ez dela halabeharrak gure adimenean hartzen duen forma gorena besterik?

Nondik sortua duk Eugenia? Nire sorkuntza duk hura ala ni harena? Edota batak bestea, nik hura eta hark ni, sortuak ote gaituk? Ez al duk oro gauza bakoitzak sortua eta gauza bakoitza orok sortua? Eta zer duk sorkuntza?, zer haiz hi, Orfeo?, zer nauk ni?

Askotan otu zaidak, Orfeo, ni ez nintzela, eta kalean zehar nindoalarik inork ez ninduela ikusten sartzen zitzaidaan buruan. Beste batzuetan amestu izan diat ez nindutela ikusten nik neure burua ikusten nuen bezala, eta ni behar bezala jantzita nindoalakoan, konturatu ere egin gabe, pailazoarena egiten ari nintzela eta besteak irri eta trufa ari zitzaizkidala. Ez al zaik inoiz horrelakorik gertatu, Orfeo? Ez, noski, hi gaztea haiz oraindik eta ez duk bizitzaren esperientziarik. Eta zakurra haiz, gainera.

Baina esaidak, Orfeo, ez al zaizue otuko halakoren batean zakurrei gizaseme zaretela uste izatea, hainbat gizasemek zakur zirela uste izan duten bezala?

A zer bizimodua, Orfeo, a zer bizimodua, ama hil zenetik batez ere! Aurrez joandako orduak bultzata heltzen zaidak ordu bakoitza; ez diat etorkizunik ezagutu. Eta etorkizunari antzematzen hasi naizeneko honetan, iragan bilakatuko zaidala iruditzen zaidak. Eugenia, oroitzapen duk kasik niretzat. Egun hauek... egun hau, betiereko egun hau... asperrezko lainotan labainduz igarotzen baita. Gaur atzo bezala, bihar gaur bezala. Ikustak, Orfeo, ikustak nire aitak hautsontzi hartan utzi zuen hautsa...

Horixe duk eternitatearen agerpena, Orfeo, eternitate ikaragarriarena. Gizonak, bakarrik gelditu eta etorkizunari, ametsari begiak ixten dizkionean, betierekotasunaren amildegi izugarria ikusten dik. Eternitatea ez duk etorkizun. Hiltzen garenean bira eragiten ziguk heriotzak gure orbitan eta atzerantz abiatzen gaituk, iraganerantz, izandakorantz. Eta horrela etengabe, gure patuaren mataza astalkatuz, eternitate batez egin gaituen infinito osoa deseginez, ezerezerantz goazela, bertara sekula heltzeke, inoiz ez baita izan.

Gure izatearen korrante horren azpitik, barrualdetik, baduk kontrako aldera doan beste korrante bat: horretan atzokotik gaurkora heldu gaituk, eta hartan biharkotik atzokora. Ehundu eta desehundu egiten duk aldi berean. Eta aldian behin halako hatsak, lurrinak eta are misteriozko zurrumurruak ere heltzen zaizkiguk beste mundu horretatik, gure munduaren barnealde horretatik. Historiaren erraiek kontrahistoria osatzen ditek, alderantzizko prozesuari jarraitzen diona. Azpiko ibaia itsasotik iturrira zoak.

Eta orain dir-dir egiten zidatek nire bakartasunaren zeruan Eugeniaren bi begiek. Nire amaren malkoen distiraz egiten zidatek dir-dir. Eta existitzen naizela sinestarazten zidatek, bai ilusio gozoa! *Amo ergo sum!* Maitasun hau, Orfeo, euri ongilea bezalakoa duk, bertan desegin eta gauzaten baita existentziaren lainoa. Maitasunari esker sumatu diat arima hanturik, ukitu egiten diat. Min ematen eta guzti hasi zaidak erdi-erdian arima, maitasunari esker, Orfeo. Eta arima bera, zer duk maitasuna besterik, gorpuztutako mina besterik?

Egunak joan, egunak etorri, bertan gelditzen duk maitasuna. Han barruan, barru-barruan, gauzen erraietan, elkar ukitu eta ureztatzen dituk mundu honetako korronteak eta beste munduko kontrako korronteak, eta elkar ukitze eta ureztatze horretatik heldu duk minik triste eta gozoena: bizitzea.

Begira, Orfeo, liztariak, begira irazkia, begira nola dabilen bilbea joan-etorrian tutaren bitartez, begira nola jostatzen diren primiderak; baina, esaidak, non zagok gure existentziaren ehuna biltzen duen subila?»

Orfeok sekula santan ehundegirik ikusi ez menez, nekez uler ziezaiokeen nagusiari. Baina mintzo zen bitartean begietara so eginez antzematen zion zer sentitzen zuen.

VIII

Dardarka ari zen Augusto eta oinazetokian jarrita bailegoen sentitzen zen eserlekuan; amorratzen zegoen zutitzeko, sala hartatik paseatzeko, airean eskutadak emateko, oihuak botatzeko, zirkoko erokeriak egiten hasteko, existitzen zela ahazteko. Ez doa Ermelinda, Eugeniaren izeba, ez don Fermin, haren senarra, anarkista teoriko eta mistikoa, ziren kapaz hura errealitatera itzularazteko.

— Bada, bai, nire ustez —zioen doa Ermelindak—, don Augusto, horixe izango dugu onena, itxarotea, honezkero heltzear izango baita; hots egingo diot, zuek elkar ikusi eta ezagutu, eta horixe izango da lehendabiziko pausoa. Elkar ezagutzetik hasi behar horrelako harremanetan, ezta?

— Bai, bai, andrea —esan zuen, beste mundu batetik hitz egingo balu bezala—, lehendabiziko pausoa elkar ikusi eta ezagutzea da...

— Eta, nire ustez, hark zu ezagutu bezain pronto, bada... argi dago gauza!

— Ez hain argi —esan zuen don Ferminek—. Probidentziaren bideak misterioitsuak izaten dira beti... Eta ezkondu aurretik elkar ezagutzea beharrezko edo komenigarri delako horrekin ez nator bat... ez nator bat... Ezagutza eraginkor bakarra post nuptias ezagutza da. Entzun izan didazu, emazte maitea, Bibliako hizkuntzan zer esan nahi duen ezagutu aditzak. Eta, sinets ieza-dazu, ez dago benetako eta funtsezko beste ezagupenik, ezagupen sarkorra izan ezik...

— Isildu zaitez, gizona, isildu; ez ezazu esan zentzugabekeriarik.

— Ezagupena, Ermelinda...

Ateko txirrinak jo zuen.

— Bera! —esan zuen osabak ozenki eta ahots misterioitsu.

Su bolada bat sentitu zuen Augustok, lurretik gora zetorkiona, burutik pasa eta han goian, bere buru gainean, galtzen zena. Mailukadak bailiren sentitu zituen bihotzaren taupadak.

Atea irekitzen entzun zen eta baita pauso azkar eta berdin batzuk ere, erritmikoak. Eta Augustok, ez jakin nolatan, atzera ere lasai zegoela sentitu zuen.

— Banoa bere bila —esan zuen don Ferminek eta altxatzeko keinua egin.

— Ez, inola ere ez! —esan zuen doa Ermelindak ozenki, bai eta jarraian dei egin ere.

Eta honela esan zion zerbitzariari heldu zenean:

— Esan Eugenia andereñoari etortzeko!

Eta ondoren, isilunea. Isilik eusten zioten hirurek, konplize bailiren. Eta Augustok berekiko: «Jasango al dut?, ez ote naiz mitxoleta bezain gorri edo filia bezain zuri jarriko bere begiek ate horretako hutsunea betetzen dutenean?, ez al zait lehertuko bihotza?»

Berbaro apal bat entzun zen, hegan egitera abiatzen den usoak egina iduri, a! motz eta lehor bat, eta Eugeniaren begiek, freskotasunez beteriko aurpegian eta lur gainean pisurik ez balu bezalako gorputzean ageri, halako argi espiritual eta misteriotsua eman zioten eszenari. Eta Augusto lasai sentitu zen, lasai oso, eserlekuan sartuta, bertan jaiotako landare bailitzan, bere buruarekin ahaztuta, begi haiek isurtzen zuten argi espiritual misteriotsuak txunditurik. Eta doa Ermelinda bere ilobari: «Hona gure lagun Augus-

to Perez jauna...» esaka hasi zitzaionean, orduantxe etorri zen bere onera: zutitu eta irri-barre egiten ahalegindu zen.

— Hona gure lagun Augusto Perez jauna, eza-gutu nahi zaituena...

— Kanarioarena? —galdetu zuen Eugeniak.

— Bai, kanarioarena, andereño —erantzun zuen Augustok, harengana hurbildu eta eskua luzatzen ziolarik.

Eta pentsatu zuen: «Erre egingo nau bere eskuarekin!»

Ez zen, ordea, horrelakorik gertatu. Esku zuri batek, elurra bezain zuri eta hotz batek, ukitu zion berea. Eta barne-barneraino sartzen sentitu zuen Augustok, baretasun isurkari gisako bat.

Eugenia eseri egin zen.

— Eta jaun hori... —hasi zen pianista.

«Jaun hori.. jaun hori... —pentsatu zuen Augustok berehala—; jaun hori! Jaun deitu dit! Seinale txarra!»

— Jaun hau, alaba maitea, zorioneko ezuste bati esker...

— Bai, kanarioari esker.

— Bai misterioitsuak Probidentziaren bideak!
—aldarrikatu zuen anarkistak.

— Jaun honek —jarraitu zuen izebak—, zorioneko ezuste bati esker ezagutu duguna, nik zer-bait ezagutu eta asko errespetatu nuen andre baten seme dena, jaun honek diot, dagoeneko etxeko lagun dugunez, ezagutu egin nahi izan zaitu, Eugenia.

— Eta miretsi! —gaineratu zuen Augustok.

— Miretsi? —esan zuen Eugeniak ozenki.

— Bai, pianista modura!

— A, banengoen ba ni!

— Badakit, andereño, zenbat maite duzun artea...

— Artea? Zein arte, musika?

— Jakina!

— Engainatu egin zaituzte, bada, don Augusto!

«Don Augusto! Don Augusto! —pentsatu zuen—. Don!... Bai seinale txarra don deitze hori! jaun deitze hura bezain txarra ia!» Eta gero ozenki:

— Ez al zaizu, bada, gustatzen musika?

— Ezta batere, benetan.

«Arrazoi du Liduvinak —pentsatu zuen Augustok—; honek, ezkondu eta mantenduko duen senarrik izanez gero, ez du atzera pianorik joko». Eta gero ozenki:

— Jendeak irakasle bikaina zarela dioenez...

— Nire eginbehar profesionala ahalik eta ondoen betetzen saiatzen naiz, eta bizi ahal izateko irabazi egin behar dudanez...

— Bizitzeko irabazi egin behar hori... —has zen don Fermin.

— Tira, aski da —eten zuen izebak—; denaren berri du dagoeneko don Augustok...

— Denaren berri? Zeren berri? —galdetu zuen Eugeniak latz eta altxatzeko keinu antzeko bat eginez.

— Bai, hipotekaren berri...

— Nola? —oihukatu zuen ilobak zutik jarrita—. Zer da hau, ordea? Zer esan nahi du honek guztiak, zein da bisita honen arrazoia?

— Esan dizut, iloba, jaun honek zu ezagutu nahi zintuela... Eta ez horrela haserretu...

— Badira gauza batzuk, ordea...

— Barkaiozu zure izebari, andereño —erregutu zion Augustok, bera ere, osaba-izebak bezala-

xe, zutik jarririk—; baina ez da besterik izan... Eta hipotekari eta zure abnegazioari eta lanarekiko maitasunari dagokienez, nik ez dut deus ere egin zure izebari hain berri interesgarriak ateratzeko, nik...

— Bai, zuk niri gutun bat bidali eta handik egun batzuetara kanarioa ekarri besterik ez duzu egin...

— Bai, bai, ez dizut ukatuko.

— Entzun, bada, jauna, gutun horren erantzuna nik nahi dudanean eta inork behartu gabe emango dizut. Eta orain hobe izango da erretiratzeko banaiz.

— Ondo, oso ondo! —oihukatu zuen don Ferminek—. Hori da sendotasuna, hori da askatasuna! Hauxe da etorkizuneko emakumea! Ekinaren ekinaz irabazi behar dira horrelako emakumeak, nire lagun Perez, ekinaren ekinaz!

— Andereño!... —erregutu zion Augustok harengana hurbiltzen zelarik.

— Arrazoi duzu —esan eta eskua eman zion Eugeniak agurtzeko, lehen bezain zuri eta hotza, elurra bezalakoa.

Ateratzeko buelta eman eta horrekin batera begi haiek, halako argi espiritual misteriotso baten sorburu ziren begi haiek desagertu zirenean, Augustok sentitu zuen su boladak gorputza zeharkatzen ziola, bihotzak bularrean mailuarenak bezalako taupadak ematen zizkiola eta burua lehertzeko zorian zuela.

— Ondoezik al zaude? —galdetu zion don Ferminek.

— Hau neskatoa, Jainko maitea, hau neskatoa! —oihukatzen zuen doa Ermelindak.

— Miresgarria! Bikaina! Heroikoa! Emakumea!, goitik beherako emakumea! —zioen Augustok.

— Horixe uste dut nik ere —gaineratu zuen osabak.

— Barkatu, don Augusto jauna —behin eta berriro izebak—, barkatu; triku txiki bat da neskato hau; nork esan behar zuen!

— Poz-pozik nago-eta, andrea, poz-pozik! Izaera sendo hori, menpekotasunik gabeko hori, horixe baitut gogokoen nik, horrelakorik ez dudan honek; hauxe da, hauxe, hauxe eta ez beste, nik behar dudan emakumea!

— Bai, Perez jauna; hauxe da etorkizuneko emakumea! —aldarrikatu zuen anarkistak.

— Eta ni? —esan zuen doa Ermenildak.

— Zu, iraganekoa! Hauxe da, bai, etorkizuneko emakumea! Jakina, ez baitira alferrik izan geroko gizarteaz eta etorkizuneko emakumeaz egunero-egunero entzun dizkidan mintzaldiak; ez baitizkiot alferrik buruan sartu anarkismoaren askatasun teoriak... bonbarik gabekoak!

— Ba nik —esan zuen umore txarrez izebak— neskato hau bonbak botatzeko kapaz ere badela esango nuke!

— Eta hala izanda ere... —erdiesan zuen Augustok.

— Hori ez! Hori ez! —esan zuen osabak.

— Eta zer axola dio?

— Don Augusto! Don Augusto!

— Nire ustez —gaineratu zuen izebak—, gertatu dena gertatu dela ere, ez duzu zertan amore eman zure nahiei dagokienez.

— Ez horixe! Are merezimendu handiagoa izango du horrela.

— Konkistatzer, bada! Eta badakizu zure alde gauzkazula eta nahi duzunean etor zaitezkeela etxe honetara, Eugeniak nahi izan ala ez.

— Baina, emakumea, hark ez du esan don Augusto hona etortzeak nahigabetzen duenik...! Ekinaren ekinaz irabazi behar da, adiskidea, ekinaz! Ezagutuko duzu pixkanaka, bai eta bere kemena ere. Goitik beherako emakumea duzu, don Augusto, eta ekinaren ekinaz irabazi beharrekoa, ekinaren ekinaz. Ez al zenuen ezagutu nahi?

— Bai, baina...

— Ulertzen dut, ulertzen dut. Ekin borrokari, hortaz, adiskidea!

— Egia, egia; eta orain, agur!

Bakarka egoteko deitu zion gero don Ferminek Augustori, eta esan:

— Ahaztu egin zait esatea Eugeniari idazterakoan bere izena jotaz jartzeko eta ez gez, Eugenia, eta del Arco, kaz: Eugenia Domingo del Arko.

— Zergatik?

— Zorioneko egun hori etorri arte, hau da, hizkuntza bakarra, gizadi osoarentzako hizkun-

tza bakarria, esperantoa izango denekoa, gaztelania ortografia fonetikoaz idatzi behar delako. Utikan c-ak! Gerra c-ari! Za, ze, zi, zo, zu zetaz, eta ka, ke, ki, ko, ku kaz. Eta utikan hatxeak! Zentzugabekeria da hatxea, erreakzioa, agintea, Erdi Aroa, atzerapena! Gerra hatxeari!

— Fonetista ere bazaitugu, hortaz?

— Ere? Zergatik ere?

— Anarkista eta esperantista ere bazara eta...

— Oro da bat, jauna, oro bat. Anarkismoa, esperantismoa, espiritismoa, begetarianismoa, fonetismoa... oro da bat! Gerra aginteari! Gerra hizkuntz banaketari! Gerra hatxeari! Agur!

Elkarri agur esan, eta kalera irten zen Augusto gainera zama astun bat kendu izan balu bezala eta pozik. Inoiz ez zukeen pentsatuko barrualdean halakorik sentituko zuenik. Geldirik eta hurbiletik lehenengoz elkar ikusi eta hitz egin zutenean Eugenia azaldu zeneko moduak, mindu beharrean, areago piztu eta animatzen zuen. Zabalagoa iruditzen zitzaion mundua, garbiagoa haizea, eta urdinagoa zerua. Lehendabizikoz arnasa hartuko balu bezala. Bere belarri

zuloetan amaren agindu hura zebilkiön: «Ezkon zaitez». Eder ikusten zituen bidean gurutzatzen zitzaizkion emakume gehienak, oso eder haietako asko eta itsusi bakar bat ere ez. Bazirudien, harrezkero, zero urdinaren haruntzaldean, haren itxurako bobeda atzean distiratzten zuten bi izar ikusteziñ handitatik zetorren argi misterioitsu berri batek argitzen ziola mundua. Mundua eza-gutzen hasi zen. Eta, konturatu orduko, pentsatzen hasi zen zernolako iturri sakona duen herri xehearen nahasketak, haragizko bekatua bate-tik, eta gure lehenbiziko gurasoek ongiaren eta gaizkiaren zientziaren zuhaitzeko fruitutik jan zutenean egin zuten hutsa bestetik.

Eta hausnarrean aritu zen don Ferminék eza-gutzaren sorrerari buruz adierazitako doktrinaz.

Etxera ailegatu eta Orfeo bila irten zitzaio-nean, besoetan hartu, laztandu eta honela esan zion: «Bizimodu berri bat hasi zaiguk gaur, Orfeo. Ez al duk sumatzen handiagoa dela mun-dua, garbiagoa haizea eta urdinagoa zerua?»

Ikusiko duk, bai, ikusiko duk, Orfeo!... Orduan sentituko duk zakur baino ez izatearen nahiga-

bea, neronek gizon baino ez izatearena sentitzen dudan bezalaxe. Eta esaidak,

Orfeo, nola ezagutu dezakezu bekatu egiten ez baduzue, zuen ezagutza bekatu ez bada? Bekatu ez den ezagutza ez duk halako ezagutza, ez duk arrazionala».

Bazkaria atera zionean, begira gelditu zitzaion Liduvina leiala.

— Zer begiratzen didazu? —galdetu zion Augustok.

— Zerbait aldatu dela esango nuke.

— Zer dela eta diozu hori?

— Bestelako aurpegia du jaunak.

— Hala uste duzu?

— Bai horixe. Eta?, ari al da konpontzen pianistarena?

— Liduvina! Liduvina!

— Arrazoi duzu, jauna; hainbeste interesatzen zait, ordea, zure zoriona!

— Ba al daki inork hori zer den?

— Egia.

Eta lurrera begira gelditu ziren biak, zorionaren sekretua lurrazpian bailegoen.

IX

Biharamunean gazte batekin hizketan ari zen Eugenia atezaindegi bateko gelatxoan, bitartean zaindaria, zuhur, etxe atarira irtena baitzen hai-zea hartzera.

— Bukatu egin behar dik honek, Mauricio — zioen Eugeniak; ezin diagu honela jarraitu, eta are gutxiago, aipatu diadanez, atzokoa gertatu eta gero.

— Ez dion, bada —esan zuen Mauricio izene-koak—, jarraitzaile hori zeruan bizi den gizajo bat dela?

— Bai, baina diruduna duk eta nire izebak ez naik bakean utziko. Eta, egia esan, ez zaidak gustatzen inori itsuskeriarik egitea, eta inor ni estutzen aritzerik ere ez diat nahi.

— Bidal ezan!

— Nondik? Nire osaba-izeben etxetik? Eta haiek nahi ez badute?

— Ez iezaion jaramonik egin.

— Ez zioat jaramonik egiten ez eta egiterik pentsatzen ere, baina gizajoak ni etxean naizen

orduan bisitatzera etortzeko ohitura hartuko duen susmoa diat. Eta, ulertuko duanez, ez nauk hasiko nire gelan sartu eta hark ni ikusterik nahi ez dudala eta horrela, eta nire atzetik ibiltzerik ez badu martiri isilarena egingo dik.

— Egin dezala.

— Ez; ezin diat jasan inolako eskalerik, eta are gutxiago begiekin eskatzen duten horietakok. Ikusiko bahu nolako begiak jartzen dizkidan!

— Hunkitu egiten hau?

— Nire onetik ateratzen naik. Eta, egia esan, zergatik ez diat bada esango? Hunkitu egiten naik, bai.

— Eta beldur haiz?

— Gizona, ez hadi kirtena izan! Ez nauk bate-re beldur. Bakarra haiz niretzat.

— Banekinan! —esan zuen sinetsita Mauricio, eta esku bat Eugeniaren belaunaren gainean jarri eta bertan utzi zuen jarrita.

— Erabaki egin behar duk, Mauricio.

— Zer erabaki, ordea, ene kuttuna?

— Zer izango duk bada, gizona, zer izango duk?

Behingoz elkarrekin ezkontzea!

— Eta nondik aterako dinagu bizitzeko?

— Nire lanetik, hik lanik aurkitu arte.

— Hire lanetik?

— Bai, musika gogaikarri horretatik!

— Hire lanetik? Ezta pentsatu ere!; sekula ere ez!, sekula ere ez!, sekula ere ez!; ni hire lanetik bizitzea ez beste zernahi! Bilatuko dinat, bila jarraituko dinat, eta bitartean, itxaron egingo dinagu...

— Itxaron..., itxaron..., horretantxe joango zaizkiguk urteak! —oihukatu zuen Eugeniak, Mauriciok eskua jarri zion belaunaren azpiko oinarekin takoi hotsa eginez.

Eta Mauriciok, esku astinaldia ikusirik, jarrita zuen lekutik kendu bai, baina aldi berean lepa-gainean ezarri zion besoa eta hatz artean andre-gaiaren belarritako batekin jostaketan hasi zen. Eugeniak utzi egiten zion jostatzen.

— Begira, Eugenia, nahi izanez gero, aurpegi ona jar diezaioken, libertitzearren, gizajo horri.

— Mauricio!

— Arrazoi dun; ez haserretu, laztana! —eta besoa bilduz, Eugeniaren burua berera erakarri, bere ezpaineekin harenak bilatu eta bat egin

zituen, begiak itxirik, musu heze, isil eta luze batean.

— Mauricio!

Eta begietan eman zion musu jarraian.

— Honek ezin dik honela jarraitu, Mauricio!

— Nola? Ba al dun, ordea, hau baino gauza hoberik? Orain baino hobeto ibiliko garela uste al dun?

— Esana diat, Mauricio, honek ez duela berdin jarraitzerik. Lana aurkitu behar duk. Gorroto zioat musikari.

Susmatu edo egiten zuen neska gaixoak, ez baitzen argi eta garbi konturatzen, betiereko prestakuntza dela musika, sekulan heltzen ez den etorrerarako prestakuntza, sekulan amaitzen ez den betiereko hastapen. Gogaiturik zegoen musikarekin.

— Lana bilatuko dinat, Eugenia, bilatu egingo dinat.

— Beti gauza bera diok eta beti gaudek berdin.

— Ez dun uste izango ordea...

— Jakin zakiat, baina, funtsean alfer hutsa haizela eta neronek bilatu beharko diadala lana.

Jakina, gizonezkoei gutxiago kostatzen baitzaizue itxarotea!

— Hori hik uste dun...

— Bai, bai; ondo zakiat zer diodan. Eta orain, berriro esango diat, ez ditiat ikusi nahi Augusto jaunak, zakur goseti baten moduan, jartzen dituen begi urrikgarri horiek...

— Horiek ditun ateraldiak, neska!

— Eta orain —gaineratu zuen zutitu eta bere eskuarekin harena gainetik kenduz—, hago geldi-geldirik eta hoa haizea hartzera, baduk eta premia!

— Eugenia! Eugenia! —esan zion belarrira, ahots idor eta ia suhar batez—. Hik gura bahu...

— Heuk ikasi behar duk gura izaten, Mauricio. Badakik hortaz... izan hadi gizon! Bila ezak lana, erabaki ezak azkar; bestela, neuk egingo diat lan; baina erabaki ezak azkar. Bestela...

— Bestela, zer?

— Ezer ez! Bukaera eman behar zaiok honi.

Eta erantzuten utzi gabe irten zen atezaindegiko gelatxotik. Atezainarekin gurutzatu zenean, honela esan zion:

— Hor gelditzen da zure iloba, Marta andrea, eta esaiozu erabaki dezala behingoz.

Eta burua tente irten zen Eugenia kalera, non esku-pianotxo bat polka zaratatsu bat jotzen ari baitzen. «Zer nazka! Zer nazka! Zer nazka!», esan zuen bere artean, eta joan ez, baina ihes egin zuen kalean behera.

X

Barrua hustu beharra zuenez, kasinorantz jo zuen Augustok, Victor lagun xaharra ikustera, Eugeniarenean izan eta hurrengo egunean, eta Eugenia atezaindegian bere senargaiaren gehiegizko patxadari eztenka ari zitzaion ordu berean.

Bestelako Augusto bat zela sentitzen zuen, bisitaldiak berak eta bisitaldi hartan emakume adoretsua —adorea baitzerien haren begiei— agertu izanak barrualdea irauli izan baliote bezala, barrualde horretan orduraino ezkutuan izandako iturri bat azalaraziz. Sendoago egiten zituen pausoak, askeago hartzen zuen arnasa.

«Badut helburu bat, badut xede bat bizi honetan —zioen berekiko—: neskato honi konkistatzea edota hark ni konkistatzea. Gauza bera baita. Maitasun kontuetan berdin dio garaile ala garaitua izatea. Baina ez..., ez! hemen garaitua izateak ni bestearengatik uztea esan nahi du. Bestearengatik, bai, hemen bai baitago beste bat, ez dut zalantzarik. Beste bat? Beste zer, ordea? Ni bat al naiz, bada? Ni jarraitzaile bat

naiz, galdetzaile bat, baina bestea..., bestea honezkero ez jarraitzaile ez galdetzaile delakoan nago; ez duela ez jarraitu ez galdatzen, lortua baitu jadanik. Eugenia goxoaren maitasuna besterik ez, halere. Besterik ez...?»

Freskotasuna, osasuna eta alegiantzia zerizkion emakume-gorputz bat pasa zitzaion albotik, bakarrizketa etenarazi eta haren atzetik erakarri zuena. Gorputz hari segika hasi zen, mekanikoki, aldi berean bakarrizketari emana:

«Bai ederra dela! Hau bezala hura, bata zein bestea. Eta nire lehiakidea, berak jarraitu eta galdatu beharrean, bera izango da jarraitu eta galdatua agian, agian ez dio Eugeniari merezi duen bezala erantzuten... Baina bai alai neskatu hori! Eta nolako graziarekin agur egin dion handik doan harako hari! Nondik atera ote ditu begi horiek? Besteak bezalakoak dira ia, Eugeniarenak bezalakoak! Gozoa izan behar du bere besoen artean bizi azal eta heriotzaz ahaztea! Beraietan kulunkatzen uztea haragizko olatuetan bezala! Beste hura...! Bestea ez da, ordea, Eugeniaren senargaia, ez da hark maite duena;

bestea neu naiz. Bai, neu naiz bestea; beste bat naiz ni!»

Beste bat zelako ondoriora iritsi zenean, etxe batean sartu zen aurretik zihoan neskatoa. Augusto geldi geratu zen etxeari begira. Eta orduantxe konturatu zen segika etorri zitzaiola. Pentsatzen gelditu eta, kasinora joateko irten zela akordatzean, harako bidea hartu zuen. Eta berdin jarraitu zuen:

«Zenbat emakume eder dagoen munduan, alajainkoa! Gehientsuenak. Eskerrak, Jauna, eskerrak: *gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam!* Zure loria emakumearen edertasuna da, Jauna! Hori da adatsa, ene Jainkoa, hori da adatsa!

Eta egia zen, adats bikaina zuen neskame hark, une hartan, saskia eskuan, bere aldamenetik igarotzen zenak. Buelta eman eta haren atzetik abiatu zen. Bazirudien urrezko adats haiek argiaren habia zirela eta adatsek ile-motots haietatik askatu eta aire fresko eta argian sakanbanatu nahi zutela. Eta adats azpian aurpegi bat, dena irribarre.

«Beste bat naiz, bestea naiz —jarraitu zuen Augustok saskidunari segika—; baina ez al dago beste neskarik? Bai, badago besterik bestearentzat! Baina nirea bezalakorik, bera bezalakorik, bakarra bezalakorik, bat ere ez! Bat ere ez! Hauek guztiak ez dira haren, bataren, bakararren, nire Eugenia goxoaren imitazio besterik! Nirea? Bai; neure egiten dut pentsamenduz, desioz. Gizon hura, bestea, alegia, materialki izango da haren jabe; baina begi haien argi espiritual misteriozua neurea da, neurea, neurea! Eta ez al dute urrezko adats hauek ere halako argi espiritual misteriozua bat islatzen? Eugenia bakarra da ala bi dira, nirea bata eta haren senargaiarena bestea? Hala bada, bi baldin badira, har beza hark berea, nik neurea hartuko dut eta. Tristeziak jotzen nauenean, gauez batez ere; zergatik jakin gabe negargura izaten naizenean, bai gozoa nire aurpegia, nire ahoa, nire begiak, urrezko adats horiekin estali eta haien artetik usain gozoz sartutako hatsa hartzea! Baina..».

Gelditu egin zela ohartu zen bat-batean. Saskiduna neska lagun batekin hizketan egitera gel-

ditu zen. Une batez duda-mudatan ibili eta esan zuen: «Ba!, hainbeste emakume eder dago Eugenia ezagutu nuenetik...» Eta han abiatu zen, atzera kasinoko bidea harturik.

«Beste gizon hori nahiago duela-eta setatzen bada Eugenia, kapaz naiz erabaki heroiko bat hartzeko, handia, ikaratzeko modukoa. Nolanahi ere, maite banau eta ez banau, hipotekaren kontuak ezin du horrela gelditu!»

Zeruko baretasunetik sortua zirudien bozkariozko irrintzi batek atera zuen bere bakarrizketatik. Irrika ari ziren bi neskato bere aldameanean, eta haien irriek bi txorik sasi tartean egindako txorrotxioak ziruditen. Eder-gosezko begirada bota zion une batez neskatila bikoteari, eta gorputz geminatu bakarra iruditu zitzaizkion. Besoz beso zihoazen. Eta amorratzen zegoen haiek geldiarazi, bakoitza beso batetik oratu eta hala abiatzeko, bien artean, zerura begira, biziaren haizeak nora eramango.

«Baina zenbat emakume eder Eugenia ezagutu nuenetik! —zioen berekiko irrika zihoan bikoteari segika—. Paradisua da hau! horiek dira begiak!, hori da adatsa!, hori da irria! Ile-horia

bata, beltzarana bestea; zein da, ordea, ile-horia? Zein beltzarana? Biak nahasten zaizkit!»

— To, esna hoa ala lo?

— Kaixo, Victor.

— Kasinoan espero hindudan, baina ez hintzen heltzen eta...

— Hara nindoaan.

— Hara? Eta hortik? Erotu haiz?

— Bai, arrazoi duk; baina aizak, egia esango diat. Aipatu nian Eugenia, nik uste.

— Pianista? Bai.

— Hara bada: zeharo maitemindurik naukak, zera bezala...

— Bai, maitemindu bat bezala. Segi.

— Txoraturik, motel, txoraturik. Atzo bere etxean ikusi nian, bere osaba-izebak ikusteko aitzakiatan joana nintzen eta; ikusi eta...

— Eta begiratu egin zian, ezta? Eta Jainkoagan sinetsi huen?

— Ez, begiratu soilik ez, baina bildu egin nindian bere begiradan; eta Jainkoagan sinetsi baino, jainko nintzela sinetsi nian.

— Gogor eragin dik, motel...

— Eta hori neskatoa haserre egonda gainera! Ez zakiat, alabaina, zer gertatzen zaidan harrezkero: ederrak iruditzen zaizkidak ikusten ditudan emakume gehienak, eta etxetik atera naizenetik, orain dela ordu erdi baino ez segur aski, hiru-rekin maitemindu nauk dagoeneko, ez, hago, laurekin; batekin, lehendabizi, dena begi baitzen; beste batekin gero, adats zoragarria baitzuen, eta arestian bikote batekin, ile-horia bata, beltzarana bestea, aingeruak bailiren egiten baitzuten irri. Eta laurei aritu natzaiek segika. Zer duk hau?

— Horrek esan nahik dik, Augusto maitea, hire maitasun iturria lotan zegoela hire arimaren sakonean, nora isuririk ez zuela; Eugeniak, pianistak, heldu eta astindu eta irabiatu egin zian begiekin hire maitasuna lotan zegoeneko putzua: esnatu duk, bertatik atera eta, hain handia denez, alde guztietara hedatzen duk. Hi bezalakoak, emakume batekin benetan maiteminduz gero, gainerako emakume guztiekin maitemintzen dituk aldi berean.

— Guztiz bestela izango zelakoan nengoan bada... Baina, hago pixka bat, begira beltzaran

horri! Gaueko argia duk! Belztasuna omen duk argia gehien xurgatzen duena, bai horixe! Ez al duk ikusten halako argi ezkutua sumatzen dela bere adats azpian, bere begien arbeltxaren azpian? Segi egin behar zioagu...

— Nahi baduk...

— Horixe bada, guztiz bestela izango zelakoa nengoan; gizasemea benetan maitemintzen denean, lehen emakume guztiengana barreiatua zuen maitasuna emakume bakar batengana biltzen zuela, eta gainerako guztiak hutsal eta baliogabeak iruditu behar zitzaizkiola... Baina begizak!, begizak nola jotzen dion eguzkiak adats beltz horretan!

— Ez; hago; saiatuko nauk azaltzen. Hi, jakin gabe, noski, emakumearekin hengoan maitemindurik, abstraktuarekin, ez honekin edo harekin; Eugenia ikusi huen eta abstraktua konkretu eta emakumea emakume bat bilakatu zuan, eta maitemindu egin hintzen harekin, eta orain harengandik, hura utzi gabe, ia emakume guztiengana hoa, eta multzoarekin, generoarekin maitemintzen haiz. Beraz, abstraktutik konkretura pasa haiz, eta konkretutik generikora, emaku-

mearengandik emakume batengana, eta emakume batengandik emakumeengana.

— Hori duk metafisika, hori!

— Eta zer duk maitasuna, metafisika besterik?

— To!

— Hiregan batez ere. Hire maitemindura erabat zerebrala baita, edota, esan ohi den bezala, burukoa.

— Hik uste duk hori... —oihukatu zuen Augustok mindu airez eta umore txarrez, bere maitemindura burukoa baino ez zelako hura barruraino sartu baitzitzaion, eta min eman.

— Eta asko estutzen banauk, hi heu ere ideia huts baino ez haizela esango diat, fikziozko izakia...

— Ez al nauk, besteak bezala, benetan maitemintzeko gai ikusten?

— Benetan hago maitemindurik, bai horixe, buruz besterik ez, ordea. Maitemindurik hagoela uste duk...

— Eta zer duk maitemindurik egotea hala hagoela uste izatea besterik?

— Ai, ai, ai, motel, hori hik uste baino korapilatsuagoa duk!...

— Esaidak, zertan antzematen zaiok bati maitemindurik dagoela eta ez soilik hala uste duela?

— Aizak, hobe hori utzi eta beste zerbaiten gainean mintzatzea.

Augusto atzera etxera itzuli zenean Orfeo besoetan hartu eta esan zion: «Ea, Orfeo nirea, zertan bereizten dituk maitemindurik egotea eta hala hagoela uste izatea? Eugeniarekin maitemindurik nagok ala ez? Hura ikusten dudanean ez al zaidak bihotza bularrean taupadaka hasten eta odola sutan jartzen? Ez ote nauk beste giza-semeak bezalakoa? Haiek adina banaizela erakutsi behar zieat, Orfeo!»

Eta afalorduan, Liduvinarekin aurrez aurre jarri eta galdetu zion:

— Esaidazu, Liduvina, zertan antzematen zaio gizonari benetan maitemindurik dagoela?

— Baina, horiek dira gauzak otutzen zaizkizunak, jauna!...

— Tira, esaidazu, zertan antzematen zaio?

— Bada, antzeman... txorakeria asko egin eta esaten dituenean, orduan antzematen zaio. Gizon bat benetan maitemintzen denean, emakume batekin txoratzen denean, nolabait esatearren, utzi egiten dio gizon izateari.

— Eta zer da orduan?

— Da..., da..., da..., gauza bat, aberetxo bat... Emakumeak nahi duena egin dezake berarekin.

— Orduan, emakume bat gizon batekin benetan maitemintzen denean, txoratzen denean, zuk diozun bezala, nahi bezala baliatzen al du gizonak hura ere?

— Ez da erabat berdin.

— Nola, nola?

— Zail da oso hori azaltzen, jauna. Baina, maiteminduta al zaude benetan?

— Horixe jakin nahian nabil. Baina txorakeriarik, handirik behintzat, ez dut bat ere esan edo egin oraindik..., nik uste...

Liduvina isildu egin zen, eta Augustok bereiki-ko: «Benetan maitemindurik ote nago?»

XI

Beste egun batean, Augustok don Fermin eta doa Ermelindarenean atea jo zuenean, egongelara pasarazi zuen neskameak eta esan: «Orain-txe deituko diet». Une batez bakarrik eta ezere-zean bailegoen gelditu zen. Bularrak barruraino estutzen zuela sumatu zuen. Ito beharrean zegoen punpezia hartan. Eseri eta altxa egin zen berehala hormetan zintzilik zeuden koadroak ikustera, eta haien artean Eugeniaren erretra-tua. Korrika hasteko, ihesi joateko gogoak eman zion. Pausotxo batzuk entzun zituen bat-batean eta labana batek bihotza erdibitzen ziola eta halako bruma batek burua estaltzen ziola senti-tu zuen. Egongelako atea zabaldu eta Eugenia agertu zen. Aulki baten atzealdeari heldu behar izan zion gizajoak. Hain zurbil ikusi zuenean, une batez zuritu eta aiko-maiko gelditu zen Eugenia gelaren erdian, eta gero berarengana hurbildu eta honela esan zion ahots idor bezain apalez:

— Zer duzu, don Augusto, ondoezik al zaude?

— Ez, ez da ezer; batek daki...

— Nahi duzu ezer? Behar duzu ezer?

— Baso bat ur.

Eugenia, zeri lotuko eta, irten egin zen egongelatik bera joateko baso bete uren bila, baita berehala ekarri ere. Ur txipristinak ateratzen ziren edontzitik: areagokoak, ordea, Augustok eskuetan dardarka hartu zuenean eta ahokada batean edan, arrapataka, ura bizarretik zeriola, hargatik begiak Eugeniarenetik kendu gabe.

— Nahi baduzu —esan zion Eugeniak— kamamila, edo tea edo tila egiteko esango diet... Zer, pasa al zaizu?

— Ez, ez, ez, ez da ezer izan; eskerrik asko, Eugenia, eskerrik asko —esan zion, bizarreko ura xukatzen zuela.

— Ongi, bada, orain eser zaitez —eta biak eserita zeudenean, hala jarraitu zuen —: Hauetako egunen batean espero zintudan eta emana nion agindua neskameari nire osaba-izebak etxean ez izanda ere, arratsalde batzuetan ez baitira etxean izaten, zu pasarazi eta niri abisu emateko. Nolanahi ere, zurekin bakarka hitz egin nahi nuen.

— O, Eugenia, Eugenia!

— Tira, ez zaitez berotu. Sekula ez nukeen esango hain gogor joko zizunik, beldurtu ere egin bainazu hona sartu zarenean; hilotza ematen zenuen.

— Hilda bainengoen bizirik bainoago, benetan esaten dizut.

— Argi hitz egin beharko dugu.

— Eugenia! —esan zuen goraki gizajoak, eta esku bat luzatu zuen, eta berehala atzera bildu.

— Ez dut uste oraindik adiskide gisa eta lasai hitz egiteko prest zaudenik. Ea, ikus dezagun! — eta eskua hartu zion pultsua neurtzeko.

Eta taupada bizian hasi zitzaion bihotza Augusto gizajoari: gorri jarri zen, sutan zuen kopeta. Joan egin zitzaizkion bistatik Eugeniaren begiak eta lainoa besterik ez zuen ikusi, laino gorria. Une batez konortea galduko zuela pentsatu zuen.

— Erruki zaitez, Eugenia, erruki zaitez nitaz!

— Lasai zaitez, don Augusto, lasai zaitez!

— Don Augusto..., don Augusto..., don..., don...

— Bai, nire don Augusto on hori, lasai zaitez eta hitz egin dezagun patxadaz.

— Baina, utzidazu... —eta esku tartean hartu zion eskubiko eskua, elurra bezain zuri eta hotza, hatzak mehe, pianoaren teklak ferekatze-ko eginak, arpejio goxoak sorrarazteko eginak.

— Hala nahi baduzu, don Augusto.

Esku hura ezpainetaratu eta musuz josi zuen, hoztasun xuri hura erdiepeltzea besterik lortu gabe, hala ere.

— Bukatzean, hizketan hasiko gara, don Augusto.

— Baina begira, Eugenia, zatoz...

— Ez, ez, ez, formal gero! —eta eskua Augustorenen artetik kendu eta jarraitu zuen—: Ez dakit zer-nolako esperantzak piztu dizkizuten nire osaba-izebek, edo izebak hobeki esan, baina engainatuta zabilzala esango nuke.

— Nola engainatuta?

— Bai, esan egin behar zizuten badudala senargaia.

— Badakit.

— Haiek esan al dizute?

— Ez, ez dit inork esan; baina badakit. — Hortaz...

— Nik ez dut, ordea, ezer nahi, Eugenia, ez nabil ezeren bila, ez dut ezer eskatzen; aski baitut, Eugenia, aldian behin hona etortzen uzten badidazu nire espiritua begi horien begiradan murgiltzera, zure hatsaren lurrinetan mozkortzera...

— Tira, don Augusto, liburuetako kontuak dira horiek; utz dezagun hori alde batera. Nik ez dizut eragotziko nahi adina bider etortzea, ni behin eta berriz ikustea, nirekin mintzatzea ez eta..., ikusi duzunez, niri eskua musukatzea ere, baina badut senargaia, maiteminduta nago berarekin, eta berarekin ezkontzekoa naiz.

— Baina, benetan al zaude harekin maitemindurik?

— Hori da galdera!

— Eta zertan sumatzen duzu maitemindurik zaudela?

— Erotu egin al zaizu, don Augusto?

— Ez, ez, nire lagunik onenak esan dit maitemindurik egon ez arren hala daudela uste dutela askok, eta horrexegatik esaten dizut.

— Eta zutaz ari zen orduan, ezta?

— Bai, nitaz ari zen, zer ba?

— Zure kasuan, egia baita, beharbada, hori...

— Zer uste duzu, ordea, Eugenia, ez nagoela zurekin benetan maitemindua?

— Ez ezazu hain gora hitz egin, don Augusto, entzun egingo dizu-eta neskameak...

— Bai, bai —gero eta suharrago—, bada uste duenik ez naizela gai benetan maitemintzeko!

— Barkaidazu pixka batean —eten zion Eugeniak eta gelatik irten, Augusto bakarrik utzirik.

Handik pixka batera itzuli zen eta hala esan zion lasai-lasai:

— Eta, zer, don Augusto, lasaitu al gara?

— Eugenia, Eugenia!

Ate joka ari zirela entzun zuten orduantxe, eta Eugeniak esan zuen:

— Osaba eta izeba!

Handik gutxira egongelan sartu ziren osaba-izebak.

— Bisita egitera etorri da don Augusto, neronek ireki diot atea; joan egin nahi zuen, baina sartzeko esan diot, laster etorriko zinetela, eta hemen dago!

— Egunen batean —esan zuen don Ferminek ozenki— gizarte-arauak oro galduko dira! Bete-

betean uste dut jabetza pribatuena hesi eta murrurak lapur omen direnak erakartzeko besterik ez direla, lapurrak besteak izanik, alegia, jabeak. Ez da jabetza seguruagorik, hesi eta murrurik gabe, denon eskuera dagoena baino. Gizona on jaiotzen da, ona da berez; gizarteak gaiztotzen du eta okertzen...

— Isil zaitez, gizona —esan zuen doa Ermelindak goraki—, ez didazu-eta kanarioaren kantua entzuten uzten! Ez duzu entzuten, don Augusto? Zoragarria da hari entzutea! Entzutekoa izaten zen, Eugeniak piano lezioak ikasten zituenean, garai hartan izan nuen kanarioa: asaldatu egiten zen, eta zenbat eta gehiago zanpatu piano teklak, orduan eta indartsuago ekiten zion kantuari. Eta halaxe hil zen, leher eginda...

— Abereei berei ere kutsatzen dizkiegu gure bizioak! —esan zuen osabak—. Gurekin bizi diren animaliak berak ere atera ditugu beren egoera naturaletik! O, gizadia, gizadia!

— Eta luzaroan itxaron behar izan al duzu, don Augusto? —galdegin zion izebak.

— Ez, ez, andrea; batere ez, batere ez, pixkatxo bat, jesus bat... Hala iruditu zait behintzat...

— A, eskerrak!

— Bai, izeba, oso denbora gutxi; bere onera etortzeko adina hala ere, ondoezik edo etorri baita kaletik...

— Nola?

— Ez, ez da ezer izan, andrea, ezer ere ez...

— Joan beharra daukat orain —esan zuen Eugeniak, eta Augustori eskua eman eta joan egin zen.

— Ta, zer moduz doa gauza? —galdetu Zion izebak Augustori Eugenia atera bezain pronto.

— Zer gauza?

— Konkista, gizona!

— Gaizki, gaizki oso! Esan dit baduela gizon-gaia eta harekin ezkonduko dela.

— Esan ez nizun, bada, Ermelinda?

— Bada, ez, ez eta ez!, ezin du izan. Gizongai horrekikoa ezinezkoa da, don Augusto, erokeria hutsa!

— Tira, andrea, eta harekin maiteminduta badago, zer?

— Horixe —esan zuen osabak goraki—, horixe. Askatasuna, askatasun santua, aukeratzeko askatasuna!

— Bada, ez, ez eta ez! Ba ote daki neskato horrek zertan ari den?... Zuri ezetz esatea, don Augusto, zuri ezetz esan! Horrek ezin du izan!

— Entzun, andrea, pentsa ezazu, egizu kontu..., ezin da, ez da Eugenia bezalako gazte baten nahia horrela bortxatu behar... Bere zoriona dago jokoan, horrek izan behar du gure ardurara bakarra, eta berak hori lortzeko geure buruari uko ere egin beharko genioke.

— Zuk, don Augusto, zuk?

— Nik, bai, nik, andrea! Prest nago neure buruari uko egiteko zure iloba Eugenia zoriontsu izan dadin, bera zoriontsu izatean baitatza nire zoriona!

— Hori da eta! —oihukatu zuen osabak—. Hori da! Hori da! Hona heroi bat! Hona anarkista bat... mistikoa!

— Anarkista? —esan zuen Augustok.

— Anarkista, bai. Horixe baita nire anarkismoa, horixe, bakoitzak besteengatik bere buruari uko egitea, besteak zoriontsu eginez norbera zoriontsu izatea, eta...

— Ederra jartzen zara, bada, lanegun buruzurrian zopa hamabiak baino hamar minutu beranduago ateratzen dizutenean!

— Bueno, badakizu, Ermelinda, nire anarkismoa teorikoa dela... Ahalegintzen naiz perfektiora iristen, baina...

— Eta teorikoa da zoriona ere! —oihukatu zuen don Augustok, nahigabeturik eta bere artean ariko balitz bezala, eta gero—: Eugeniaren zorionagatik neure buruari uko egitea erabaki dut eta ekintza heroiko bat egitea bururatu zait.

— Zer ekintza?

— Ez al zenidan esan behin batean, andrea, Eugeniari aita gizajoak utzitako etxea...

— Bai, nire anaia gizajoak utzitakoa.

— ... hipoteka baten zamapean dagoela eta hark jaten dizkiola irabazi guztiak?

— Bai, jauna.

— Ederki; badakit, hortaz, zer egin behar dudan! —eta aterantz abiatu zen.

— Baina, don Augusto...

— Erabakirik heroikoenak hartzeko eta sakrifiziorik handienak egiteko gauza sentitzen da

Augusto. Eta orain jakingo dugu bere maitemina burukoa baino ez den ala bihotzekoa ere baden, ea maitemindurik dagoela uste duen, maitemindurik ez egon arren. Eugeniak, jaun-andreok, bizira iratzarri nau, benetako bizira eta, nornahirena dela ere, betiereko esker ona zor diot. Eta orain, agur!

Eta atera egin zen handikiro. Eta irten bezain pronto, oihu egin zuen doa Ermelindak:

— Neska kaikua!

XII

— Arropa lisatua ekartzen duena etorri da, jauna —esan zion biharamunean Liduvinak Augustori.

— Arropa lisatua ekartzen duena? A, bai, sar dadila!

Sartu zen neskatoa, eskutan Augustoren arropa lisatuz betetako saskia zeramala. Elkarri begira gelditu ziren, eta neskato gaixoak, aurpegia berotzen zitzaiola sumatu zuen, sekula ez baitzion halakorik gertatu hainbat aldiz joandako etxe hartan. Bazirudien aurrekoetan jaunak ikusi ere ez zuela egiten, eta hori zela eta, neskatoa urduri ez ezik muturrez ere egoten zen, uste baitzuen pixka bat. Berari ez erreparatzea! Beste gizon batzuek bezala ez begiratzea! Begiez ez jatea, edo areago, begiez begiak eta ahoa eta aurpegi osoa ez milikatzea!

— Zer dun, Rosario?, horrela dun-eta izena, ezta?

— Bai, horrela dut izena.

— Eta, zer dun?

— Zer ba, Augusto jauna?

— Sekulan ez haut ikusi horrela gorritzen. Eta gainera beste bat haizela iruditzen zaidan.

— Esango nuke zeuk ematen duzula beste bat.

— Balitekek..., balitekek... Baina etorri, hurbil hadi.

— Tira, utz itzazu alde batera txantxak eta egin ditzagun kontuak!

— Txantxak? Txantxetakoa dela uste dun ala? —esan zion serioskiago—. Hurbil hadi, horrela, ongi ikusteko.

— Bestetan ez al nauzu, bada, ikusi?

— Ez, gaurdaino ez nindunan konturatu hain polita hintzenik...

— Tira, tira, jauna, ez burlarik egin... —eta sutan zuen aurpegia.

— Eta orain, kolore horiekin, eguzkiak bete-betea ematen dinala.

— Tira...

— Hator, hator hona. Augusto jauna burutik eginda dagoela esango dun, ezta? Ez, bada, ez dun hori, ez! Orain arte egon bainaiz burutik eginda edo, hobeki esanda, tentelduta, laino

batean galduta, itsu... Oso denbora gutxi dun begiak ireki zaizkidala. Pentsa, zenbat aldiz ez ote haizen etxe honetan sartu eta nik, begiratu arren, ez hindudan ikusten. Esango niken bizi ere ez naizela bizi izan, Rosarito, bazirudin ez naizela bizi izan... Tentelduta nengonan, tentelduta... Zer dun, baina, neskato, zer dun?

Rosaritok, aulki batean eseri behar izan baitzuen, aurpegia bi eskuez estali eta negarrari eman zion. Augusto zutitu eta atea itxi zuen; neskatoarengana itzuli, besagainean esku bat jarri eta honela esan zion ahalik eta ahots busti eta beroenaz, apal-apal:

— Zer dun, ordea, neskato, zer dun hori?

— Negar eragiten didazula kontu horiekin, don Augusto...

— Zeruko aingerua!

— Ez horrelakorik esan, don Augusto.

— Esango ez dinat, bada! Bai, itsututa bizi izan naun, tentelduta, biziko ez banintz bezala, harik eta emakume bat, ez dakin?, beste bat, iritsi eta begiak ireki dizkidan arte; harrezkero ikasi dinat mundua ikusten, eta batez ere zuek, emakumeak, ikusten...

— Baina emakume hori... emakume gaiztoa izango zen...

— Gaiztoa? Gaiztoa dion? Ba al dakin zer dionan, Rosario, ba al dakin zer dionan? Ba al dakin zer den gaiztoa izatea? Zer dun gaiztoa izatea? Ez, ez, ez; aingerua dun emakume hura, hi bezala; ez nain maite ordea..., ez nain maite..., ez nain maite... —eta hori esaterakoan ahotsa ahuldu eta begiak malkoz busti zitzaizkion.

— Don Augusto gizajoa!

— Bai, heuk esan dun, Rosario, heuk esan dun! Don Augusto gizajoa! Baina zera, Rosario, ken ezan don hori eta esan ezan: Augusto gizajoa. Tira, esan ezan: Augusto gizajoa!

— Baina jauna...

— Tira, esan ezan: Augusto gizajoa!

— Hala nahi baduzu..., Augusto gizajoa!

Eseri egin zen Augusto.

— Hator hona! —esan zion.

Salto batean altxa zen neskatoa, hipnotiko liluratu bat bezala, arnasestuka. Augustok heldu, magalean eserarazi, bularraren kontra gogotik estutu eta, neskatoak sutan zeukan masailari berea itsatsirik, honela has zitzaion bat-batean:

— Ai, Rosario, Rosario; ez zakinat zer pasatzen zaidan, ez zakinat zer dudan! Ezagutu ez arren gaiztotzat dunan emakume horrek ikusmena eman eta itsutu egin nain.

Ez nindunan bizi, eta orain bizi naun; bizi naitzeneko honetan sentitu dinat, ordea, hiltzea zer den. Nire burua babestu beharra zaukanat emakume horrengandik, bere begiradatik babestu beharra zaukanat. Lagunduko al didan, Rosario, beragandik babesten?

«Bai» apal-apal bat entzun zuen Augustok, beste mundu batetik xuxurlatu izan bailioten.

— Oraintxe ez zakinat zer gertatzen zaidan, Rosario, ez zer esaten dudan ere; ez zakinat honezkero emakume horrekin, gaiztotzat dunan emakume horrekin, maiteminduta nagoen...

— Baina nik, don Augusto...

— Augusto, Augusto...

— Baina nik, Augusto...

— Tira, isildu, aski da —eta begiak itxi zituen—; etzan deus ere esan, utzidan bakarrik hitz egiten, neure buruarekin. Horrelaxe bizi izan naun ama hil zitzaidanetik, neure baitan, neurekiko besterik ez; lotan, alegia. Eta ez dinat jakin

inorekin lo egitea zer den, bik amets berean lo egitea. Batera lo egitea! Ez nor bere ametsean elkarrekin lotan egotea, ez!, batera lo egitea baik, biek amets berean lo egitea! Eta hik eta biok, Rosario, amets berean lo egingo bagenu?

— Beste emakume hori ordea... —has zen neskato gajoa, Augustoren beso artean dardar eta intzirika.

— Emakume horrek ez nain maite, Rosario..., ez nain maite..., ez nain maite... Hark erakutsi zidan, ordea, badela emakume gehiago... hari esker jakin dinat emakume gehiago ere badela... eta baten batek maitatuko nain, baldin baitere... Maitatuko al naun hik, Rosario; esaidan, maitatuko al naun? —eta ero baten moduan estutzen zuen bularraren kontra.

— Baietz uste dut..., maitatuko zaitudala...

— Maitatuko haudala, Rosario, maitatuko haudala!

— Maitatuko haudala.

Bat-batean atea zabaldu zen eta Liduvina agertu. «A!» esan eta atzera itxi egin zuen. Rosario ez zen Augusto bezainbeste larritu, eta

azkar zutitu, adatsa txukundu, gorputza astindu eta honela esan zuen hitz etenka:

— Beraz, jauna, egingo al dugu kontua?

— Bai, hori da. Itzuliko haiz, ordea, e? Itzuliko haiz.

— Itzuliko naiz, bai.

— Eta barkatuko al didan? Barkatzen didan?

— Zer barkatu, ordea?

— Han, hau... erokeria izan dun. Barkatzen didan?

— Ez dizut zer barkaturik, jauna. Eta emakume hartaz ez pentsatu, horixe da egin behar duzuna.

— Eta hik, pentsatuko al dun nitaz?

— Tira, joan beharra daukat eta.

Kontuak egin eta joan egin zen Rosario. Hark alde egin bezain pronto Liduvina sartu zen:

— Ez al zenidan galdetu lehengoan, jauna, zertan antzematen zaion gizon bati maitemindurik dagoen ala ez?

— Bai..., bai.

— Eta txorakeriak egitean edo esatean eza gutzen dela erantzun nizun, ezta? Zalantzarik

gabe esango dizut, bada, oraingoan: maiteminduta zaude.

— Norekin, baina? Rosariorekin?

— Rosariorekin?... Bai zera! Bestearekin!

— Eta nondik nora diozu hori, Liduvina?

— Ba! Besteari esan eta egin ezin zenizkionak esan eta egin dizkiozu honi.

— Baina, ez duzu usteko ba...?

— Ez, ez, ez dut esan nahi handiagorik gertatu denik, baina...

— Liduvina! Liduvina!

— Zuk nahi bezala, jauna.

Ohera joan zen, burua sutan zuela. Eta ohe ganean etzan zenean, honela hasi zitzaion ohe ondoan lo egiten zion Orfeori:

«Ai, Orfeo, Orfeo, bakarrik, bakarrik, bakarrik, amets bakarrean lo egite hau! Bat bakararren lotako ametsa ilusioa duk, itxura; biren lotako ametsa, berriz, egia duk, errealitatea. Zer duk benetako mundua, denok amesten duguna besterik, amets komuna besterik?»

Eta loak hartu zuen.

XIII

Handik egun gutxiren buruan, goiz batez, Liduvina Augustoren gelan sartu eta esan zion atean andereño bat zegoela Augusto etxean zenez galdezka.

— Andereño bat?

— Bai, bera, pianista.

— Eugenia?

— Eugenia, bai. Bistan da ez zarela erotu den bakarra. Dardarka has zen Augusto gizajoa. Gati-bu ikusten zuen bere burua. Zutitu, arin-arin gar-bitu, jantzi eta han joan zen edozertarako prest.

— Badakit, don Augusto jauna —esan zion Eugeniak ikusi bezain pronto—, zeure egin duzula nire akreedorearekin dudan zorra, zure gain hartu duzula nire etxearen hipoteka.

— Ez dizut ukatuko.

— Zer eskubide duzu hori egiteko?

— Herritar guztiek dute eskubidea, andereño, jabeak saldu nahi izanez gero edozer gauza erosteko.

— Ez dut hori esan nahi, baizik eta zertarako erosi duzun.

— Pena ematen zidalako zu horrelako gizon baten menpe ikusteak, bost axola zatzaizkiona beharbada eta trafikatzaile bihotz-gogor bat besterik iruditu ez zaidana.

— Eta, zuri ez natzaizunez bost axola, zure menpeko izatea nahi duzu, ezta?

— Ez, horrelakorik ez, sekula ez! Sekula ez, Eugenia, sekula ez! Nik ez dut nahi zu nire menpeko izaterik. Min egiten didazu horrelakorik pentsatze hutsarekin. Ikusiko duzu —bakarrik utzi eta atera egin zen zeharo asaldaturik.

Handik gutxira itzuli zen paper batzuekin.

— Hona, Eugenia, zure zorra egiaztatzen duten dokumentuak. Har itzazu eta egin ezazu nahi duzuna.

— Nola?

— Bai, uko egiten diodala denari. Horretarako erosi nuen.

— Banekien bai nik, eta horrexegatik esan dizut ni zure menpeko izatea besterik ez duzula nahi. Esker onaren bidez lotu nahi nauzu. Erosi egin nahi nauzu!

— Eugenia! Eugenia!

— Bai, erosi egin nahi nauzu, erosi; zuk erosi nahi duzuna... ez da nire maitasuna, hori ez baita erosten, nire gorputza baizik!

— Eugenia! Eugenia!

— Hori, zuk sinetsi ala ez, zitalkeria da, zitalkeria hutsa!

— Eugenia, Jainkoarren, Eugenia!

— Ez zakizkit gehiago hurbildu, edozertako kapaz naiz eta!

— Hara, bada, hurbildu egingo natzaizu. Jo nazazu, Eugenia, jo nazazu; irain nazazu, egidazu tu, egidazu nahi duzuna!

— Ez duzu ezer merezi —eta zutitu egin zen Eugenia—; banoa, baina ez ezazu ahaztu ez dudala onartzen zure limosna edo eskaintza hori! Inoiz ez bezala lan egingo dut; lan eginaraziko diot nire senargaiari, laster nire senarrazango denari, eta konponduko gara bizitzeko. Eta etxeari dagokionez, zuretzako.

— Nik ez dizut, ordea, eragozpenik jarriko delako senargai horrekin ezkontzeko!

— Nola? Nola? Zer da hori?

— Hori ez baitut egin zuk, esker onez, senartzat har nazazun!... Uko egiten baitiot nire zorionari, hobeto esanda, nire zoriona zu, nahi duzun senarrarekin, zorientsu izatea baita!...

— Orain konturatzen naiz, bai; zuk biktima heroikoarena egin nahi duzu, martiriarena! Esana dizut: zuretzako etxea. Erregalatu egiten dizut.

— Baina Eugenia, Eugenia...

— Aski da!

Eta begirada aldendurik, galdu egin ziren suzko bi begi haiek.

Une batez beste mundu batean bailegoen gelditu zen Augusto, existitzen zenik ere konturatu gabe, eta biltzen zuen nahasmenduzko lainoa astindu zuenean, sonbreroa hartu eta kanpora irten zen kalerik kale ibiltzera. San Martin izeneko eliza baten ondotik pasa zenean, barrura sartu zen, zertan ari zen konturatu ere egin gabe. Sartu zenean aldare nagusiaren aurreko lanparatxoa erdi itzaliaren distira ahula besterik ez zuen ikusi. Iluntasun usaina, zahar usaina sumatu zuen, intsentsutan lurrindutako tradizio usaina, mendetako etxearena, eta banku batean

esertzera joan zen itsumustuan. Eseri bainoago gorputzari bertan erortzen utzi zion. Nekatuta sentitzen zen, izugarri nekatuta eta arnasten zuen iluntasun hura guztia, zahar usain hura guztia bihotza estutzen ariko bailitzaion. Urrundik, oso urrundik zetorrela zirudien xuxurlaketa baten artetik ez tul neurtu bat entzun zitekeen tarteka. Ama etorri zitzaion gogora.

Begiak itxi eta amets egin zuen berriro harako etxe goxo eta epel harekin, nola sartzen zen argia leihoko errezeletan brodaturiko lore xurien artetik! Berriro ikusi zuen ama, hara eta hona zaratarik egin gabe, beltzez jantzia beti, malko hondar zen irribarre hura zuela. Eta seme zeneko bizitza hura etorri zitzaion akordura, amaren baitan eta babespean bizi zenekoa, eta baita emakume gaixo haren heriotza geldo, benazko, ezti eta minik gabekoa ere, hotsik atera gabe hegan hasten den pasoko txoria bezala joan baitzen. Gero Orfeoren aurkikuntza gogoratu edo berramestu zuen, eta handik gutxira halako egoera espiritual batean murgildu zen, non bere aurretik, zinematografoz, ikuskaririk harrigarrienak pasatzen zitzaizkion.

Gizon bat zeukan aldamenean, xuxurlaka otoitzean. Zutitu egin zen gizona kanpora ateratzeko eta jarraitu egin zion. Eliz atarian gizon hark eskuineko hatz luzea eta bizkorra pontean sartu, Augustori ur bedeinkatua eskaini eta aitarren egin zuen. Batera suertatu ziren kanpoko burdin hesian.

— Don Avito! —esan zuen Augustok ozenki.

— Neu nauk, Augustito, neu nauk!

— Zu hemendik?

— Ni hemendik, bai; asko erakusten dik bizi-tzak, eta are gehiago heriotzak; zientziak baino gehiago, askoz ere gehiago erakusten ditek.

— Non da, ordea, jenio izan behar zuena?

Don Avito Carrascalek bere semearen gertaera negargarria kontatu zion. Eta honda esan zuen bukaeran:

— Horra, Augustito, nondik nora etorri naizen hona...

Lurrari begira zihoan Augusto, ezer esan gabe. Zumardian barna zihoazen.

— Bai, Augusto, bai —jarraitu zuen don Avitok—; bizitza bera duk bizitzako maisu bakarra; ez zagok beste pedagogiarik. Biziz baino ez duk

bizitzen ikasten, eta gizon bakoitzari zagokiok bizitzen berriro ikasten hastea...

— Eta belaunaldien lana, don Avito, gizaldien ekarpena?

— Bi ekarpen besterik ez zagok: ilusioena eta etsipenena, eta horiek biak orain dela gutxi topo egin dugun tokian baino ez daitezkeek aurkitu: elizan. Egingo nitek ilusio handiren batek edo etsipen handiren batek eraman hauela hara.

— Bi gauzek.

— Bi gauzek, bai, jakina. Ilusioak, itxaropenak, etsipena sortzen baitu, oroitzapena; eta etsipenak, oroitzapenak, berriz, ilusioa, itxaropena. Zientzia errealitatea duk, oraina duk, Augusto maitea, eta, honezkero, nik ezin diat inolaz ere oraingo ezertatik bizi. Nire Apolodoro giza-joa, nire biktima —zioen negar ahotsez—, hil zenetik, bere buruaz beste egin zuenetik, ez duk orain posiblerik, ez duk ez zientzia ez errealitate-rik niri balioko didanik; harekin oroitzuz edo haren zain baino ez naitekeek bizi. Eta ilusioak eta etsipenak oro biltzen dituen etxe horretara joan nauk: elizara!

— Fededun al zara, hortaz, orain?

— Neronek ba al zakiat, bada!

— Baina ez al duzu sinesten?

— Ez zakiat sinisten dudan ala ez; errezatu egiten dudala, horixe zakiat. Eta ez zakiat ondo zer errezatzen dudan. Taldetxo bat biltzen gaituk han, ilunabarrean, errosarioa errezatzeko. Ez zakiat nor diren, haiek ere ez naitek ezagutzen, baina halako elkartasun bat sentitzen diagu gure artean, elkarrekiko komunio estuan egoten gaituk. Gizadiak jenioak zer arraiotako behar ote dituen pentsatzen diat orain.

— Eta emaztea, don Avito?

— A, emaztea! —esan zuen Carrascalek, eta bazirudien begi batean azaldu zitzaion malkoak barne argitasuna eman ziola—. Nire emaztea! Orain deskubritu diat! Ezbehar izugarri hura gertatu arte ez diat jakin nor neukan aldamenean. Orduan sartu ninduan, bai, beste inoiz ez bezala, bizitzaren misterioan, nire Apolodorok bere buruaz beste egin eta hurrengo gau izugarri haietan, etengabeko negarrari emanik, nire burua haren magalean, amarenean, etzaten nuenean. Eta hark, eskua burutik goxo-goxo pasatzen zidala, esaten zidaan: «Gaixo seme

nirea, gaixo seme nirea!» Sekulan, sekulan ez duk orain baino amago izan. Sekulan ez nian uste izango, hura ama egin nuenean, eta nola, jenioaren lehengaia eman ziezadan besterik gabe..., sekulan ez nian uste izango hura ama egin nuenean, egunen batean nik ere hura amatzat hartu beharra izango nuenik. Nirea ez bainuen ezagutu, Augusto, ez nian ezagutu; nik ez diat amarik izan, ez diat jakin ama edukitzea zer den, emazteak bere eta bion semea galtzearekin bere burua nire amatzat ikusi duen arte. Hik ezagutu huen hirea, Augusto, doa Soledad andre aparta; bestela, ezkontzeko esango niake.

— Ezagutu nuen, bai, don Avito, bai eta galdu ere, eta horretantxe ari nintzen han, elizan, harekin akordatzen...

— Bada, berriro amarik eduki nahi baduk, ezkondu hadi, Augusto, ezkondu!

— Ez, nire ama hura ez, nire ama hura ez dut berriro izango.

— Egia duk hori, baina ezkondu hadi!

— Nola, ordea? —esan zion Augustok irribarre bortxatu batez eta don Avitoren doktrinetako

batetik entzundakoa gogoratzuz—. Nola? Deduktiboki ala induktiboki?

— Utz itzak alde batera orain kontu horiek, Augusto, ez iezadak tragediarik gogorarazi, Jainkoarren! Baina..., tira, hire umoreari jarraitzearren, ezkondu hadi intuitiboki!

— Eta maite dudan emakumeak maite ez banau?

— Ezkondu hadi maite hauen emakumearekin, nahiz eta hik hura ez maite izan. Hobe duk norberaren maitasuna bestek konkistatzeko ezkontzea, norberak besterena konkistatzeko baino. Bila ezak maite hauen bat.

Neskato arropa lisatzailearen irudia pasa zitzaion Augustori tximista bezala. Sinetsita baitzegoen gajo hura berarekin maiteminduta gelditu zela.

Gero don Avito jaunari agur esan eta kasinorantz abiatu zen Augusto. Xake partida bat egin nahi zuen Victorrekin, buruko eta bihotzeko lainoa astintzearren.

XIV

Bere lagun Victorri ohiz kanpoko zerbait gertatzen zitzaiola ohartu zen Augusto; ez zuen jokaldi bat bera ere zuzen egiten; gogorik gabe ari zen eta mutu.

— Victor, hik baduk zer edo zer...

— Bai, motel bai, badiat zerbait eta larria gainera. Eta barrua hustu beharrean nagoenez, goazemak kanpora; gaua ederra zagok oso; kon-tatuko diat.

Victor, Augustoren adiskide minena izanik ere, bospasei une zaharragoa zen eta hamabi urtetik gora zeramatzan ezkontuta, oso gazterik ezkondu baitzen, kontzientziak hala aginduta, omen. Ez zuen seme-alabarik.

Behin kalean zeudela, honela hasi zen Victor:

— Badakik, Augusto, oso gazterik ezkondu behar izan nuela...

— Ezkondu beharra izan al huen, bada?

— Bai, tira, ez ezak ezjakinarena egin, zurrumuruak denengana iristen dituk eta. Gurasoek ezkontarazi gintiztean, nireek eta Elenaren gura-

soek, artean gaztetxo ginela. Eta senar-emazte izate hori jolasa izan zuan guretzat. Senar-emaztetara jolasten gintuan. Ustela izan zuan, ordea, alarma hura.

— Zer alarma izan zuan ustel?

— Gu ezkontarazteko arrazoia, hain zuzen ere. Gure gurasoen lotseria. Gure halako irrist egite baten berri izan zitean, halako eskandalu puntua ere eduki zuena, eta hark zer ondorio ekarriko zituan, edota ondoriorik ekarri ere egingo ote zuen jakin aurretik, ezkontarazi egin gintiztean.

— Ondo egina.

— Ez zakiat, bada. Ze, kontua duk, irristada hark ez zuela ondoriorik ekarri, ez eta ezkondu ondorengo beste irrist egiteek ere.

— Irrist egiteak?

— Bai, irrist egiteak zituan gureak. Irrist egiten genian. Esana diat senar-emazte izatera jolasten ginela...

— Gizona!

— Ez, ez hadi hain maltzurra izan. Gazteegiak gintuan eta gaituk oraindik gaiztotzeko. Burutik pasa ere ez zitzaiguan egiten familiarik osatze-

rik. Bi gaztetxo gintuan, elkarrekin bizi eta senar-emazte bizitza delakoa generamanak. Baina pasa zuan urtebete, eta fruiturik ez zeto-rrera ikusirik, elkarri muturra jartzen has gintuan, zeharka begiratzen, ezer esan gabe elkar gaitzesten. Ezin nian eraman aita ez izatea. Gizona ninduan jadaneko, beteak nitian hogeita bat urte, eta, egia esan, ni besteak baino gutxiago izatea, lehendabiziko semea ezkondu eta bederatzi hilabeteren buruan, lehenago ez bada, ekartzen duen edozein babalore baino gutxiago izate hura..., ezin nian halakorik onartu.

— Baina, motel, zer erru...?

— Eta, jakina, nik, esaten ez banion ere, berari egozten nioan errua. «Emakume han antzua duk», pentsatzen nian, «eta lotsagarri uzten naik». Eta berak, berriz, niri egozten zidaan errua, noski, eta susmoak ere bazitian, zer esango diat, bada...

— Zer?

— Ezer ez, urteak joan urteak etorri bikoteak haurrik ez duenean, erruduna senarra dela pentsatu ohi duela emazteak, ezkondu zirenerako ez zegoela sano, edozein gaitzek jota ezkondu

zela... Kontua duk bata bestearen etsai eginda geundela; deabrua etxean sartuta geneukala. Eta azkenean deabrua oldarrez piztu eta han etorri zituan elkarri errieta egiteak, «zuk ez duzu balio», «zu zara balio ez duzuna» eta gainerako guztiak.

— Horregatik ibili ote hintzen aldi batez, ezkondu eta bizpahiru urtetara, hain eri, hain kezkatu, hain neurasteniko? Sendaetxe hartara bakarrik joan behar izan huenean?

— Ez, ez zuan horregatik izan... Zerbait txarragoagatik izan zuan.

Isilunea gertatu zen. Victor lurrera begira zegoen.

— Ongi da, gorde ezak hiretzat; ez diat sekreturik hondatu nahi.

— Tira, esan egingo diat! Nire emazte gaixoren eta bion arteko mokokaldi haiek zirela-eta sumindurik, halako batean pentsatu nian, hura ez zela intentsitate edo dena delako arazoa, maiztasun arazoa baizik. Entenditzen didak?

— Bai, entenditzen diat, nik uste...

— Eta neurririk gabe jateari eman nioan, eta ustez gauzarik mamitsu eta mardulenak, klase

guztietako espeziez ondo gozatuak, afrodisiako-
enak omen diren horietakoez bereziki. Jateari,
eta emaztearekin ahalik eta maizenik al itzeari.
Eta, jakina...

— Gaixotu egin hintzen.

Bai, horixe! Eta garaiz eten izan ez banu eta
atzera zentzatu izan ez bagina, beste mundura
joango ninduan zuzen-zuzenean. Sendatu egin
ninduan, ordea, bi aldetatik sendatu gainera:
atzera emaztearengana itzuli ninduan, eta lasai-
tu eta etsi egin genian biok. Eta gutxika-gutxika
bakea ez ezik, zoriona ere nagusitu zuan etxean.
Bizimodu berri haren hasieran, ezkondu ginene-
tik lauzpabost urtetara, dolutu egiten zitzaiguan
tarteka gure bakardadea, baina elkar kontsolatu
ez ezik, ohitu ere egin gintuan berehala. Eta
azkenean, haur faltarik ez sumatzeaz gain, erru-
ki zitzaizkiguan eduki bazeuzkatenak. Elkarri
moldatu gintzaizkioan, ohitura bilakatu gintuan
bata bestearekiko. Hik ez duk hori entenditze-
rik...

— Ez, ez diat entenditzen.

— Hara bada: ni nire emaztearen ohitura bila-
katu ninduan eta Elena nire ohitura bilakatu

zuan. Dena neurritz arautua zegoan gurean, dena, baita bazkariak ere. Hamabi-hamabietan zopa mahai gainean, eta hain duk horrela, ezen egunero gauza bertsuak jaten baititugu, hurrenkera berberaz eta kantitate berberean. Gorroto zieat aldaketei eta gorroto ziek Elenak ere. Erlojuaren baitan bizi gaituk etxean.

— Bai, bai; gure lagun Luisek Romeratarrei buruz esaten duena gogorarazten zidak horrek, alegia, ezkontuta egon arren mutilzahar eta neskazahar direla.

— Jakina, ez baita haurrik gabeko ezkontua baino mutilzaharagorik eta kaskagogorragorik. Behin batean, ur faltaren hutsunea betetzearren. Azken finean nire ai emaztearen amatasun sentimendua, zakur bat adoptatu genian, edo nahiago baduk, semetzat hartu; egun batez, alabaina, geure begien aurrean hiltzen ikusi genuenean, hezur bat trabatu baitzitzaion eztarrian, bizi nahi zuela adierazten ziguten begi lauso haiek ikustean, halako pena eta bihotzondokoa hartu genian, ezen ez baikenuen gehiago zakurrik ez bestelako bizidunik nahi izan. Eta panpina batzuekin konformatu gintuan, etxean ikusi

dituan andrakila horiekin, nire Elenak jantzi eta eranzten baititu.

— Horiek ez zaizkizue hilko.

— Ez horixe. Primeran zihoazkiguan gauzak, eta gu oso kontent. Ez loa galaraziko zidan haurren negarrik, ez neska ala mutil izango den eta harekin zer egin eta halako kezkarik... Eta, gainera, nire esku izan diat beti emaztea, haurraldi, edoskitze edo antzeko trabarik gabe; horixe, bizimodu zoragarria!

— Ba al dakik zeren antz handia duen bizimodu horrek?

— Zerena? Legez kanpoko arrimuarena? Hala uste diat. Haurrik gabeko senar-emazte izatea halako legezko ohaidego bilaka daitekek, ondo asko antolatua, txukun askoa, eta baita aski garbia ere; azken finean, esandakoa, senar-emazte mutilzahar-neskazaharrak, baina elkarri arrimatuak, noski. Eta halaxe pasa ditiagu azken hamaika, ia hamabi urte hauek... baina orain... ba al dakik zer gertatzen zaidan?

— Nola jakingo diat, bada, motel?

— Ez al dakik, bada, zer gertatzen zaidan?

— Emaztea haurdun utzi ez baduk...

— Horixe, motel, horixe. Hau duk hau zoritxarra!

— Hasieran bai, hasierako bizpahiru urte haietan, gutxi gorabehera. Baina orain... Atzera itzuli zaiguk deabrua etxera, atzera itzuli dituk elkarren arteko eskatimak. Eta orain, orduan antzutasunaren errua batak besteari egozten genion bezalaxe, orain batak besteari egozten zioagu heldu zaigun horren errua. Halako ezizena ere emana diogu dagoeneko... Ez, ez diat esango...

— Ez iezadak, bada, esan, nahi ez baduk.

— Arrotza deitzen hasiak gaituk hari. Eta amets ere egin nian, goiz batez hezur bat ezarrarian trabatu eta hil egiten zitzaigula.

— Hori duk astakeria!

— Horixe dela astakeria. Eta akabo erregulartatea, akabo erosotasuna, akabo ohiturak! Botagale zen atzo bertan Elena, berezko omen ditu gogaitaldi horiek egoera horrek, egoera... interesgarri! omen den horrek. Interesgarria! Interesgarria! interesgarria! A ze interesa! Ok egitearena! Ikusi al duk hori baino gauza itsusia- gorik, zikinagorik?

— Pozaren pozez egongo duk, ordea, Elena ama izaki.

— Elena? Ni bezala! Probidentziak, naturak edo dena delakoak egindako zakurkeria duk hori, irain bat. Mutiltxoa edo neskatxoa... berdiniok... artean guraso-maitasunak ez baina harrokeriak eraginda geundela, guk, uso inozook, espero genuenean etorri izan balitz; seme-alabarik ez edukitzeak besteak baino gutxiago izatea zelakoan geundenean etorri izan balitz; orduan etorri izan balitz, ongi etorria! Baina, orain, orain? Esan diat, irain hutsa duk hau. Zeragatik ez balitz...

— Zer, gizona, zer?

— Erregalatu egingo niake, Orfeori konpainia egin diezaion.

— Lasaitu hadi, gizona, ez astakeriarik esan...

— Arrazoi duk, astakeriak dituk. Barkaidak. Zer iruditzen zaik, alabaina, ia hamabi urte pasa eta gero, hain goxo bizi ginelarik, ezkonberrien harrokeria txoro hori gainetik kendua genuelarik, orain hau etortzea? Jakina, hain bizi gintuan seguru, hain fidaturik!...

— Gizona, gizona!

— Arrazoi duk, bai, arrazoi duk. Okerrena, ordea, zera duk, ezetz asmatu? Bada, nire Elena gaixoak ezin diola aurre egin bere burua barre-garri ikusteari. Barregarri ikusten dik bere burua!

— Ez diat konprenitzen zergatik...

— Ez, nik ere ez, baina hala duk; barregarri ikusten dik bere burua. Eta halako gauzak egiten ditik, ezen beldur bainaiz zer gertatuko zaion gure... mutiltxo... edo neskatxo... arrotzari.

— Gizona! —oihukatu zuen Augustok asaldaturik.

— Ez, ez, Augusto, ez, ez! Ez diagu galdu moraltasuna, eta Elenak, badakik, oso erlijiozalea baita, men egiten ziek Probidentziaren aginduei, muturra jarri arren, eta etsita zagok ama izatera. Eta ama ona izango duk, ez diat inongo dudarik, oso ama ona. Hain ikusten dik barregarri bere burua, ordea, ezen bere egoera ezkutatzearren, bere haurduntza estaltzearren, kapaz ikusten baitut... Tira, ez diat pentsatu ere egin nahi. Baduk astebete gutxienez, etxetik atera ez dela; lotsa ematen omen zio, kalean denak begira geldituko zaizkiola iruditzen omen zaiok.

Eta hasia duk esaten alde egin behar dugula, hilabetetan aurrera egin ahala haizea eta eguzkia hartzera atera behar duenean, ez duela joan nahiko ezagutuko duten eta akaso zorionak ematera ere hurbilduko zaion jenderik egongo den lekuetara.

Isilik gelditu ziren une batez bi lagunak, eta kontakizuna isilaldi labur horrek burutu zuelarik, hala esan zuen Victorrek:

— Beraz, tira, Augusto, ezkon hadi, antzeko zerbait gertatuko zaik eta agian; tira, ezkon hadi pianistarekin!

— Auskalo! —esan zuen Augustok, bere kasa ariko balitz bezala—. Auskalo!... ezkondata agian berriro edukiko diat ama...

— Ama, bai —gaineratu zuen Victorrek—, hire seme-alabena, ordea! Ekarriz gero.

— Baita nirea ere! Hemendik aurrera, hire emaztea amatzat hartzen hasiko haiz agian, Victor, heure amatzat.

— Gauak galtzen hasiko nauk hemendik aurrera...

— Edo irabazten, Victor, edo irabazten.

— Kontua duk ez dakidala zer gertatzen zaidan, ez dakidala zer gertatzen zaigun. Eta ni, nire aldetik, etsitzeko prest nagoela uste diat; nire Elena, berriz, nire Elena gaixoa... Gaixo andrea!

— Ikusten? Erruki duk honezkero.

— Zer egingo diagu, bada, Augusto, pentsa ezak ondo ezkondu baino lehen.

Eta bakoitzak bere bidea hartu zuen.

Etxean sartu zen Augusto, burua don Avitori eta Victorri entzundakoez betea. Ia ez zen akordatzen ez Eugeniarekin, ez kendutako hipotekarekin, ez eta neskato arropa-lisatzailearekin ere.

Etxera sartzerakoan Orfeo saltoka agurtzera inguratu zitzaionean, heldu eta, zintzurrean ferekaka eta bekokia zanpatuz, hala esan zion: «Kontu egin hezurrekin, Orfeo, kontu handiz ibili gero haiekin, e? Ez nitek nahi hezurren bat ezarrarian trabatuta gelditzerik; ez hinduket nire begien aurrean bizi eske hiltzen ikusi nahi. Horra, Orfeo, don Avito, pedagogoa, arbasoen erlijiora konbertitu duk... herentzia duk! Eta Victorrek ez zaramak etsi onean aita izatea. Hark semea galdu zuelako ez dik kontsolatzen bere

burua, eta honek, berriz, semea izango duelako. Eta nolako begiak, Orfeo, nolako begiak! Haien distira, esan zidanean: «Erosi egin nahi nauzu! Nire maitasuna ez, hori ez baita erosten, baina nire gorputza erosi nahi duzu! Zeuretzat nire etxea!» Nik bere gorputza erosi... bere gorputza...! Neurea ere sobran diat-eta, Orfeo, sobran diat eta neurea ere! Arima behar diat nik, arima, arima. Suzko arima, gainera, bere begietan, Eugeniaren begietan islatzen zena bezalakoa. Bere gorputza... bere gorputza... bai, bere gorputza bikaina duk, galanta, berebizikoa; bere gorputza arima duk, ordea, arima huts, dena bizi, oro esanahi, oro ideia! Nik sobran diat gorputza, Orfeo, sobran diat gorputza, arimarik ez dudalako. Ala, ez ote duk izango gorputza sobran dudalako falta zaidala arima? Gorputza uki zezakeat, Orfeo, hazta zezakeat, ikus zezakeat, baina arima?, non duk nire arima?, ba ote diat arimarik? Behin sentitu nian arimaren txinta, Rosario, Rosarito gaixoa, hemen, belaunen gainera besarkaturik eduki nuenean, bera negarrez eta ni ere negarrez aritu ginenean. Malko haiek ez zituan nire gorputzetik atereak; nire ari-

mari zerizkioan. Malkotan baino azaltzen ez den iturburua duk arima. Benetan negar egin arte batek ez zakik arimarik baduenez. Eta orain goazemak lotara, Orfeo, uzten badigute behintzat.

XV

— Zer egin dun, ordea, neskato? —galdegin zion doa Ermelindak ilobari.

— Zer egin dudan? Zuk ere, lotsarik izanez gero, nire lekuan egonda egingo zenukeen gauza bera; ziur naiz. Ni erosi nahi! Ni erosi nahi!

— Aizan, neskato, askoz ere hobe dun beti ere bat erosi nahi izatea saldu nahi izatea baino, ez egin dudarik.

— Ni erosi nahi! Erosi nahi ni, ni!

— Ez baita hori, Eugenia, ez baita hori, ordea. Eskuzabaltasunez, heroitasunez egin din...

— Ez dut heroirik nahi, alegia, heroi izaten saiatzen denik. Heroitasuna berezkoa denean, tira!; baina, aurrez kontuak aterata? Ni erosi nahi!, ni, ni erosi nahi! Benetan esaten dizut izeba, ikusiko du horrek. Ikusiko du zer horrek...

— Zer horrek? Tira, buka ezan!

— Zer horrek... tontolapiko odolik gabe horrek. Eta niretzat, existituko ez balitz bezala. Ez baita existitzen, izan ere!

— Tuntunkiak ditun horiek...

— Zer uste duzu, izeba, tipo horrek...?

— Nork, Ferminak?

— Ez, beste horrek... kanarioarenak, ba ote du ezer barruan?

— Bere erraiak izango ditin behintzat...

— Errairik baduela uste al duzu? Ezta hori ere! Hutsa baita, ikusten ari naiz, hutsa!

— Hator hona, neskato, mintza gaitezen hotzean eta ez ezan lelokeriarik esan ez egin. Ahaztu ezan hori. Nire ustez, onartu egin behar ko dun...

— Ez dut maite, ordea, izeba...

— Hik ba al dakin, bada, maitatzea zer den? Ez dun esperientziarik. Fusa bat edo kortxea bat zer den jakingo dun, baina maitatzea...

— Iruditzen zait, izeba, hitz hutsak direla horiek...

— Hik ba al dakin, bada, neskato, maitatzea zer den?

— Nik beste bat maite dut, ordea...

— Beste bat? Mauricio alferrontzi hori? Arima gorputzean barrena paseoan dabilkion hori? Horri deitzen al dion maitatzea? Hori al dun

beste bat? Hire salbazioa Augusto dun eta ez beste inor. Hain fina, hain aberatsa, hain ona...

— Horrexegatik ez dut, bada, maite, zuk esan bezain ona delako... Ez ditut gustuko gizon onak.

— Ezta nik ere, neska, ezta nik ere, baina...

— Baina zer?

— Halakoekin ezkondu beharra dagoela. Horretarako jaioak ditun, horretarako ditun onak, senar izateko.

— Maite ez badut, ordea, nola ezkonduko naiz berarekin?

— Nola?, ezkonduz! Ni ez al nindunan, bada, ezkondu hire osabarekin?

— Baina, izeba...

— Bai, orain baietz uste dinat, baietz esango niken; baina ezkondu nintzenean, ez zakinat maite nuen ala ez. Begira, liburuetako kontua dun maitasuna, besterik gabe hari buruz hitz egin eta idazteko asmatutako kontua. Poeten txorakeriak. Balio duena ezkontza dun. Kode Zibilak ez din maitasuna aipatzen eta bai ezkontza. Maitasuna eta hori guztiori musika besterik ez dun...

— Musika?

— Musika, bai. Eta badakin musikak ezer gutxi balio duela, ez bada musika irakastetik bizitzeko, eta aurrean daukanan bezalako aukera bati heldu ezean luzaroan egongo haizela hire purgatoriotik atera gabe...

— Eta zer? Eskatzen al dizuet ezer? Ez al dut neronek ateratzen aurrera nire bizimodua? Karga bat al naiz zuentzat?

— Ez horrela sumindu, bihurri hori, ez horrelakorik esan, benetan haserretuko gaitun eta. Inork ez din horrelakorik esan. Eta nik esandako eta emandako aholku guztiak hire onerako ditun.

— Nire onerako, bai horixe..., nire onerako... Nire onerako egin du don Augusto Perez jaunak gizonkeria hori ere, nire onerako... Gizonkeria, bai, gizonkeria! Ni erosi nahi...! Erosi nahi ni... ni! Esana dut, gizonkeria, gizonkeria... gizonen gauza! Gizonak, izeba, hasia naiz ikasten, zakar hutsak dira, basati hutsak; ez dute leuntasunik batere. Ez dakite mesederik egiten iraindu gabe...

— Denak?

— Denak, bai, denak! Benetan gizon direnak, noski.

— A!

— Bai, zeren besteak, zakar eta basati eta berekoi ez direnak, ez baitira gizon.

— Zer dira, bada?

— Auskalo..., maritxuak!

— Horiek ditun teoriak, neskato!

— Etxe honetan kutsatu egin beharko.

— Hire osabari ez dion, ez, sekula horrelakorik entzun!

— Ez, niri bururatu zait, gizonak aztertu ondoren.

— Hire osaba ere bai?

— Nire osaba ez da gizon... horietakoa.

— Maritxua dun beraz, e?, maritxu bat. Tira, esan ezan!

— Ez, ez, ez, hori ere ez. Nire osaba da... zera... nire osaba... Ez naiz erabat ohitzen halakotzat hartzen... alegia... hezur-haragizkotzat.

— Zer dela uste dun, bada, hire osaba, zer?

— Zera besterik ez..., ez dakit nola esan..., nire osaba besterik ez. Alegia, benetan existituko ez balitz bezala.

— Hala usteko dun hik, neskato, baina nik esaten dinat hire osaba existitzen dela, horixe existitzen dela!

— Basatiak, denak basatiak, basatiak denak. Zuk ez al dakizu zer esan zion Martin Rubio basati horrek don Emeterio gizajoari han alargundu eta egun gutxiren buruan?

— Ez dinat entzun, nik uste.

— Hara bada; izurrite hura izan zenean, badakizu, orduan gertatu zen. Zeharo asaldaturik zebilen jende guztia, niri ez zenidaten etxetik ateratzen utzi hainbat egunetan, eta ura ere irakinda hartzen nuen. Bata besteari ihesi zebiltzan denak, eta norbait luto jarri berriaz ikusiz gero, bazirudien izurriak joa zela. Hara bada: don Emeterio gizajoak, alargundu eta bospasei egunetara etxetik irten beharra izan zuen, beltzez jantzia, noski, eta bat-batean Martin basati horrekin egin men topo. Beltzez jantzia ikusi zuenean, halako distantzia zuhur batera gelditu zen, ez kutsatzearren edo, eta esan: «Zer gertatu da, baina, gizona? Ezbeharren bat etxean ala?». «Bai —erantzun zion don Emeterio gizajoak—, galdu berri dut emazte gaixoa..».. «Lastima! Eta

nola hil da?». «Erditu ondoren», esan zion don Emeteriok. «A, eskerrak!», erantzun eta eskua ematera hurbildu zitzaion orduan Martin basapizti hori. Zakarkeria handiagorik! Gizonkeria! esana dizut, piztiak dira, pizti hutsak.

— Eta hobe piztiak izatea alferrontziak baino, hala nola, esaterako, Mauricio nagi halako hori, nik zergatik jakin ez baina burtzaturik haukan hori... Dakidanez, eta iturri onetik zakinat, ez izan dudarik, madarikatua txoro halako hori hirekin maitemindua bada...

— Ni nago harekin maitemindurik eta aski!

— Eta zer uste dun, zer hori... hire senargaia, alegia..., benetako gizona dela ala? Gizona balitz aspaldi bilatua zinan irtenbideren bat, lanbideren bat.

— Gizona ez bada, neronek egingo dut, bada, gizon Egia da, badauka zuk diozun akats hori, izeba, baina horrexegatik maite dut, beharbada. Eta orain, don Augustoren gizonkeria ikusirik... erosi nahi ni, ni!... Hori ikusirik, prest nago Mauricioekin ezkondu eta dena arriskatzeko.

— Eta nondik bizi behar duzue, gaixoa?

— Nik irabazten dudanetik! Lan egingo dut, orain baino gehiago egin ere. Onartu egingo ditut errefusatu izan ditudan lezioak. Hasteko, uko egin diot dagoeneko etxe horri, don Augustori erregalatu diot. Gutizia bat zen, gutizia bat besterik ez. Jaio nintzen etxea. Eta orain, etxearen eta bere hipotekaren amets gaiztoak amaiturik, gogorrago ekingo diot lanari. Eta Mauriciok, biontzako lanean ari naizela ikustean, lana bilatu eta lanean hasi beste erremediorik ez du izango. Lotsarik badu, noski...

— Eta ez badu?

— Ez badu, bada... neuk mantenduko dut!

— Horixe! Pianistaren senarra!

— Hala izanik ere, neurea izango da, neurea, eta zenbat eta nik mantenduago, orduan eta neureago.

— Heurea bai..., zakur baten moduan, ordea. Eta horri gizon bat erostea deitzen zaion.

— Ez al nau ni ere gizon batek bere kapitalaren bitartez erosi nahi izan? Zergatik ez dut, bada, nik ere, emakume naizen honek, nire lanaren bidez gizon bat erosiko?

— Esaten ari haizen horrek guztiak antz handia din, neskato, hire osabak feminismoa esaten dion horrekin.

— Ez dakit, ez eta jakin nahi ere. Zuri esaten dizut ordea, izeba, oraindik ez dela jaio ni erosi-ko nauen gizonik. Ni?, ni?, erosi ni?

Horretan ari zirela, neskamea sartu zen esanez don Augusto zegoela behean, etxeakoandareen zain.

— Bera? Zoaz! Nik ez dut ikusi nahi. Esaiozu esan beharrekoak esanak dizkiodala.

— Pentsa ezan pixka bat, neskato, lasaitu hadi; ez horrela hartu. Ez ditun ongi ulertu don Augustoren asmoak.

Augustok doa Ermelinda aurrez aurre ikusi zuenean, desenkusutzen hasi zitzaion. Oso jota omen zegoen, Eugeniak ez omen zituen ongi ulertu bere benetako asmoak. Eta berak hipoteka formalki indargabetu zuela eta etxea legez halako kargarik gabe eta bere jabearen esku azaltzen zela. Eta Eugenia errentak ez jasotzen setatzen bazen, berak ere ez zuela halakorik egi-terik; eta, horrenbestez, alferrik galduko zirela inorentzako probetxurik gabe, edota, hobeki

esanda, jabearen izenean pilatuz joango zirela. Uko egiten ziola, gainera, Eugeniaren eskuari, eta hura zoriontsu izatea besterik ez zuela nahi; halatan non prest baitzegoen Mauriciori ogibide bat bilatzeko, emaztearen errenten kontura bizi beharrik izan ez zezan.

— Urrezkoa duzu bihotza! —esan zuen ozenki doa Ermelindak.

— Horixe besterik ez da falta orain, alegia, zure ilobari nire benetako asmoak zein izan diren sinestaraztea, eta etxearen hipoteka kentzea lotsagabekeria izan bazen, barkatzeko. Orain ez da atzera egiteko ordua, nik uste. Berak nahi izanez gero, neu izango naiz ezkontzako aitabitxia. Eta gero luzarorako bidaia egingo dut hemendik urrutira.

Doa Ermelindak neskameari hots egin eta Eugeniari deitzeko esan zion, don Augustok harekin hitz egin nahi zuela eta. «Atera berna da andereñoa», erantzun zuen neskameak.

XVI

— Hirekin ezin duk, Mauricio —esaten zion Eugeniak senargaiari atezaindegiko gelatxo hartan—. Ezin duk inolaz ere, eta horrela jarraitzekotan, atzealde hori mugitzen ez baduk, ez baduk ezer egiten lana bilatu eta elkarrekin ezkondu ahal izan gaitzen, kapaz nauk edozein disparate egiteko.

— Zer disparate klase? Ea, esan ezan, polit horrek —eta lepoa ferekatzen zion neskatilari, lepagaineko ile kizkur bat hatz batean kiribilduz.

— Begira, nahi baduk, gauden bezalaxe ezkonduko gaituk eta nik lanean jarraituko diat... biontzako.

— Zer esango dituen nitaz, ordea, horrelakorik onartzen badut?

— Eta niri zer hitaz zer esango duten'?

— Tira, tira, hori larria dun eta!

— Bai, baina ni ez naik horrek kezkatzen; hau lehenbailehen amaitzea nahi diat nik...

— Hain gaizki gabiltzan ala'?

— Bai, gaizki gabiltzak, oso gaizki. Eta erabakirik hartzen ez baduk kapaz nauk...

— Ea, zertarako?

— Don Augustoren sakrifizioa onartzeko.

— Harekin ezkontzekoa?

— Ez, horrelakorik inoiz ere ez! Nire etxea berreskuratzekoa.

— Aurrera, bada, polita, aurrera! Irtenbide hori besterik ez badago...

— Ausartu egiten haiz gainera...

— Ausartuko ez naun bada! Esango niken don Augusto gizajo hori burutik eginda dagoela, eta halako apeta izan duenez, ez dinat uste eragotzi behar diogunik...

— Beraz, hik...

— Jakina, polita, jakina!

— Gizona hi ere.

— Ez hik nahi beste, aditzera ematen duna-nez. Baina, hator hona...

— Tira, utz nazak, Mauricio; hamaika bider esan diat ez izateko...

— Ez izateko txeratsua.

— Ez, ez izateko... astoa! Hago geldi. Eta konfiantza handiagoa nahi baduk, ken gaintetik nag-

keria hori, saiatu benetan lana lortzen eta gainerakoa badakik. Hortaz, ea tentuz habilen, e? Ez ahaztu beste batean ere eman niala belarrondo-ko bat.

— Bai gustura hartu ere! Tira, polita, emaidan beste bat! Hona nire aurpegia...

— Ez askotan esan... —Ea, eman!

— Ez, ez diat horrelako gusturik eman nahi.

— Bestelakorik ere ez?

— Esan diat ez izateko astoa. Eta berriz esango diat, berehala lana bilatzen saiatzen ez bahaiz kapaz naizela beste hura onartzeko.

— Ongi da, Eugenia, nahi al dun bihotz-bihotzez hitz egitea, egia, egia osoa esatea?

— Esan!

— Nik asko maite haut, asko gero; guztiz txoraturik naukan, baina ezkontzeko kontu horrek beldurra ematen zidan, izugarrizko beldurra. Nagia naun sortzetik, ez dinat ukatuko; lan egin beharrak izorratzen nain gehien, eta ikusten ari naun ezkonduz gero, eta, jakina, hik seme-alabak izatea nahiko dunanez...

— Nahi izango ez diat bada!

— Lan egin beharko dinat, gogotik egin ere, garestia baita bizimodua. Eta lanean hi aritzea onartzea berriz, horrelakorik ez, sekulan ez, sekulan ez! Mauricio Blanco Clara ez dun emakume baten bizkar biziko. Badinagu, alabaina, bestelako konponbide bat, ez nik ez hik lanik egin beharrik gabe dena konpontzeko...

— Bota, bota...

— Bada... Agintzen didan, neskato, ez haizela aztoratuko?

— Tira, esan!

— Nik jakin dudanetik eta hiri entzundakoaren arabera, don Augusto gizajo hori tontolapikoa dun, gizagaixo bat, zera...

— Tira, jarraitu!

— Ez haiz aztoratuko gero, e?

— Jarraitzeko esan diat!

— Esaten ari nintzainan zer bat dela... predestinatu bat. Eta, beharbada, horixe izango dela onena, alegia, zure etxearena onartzeaz gainera...

— Esan, zer?

— Bera senartzat ere onartzea.

— E? —eta zutitu egin zen.

— Onartu, eta gizajo bat denez, bada... dena konponduta...

— Nola dena konponduta?

— Horixe bada, hark pagatu, eta guk...

— Guk... zer?

— Bada guk...

— Aski da!

Eta alde egin zuen Eugeniak, begiak sutan eta esanez: «Astoak halakoak, astoak halakoak! Sekulan ez nuen sinetsiko... Astoak halakoak!» Eta etxera iritsi zenean gelako atea itxi eta negarrari eman zion. Oheratu egin behar izan zuen, ondoezak jota.

Mauricio ez hara ez hona gelditu zen une batez; baina berehala etorri zen bere onera, zigarro bat piztu, kalera irten eta hitz gozo bat bota zion aldamenetik pasa zitzaion lehendabiziko neska airosari. Eta arrats hartan don Juan Tenorio zuten mintzagai Mauriciok eta bere adiskide batek.

— Tipo horrek ez naik konbentzitzen —zioen Mauriciok—; antzerki kontua besterik ez duk hori.

— Nork eta hik esan horrelakorik, Mauricio, Tenorio baten gisan seduzitzaile plantak egiten dituan horrek!

— Seduzitzaile? Ni seduzitzaile? Horiek dituk gauzak asmatu dituztenak, Rogelio!

— Eta pianistarekikoa?

— Ba! Nahi duk egia esatea, Rogelio?

— Bota!

— Hara bada: gizon-emakumeen arteko harreman gutxi gorabehera ondratuetan, eta hik aipatutakoa ondratu-ondratua duk gero, e!, ehuneko laurogeita hamarrean baino gehiagotan, emakumea duk seduzitzaile, eta seduzitua, berriz, gizona.

— Ukatu egingo al didak, bada, hik konkistatu duala pianista hori, Eugenia?

— Bai, ukatu egiten diat; ez diat nik konkistatu, hark ni baizik.

— Seduzitzailea halakoa!

— Nahi duan bezala... Bera duk, orde, bera. Ez nian aguantatzen jakin.

— Berdin duk, azken finean.

— Bai, haina uste diat gauza amaitzear dagoela eta berriro ere libre izango naizela. Haren-

gandik libre, noski, ze auskalo ez nauen atzera ere beste batek konkistatuko! Hain nauk ahula! Emakume jaio izan banintz...

— Nolatan zagok, bada, amaitzear gauza?

— Bada... zera..., hanka sartu dudalako!

Aurrera jarraitzea nahi nian nik, hau da, harremanak hastea, ulertzen?, baina ez konpromiso ez ondoriorik gabe... eta jakina!, andafuerako soinekoa emango didala iruditzen zaidak. Irentsi egin nahi nindian emakume horrek.

— Eta irentsi egingo hau!

— Auskalo!... Hain nauk ahula! Emakume batek mantentzeko sortua nauk, duintasunez ordea, ulertzen?, eta bestela, ezer ez!

— Eta zeri deitzen diok duintasuna, jakiterik bada.

— Hori ez duk galdetzen, motel! Definiezinak dituk gauza batzuk.

— Egia duk! —erantzun zuen Rogeliok bete-bete sinetsita, eta gaineratu—: Eta pianistak utziz gero, zer egin behar duk?

— Gabe gelditu. Ea besteren batek konkistatzen nauen. Hainbestetan konkistatu naitek...! Honek, ordea, amore ez emate horrekin, beti dis-

tantzia egokia gordetze horrekin, ondratu izate horrekin, ezen ondratuena bezain ondratua baita gero, horrekin guztiarekin txoraturik nindukaan, erabat txoraturik alafede. Azkenean, bere nahietara jarriko nindian osotara. Eta orain, uzten banau, benetan sentituko diat, baina libre ikusiko diat neure burua.

— Libre?

— Libre, bai, beste batentzat.

— Bakeak egingo dituzue, nik uste...

— Auskalo!... Baina ez diat uste, ez baitu nolana hiko jenioa.... eta gaur iraindu egin diat, benetan, irain egin zioat.

XVII

— Akordatzen al haiz, Augusto —esaten zion Victorrek—, Eloino Rodriguez de Albuquerque y Alvarez de Castro hartaz?

— Nor, Haziendako enplegatu parrandazale hura, merketik edaten zuena?

— Huraxe. Ezkondu egin duk!

— Ez dik, bada, bere gain nolannahiko zaharkina hartu dena delako emakumeak!

— Handiena, ordea, zera duk, nola ezkondu den. Adi ezak eta gogoan har. Jakingo duk don Eloino Rodriguez de Albuquerque y Alvarez de Castrok, horrelako deiturak izanda ere, ez duela inolako ondasunik edo diru-eskuarterik Haziendako soldataz aparte, eta, gainera, guztiz jota dagoela osasunez.

— Bizimodua ere halakoxea egin dik eta.

— Bihotzekoa dik, bada, gizajoak, eta bere onera etorri ezinean zabilek. Ez dik askorik iraungo. Gogor eman zioan orain dela gutxi eta, hori dela eta, hiltzeko zorian egon den arren, ezkondu egin duk, nahiz eta berriz eman ez gero...

lehertu. Kontua duk ostatur ostatu, etxez etxe zebilela gizajoa, eta guztietatik alde egin behar izaten zuela, ez baitago gutziarik ez beste munduko gauzarik eskatzerik lau pezetaren truke, eta bera, izan ere, oso aho-xuria baitzen. Eta ez garbi-garbia, gainera. Eta hala, etxerik etxe zebilela, andre agurgarri batenean suertatu zuan; urteetan sartu samartua, bera baino zaharragoa, nahiz eta berak ere hirurogei urte laster beteko dituen, eta bi aldiz alargundua. Lehenengo senarra arotza izan zian, bere burua aldamio batetik behera botatakoa, eta askotan «bere» Rogelio izenaz aipatzen duena. Eta bigarrena karabinero sarjentu bat, hil zenean diru pixka bat utzi baitzion, egunean pezeta bat ematen diona. Eta halako batean, andre alargun haren etxean zegoela, gaixotu egin zuan gure don Eloino, oso gaixorik jarri zuan, hain gaixorik ezen bueltarik gabe hilko zela baitzirudien. Lehenik don Joseri deitu ziotean, gaixoa ikus zezan, eta gero don Valentin-i. Eta gizona, hilzorian! Eta hainbeste arreta eskatzen zituen haren gaixotasunak, baita garbitasun handiegirik gabekoak ere batzuetan, ezen etxeakoandreak harentzat eta ez

beste inorentzat aritu beharra izaten baitzuen, eta gainerako maizterrak hasiak baitziren alde egingo zutela mehatxatzen. Don Eloinok ezin askoz gehiagorik pagatu, eta birritan alargunduak, ezin gehiago etxean eduki, negozioa alferrik galtzen ari baitzitzaion. «Jainkoarren, etxe-koandre, erruki zakizkit! —esaten omen zioan—. Nora joan behar dut nik honela, nongo etxetan hartuko naute? Botatzen banauzu, ospitalera joan beharko dut hiltzera... Jainkoarren, erruki zakizkit, honezkero ez baitut askorik iraungo...!» Sinetsita baitzegoen hil egingo zela, eta berandu baino lehen gainera. Etxekoandreak, berriz, jakina, bere etxea ez zela ospitalea, hura zela bere ogibidea, eta pikutara zihoakiola. Eta halako batean hara non don Eloinoren bulegokide bati salbaziozko irtenbidea bururatu zitzaion: «Zuk, don Eloino, irtenbide bakarra daukazu, hil artean andre horrek bere etxean edukitzea onartzeko». «Zer irtenbide?», galdetu zioan. «Lehenik —esan zioan lankideak— zure gaixotasunaz zer uste duzun jakin behar dugu». «Bada, nik gutxi iraungo dudala, oso gutxi; hila izango naiz beharbada nire anai-arrebak etortzen direnerako». «Hain

gaizki zaudela iruditzen zaizu?». «Hilzorian nago». «Horrela bada, irtenbide bakarra gelditzen zaizu andre on horrek kale gorrira bota eta ospitalera joan beharrik ez izateko». «Zein da irtenbide hori?». «Harekin ezkontzea». «Ni harekin ezkondu, etxekoandrearekin? Nor, ni? Rodriguez de Albuquerque y Alvarez de Castro naizena! Tira, ez nago txantxetarako!» Eta hain gogor eragin omen zioan burutazio hark, bertan seko gelditu baitzen ia.

— Ez nauk batere harritzen.

— Baina, lehenengo kolpe hartatik bere onera etorri bezain pronto, lagunak berehala ohartarazi zian nola ezkondu eta etxekoandrea alargun geldituz gero hilean hamahiru duro utziko lizkiokeela andre onari, bestela inork eskurtuko ez lituzkeenak eta Estatuarentzako izango liratekeenak. Horra...

— Ezagutzen diat, bai, bat baino gehiago gainera, lagun Victor, alargun-saria Estatuak beregana ez zezan besterik gabe ezkondukorik. Hori duk gizatasuna!

— Baina don Eloinok haserre bizian gaitzetsi baldin bazuen proposamen hura, pentsa zer

esango zuen etxekoandreak. «Ni? Ni ezkondu, nire adinean, eta hirugarren aldiz, zaharkin horrekin? Zer nazka!» Medikuairengana jo zian, ordea, aholku eske, eta don Eloinok egun gutxi batzuk besterik iraungo ez zuela ziurtatu ziotenean, «Egia esan, hilean hamahiru duroekin ederki konponduko nintzateke» esan eta onartu egin zian azkenean. Eta orduan erretoreari deitu ziotean, don Matiasi, badakik, gizon on eta apostolikoa bera, hiletsia behin betiko konbentzitezuan. «Bai, bai, bai —esan zuen don Matiasek—; bai, gizajoa!, gizajoa!» Eta konbentzitu egin zian. Gero don Eloinok Correita-ri deitu omen zioan, adiskidetu egin nahi zuela esan —haserretuta baitzeuden elkarrekin— eta bere ezkontzako lekuko izatea eskatu. «Ezkontzekoa al zara, bada, don Eloino?». «Bai, Correita, bai, etxekoandrearekin ezkontzen naiz!, doa Sinfoirekin!; ni, Rodriguez de Alburquerque y Alvarez de Castro naizena!, pentsa! Ni, bizirik iraungo dudan egun gutxi horietan zaindu nazan..., ez dakit nire anai-arrebak garaiz ailegatuko diren ni bizirik ikusteko baina..., eta etxekoandrea, nik utziko dizkiodan hamahiru duroak poltsikoratzearren».

Eta Correita etxera iritsi zenean dena kontatu omen zioan, bidezko denez, bere emazte Emiliari, eta hark, asaldaturik, arrapostu: «Kaikua halakoa, Pepe! Zergatik ez zenion esan Encarnarekin ezkontzeko —Encarnacion neskame bat duk, ez gaztea ez polita, Emiliak ezkondu zenean dote gisa eramana—, hamahiru duro horien truke beste horrek bezain ongi zainduko zuen eta?»

Eta Encarnak gaineratu omen zian: «Ondo dio, andrea; ezkonduko nintzen ni ere harekin, eta baita zaindu ere bizirik iraun artean, ez baitu askorik iraungo, hamahiru duroren truke».

— Asmazio tankera hartzen zioat, bada, horri guztiari, Victor.

— Ez izaki, ordea. Horrelako gauzak ez dituk asmatzen. Eta oraindik ez dakik onena. Don Jose kenduta, don Valentin arduratu duk gehienbat don Eloinoz, eta berak kontatu zidaan behin gaixoa ikustera joanda, don Matias dotore jantzirik ikusi zuela, eta gaixoari oleazioa ematera zihoazela pentsatu zuenean, hura ezkontzen ari zela esan ziotela. Eta beranduxeago itzuli zenean, ateraino lagundu omen zioan etxekoandre

ezkonberriak, hirugarrengoz ezkonberriak!, ezkonberriak!, eta larri bezain egonezinik galde-
tu: «Esaidazu, don Valentin, biziko al da? Bizirik jarraituko al du?». «Ez, andrea, ez; egun gutxiko kontua du..».. «Laster hilko da, ez?». «Bai, berehalako batean». «Hil egingo da orduan, ezta?»

— Hori duk izugarrikeria!

— Eta ez duk hor bukatzen. Don Valentinek gaixoari esnea besterik ez emateko agindu zian, eta aldiero gutxi gainera. Doa Sinfok, alabaina, hala esaten omen zioan beste maizter bati: «Bai zera! Eskatu adina emango diot, bada! Zertan ibili hain gutxi iraungo duenari gutziazirik kentzen... !» Eta gero aiuta batzuk emateko agindu zian, eta etxeoandreak: «Aiuta batzuk! Uf, hori nazka! Zaharkin halako horri? Nik ez, nik ez! Beste bietakoren bat izan balitz, tira, haiek maite baintuen eta neure gustua eginez ezkondu bainintzen haiekin. Baina honi? Aiuta batzuk? Nik? Ez badu...!»

— Fantasia hutsa duk hori guztia!

— Ez, egiazkoa duk. Eta hala, don Eloinoren anai-arrebak ailegatu zituan, eta anaiak, zorigaitz hura ikusirik, esan zian: «Nire anaia ezkon-

du, nire anaia, Rodriguez de Alburquerque y Alvarez de Castro, Pellejeros karrikako etxekoandreakin!, nire anaia, Zaragozako, Za-ra-go-za-ko Auzitegiko presidente izandako baten semea, norekin... eta doña Sinforeskin». Izututa zegoan. Eta bere buruaz beste egindakoaren alargun eta hiletsiarekin ezkondu berria zenak hala zioan: «Ikusiko duzu, bai, ikusten ari naiz gainera, nola koinatuak garela-eta alokairua pagatu gabe joaten diren, eta horixe da hain zuzen nire bizibidea!» Pagatu omen ziotean, hala ere, alokairua, senarrak pagatu omen zioan, baina don Eloinoren urrezko kirten eta guztiko bastoia hartu eta eramanean zitean.

— Baina, hil zuan?

— Bai, handik denbora puska batera. Hobera egin zian, ongisko jarri zuan. Eta etxekoandreak: «Don Valentinena da errua, igarri egin baitzion zer gaixotasun zuen... Hobe zen bestea, don Jose, hark ez baitzion igartzen... eta berak bakarrik zaindu izan balu, hilda zegokeen honezkero, eta orain, berriz, izorratu egingo nau». Berak, Doa Sinfok, badik, lehenengo senarraren seme-alabez gainera, beste alaba bat, bigarren sena-

rrarena, karabineroarena, eta ezkondu eta denbora gutxira hala esaten omen zioan don Eloinok alaba hari: «Zatoz, zatoz hona; zatoz, musu emango dizut, orain zure aita naiz eta, nire alaba zara..». «Alaba ez —zioen amak—, alababixia!». «Alabaordea, andrea, alabaordea. Zatoz... egoera onean uzten zaituztet...» Eta ama marmarka aritzen omen zuan esanez: «Lotsagabea, ederra aitzakia hari igurtzi batzuk egitearren...! Sekula horrelakorik ikusi...!» Eta gero, jakina, banandu egin zituan. «Engainua izan da hau, engainu hutsa, don Eloino, ezkondu, berehala hilko zinela ziurtatu zidatelako ezkondu bainintzen zurekin, ze bestela... ezta pentsatu ere! Engainatu egin naute, engainatu egin naute». «Engainatu egin naute ni ere, andrea. Zer nahi zenuen, bada, nik egitea? Zure gustua egitearren ni hiltzea?». «Horretan geldituak ginen». «Hilko naiz, andrea, hilko naiz... eta nahi baino lehenago gainera... Rodriguez de Alburquerque y Alvarez de Castro honek nahi baino lehenago!»

Eta mokoka ibili zituan alokairua zela eta, zakur txiki batzuk gora behera, eta azkenean

bota egin zian etxetik. «Agur, don Eloino, ondo izan». «Jainkoa lagun, doa Sinfo». Eta hil duk azkenean gure andrearen hirugarren senarra, 2,15 pezeta eguneko utzi dizkiolarik, luturako eman dizkioten 500 pezetez gain. 500 pezeta horiek ez ditik, noski, lutuan xahutu. Gehienera jota, meza pare bat atera zizkiok, damuz eta alarguntzak utzitako hamahiru duroengatik esker ona erakustearren.

— Zer gauzak, ene Jainkoa!

— Asmatzen ez diren gauzak, ezinezkoa baita horrelakorik asmatzea. Orain tragikomedia horren, antzezlan negargarri horren datu gehiago jasotzen ari nauk. Hasieran sainete bat egitea pentsatu man, gero hobeki pentsatu eta, Cervantesek bere «Quijote»n nobela haiek sartu zituen bezala, nire emaztearen haurdunaldiak sortzen dizkidan buruhaustek aldentzearren idazten ari naizen nobelan nola edo hala sartzea erabaki diat.

— Zer? Nobela bat idazten hasi haizela?

— Eta zer egin behar nian, bada?

— Eta zein duk argumentua, jakiterik bada?

— Nire nobelak ez dik argumenturik, edo, hobeki esan, egin ahala aterako duk. Argumentua berez egiten duk.

— Eta nola duk hori?

— Hara: behin, orain dela gutxi, zer egin ez nekiela nenbilean, baina banian, hargatik, hala-ko irrika bat zerbait egiteko, barren-barreneko gose antzeko bat, fantasiaren zirikamen moduko bat, eta nire buruari esan nioan: nobela bat idatzi behar duk, baina idatzi, bizi garen bezala idatziko duk, zer helduko zaigun jakin gabe. Aulki batean eseri ninduan, orri batzuk hartu eta aurrena burura etorri zitzaidana idazten hasi ninduan, zer jarraipen izango zuen ez nekiela, inolako planik gabe. Nire pertsonaiak jardun eta hitz egin ahala joango dituk itxuratzen, hitz egin ahala batez ere; pixkanaka-pixkanaka joango dituk izaera taxutzen. Eta batzuetan izaerarik ez izatea izango duk beren izaera.

— Horixe, nirea bezalakoa.

— Ez zakiat. Sortuz joango duk. Utzi egingo nauk eramaten.

— Eta ba al dik psikologiarik? Deskripziorik?

— Elkarrizketak, elkarrizketa dik ugari. Horixe duk kontua, pertsonaiek hitz egitea, asko hitz egitea, deus esaten ez badute ere.

— Hori Elenak iradokiko zian, ezta?

— Zer bada?

— Gogoan baitut nola behin, denbora pasara-ko nobela bat eskatu zidanean, esan zidan elkarrizketa ugari eta eten asko izango zuen bat nahi zuela.

— Bai horixe, zerbait irakurtzen ari delarik deskripzio luze, sermoi edo kontakizunetara hel-tzen denean, paso egiten dik, esanez: lastoa!, lastoa!, lastoa! Berarentzat elkarrizketa duk lasto ez den gauza bakarra. Eta pentsa, arazorik gabe antola daitekek sermoi bat elkarrizketa gisa...

— Eta zergatik ote duk hori?

— Jendeari elkarrizketa hutsa gustatzen zaio-lako, besterik gabe, baita ezer esaten ez badu ere. Batzuek ez ditek jasaten ordu erdiko sermoi-rik eta han egoten dituk gero, kafetegi batean hiru orduz berriketan. Horixe duk elkarrizketaren xarma, besterik gabe hitz egitea, etenak eginez, esaldiak hautsiz...

— Ni neu ere nekatu egiten naik diskurtsoen doinuak...

— Bai, gizonak hizketa ederresten dik, hizketa bizia...

Eta, oroz gain, iduri behar dik egileak ez dituela berak esaten gauzak, ez gaituela bere nortasunaz, bere ni satanikoaz nekarazten. Nahiz eta, jakina, nire pertsonaien mintzo guztiak neuk esanak diren...

— Hori neurri bateraino...

— Nola neurri bateraino?

— Bai, hasieran hik gidatzen dituala irudituko zaik, hire eskutik, baina ez harritu azkenean argi eta garbi ikusten baduk berek haramatela hi. Oso maiz gertatzen baita egilea bere fikzioen jostailu bilakatzea...

— Balitekek, baina kontua duk nobela hone-tan burura etorritako guztia sartzea pentsatzen dudala, nola edo hala.

— Azkenean ez duk, bada, nobela izango.

— Ez, zera izango duk... zera... *nibola*.

— Zer duk hori baina, zer duk *nibola*?

— Manuel Machadori entzun nioan, poetari, Antonioren anaiari, nola behin don Eduardo

Benot-i alexandrinotan edo ez zakiat zein beste modu heterodoxotan idatzitako soneto bat eram zion, hark irakurtzeko asmoz. Irakurri omen zioan eta don Eduardok esan: «Hori ez duk sone-toa, ordea!..».. «Ez, jauna —erantzun Macha-dok—, ez da sonetoa, *sonitea* baizik». Horra, beraz, nola nire nobela ez den nobela izango, baizik eta..., nola esan diat? *nabiloa...*, *nebuloa*, ez, ez, *nibola*, horixe, *nibola*! Hartara inork ez dik generoaren legeak hausten dituenik esaterik izango... Asmatu egingo diat generoa, eta gene-ro bat asmatzea izen berria ematea besterik ez duk, eta nire gustuko legeak emango zizkioat. Eta elkarrizketa ugari!

— Eta pertsonaiak bakarrik gelditzen dire-nean?

— Orduan... bakarrikzeta. Eta elkarrizketaren tankera izan dezan, zakur hat asmatuko diat per-tsonaiak hitz egin diezaion.

— Gauza bat esango diat, Augusto: ni neu ere herorrek asmatzen nauala iruditzen zaidak... — Balitekek!

Elkarrengandik aldendu eta han zihoan Augusto bere buruari esaka: «Eta nire bizitza

hau, nobela, *nibola* edo zer arraio ote? Niri gertatzen zaizkidan eta nire ingurukoei gertatzen zaizkien gauza hauek oro, errealitate ala fikzio ote? Ez ote hau guztiau Jainkoaren edo dena delakoaren amets, Hura esnatzen denean oro deuseztatuko dena? Eta Hari egiten dizkiogun kantu eta eresiak, ez ote dizkiogu, hain zuzen ere, lokartaraztearren, bere loa kulunkatzearren egiten? Ez dea erlijio ororen liturgia Jainkoaren loa kulunkatzeko modu bat, esnatu eta gu amesteari utz ez diezaion? Ai, Eugenia nirea! Eugenia nirea! Eta Rosarito nirea..».

— Kaixo. Orfeo!

Atera irten zitzaion Orfeo, eta saltoka ari zitzaion magaletik gora igo nahian. Besoetan hartu eta eskua miazkatzen hasi zitzaion zakurtxo.

— Jauna —esan zion Liduvinak—, zain duzu Rosarito arropa lisatuarekin.

— Eta nola ez diozu zerorrek kasu egin?

— Ez dakit bada... esan diot jauna laster itzuliko zela, itxaron nahi izanez gero...

— Zerorrek kasu egitea zenuen, bestetan bezala...

- Bai baina... tira, badakizu...
- Liduvina! Liduvina!
- Hobe izango da zuk zeuk kasu egitea.
- Banoa.

XVIII

— Kaixo Rosarito! —egin zuen oihu Augustok hura ikusi bezain pronto.

— Arratsalde on, don Augusto —ahotsa lasai bezain argia zuen neskatoak, baita begirada ere.

— Nolatan ez ditun Liduvinarekin egin kontuak, bestetan, hi etorri eta ni egoten ez naizetan bezalaxe?

— Ez dakit! Itxaroteko esan dit. Zer edo zer esan nahi zenidala pentsatu dut...

«Zer da hau, ordea, inozotasuna ala zer?», pentsatu zuen Augustok, eta aiko-maiko gelditu zen une batez. Une deserosoa izan zen, isilune urduritasunez betea.

— Joan den egunekoa ahaztea nahi dinat, Rosarito, harekin gehiago ez akordatzea, ulertzen?

— Beno, zuk nahi bezala...

— Bai, erokeria bat izan zunan hura... erokeria bat... ez nekinan ongi zertan ari nintzen ez zer esaten nuen... eta oraingo honetan ere ez

zakinat... —eta neskatoarengana hurbilduz zihonan.

Neskatoa, bitartean, lasai eta etsita nolabait ere. Augusto sofa batean eseri eta dei egin zion: «Hator hona!»

Magalean esertzeko esan zion, aurrekoan bezala, eta denbora puska batez egon zitzaion begietara so. Begirada hura lasai asko jasan zuen arren, dardara batean zegoen, makal hostoa bailitzen.

— Dardarka, neskato?

— Ni? Ni ez. Dardarka zu ari zarela esango nuke.

— Ez egin dardararik, lasaitu.

— Ez iezadazu berriro ere negar eragin.

— Berriro ere negar eragitea nahi dun hortaz.

Esan, ba al dun senargairik?

— Hori da galdera...

— Esan, ba al dun?

— Senargaia... egia esan, senargairik... ez!

— Oraindik ez al zain, bad, hire adineko mutirik hurbildu?

— Badakizu, don Augusto...

— Eta zer esan dion?

— Gauza batzuk ez dira esatekoak.

— Egia dun. Baina, tira, esan, maite al duzue elkar?

— Baina, Jainkoarren, don Augusto!

— Begira, negar egin behar badun, banoan.

Neskatoak Augustoren bularrean etzan zuen burua, bertan gorde, eta negarrari eman zion, negar zotirik irten ez zekion saiatuz. «Konortea galduko dit neskato honek», pentsatzen zuen Augustok adatsa ferekatzen zion bitartean.

— Lasai hadi! Lasaitu!

— Eta beste emakume hura...? —galdetu zion Rosaritok bururik altxa gabe eta negar zotinak irentsiz.

— Akordatzen haiz, beraz? Bada, emakume hark erabat errefusatu nain. Sekula ez ninan neureganatu, baina oraingoan betiko galdu dinat, betiko!

Neskatoak burua altxa eta aurrez aurre begiratu zion, egia zioen ikusteko nonbait.

— Engainatu egin nahi nauzu, ordea... — xuxurlatu zuen.

— Nik hi engainatu nahi? A, bai, bai. Horretan gaitun beraz, ezta? Ez al dun esan, bada, bahuela senargaia?

— Nik ez dut ezer esan...

— Lasai! Lasai! —neskatoa bere aldamenean jarri zuen, eta zutitu eta egongelan alde batetik bestera has zen.

Berriro begiratu zion eta neskato gaixoa zurbil eta dardarka ari zela ohartu zen. Orduan konprenitu zuen neskatoa babesik gabe zegoela; modu hartan, bakarrik, bere aurrean, urrun samar, sofa hartan epaitua fiskalaren aurrean bezala eserita, kordea galtzeko zorian zegoela.

— Egia da! —egin zuen oihu—; zenbat eta hurbilago, orduan eta babestuago gaude.

Eseri egin zen berriro, atzera bere magalean eserarazi zuen, besarkatu eta bularraren kontra estutu zuen. Beso bat sorbaldatik pasa zion neskato gaixoak, bere gainean etzatearren bezala, eta berriro ere ezkutatu zuen aurpegia Augusto-ren golkoan. Hala jarrita, haren bihotz taupadak entzun eta ikaratu egin zen.

— Ondoezik al zaude, don Augusto?

— Eta nor zagok onik?

— Nahi al duzu deitzea, zerbait ekar diezazuten?

— Ez, ez, utzi. Bazakinat nire gaixotasuna zein den. Bidaia bat egin behar dinat, horrexen beharrean nago eta —eta isilune baten ondoren—. Lagunduko al naun?

— Don Augusto!

— Utz ezan don hori! Lagunduko naun?

— Zuk nahi bezala...

Lainotu egin zitzaion burua Augustori; odola lokietan taupaka hasi zitzaion eta bular estura sumatu zuen. Horri itzuri egitearren, begietan musuka hasi zitzaion Rosaritori, eta honek itxi egin behar izan zituen. Bat-batean jaiki, neskatoa alboratu eta esan zion:

— Utz nazan! Utz nazan! Beldur naun!

— Zeren beldur?

Neskatoaren bat-bateko lasaitasunak areago beldurtu zuen.

— Beldur dinat, ez zakinat nori, hiri, neure buruari.

Dena delakoari! Liduvinari! Begira, hoa, hoa, baina itzuliko haiz, ezta? Itzuliko haiz?

— Nahi duzunean.

— Eta lagunduko naun beste bidaia horretan, ezta?

— Zure esanetara...

— Orain hoa, hoa!

— Eta beste emakume hura....

Jadanik zutitua zen neskatoagana oldartu zen Augusto, heldu zuen, bularraren kontra estutu eta bere ezpain lehorrak neskaren ezpainei itsatsi zizkien, musukatzeke, eta hala egon zen puska batez, ahoa ahoaren kontra estutu eta bere buruari eraginez. Gero, askatu eta esan zion:

— Tira! hoa!

Irten egin zen Rosario. Eta Rosario irten bezain pronto, Augusto, nekaturik, mendirik mendi ibili izan balitz bezala, ohe gainean etzan, argia itzali eta bakarrizketan hasi zen:

«Gezurretan aritu natzaio eta baita neure buruari ere. Beti gertatzen da berdin! Oro da fantasia eta fantasia besterik ez dago. Gizonak hitz egin orduko gezurra dio, eta bere buruari hitz egiten dionean ere, hots, pentsatzen duela jakinik pentsatzen duenean ere, gezurra dio. Bizitza fisiologikoa da egia bakarra. Hitza, gizartearen

produktu hori, gezurretan aritzeko sortua da. Gure filosofoari diot entzuna, egia, hitza bezalaxe, gizartearen produktu dela, denek sinesten dutena, eta hori sinetsiz elkar ulertzen dutela. Gezurra da gizartearen produktu».

Miazkada batzuk sumatu zituen eskuan: «A!, hemen haiz, Orfeo? Hik ez duk hitz egiten eta ez duk, hortaz, gezurrik esaten, eta esango nitek tronpatu ere ez haizela tronpatzen, ez dioala gezurrik esaten heure buruari. Nahiz eta hiri ere, abere haizenez, gizonak zer edo zer kutsatuko zian... Gezurra esan eta geure buruak goretsi besterik ez diagu egiten. Gure sentipen eta inpresioak oro handitzeko dituk eginak hitzak..., sinesteko ere bai agian. Hitzak eta baita konbentziozko espresio modu guztiak ere, hala nola musuak, besarkadak... Nork bere papera antzertu besterik ez diagu egiten. Denok pertsonak, denok mozorroak, denok komikoak! Inork ez dik ez sofritzen ez gozaten esan eta adierazten duena, nahiz eta agian sofritu eta gozatu uste izan; bestela, ez bailegoke bizitzerik. Funtsean lasai asko gaudek. Eta halaxe nagok ni ere orain hemen, nire komedia bakarka antzertuz, aldi

berean antzezle eta ikusle bilakatua. Hiltzen duen gauza bakarra min fisikoa duk. Egia bakar-
ra gizon fisiologikoa duk, hitz egiten ez duena,
gezurrik ez dioena..».

Ate kolpetxo bat entzun zuen.

— Zer dugu?

— Afaltzeko asmorik ez gaur ala? —galdetu
zion Liduvinak.

— Egia; itxaron, banoa eta.

«Eta gero lo egingo diat, egunero bezala, eta
berak ere lo egingo dik. Egingo al dik lo Rosari-
tok? Ez ote diat urduriarazi barrutik? Eta bere
naturaltasun hori, inozotasuna ote ala malezia?
Ba al duk, ordea, inozotasuna baino gauza male-
ziatsuagorik, edota, malezia baino gauza inozoa-
gorik? Bai, bai, banengoan, bada, funtsean ez
dagoela gauza zeragorik... nola esan...?, gauza
zinikoagorik inozotasuna baino. Bai, bere burua
nire esku hain lasai uzte hori, beldurra sentiara-
zi didan hori, ez zakiat ongi zeren beldurra, hori
inozotasuna besterik ez zuan. «Eta beste emaku-
me hura» esan duenean, jelsia, e?, jelsia?
Segur aski jelsia sortzen denean baino ez duk
sortzen maitasuna, jelsiak esaten ziguk maite-

mindurik gaudenez. Emakume bat gizon batekin oso maitemindurik egonda ere, nola gizon bat emakume batekin, ez dituk konturatu ere egiten, ez ziotek elkarri esaten maitemindurik daudela, hau da, ez dituk benetan maitemintzen, harik eta gizona emakumeak beste gizon bati begiratzen diola eta emakumea gizonak beste emakume bat begiratzen diola konturatzen diren arte. Munduan gizon bakar bat eta emakume bakar bat baleude, beste gizakirik gabe, ezinezko litza-tekek bata bestearekin maitemintzea. Gainera, beti behar izaten duk hirugarren bat, alegia, Celestina, eta Celestina gizartea duk. Galeoto Handia! Bai egokia hori! Bai, Galeoto Handia! Hizkuntzagatik beragatik baino ez bada ere. Eta horrexegatik duk maitasunaren hori guztiori beste gezur bat. Eta fisiologikoa? Ez, maitasun fisiologikoa ez duk maitasun, ezta hurrik eman ere. Horrexegatik duk egia! Baina..., tira, Orfeo, goazemak afaltzera. Hori bai, hori egia duk eta!»

XIX

Handik bi egunetara, emakume bat zain zeukala esan zioten Augustori, berarekin elkarrizketatu nahi omen zuena. Haren bila irten eta doa Ermelindarekin egin zuen topo: «Zu hemen-dik?». Eta hark erantzun: «Berriro gu ikustera etorri nahi izan ez duzunez...!»

— Ulertuko duzu, andrea —erantzun zion Augustok—, azkenekoz zuenera joan naizen bitan gertatu zaizkidanak gertatu ondoren, Eugeniarekin bakarka behin eta ikusi nahi izan ez ninduenean bestean, ez nuela joan behar. Nik eutsi egiten diot eginari eta esanari, baina ez dut hara itzultzerik.

— Eugeniaren mandatu batekin natorkizu bada...

— Eugeniarena?

— Bai, berea. Ez dakit zer gertatu ote zaion senargaiarekin, baina hura aipatzen ere ez du entzun nahi, haserre bizian dago harekin, eta lehengoan, etxera itzuli zenean, bere gelan sartu eta ez zuen afaldu ere egin nahi izan. Bizi-biziak

zekartzan begiak, isuritako malkoen ondorioz, ez nolana hiko malkoak, ordea, erretzen duten horietakoak baizik, ez dakizu?, amorruscoak...

— Ba al da malko-klase bat baino gehiagorik, ordea?

— Bai horixe; badira malko batzuk freskatu eta lasaitu egiten dutenak, eta badira beste batzuk areago berotu eta sumintzen dutenak. Negar egina zen eta ez zuen afaldu nahi izan. Eta behin eta berriro errepikatu zidan bere leloa, alegia, gizonak basatiak eta basatiak besterik ez zaretela. Eta muturrez egon da azken egunotan, haserre bizian. Atzo, alabaina, deitu egin zidan eta zuri esandako guztiaz damu zela esan, pasa egin zela zurekin eta ez zuela zuzen jokatu, bera erosi nahi izateari buruzko hura barkatzeko ez, baina horrelakorik sinesten ez duela esateko agindu zidan. Horretxeri eman zion garrantzirik handiena. Oroz gain, sinets diezaiozula, halakorik esan bazuen urduri zegoelako, amorruaren amorrusuz esan zuela, baina ez duela halako usterik...

— Sinesten dut, bada, halako usterik ez duela.

— Gero..., gero zuri buruzko gauza bat jakiteko agindu zidan... diplomatikoki.

— Eta diplomaziarik onena diplomaziarik eza da, andrea, nirekin batez ere...

— Gero haxe jakiteko eskatu zidan: ea gaizki hartuko zenukeen eskaini diozun oparia, alegia, bere etxea, inolako konpromisorik gabe onartuko balu.

— Nola konpromisorik gabe?

— Bai, horixe, opari huts gisa onartzea.

— Halaxe ematen baitiot, nola onartu behar du bestela?

— Baietz, prest dagoela dio, bere borondate ona eta esan zuenagatik benetan damututa dagoela erakustearren, eskuzabalki egin diozun oparia onartzeko prest bai, baina besterik gabe...

— Aski da, andrea, aski! Esango nuke orain ere, konturatu gabe, ni iraintzen ari zaretela...

— Nahi gabe izango da.

— Irainik okerrenak nahi gabe egiten omen dira batzuetan. Hala diote.

— Ez dut, bada, entenditzen.

— Argi eta garbi dago, baina. Behinola bilera batean sartu nintzen eta han zegoen nire ezagun batek ez zidan agurrik egin. Irteeran, kexuka joan nintzaion beste lagun bati eta hark esan: «Ez harritu, ez du apropos egin; ez baita konturatu ere egin bertan zinela». Eta nik erantzun: «Horra hor zakarkeriarik handiena; ez ni agurtu ez izana, bertan nintzenik ere konturatu ez izana baizik». «Nahi gabe egin du hori; distraitu da..», ihardetsi zidan. Eta nik: «Nahi gabe egiten omen diren horiek dira zakarkeriarik handienak, eta zakarkerietan zakarrena inoren aurrean distraitzea». Inolako zentzurik gabe gauzez nahi gabe ahazte deitzen duten hori bezalako da, andrea, gauzez nahita ahazterik balego bezala. Nahi gabe ahaztea zakarkeria izaten da.

— Eta zer dela-eta diostazu horrelakorik?

— Hori diotsut, doa Ermelinda andrea, zeren, nire opariaren esker on gisa bera erosi nahi omen nuelako egin zidan eraso moduko hura zeta-eta barkamena eskatu ondoren, ez baitakit ongi zer dela-eta orain bai, orain onartu nahi duen, baina, hori bai, konpromisorik gabe. Zer konpromiso eta zer konpromiso ondoko?

— Ez horrela berotu, don Augusto...!

— Berotuko ez naiz bada, andrea, berotuko ez naiz bada! Zer uste du, ordea, horrek... neskatxa horrek, niri burla egingo didala, nirekin jolasean arituko dela? —eta hori esanez bat Rosarito zetorkion gogora.

— Jainkoarren, don Augusto, Jainkoarren!

— Esana dut lehendik ere hipoteka kendua dela, kitatu egin dudala, eta bere etxearen jabe egin nahi ez badu, nik ez dudala zerikusirik horrekin. Eta eskertzen didan ala ez, ez zaidala axola honezkero!

— Baina, don Augusto, ez horrela jarri, ordea! Zurekin bakeak egin nahi ditu eta, atzera lagun izan zaitezten...

— Jakina, orain bestearekin haserretu da eta... Lehen ni nintzen bestea; orain, berriz, bata, ezta? Orain ni harrapatzea, hori da kontua, ezta?

— Nik ez dut horrelakorik esan.

— Nik igarri, ordea.

— Oker zabilta, bada, oso oker. Izan ere, nire ilobari zuri esan berri dizkizudan guztiak entzun ondoren iradoki eta aholku eman nio-

nean ezen, bere senargai alferrontziarekin hase-
rretu zenez, saia zedila zu halakotzat beregana-
tzen, badakizu...

— Bai, ni berriro konkistatzen...

— Horixe! Bada, aholku hori eman nionean,
behin eta berriro esan zidan ezetz eta ezetz,
horrelakorik ezetz; estimatzen zintuela eta pre-
ziatzen lagun gisa eta lagun izateko, baina ez
zintuela atsegin senartako, gizonen batekin
ezkontzekotan maitemindurik ezkondu nahi
omen du...

— Eta nirekin ez dela sekulan maitemintzera
helduko, ezta?

— Ez, horrenbestekorik ez zuen esan.

— Badakit, bai; diplomazia oraingoan ere...

— Nola?

— Horixe, nik zer horri... neskaxa horri bar-
katzeko eskatzera ez ezik, ea emaztetako hartu-
ko nukeen jakin nahian etorri zara, ezta? Aurrez
hitz eginda, ezta? Eta, jakina, berak etsi egingo
luke...

— Zin degizut, don Augusto, zin degizut
neure ama santaren, memoria santuarren, goian
bego, zin degizut...

— Bigarrena, ez duzu zin egingo...

— Zin degizut, bada, zu ahaztu zarela oraingoan, nahi gabe, noski, ni nor naizen, Ermelinda Ruiz y Ruiz nor den.

— Hala bada...

— Halaxe da, bai —eta halako indarrez bota zituen hitzok, ezen ez baitzuen duda txikienik ere egiteko aukerarik uzten.

— Bada, orduan orduan..., esaiozu ilobari onartzen dizkiodala bere esplikazioak, benetan eskertzen dizkiodala, lagun izango nauela aurretantzean ere, lagun leial eta zintzoa, baina lagun besterik ez gero, e?, lagun besterik ez, laguna soilik... Eta ez iezaiozu esan ni ez naizela nahierara jo daitekeen piano bat, ez naizela gaur bai eta bihar ezko gizon bat, ez naizela ez ordezeko ez senargaiorde, ez naizela bigarren mahaiko plater...

— Ez zaitetz horrela berotu.

— Ez naiz eta berotzen! Horixe, bada, bere laguna naizela oraindik...

— Eta laster etorriko al zara gu ikustera?

— Hori...

— Bestela ez baitit sinetsiko, pena hartuko du gaixoak...

— Bidaia luze bat egitekoa naiz, ordea, urrutira...

— Joan aurretik, agurtzeko...

— Tira, ikusiko dugu...

Agur esan zioten elkarri. Doa Ermelinda etxera heldu eta ilobari Augustorekin izandako elkarriketaren berri eman zionean, hauxe esan zuen Eugeniak berekiko: «Hemen beste neska bat dago tartean, dudarik ez; oraingoan neureganatuko dut».

Augusto, berriz, bakarrik gelditu zenean, gelaren alde batetik bestera hasi zen, bere baitan ziola: «Jolasean aritu nahi du nirekin, piano bat bainintzen..., batean utzi, bestean onartu, berriro ere utzi egingo nau... Badaezpada nindukan ni... Nahi duena esango du, baina atzera berari galde egitea nahi du, mendeku hartzeko agian, bestea jeloskortu eta bere meneko egiteko beharbada... Ni halako zer bat bainintzen, panpina, ezerez bat... Nik ere neure nortasuna izaki ordea, alafede, ni ni naiz! Horixe, ni ni naiz! Ni ni naiz! Berak pieu zidan, ordea, ezin uka, nire

maitatzeko gaitasuna; behin pieu eta sustaturik ez dut, alabaina, haren beharrik; emakumeak besterik ez dago eta».

Puntu horretara iritsi zenean irribarrea atera zitzaion, bat-batean gogoratu baitzitzaion behin Victorrek Gervasio-ri botatakoa, zeinek, ezkonberritan, emaztea eta biak aldi baterako Parisa joatekoak zirela esan baitzion. Honakoa bota omen zion: «Parisa eta emaztearekin? Hori Eskoziara bakailao batekin joatea bezalakoxea duk, motel!» Izugarrizko grazia egin zion, nonbait, ateraldi horrek Augustori.

Eta honela jarraitu zuen berekiko: «Emakumeak besterik ez dago. Zoragarria benetan Rosaritoren maieziatzko inozotasun hori, malezia inozo hori, betiereko Evaren edizio berri hau! Zoragarria benetan neskatoa! Hark, Eugeniak, abstraktutasunetik konkretutasunera jaitsiarazi nau, baina honek orokortasunera eraman nau, eta hainbeste emakume gozo dago gainera, hainbeste... Hainbeste Eugenia! Hainbeste Rosario! Ez, ez, ez da jaio nirekin jolasean arituko denik, eta zer esanik ez emakumea bada. Ni ni naiz! Txikia izango da nire arima, baina neu-

rea!». Eta bere nitasuna laudatze hartan, nitasuna puztuz zihoakiola eta etxea, berriz, tipi gelditzen ari zitzaiola sentitu zuelarik, kalera irten zen hari lekua eta hatsartea ematearren.

Kalera irten orduko han ikusi zuen bere burua, zerua goian eta jendea alde batetik bestera, nor bere afera edo gustuari lotua, berari erreparatzeke, nahi gabe, noski, eta jaramonik ere egin gabe, ezagutzen ez zutelako jakina. Eta sentitu zuen bere nitasuna, «Ni ni naiz» zioeneko nitasun hura, gero eta txikiago bilakatzen zitzaiola eta gorputzean tolestatzen, eta baita gorputz barrenean bilatzen zuela txokoren bat bertan uzkuritu eta inork ikus ez zezan. Zinematografo bat zen kalea eta halaxe ikusten zuen bere burua ere: zinematografiko, itzal, mamu. Izan ere, jendartean bainatze hark, bera ezagutzeke eta jaramonik egin gabe alde batetik bestera doan jendetzaren artean galtze hark, beti sentiarazi zion natura zabalean bainatzen ariko balitz bezala, izarpean eta haizeen arrosari jarraikiz.

Bakarrik zegoenean sentitzen zuen soilik bera zela; bakarrik zegoenean baino ez ziezaio-

keen esan, konbentzitzearren apika, bere buruari: «Ni ni naiz»; besteen aurrean, lanpeturik edo distraiturik zebilen jendetzaren artean, ezin sentitu bera zenik.

Eta hala iritsi zen bizi zen auzo baztertuko plaza bakartian zegoen lorategi ezkutu hartara. Plaza bare bezain patxadatsuan beti zebiltzan haurren batzuk jostatzen, handik ez baitzen ez tranbiarik ez ia autorik ere pasatzen, eta agure batzuk ere joaten ziren eguzkia hartzera udazkeneko arratsalde goxoetan, han preso bizi ziren hamabi indi-gaztainen hostoak, haize gorriaren eraginez dardaratu ondoren, espaloian zehar itzulikatzen zirenean edo beti berdez, hosto freskoaren kolorez pintatutako zurezko banku haie-tako eserlekuak estaltzen zituzten sasoian. Lerro-lerro zeuden zuhaitz etxeko, hiriko haiek, ordu jakinetan, euririk ez zenean, erreten batetik ureztatzen zituztenak eta erroak plazako espaloiaren azpitik hedatzen zituztenak; preso zeuden zuhaitz haiek, etxeko teilatutik eguzkia noiz aterako eta noiz sartuko zain; apika oihan urrunarekin bakar minez akordatzen ziren zuhaitz kaiolaratu haiek, halako tiramen misteriotsu

batez erakartzen zuten Augusto. Adaburuetan txori batzuk aritzen ziren kantari, hiriko txoriak haiek ere, haurrengandik ihes egiten ikasiak, bai eta lantzean behin ogi papurrak botatzen zizkieten agureengana hurbiltzen ere.

Zenbat aldiz ez ote zuen ikusi, plaza hartako banku berdeetako batean bakarrik eta bakarti eserita, ilunabarreko sua teilatu baten gainean, eta aldian behin arrasgorri zoragarri haien urrezko sutan etxe bateko tximini gainetik katu beltz baten soslaia ere! Eta aldi berean, udazkenean, hosto horiak erortzen ziren, mahats hostoak bezain zabalak, esku momifikatu, laminatuak bailiren, hiri barruko lorategi tipien gainera. Eta han aritzen ziren, hosto artean, haurrak jostatzen, haiek biltzera jostatzen apika, arrasgorri piztuaz konturatu ere egin gabe.

Egun hartan plaza lasai hartara heldu, bankua estaltzen zuten hosto lehorrak kendu — udazkena baitzen— eta bertan eseri zenean, jolasean ari ziren haur batzuk, beti bezala, zegoen tokitik gertu. Eta haietako batek beste bat indigaztainetako baten kontra pega-pega eginda jarri eta honela esaten zion: «Hor hengoan hi,

preso, lapur batzuek harrapatuta...» `Baina ni..»., has zen bestea haserre, eta lehenak arrapostu: «Ez, hi ez hintzen hi...» Augustok ez zuen gehiago entzun nahi izan; jaiki eta beste banku batera joan zen. Eta pentsatu zuen: «Berdin-berdin jolasten dugu helduok ere. Zu ez zara zu! Ni ez naiz ni! Eta zuhaitz gaixo horiek, beraiek ote? Beren anaia menditarrek baino lehenago, askoz ere lehenago botatzen dute hostoa, eta adar hutsik gelditzen dira, eta adar horiek itzal koxkadunak islatzen dituzte lurzoruan, gau argi elektrikoen distiren eraginez. Zuhaitz bat indar elektrikoak argitua! Bai itxura bitxia, fantasiakoa, bere adaburuaren udaberrian, arku boltaikoak itxura metaliko hori ematen dionean. Eta hemen ez ditu haizeak kulunkarazten...! Gaixo zuhaitzak, ezin dasta ilargirik ez denean mendialdean egin ohi dituen izar distiratsuz jantzitako gau beltz horietakorik! Iduri du gizonak zuhaitz horietako bakoitza bere lekuan landatu eta esan diela: «Zu ez zara zu!», eta hori ez ahaztearren eman diela halako gau argi elektrikoa..., loak har ez ditzan... Gaixo zuhaitz gautarrak! Ez, ez, nirekin ez dute zuekin bezala jolasik egingo!

Bankutik jaiki eta han hasi zen kalean gora eta behera, ametsetan jaiki eta ibiltzen direnak bezalaxe.

XX

Zer egin behar zuen bidaia harekin, abiatuko zen ala ez? Baietz esanda zegoen ordurako, Rosaritori aurrena, zer zioen ere ondo ez zekiela, zerbait esatearren, edo lagunduko ote zion galdetzeko aitzakia gisa hobeki esan, eta baita gero doa Ermelindari ere, zera frogatzearren... zer ordea? Zer frogatu nahi ote zion bidaia bat egitekoa zela esan zionean? Auskalo! Kontua zen, ordea, bi bider lotu zuela bere burua, esan egin zuela urrunerako bidaia luze bat egingo zuela eta bera ez zen nortasunik gabeko gizona, bera bera zen; hitzeko gizona izan behar ote zuen?

Hitzeko gizonek lehenik gauza bat esan, ondoren pentsatu, eta azkenean, pentsatu ondoren, ongi nahiz gaizki iruditu, egin egiten dute, hitzeko gizonek ez dute atzera egiten, ez dute behin esandakorik atzera zuzentzen. Eta esana zuen berak urrutirako bidaia luze bat egingo zuela.

Urrutirako bidaia luze bat! Zergatik? Zertarako? Nola? Nora?

Iragarri zioten andereño bat etorri zitzaiola ikustera.

— Andereño bat?

— Bai —esan zion Liduvinak—; zera dela uste dut..., pianista!

— Eugenia!

— Bera.

Aiko-maiko gelditu zen. Zorabiozko tximista bezala pasa zitzaion burutik hura bidaltzeko ideia: esan ziezaiotela ez zela etxean. «Ni konkistazera dator hori, nirekin, panpina bainintzen, jolasteko asmoz —esan zuen berekiko—, berari jokoa egin diezaiodan, bestearen ordezkotza izan nadin...» Gero hobeto pentsatu eta: «Ez, gogor agertu behar dut!»

— Esan oraintxe noala.

Zur eta lur eginik zeukan emakume haren ausardiak. «Aitortu egin behar erabateko emakumea dela, bete-beteko nortasuna duela, hori da adorea hori! Hori da bizitasuna hori! Horiek dira begiak horiek! Baina ez, ez, ez dit etsiaraziko! Ez nau konkistatuko!»

Augusto egongelan sartu zenean, han zegoen Eugenia zutik. Keinua egin zion eser zedin,

baina hark, eseri aurretik, hauxe bota zion goraki:

— Engainatu egin zaituzte don Augusto, ni engainatu nauten bezalaxe!

Eta hala gelditu zen gizajoa zer egin edo zer esan ez zekiela. Biak eseri, eta isilik egon ziren pixka batean.

— Horixe bada, esan bezala, don Augusto, engainatu egin zaituzte nirekiko, eta engainatu egin naute ni ere zurekiko; horixe da dena.

— Elkarrekin hitz eginda gaude baina, Eugenia!

— Ez egin jaramonik nik esandakoari. Joana joana da!

— Bai, joana beti da joana; eta ezin bestela izan.

— Entenditzen didazu. Nik zera nahi dut, eskuzabalki egin didazun oparia bere horretantxe onartu dudala uler dezazun, alegia, ez bestelako esanahirik ematea.

— Horixe nahi dut nik ere, andereño, nire oparia bere horretantxe onartzea, alegia, bestelako esanahirik gabe.

— Hori da, leialtasunari leialtasuna. Eta orain argi hitz egin behar baitugu, esan behar dizut, pasa direnak pasata eta esan nizkizunak esanda, ezin niezazukeela, ezta nahita ere, eskuzabalki egin zenidan opari hura neure esker on hutsez baino eskertu. Eta zuk ere, nik uste...

— Halaxe da, andereño, nik ere, pasa zena pasa ondoren eta azkeneko solasaldian esan zenidana esan zenidalarik, eta zure izebak konstatuaz gain nik neuk idurikatzen dudala idurikatzen dudalarik, nik ere ez niezaioke, ezta nahita ere, nire eskuzabaltasunari preziorik jarri...

— Bat gatoz, hortaz?

— Guztiz bat, andereño.

— Beraz, berriro lagun izan gaitezke, lagun onak, benetako lagunak?

— Izan gaitezke, bai.

Eugeniak eskua luzatu zion, esku fin hura, elurra bezain hotz eta zuria, teklatuak menperatzen ohitutako hatz hezur-kolorekoz osatua, eta Augustok dardarka ari zitzaion bere eskuarekin estutu zuen.

— Lagun izango gara, beraz, don Augusto; lagun onak, nahiz eta laguntasun honek niri...

— Zer?

— Jendaurrean agian...

— Zer? Esazu! Esazu!

— Baina, tira, izan berri ditudan zenbait esperientzia mingarriren ondoren, zenbait gauzari uko eginda nago dagoeneko...

— Azal ezazu argiago, andereño. Ez du balio gauzak erdizka esateak.

— Hara bada, don Augusto, argi esango dizkizut gauzak, argi eta garbi. Erraz dela uste al duzu, gertatu dena gertatu ondoren eta jakina izanik, hala baita gure ezagunen artean, ezen nire ondarearen hipoteka horrela, opari gisa, kendu duzula, erraza dela uste al duzu inor nirekin interesatu eta hurbiltzea?

«Deabru emakumea!», pentsatu eta lurrari begira gelditu zen Augusto zer erantzun ez zekiela. Berehala, burua altxa eta isilkako malko bat xukatzen ikusi zuen Eugenia.

— Eugenia! —egin zuen oihu ahots dardarazitiz.

— Augusto! —murmurikatu zuen Eugeniak etsita.

— Zer nahi duzu, bada? Zer egitea nahi?

— O, ez, patua dugu, patua besterik ez; haren jostailu gara. Zoritxarrekoak gu!

Bere besaulkia utzi eta sofan eseri zen Augusto, Eugeniaren ondoan.

— Aizu, Eugenia, Jainkoarren, ez ezazu nirekin horrela jolas egin! Zu zeu zara patua; zeu zara hemen dagoen patu bakarra. Zeu, bihi bat bainintzen hara eta hona narabilzun hori; zeu, erotzen nauzun hori; zeu, asmo tinkoenak bertan behera utziarazten dizkidazun hori; zeu, ni neu ez izatea lortzen duzun hori...

Eta besoa lepagainean jarri, bere aldera eramane eta bularraren kontra estutu zuen. Eugeniak, emeki-emeki, sonbrerua kendu zuen.

— Bai, Augusto, patuak ekarri gaitu honaino. Ez..., ez zuk ez nik ez dugu geure burua saltzerik, desleial izaterik; zu ez zaituzte, nik ilunaldi batean esan bezala, ni erosi nahian dabilen gizontzat hartu behar, eta ni ere ez naute hartu behar zu ordezko, senargaiorde bihurtu nahi zaituen emakumetzat, bigarren mahaiko plater, nire izebari esan zenionez, zure eskuzabaltasuna eskertu besterik nahi ez duena...

— Eta guri zer, Eugenia nirea, horrela edo hala hartzen bagaituzte? Nork hartu gainera?

— Guk geuk!

— Eta zer, Eugenia nirea...

Atzera bere kontra estutu eta bekokia eta begiak musukatzen hasi zitzaion. Entzuteko moduan egiten zuten arnas.

— Utz nazazu! Utz nazazu! —esan zuen Eugeniak, ileak txukuntzen zituela.

— Ez, zu..., zu..., zu..., Eugenia, zu...

— Ez, ni ez, ezinezkoa da...

— Ez al nauzu, bada, maite?

— Maitatu... Ba al daki inork maitatzea zer den? Ez dakit..., ez dakit..., ez nago batere seguru...

— Zer da hau, orduan?

— Hau... momentuko patua da hau!, damuaren ondorio edo..., auskalo...; horrelako kontuak ezin dira aldeztatik erabaki, bizi egin behar dira... Eta, gainera, Augusto, ez al dugu esan lagunak izango ginela, lagun onak, baina lagun onak besterik ez?

— Bai, baina... eta zure sakrifizioaren zer hori, zer?

Nire oparia onartu izanagatik, nire lagun, nire lagun besterik ez izateagatik inor ere zurekin interesatuko ez delako hori, zer?

— A, horrek ez dio axolarik; hartua dut erabakia!

— Haserrealdi haren ondoren agian?...

— Agian bai...

— Eugenia! Eugenia!

Une hartan atea jo zuten eta Augustok, dardara batean eta aurpegia gorriturik, oihu egin zuen zakar:

— Zer dinagu?

— Rosario, zure zain! —erantzun Liduvinaren ahotsak. Kolore gorria joan eta ubel jarri zitzaion aurpegia Augustori.

— A! —bota zuen Eugeniak—. Sobran nago hemen honezkero. Zera da... Rosario, zure zain. Ikusten nola ez gaitezkeen lagunak, lagun onak, oso lagun onak besterik izan?

— Baina Eugenia...

— Zain dagoela Rosario...

— Eta eman zenidan ezetza eman zenidalarik, Eugenia, hau da, erosi egin nahi zintudala eta azken finean beste bat zeneukala esan zeni-

dalarik, zer egin behar nuen, bada, nik, zu ikusita ikasi bainuen maitatzen? Ez al dakizu despita zer den, habiarik gabeko txera zer den?

— Tira, Augusto, eman bosteko hori; ikusiko dugu elkar, baina argi geldi bedi joanak joan direla.

— Ez; joanak joan ez; ez!, ez!, ez!

— Ongi da, ongi da; zain dagoela Rosario...

— Jainkoarren, Eugenia...

— Ez, hori ez baita beste munduko gauza; zain edukitzen nuen lehen nik ere hura..., Mauricio. Ikusiko dugu elkar. Eta izan gaitezen serioak eta gure barruarekiko leial.

Sonbrerua jarri, eskua luzatu zion Augustori, zeinek hura hartuta ezpainetara eraman baitzuen eta musukatu, eta irten egin zen, Augustok ateraino lagundu ondoren. Hari begira gelditu zen une batez: han zihoan, zut eta lerdan, eskaileran behera. Eugeniak azpiko mailarte batetik gora so egin eta agur egin zion esku-begiekin.

Buelta eman eta atzera gelan sarturik, han Rosario zutik eta plantxako saskia eskutan zuela ikustean, honela esan zion zakar:

— Zer dinagu?

— Don Augusto, emakume hori zu engainatu nahian dabilela esango nuke...

— Eta hiri zer axola zain?

— Zuri buruzko gauza guztiak axola zaizkit niri.

— Hi engainatzen nabilela esan nahi dun...

— Horixe ez zait bada axola.

— Ez didan sinestarazi nahiko, halako esperantzak eman ondoren jeloskor ez hagoenik, ezta?

— Jakingo bazenu, don Augusto, nola eta zer-nolako familiaren baitan hezia naizen, ondo ulertuko zenuke neskatoa izan arren alde batera utziak ditudala honezkero jelos kontu horiek. Guk, gure mailakook...

— Isildu!

— Nahi duzun bezala. Baina berriro diotsut emakume hori zu engainatu nahian dabilela. Hala ez balitz eta maite baduzu eta hori bada zure gustua, zer nahiago nik zu harekin ezkontzea baino?

— Baina, benetan al dion hori guztia? — Bene-benetan.

— Zenbat urte ditun? — Hemeretzi.

— Hator hona —eta beso bietatik helduta, aurrez aurre jarri eta begietara begira gelditu zitzaion.

Eta neskatoari ez baina Augustori aldatu zitzaion kolorea.

— Egia esan, neskato, ez haut entenditzen.

— Sinesten dizut, bai.

— Honezkero ez zakinat hau zer den, inozotasuna, malezia, burla, gaiztotasun goiztiarra...

— Txera besterik ez duzu hau.

— Txera? Eta zergatik?

— Jakin nahi duzu zergatik? Ez zara haserretuko esaten badizut? Agintzen didazu ez zarela haserretuko?

— Tira, esaidan.

— Ongi da; zeren... zeren... zeren... gizon dohakabe bat zarelako, gizajo bat...

— Hik ere bai?

— Nahi duzuna. Baina fidatu neskato honekin; fidatu... Rosariorekin. Zurekiko leialago..., ezta Orfeo bera ere!

— Betiko?

— Betiko!

— Edozer gertatuta ere?

— Bai, edozer gertatuta ere.

— Hi haiz, hi haiz benetako... —eta besarkatzen saiatu zen.

— Ez, orain ez; lasaiago zaudenean eta...

— Aski da, ulertzen dinat.

Hala, agur esan zioten elkarri.

Augusto bakarrik gelditu zenean, honela zioen bere artean: ` Erotu egingo naute erabat bataren eta bestearen artean... Honezkero ni ez naiz ni..».

— Jauna, politikan edo antzeko zerbaitetan sartu beharko zenukeela uste dut —esan zion Liduvinak, bazkaria mahairatzearekin batera—; halaxe distraituko zinateke eta.

— Eta nondik nora bururatu zaizu horrelakorik, emakumea!

— Hobe baita norbera distraitzea beste inork distraitzea baino eta... badakizu!

— Tira, bada, dei iezaiozu orain zure senarrari, Domingori, eta esan, bazkaltzen bukatzen duenean, tutean egin nahi dudala harekin... distraitzeko.

Eta tutean ari zirela, Augustok bat-batean kartak mahai gainean utzi eta galdetu zion:

— Esaidazu, Domingo, zer egin behar du gizon batek, aldi berean bizpahiru emakumerekin batera maitemindurik egonez gero?

— Gauza nola den...

— Gauza nola den?

— Bai! Oso diruduna eta adoretsua izanez gero, hirurekin ezkondu eta, bestela, bat berarekin ere ez.

— Ezinezkoa da, ordea, lehenengo hori, gizona!

— Diru asko izanez gero, zernahi egin daiteke!

— Eta emakumeek hori jakinez gero, zer?

— Haiei ez zaie axola.

— Axolako ez zaio, bada, emakume bati beste batek bere senarraren txeraren parte bat kentzea?

— Aski egiten du bere partearekin, jauna, baldin eta zenbat diru gastatzen duen neurtzen ez badiote. Orduantxe ernegatzen da emakumea, gizonak janaria, jantziak eta horrelako gauzak, luxuzkoak, mugatzen dizkionean; aldiz, nahi

adina xahutzen uzten badio... Baina, jakina, haren seme-alabarik izanez gero...

— Haren seme-alabarik izanez gero, zer?

— Hortik datorrela jelsia oro, jauna, seme-alabengandik. Ama horrek ez du beste amarik edo amagairik onartzen; ama horrek ez du onartzen beste seme-alaba edo beste amaren baten mesedetan bereei deus kentzerik. Baina haurrik izan ez eta, ez jatekorik, ez jaztekorik ez eta punpezia eta arrandiarik neurtzen ez badiote, bo!, arindu ere egingo dizkio bati lanak... Batek, bere kontura bizi den emakumeaz gain, sosik ere kentzen ez dion beste bat badauka, bere kontura bizi denak ez du ia batere jelsiarik sentituko hutsaren truke daukan beste horrenganako, eta inolako kosturik ez sortzeaz gain errentagarria ere baldin bada.... emakume batengandik ateratakoa besteari ematen badio, orduan...

— Orduan, zer?

— Dena primeran joaten dela. Sinetsi, jauna, ez dago Otelarik...

— Ez eta Desdemonoarik ere.

— Baliteke!...

— A ze gauzak esaten dituzun...

— Handiki-etxe askotan zerbitzatua bainaiz Liduvinarekin ezkondu eta zure etxean zerbitzatzera etorri baino lehen... Halako etxeetan ibilia naiz mutil koskorretatik.

— Eta zuen mailan, zer?

— Gure mailan? Bo! Debekatuak ditugu zenbait luxu.

— Eta zeri deitzen diozu luxua?

— Teatroetan ikusten eta nobeletan irakurtzen diren gauza horiei...

— Aizu, ez dira, bada, hilketa pasional horietako gutxi ikusten zuen mailakoen artean!...

— Bo! Harroputz horiek teatrora joaten direlako eta nobelak irakurtzen dituztelako, beste-lak...

— Bestela, zer?

— Denoi gustatzen zaigula itxurak egitea, jauna, eta inor ere ez dela norbera, besteek egiten dutena baizik...

— Filosofo zabilta...

— Halaxe deitzen zidan lehen izan nuen azken nagusiak ere. Baina nire Liduvinak esandako gauza berbera uste dut nik ere: politikan sartu beharko zenuke.

XXI

— Arrazoi duzu, bai —esaten zion Antoniok Augustori arratsalde hartan kasinoan, txoko batean bakarka ari zirela—, arrazoi duzu; bada misterio mingarri bat, oso mingarria, nire bizian. Zer edo zer igarri duzu zuk. Gutxitan izan zara nire etxe apalean; nabarituko zenuen, alabaina, halako...

— Bai, halako gauza arraro bat, ez dakit, halako tristura bat airean, bereganatzen nindue-na...

— Nire seme-alabak, nire seme-alaba gaixoak, han izanik ere, seme-alabarik gabeko etxea, senar-emazterik gabekoa apika, irudituko zitzaizun...

— Ez dakit... ez dakit...

— Urrundik etorri ginen, oso urrundik, iheska; baina gauza batzuk aldean daramatzagu beti, inguratu egiten gaituzte eta ingurumari misterioitsu baten gisan biltzen. Nire emazte gaixoa...

— Bai, aurpegian igartzen zaio zure andreaki bizitza osoa eman duela...

— Sofritzen, bai, esan ezazu lasai. Begira, lagun don Augusto, ez dakit ongi zergatik, ezkuto sinpatia batengatik edo, baina zuk erakutsi izan diguzu txerarik handiena, errukirik handiena beharbada, eta nik, oraingoan ere gaisetarik zama bat kenduko dudalakoan, nire zorigaitzak jakinaraziko dizkizut gure artean. Emakume hori, nire seme-alaben ama, ez da nire andrea.

— Pentsatzen nuen, bai; baina zure seme-alaben ama baldin bada, zure andrea bailitzan zurekin bizi baldin bada, zure andrea da.

— Ez, nik badut beste andre bat... legezkoa, esan ohi denez. Ezkonduta nago, baina ez zuk ezagutzen duzunarekin. Eta hau, nire seme-alaben ama, ezkondua da bera ere, baina ez nirekin.

— A! Bikoitza...

— Ez; laukoitza, ikusiko duzu. Zoraturik, maitasunez guztiz zoraturik ezkondu nintzen, emakume isil eta hitz gutxiko batekin, hitz gutxikoa eta beti esaten zuena baino askoz ere gehiago esaten zuela ematen zuena; haren begi urdintsu eztiak, benetan eztiak, lo antzean egoten ziren arren, noizean behin, arratsalderen batean,

esnatzen zirenean, su-txinpartak ateratzen zituzten orduan. Eta halakoxea zen goitik behe-
ra. Haren bihotza, arima osoa, gorputz osoa, lo
zeudela baitzirudien normalean, kolpez esnatzen
ziren bat-batean; baita berehala atzera lokartu
ere, behin bizitasun tximista hura —ez nolanahi-
ko bizitasunekoa! iraganik, eta gero ezertxo ere
gertatu izan ez balitz bezala, gertatutako guztia
ahantzi izan balu bezala. Bazirudien behin eta
berriro hasten genuela bizitza, behin eta berriro
ari nintzela hura konkistatzen. Halako atake epi-
leptiko batean onartu ninduen senargaitzat, eta
beste atake epileptiko horietako batean eman
zidan baietza ere, nik uste, aldarearen aurrean.
Sekula ez nuen lortu maite ninduen ala ez esa-
tea. Galdetzen nion bakoitzean, bai ezkondu
aurretik bai ezkondu eta gero ere, erantzun bera
beti: «Horrelakorik ez da galdetzen; lelokeria bat
da». Beste batzuetan esaten zuen maitatu aditza
ez omen dela honezkero teatroan eta liburuetan
baino erabiltzen, eta nik inoiz «maite zaitut» ida-
tzi izan banio, besterik gabe bidalia izango nin-
duela haizea hartzera. Bi urte pasa egin geni-
tuen modu arraro hartan elkarrekin ezkondata,

egunero ekiten niolarik esfinge hura konkistatzeari. Ez genuen izan haurrik. Gau batez ez zen etxean azaldu, ero baten moduan jarri nintzen, alde guztiak miatu nituen bere bila, eta bihar-munean jakin nuen, gutun labur bezain idor baten bitartez, urrutira joana zela, oso urrutira, beste gizon batekin...

— Eta ez al zenuen aurrez inongo susmorik izan, ez al zenuen usnatu...

— Ezta batere! Nire andrea maiz ateratzen zen bakarrik etxetik, amarenera, lagunengana, eta bere hoztasun arraro harek babesten zuen nire edozein susmotatik. Sekula ez nion deus ere igarri esfinge hari! Gizon ezkondu batekin egin zuen alde, zeinak neurearekin joateko bere andrea eta neskatxo bat abandonatzeaz gain, berarekin eraman baitzituen andrearen diru guztiak ere, lehendik ere bere nahierara maneiatu zituenak eta zenbateko polita egiten zutenak. Esan nahi dut, emaztea abandonatu ez ezik, hari lapurreta egin eta xentimorik gabe utzi zuela. Eta jaso nuen gutun labur-idor hartan nire andrearen bahitzailearen andrea zein egoeratan gelditzen zen aipatzen zen. Bahitzaile edo bahi-

tu... batek daki! Egun batzuk eman nituen ez lorik egin, ez jan, ez atsedetik hartu gabe; nire hiriko auzo baztertuenetan barna paseiatu besterik ez nuen egiten. Eta dauden biziorik txar eta makurrenetan erortzeko zorian egon nintzen. Eta mina arintzen eta pentsamendu bilakatzen hasi zitzaidanean, beste gaixo hura etorri zitzaidan gogora, babesik gabe gelditzen zen emakume hura, maitasunik eta dirurik gabe utzia. Barruak agintzen zidan ezen, zorigaitza nire emaztearen kariaz heldu zitzaionez, diru-laguntza eskaini behar niola, Jainkoak dirudun egin baininduen.

— Antzematen diot gainerakoari, don Antonio.

— Berdin dio. Ikustera joan nintzaion. Pentsa nolakoa izan zen gure lehen elkarrizketa hura. Nork bere zorigaitza deitoratu genuen, zorigaitz berak jota baikeunden biok ere. Nire baitan nioen: «Eta nire andrea hartzeko utzi du beste hau gizon horrek», eta zera sentitzen nuen, zertako ez dizut, bada, aitortuko egia?, halako barne sentrazio bat, esplikaezinekoa, nik beste gizon hark baino hobeto aukeratzen jakin eta

hark hori onartzen zuelako edo. Eta berak ere, haren andreak, gisa bereko gogoeta egiten omen zuen, nahiz alderantzizkoa izan, gerora aitortu zidanez. Diru-laguntza eskaini nion, nire dirutik behar adina har zezala, eta errefusatu egin zidan hasieran. «Lan egingo dut bizitzeko eta nire alaba mantentzeko», esan zidan. Behin eta berriro eskaini nion, ordea, hainbeste bider, non onartu egin baitzidan azkenean. Nire etxe-koandre izatea eskaini nion, nirekin bizitzera etortzea, gure aberritik oso urrun, noski, eta behin eta berriro pentsatu ondoren, onartu egin zuen hori ere.

— Eta, jakina, behin elkarrekin bizitzera joanda...

— Ez, denbora behar izan zuen, denbora bat. Elkarbizitza, halako mendeku sentimendu bat, despetxuzko sentimendu bat, auskalo zeren kariaz izan zen... Harekin ez baina haren alabarekin txoratu nintzen, nire andrearen maitalearen alaba gaixoarekin; aita-maitasuna hartu nion, aita-maitasun bortitza, egun ere badiodana, ikaragarri maite baitut, ikaragarri bai, neure seme-alabak berak adina, gehiago ez bada.

Besoetan hartzen nuen, nire bularraren kontra estutu, musuz bete, eta negar egiten nuen, haren gainean negar. Neskato gaixoak esaten zidan: «Zergatik egiten duzu negar, aitatxo?», hala deitzeko eta halakotzat hartzeko bainion agindua. Eta haren ama gaixoak ere negar egiten zuen ni negarrari emana ikustean, eta hala nahasten genituen batzuetan gure malkoak nire andrearen maitalearen, zoriona ebatsi zidanaren alabaren burutxo horiaren gainean.

Egun batez jakin nuen —jarraitu zuen— nire andreak seme bat izan zuela bere maitalearengandik, eta egun hartan sutan jarri zitzaizkidan erraiak, inoiz ez bezala sofritu nuen, eta erotu eta nire buruaz beste egingo nuela uste izan nuen. Jelosia, jelosia gordin ezinagoa, ordurarte ez nuen hainbestekorik sentitu. Nire arimako zauria, ordurako orbaindua zirudiena, ireki egin zen eta odola zerion..., sua zerion! Bi urtetik gora bizia nintzen nire andrearekin, neure andrearekin, eta deus ere ez!, eta orain lapur hark...! Idu-rikatu nuen nire emaztea guztiz esnatu zela eta suhar betean bizi zela. Besteak, nirekin bizi zenak, zer edo zer igarri eta esan zidan: «Zer

duk?» Gure artean hika egitea genuen erabakia, neskatoarengatik. «Utz nazan!» erantzun nion. Azkenean, dena aitortu nion, ordea, eta dardarka hasi zen. Eta nire jelsia hura ere kutsatu viola esango nuke...

— Eta, jakina, horren ondoren...

— Ez, beranduxeago heldu zen, eta beste bide batetik gainera. Behin, neskatoa eta hirurak elkarrekin geundela, nire magalean jarririk, kontu kontari, musuka eta tontakeria batzuk esaka ari nintzaiola, ama hurbildu eta laztanak egiten hasi zitzaion bera ere. Eta hark, gaixo txikia!, eskutxo bat nire sorbalda gainean eta beste amarenaren gainean jarri, eta esan zigun: «Aitatxo... amatxo... zergatik ez didazue ekartzan anaiatxo bat nirekin jostatzeko, beste neskato batzuen antzera, orain bezala bakarrik egon ez nadin...?» Ubel-horitu egin ginen, begietara begiratu genion elkarri arimak biluzik uzten dituzten horietako begiradaz, eta arimak biluzik ikusi eta gero, ez lotsatzearen, neskatoa musukatzen hasi ginen, eta musu haietakoren bat edo bestek aldatu egin zuen bere xedea. Gau hartan sortu genuen, jelsiazko malko eta sumindura

artean, zoriona lapurtu zidanaren alabaren lehendabiziko anaiatxo.

— Bai istorio bitxia!

— Eta gure arteko amodioa, nolabait deitzearen, amodio idor eta mutua izan zen, suz eta amorruz egina, hitz samurrik gabekoa. Nire andrea, nire seme-alaben ama, alegia, bera baita eta ez beste inor nire andrea, ohartuko zinenez, emakume graziatua da, ederra agian, baina, elkarrekin bizi izanda ere, sekula ez zuen nigan desira irrikarik sortu. Eta esan dizudana egitera iritsi ginelarik ere, ez zitzaidan iruditzen oso maitemindurik nengoenik, harik eta behin guztiz kontrako uste osoa izatera iritsi nintzen arte. Kontua da behin, haur egin berritan, gure laugarren umea jaio zenean, hain ondoezik jarri zitzaidala, hain ondoezik, hilko zitzaidala uste izan bainuen. Ia erabat odolustu zen, argizaria bezain zuri gelditu zen, itxi egiten zitzaizkion betazalak... Galdu egingo nuelakoan nengoen. Erotu bezala egin nintzen, argizaria bezain zuri ni ere; izozten ari zitzaidan odola. Eta etxeko bazter batera joan nintzen, inork ikusiko ez ninduen lekura, bertan belaunikatu eta emakume

santu hura hiltzen utzi baino lehenago ni hiltze-ko eskatu nion Jainkoari. Negar egin nuen eta baita bularrean atximur eta harramazka egin ere odola atera arte. Orduan jabetu nintzen zein tinko zegoen lotuta nire bihotza nire seme-alaben amaren bihotzarekin. Zertxobait onera egin, konortera bihurtu eta arriskutik kanpo gelditu zenean, ahoa hurbildu nion belarrira, ohean etzanik berriro sortzen ari zitzaion biziari irribarre zegoen bitartean, eta artean sekulan esan ez nion eta gisa berean atzera sekulan esan ez diodana esan nion. Eta berak irribarre, irribarre egi-ten zuen sabaiari begira. Nire ahoa harenari itsatsi eta besarkatu egin nuen, bere beso biluziak lepo jiran jartzen zizkidala; eta negar egin nuen, nire begietako malkoak haren begietara isuriz. Eta esan zidan: «Eskerrik asko, Antonio, eskerrik asko niregatik, gure seme-alabengatik, gure seme-alaba guztiengatik..., guztiengatik..., guztiengatik..., harengatik, Ritarengatik...» Gure alaba zaharrena da Rita, lapurraren alaba...; ez, ez, gure alaba da, nire alaba. Lapurrarena beste bat da, garai batean nire andrea omen zen hare-

na. Ulertzen al duzu orain kontua osorik nola den?

— Baita askoz gehiago ere, don Antonio.

— Askoz gehiago?

— Gehiago, bai! Bi andre dauzkazu, beraz, don Antonio!

— Ez, ez, ez dut bat besterik, bakarra, nire seme-alaben ama. Bestea ez da nire andrea, eta bere alabaren aitarena den ala ez ez dakit.

— Eta tristezia hori...

— Legea beti da tristea, don Augusto. Eta tristeagoa amodio bat beste amodio baten hila biaren gainean sortu eta hazia baldin bada, landare usteldu batetik, ongarria bailitzan, elikatzen den landarea bezala. Gaiztakeriek, bai, besteren gaiztakeriek juntarazi gaituzte, gaiztakeria ote gure elkarrenganatzea? Haiek hautsi egin zuten hautsi behar ez dena, eta guk zergatik ez genituen, bada, atze-aurreak lotuko?

— Eta ez al duzue haien berri...?

— Ez dugu nahi izan. Gainera gure Rita emakume koskortua dugu honezkero; usterik gutxieneko egunean ezkonduko zaigu... Nire deiturarekin, noski, nire deiturarekin, eta hor konpon gero

legea. Nire alaba da eta ez lapurrarena; neronek
hezi dut.

XXII

— Eta, zer? —ari zitzaion galdezka Augusto Victorri—, zer moduz hartu duzue arrotza?

— A, sekulan ez nian halakorik uste izango, sekula ere ez! Jaiotzaren bezpera berean ere haserre bizian gintuan artean. Eta haurra munduratzeko borroka bizian ari zela ez dakik zer irainak ez zizkidan botatzen nire Elenak. «Hik, hik duk errua, hik!» esaten zidaan. Edota: «Alde hemendik, ken nire begien bistatik! Ez al haiz lotsa hemen egoteaz? Hiltzen banaiz, hirea izango duk errua». Edo bestela: «Bat eta azkena, bat eta azkena!». Hura jaiotzearekin, ordea, dena aldatu duk. Amets batetik esnatu eta ezkondu berri garela ematen dik. Ni itsu gelditu nauk, erabat itsu; itsutu egin naik haur horrek. Pentsa zenbateraino nagoen itsu, ezen denek esan arren nire Elena haurdunaldiak eta haur egiteak oso itxuragabetuta utzi dutela, hezurretan dagoela eta gutxienez hamar urte zahartu dela, niri, aldiz, inoiz baino biziago, mardulago, gazteago eta baita mamitsuagoa ere iruditzen baitzait.

— Portugalen entzundako *fogueteiroaren* kontra gogorarazten zidak horrek, Victor.

— Bota.

— Badakik Portugalen suziriak edo piroteknia delakoa benetako arte ederra dela. Portugaleko suak ikusi ez dituenak ez zakik zer gauzak egin daitezkeen horiekin. Eta a zer izenak dituztenak, ene Jainkoa!

— Bota, bota kontraera.

— Hara bada. Bazuan Portugaleko herri batean piroteknikari edo *fogueteiro* bat oso emazte ederra zuena, bere kontsolamendu, xarma eta harrotasuna zena. Harekin zoratzera ino maitemindurik bazegoen ere, are handiagoa zuan bere harrotasuna. Atsegin zitzaioan besteei hozkia ematea, nolabait esatearren, eta ondoan eraman ohi zian, esanez bezala: ikusten duzue emakume hau?, gustatzen?, bai, ezta?, neurea da ba, neurea baino ez!, aski duzue izorratzea! Etengabe aritzen zuan emaztearen edertasuna goresten eta harek inspiratzen omen zizkioan, gainera, bere produktu pirotekniko ederrenak, huraxe omen haren suen musa. Eta hara non, behinola, su horietako bat prestatzen ari zela eta

emaztea, ohi bezala, hura inspiratzearen, aldamenean zuela, sutautsak su hartu, eztanda egin eta senar-emazteak konortea galdurik eta erre-dura larri eta guzti eraman behar izan zituzten. Emazteak erredura handiak izan zitian aurpegi eta bularraldean, eta itsuski desitxuratua gelditu zuan; bera, aldiz, *fogueteiroa*, itsu gelditu zuan zorionez eta ez zian emaztearen desitxuraketaz ohartzerik izan. Eta harrezkero ere harro azaltzen zuan bere emaztearen edertasunarekin, hura denen aurrean goretsiz eta bere ondoan eramaki, itsu-neska bihurtua, lehen bezalakoxe desafiozko arrandi planta eta airearekin. «Ikusi al duzue sekula hau baino emakume ederragorik?» galdetzen zian, eta hari gertatutakoaren jakinaren gainean, *fogueteiro* gizajoaz errukitu eta goraipatu egiten ziotean denek emaztearen edertasuna.

— Artean ez al zian, bada, bere ustez, ederizaten jarraitzen?

— Lehen ere baino ederrago beharbada, hiretzat hire emaztea arrotza eman ondoren bezala.

— Eziezaiok horrela deitu!

— Hi hasi hintzen horrela deitzen.

— Ez zioat, ordea, beste inori entzun nahi.

— Maiz gertatzen duk hori; norbaiti jartzen diogun goitzen berberak oso bestela egiten ziguk belarrira beste bati entzunda.

— Bai, inork ere ez omen dik bere ahotsa ezagutzen...

— Ez eta bere aurpegia ere. Niri dagokidanez bederen, bazakiat ikara handiena ematen didaten gauzetako bat dela ispilu aurrean, bakarrik, inork ikusten ez nauenean, neure buruari so gelditzea. Kolokan jartzen diat azkenean neure existentzia bera eta, nire burua beste bat bainintzen ikusirik, irudikatzen diat amets bat naizela, fikziozko izaki bat...

— Ez, bada, hire buruari modu horretan so egin...

— Ezin diat. Nire barrua aztertu zalea nauk.

— Azkenean fakirrak bezala hasiko haiz, bada: heure zilborrari begira.

— Eta batek bere ahotsa eta aurpegia ezagutzen ez baditu, ez dik, nik uste, bere den ezer ere ezagutzen, ezta bere-bere dena, bere atal gisa...

— Bere emaztea, esate baterako.

— Horixe; nagok, ezinezkoa behar duela izan genrekin bizi den eta azkenean genre parte izatera heltzen den emakumea ezagutzea. Ez al dakik poetarik handienetariko batek, Campoamorrek, zioena?

— Ez. Zer zioan?

— Bada, esaten zian gizon bat ezkontzen denean, benetan maitemindurik ezkonduz gero, hasieran emaztearen gorputza ukitu bezain pronto pizten zaiola halako grina haragikoia, baina denbora pasa ahala, ohitu egiten dela, eta, hala, berdin izaten zaiola orduan eskuarekin emaztearen izter biluzia ukitzea edo bere izterra ukitzea, baina orduan ere, emazteari izterra moztu beharko baliote, berea moztuko baliote bezala hartuko lukeela min.

— Halaxe duk, izan ere. Ez dakik ondo zenbat sofritu nuen haur egin zuenean!

— Gehiago sofrituko zian berak.

— Batek zakik...! Eta orain neure gauza denez, neure parte denez, apenas konturatu naitzen, diotenez, nola desitxuratu eta itsustu den, norbera ez baita konturatzen nola desitxuratu, zahartu eta itsusten den bere burua.

— Baina, benetan uste al duk norbera ez dela konturatzen nola zahartu eta itsusten den?

— Ez duk konturatzen, ez, baietz esan arren. Gauza jarraitua eta geldia bada, noski, ze, bestela, ustekabekorik gertatuz gero... Baina norberak nola zahartzen den sumatzen duela, keba!; inguruko gauzak nola zahartzen edo gaztetzen diren, horixe sumatzen dik norberak. Eta horixe besterik ez diat sumatzen neronek ere orain seme baten aita izaki. Eta badakik zer esan ohi duten aita-amek beren seme-alabei buruz: «Hauexek, hauexek egiten gaituzte zahar». Gauzarik ezti eta aldi berean ikaragarriena duk, nik uste, seme-alabak hazten ikustea. Ez hadi, beraz, ezkondu, ez hadi ezkondu betirako gaztetasunaren ilusioaz gozatu nahi baduk behintzat.

— Zer egingo diat, baina, ezkondu ezean? Zertan emango diat denbora?

— Egin hadi filosofo.

— Ez ote duk ezkonduen bizitza bera, filosofi eskolarik onena, bakarra agian?

— Ez, motel, ez! Ez al haiz konturatu zenbat eta zenbat filosofo handi izan den mutilzahar? Orain burura datozkidala, fraide izandakoak alde

batera utziz, hor dituk Descartes, Pascal, Spinoza, Kant...

— Ez aipa niri filosofo mutilzaharrik!

— Eta Sokrates, ez al haiz akordatzen nola bidali zuen bere ondotik bere emazte Jantipa, hiltzekotan zegoenean, gogoia barreia ez ziezaion?

— Horrelakorik ere ez aipa. Ezin diat sinetsi Platonek kontatzen digun hori nobela hutsa ez denik...

— Edota *nibola*...

— Nahi duana.

Eta elkarrizketa goxoa bat-batean etenik, kalera irten zen.

Kalean eskale bat hurbildu zitzaion eta esan: «Limosnatxo bat, Jainkoarren, jauna, zazpi seme-alaba ditut eta!». «Aski huen ez egitea!», erantzun zion Augustok haserre. «Ikusi nahi zintuzkedan, bai, nire egoeran —erantzun zion eskaleak, eta gaineratu—: seme-alabak egin aberatsentzako, zer besterik egin dezakegu, bada, pobreok. «Arrazoi duk —ihardetsi zion Augustok—, to, hartzak, filosofo horrek!», eta pezeta bat eman zion, baita azkar joan ere gizona aurreneko tabernara, emandakoa xahutzera.

XXIII

Lur jota zegoen Augusto gizajoa. Ez soilik bere burua, Buridan-en astoaren antzera, Eugenia eta Rosarioren artean aurkitzen zuelako, baikik eta ia emakume bat ikusi orduko harekin maitemintzeko joera hura, apaldu orde, areagotuz zihoakiolako. Eta gauza ikaragarriak kausitzera iritsi zen.

— Alde Liduvina, alde hemendik, Jainkoarren! Alde, utz nazazu bakarrik! Alde, alde! —ari zitzaion behin neskameari.

Eta hura joan bezain pronto, ukondoak mahai gainean jarri, burua esku-barneen artean etzan eta esan zion bere buruari: «Ikaragarria da han, ikaragarria benetan! Iruditzen zait konturatu gabe... baita Liduvinarekin ere ari naizela maitemintzen. Domingo gizajoa! Dudarik gabe Liduvina, berrogeita hamar urte beteak izan arren, planta ederrekoa da oraindik, eta hunki onekoa batez ere, eta batzuetan sukaldetik mahuka hutsik, beso pottolo horiek agerian dituela ateratzen denean... erokeria, erokeria dela hau! Eta

kokots bikoitz hori, eta lepoan sortzen zaizkion tolesdura horiek...! Izugarria da hau, izugarria, izugarria..».

«Hator hona, Orfeo —jarraitu zuen, zakurra harturik—, zer egin beharko nitek hire ustez? Nola babestu behar diat nire burua egoera honetan, behingoz erabaki eta ezkontzen naizen arte? Hago, bazakiat!, badiat ideia bat, ideia argi bat, Orfeo! Bihur dezagun hala segika ari zaidan emakumea aztergai. Zer iruditzen zaik emakumeen psikologia aztertzen hasten banauk? Bai, bai, eta bi monografia egingo ditiat, hain modan dauden horietakoak: bataren izenburua Eugenia izango duk, eta bestearena Rosario, eta erantsiko zieat: emakume azterketa. Zer deritzok nire ideiari, Orfeo?»

Eta Antolin S. —Sanchez, alegia— Paparrigopulos-i iritzia eskatzera joatea erabaki zuen, garai hartan emakume azterlanak egiteari emana baitzegoen hura, nahiz eta bizitzan bainoago liburuetan egiten zituen.

Antolin S. Paparrigopulos erudito esaten zaien horietakoa zen, aberriari bere gloriarik ezezagunenak azalduz loriazko egunak emango

zizkion gaztea. Eta hotsa atereaz jendearen arre-
ta bereganatu nahian zebilen gazteria zaratatsu
haren artean S. Pagarripopulosen izena ezezaguna
baldin bazen, bazituen horrek arrazoiak: alde
batetik, indarraren benetako barne ezaugarria
zeukalako, alegia, pazientzia, eta, bestetik, hain-
bestekoa zelako jendearekiko eta bere buruare-
kiko zuen begirunea, ezen atzeratu egiten bai-
tzuen bere aurkezpen ordua harik eta, behar
bezala prestaturik, zein zoru zapaltzen zuen
seguru ikusi arte.

Arras alde batera uzten zuen zernahi berrike-
riaren bitartez besteen ezjakintasunean oinarri-
tutako itxura hutseko ospe galkorrik bilatzea,
eta, aitzitik, egin asmo zituen literatur lan guzien
helburua gizakiok iritsi dezakegun neurriko per-
fekzioa eta, batez ere, zentzuaren eta gustu ona-
ren ildoetatik ez ateratzea zen. Bere entzutea
sustatzearren ahotsik gozakaiztu ez, baina, bere
ahotsa behar bezala hezirik, jatorrizko sinfonia
nazional garbi eta ederra indartu nahi zuen.

Argia zen S. Paparrigopulosen adimena,
batez ere argia, gardentasun zoragarrikoa, inola-
ko lainodura eta nahas-mahasik gabea. Gaztela-

nia hutsean pentsatzen zuen, ez iparraldeko bruma itsusien arrastorik, ez Pariseko bulebarretako gainbeheraldi giroko kutsurik gabe, gaztelania garbian, eta halaxe pentsatzen zuen tinko eta sakon, bera sostengatzen zuen eta bere espiritua zor zion herriaren arimarekin pentsatzen baitzuen. Ondo irizten zien laino hiperboreoei garagardo azkarraren edaleen arterako; ez, ordea, zeru distiratsu eta kisuzko Valdepeas osasungarriko Espainia argi-argi honetarako. Becerro de Bengoa zoritxarrekoaren filosofiari jarraitzen zitzaion, zeinek Schopenhauerri tipo arraro deitu eta ziurtatzen baitzuen garagardoa edan ordez Valdepeas edan izan balu hari bururatutakorik bururatuko ez zitzaiokeela, eta era berean esaten baitzuen neurastenia muturra besteren golkoan sartzetik datorrela eta astabelar entsaladarekin sendatzen dela.

Jabeturik S. Pagarripopulos azken finean forma dela oro, barruragoko edo azaleragoko forma, unibertsoa bera batzuek besteei itsatsitako formen kaleidoskopia dela, eta formei esker bizi direla mendeek ematen dituzten obra handi guztiak, Berpizkundearen sortzaile zoragarrien

antzera, gogotik ekiten zion bere geroko lanak jantziko zituen hizkuntza lantzeari.

Sentimentalismo neorromantikoaren joera guztiei eta gizarte arazo deiturikoekiko moda hondatzaile horri amorerik ez emateko indarra eta kemena izan zuen. Jabeturik gizarte arazoa ez dagoela hemen behean ebazterik, beti izango direla pobreak eta aberatsak, eta azken horien karitateak eta beste haien etsipenak emandakoaz beste hobekuntzarik itxaroterik ez dagoela, aldendu egiten zuen bere gogoia probetxuzko ezertara ez daramaten eztabaidetatik, eta arte kutsatugabearen eremu txit garbian hartzen zuen babes, hara ez baita heltzen pasioen zaborreria eta han aurkitzen baitu gizonak biziaren etsimenduentzako aterpe kontsolagarria. Higuingarri zitzaion, gainera, kosmopolitismo antzua, ezen espirituak ezintasunezko amets utopia motelgarrietan murgildu besterik ez baitu egiten, eta itsu-itsuan maite zuen Espainia, hain iraindua eta bere seme askorentzat hain ezezaguna; bere geroko ospearen oinarri izango ziren lanetarako lehengaia emango zion Espainia.

Paparrigopulosek, bere barne indar handiez, gure herriaren iraganeko benetako bizimodua ikertzeari ekiten zion, musu truk eta tinko ekin ere. Ez zen makala bere asmoa; berpiztu egin nahi zuen bere herrikideentzat gure iragana, alegia, bere berraiton-amonen oraina, eta berpizte hori fantasia hutsez egiten saiatzen zirenen engainuaren jakitun, bila eta bila aritzen zen zernahi klaseko memoria zaharretan, bere erudiziozko zientzia historikoaren etxea oinarri sendo batzuen gainean eraikitzearren. Estimaezineko prezioa zuen beretzat, garrantzirik gabea eman arren, iraganeko edozein gertakarik.

Bazekien unibertsoa ur tanta baten barruan ikusten ikasi beharra dagoela, hezur bat aski duela paleontologoak animalia osoa berregiteko, baita arkeologoak eltze gider bat ere zibilizazio zahar oso bat berreraikitzeke; eta bazekien, era berean, izarrak ez direla mikroskopioz begiratu behar, ez eta ur eltxoak teleskopioz ere, zirtolariek nahasi ikustearren egin ohi duten bezala. Hala ere, arkeologoak ahanzturaren altzoan lurperatutako arte bat berreraikitzeke eltze gider bat aski zuela jakinik ere, bere apalean ez bai-

tzuen bere burua jeniotzat jotzen, nahiago izaten zituen bi gider bakarra baino —zenbat eta kirten gehiago hobeto— eta baita eltze osoa gider soila baino.

«Hedaduran irabazten bide den bezainbeste galtzen da sakontasunean», horixe zuen goiburur. Bazekien Paparrigopulosek lanik berezituenean ere, monografiarik zehatzenean ere, filosofia oso bat isuri daitekeela, eta, sinetsi, lan bereizketaren mirarietan sinisten zuen batez ere, bai eta zientziei zernahi motatako igel zultzaile, hitz harrapari, data asmatzaile eta tanta zenbatzaile samalda sofrituek eragindako aurre-rapen itzalean ere.

Gure literatur historiaren arazo latz eta korapilatsuenek erakartzen zuten bereziki bere arre-ta, hala hola Prudentzioren aberriari buruzkoak, nahiz eta azken bolada hartan, jasotako ezezko batzuen kariaz omen, iragan mendeetako emakume espainiarrak aztertzeari emana zen.

Lan itxuraz garrantzirik gabeetan ikusi behar zen eta miretsi S. Paparrigopulosen zorrotasuna, zentzua, zolitasuna, sen historiko miragarria eta kritikarako sakontasuna. Halaxe ikusi behar

ziren bere ahalmenak, aplikaturik eta konkretuki, gauza bizietan, eta ez teoria huts eta abstraktuan; bere hartan ikusi behar zen. Disertazio haietako bakoitza indukziozko logika klase bat zen osotoro, Lionnet-en sahas-beldarrari buruzko obra adinako monumentu miragarria, eta, batez ere, Egia santua hertsiki maitatzea zer den erakusgarri. Itzuri egiten zion, izurritea bailitzan, azkartasunari, eta sinetsita zegoen Egia dibinoa, baita gauzarik ñimiñoetan ere, errespetatzen ohituz baino ez ditugula behar bezala miretsi ahal izango gauza handiak. «Calila eta Dimna»ren alegien edizio herrikoia ari zen prestatzen, Indiako literaturak Erdi Aro espainiarrean izandako eraginari buruzko hitzaurre eta guzti, eta oxala argitaratu izan balitu, zeren herritarrek, haiek irakurriz gero alde batera utziko baitzituzketen, seguru, tabernak eta salbamen ekonomiko ezinezkoen doktrina galgarriak. Bestelakoak ziren, ordea, S. Paparrigopulos prestatzen ari zen bi obra handiak: bata, idazle espainiar ezkutukoen historia, hau da, ohiko literatur historietan aipatzen ez diren edota omen duten garrantzia apala dela-eta halako aipamentxo bat

besterik egiten ez zaienena, hartara hainbeste deitoratzen zuen eta beldurra ere ematen zion urtetako bidegabekeria bere onera ekarriz; eta bestea, obrak galdurik, haien izena eta, gehienera jota, haiek idatzitako obren izenburuak besterik gelditzen ez zaizkugunei buruzkoa. Eta hastekotan zen, era berean, ezer idatzi ez bazuten ere idazteko asmoa izan zutenen historia.

Bere asmoak hobeto burutzearren, behin gure literatura nazionalaren mami mardulaz jantzirik, atzerrikoetan sartu zen, eta hori gauza nekeza gertatzen zitzaionez, traketsa baitzen atzerriko hizkuntzetarako eta haiek ikasteak goragoko azterlanetarako behar zuen denbora kentzen baitzion, bere maisu ospetsuari ikatitako baliabide bikain bati jarraitu zitzaion: atzerrian argitaratzen ziren literatur kritika eta historiako lan garrantzitsuenak irakurtzen zituen, frantsesez idatziak izanez gero, noski, eta behin kritikari ospetsuenen halako edo halako egileri buruzko batez besteko iritzia jasotzen zuenean, gainbegiratu bat ematen zion egileari, bere kontzientziarekin lasai eta besteren iritzia berregi-

teko aske gelditzearren, eta horrek ez zion deus ere kentzen bere kritikari-zintzotasun zorrotzari.

Bistan da, hortaz, S. Pagarrigopulos ez zela pentsamenduaren eta fantasiaren eskumenetan zehar, han-hemenka txinpart iheskorren bat edo beste jaurtikiz akaso, norabide jakinik gabe paseatzen diren gazte arlote eta alderrai horietakoa, ez! Bideari estu eta tinko atxikiak agertzen ziren haren joerak; helmuga jakin batera doazen horietakoa zen. Haren azterlanetan ez zen ezer nabarmenduko, oro izango baitzen gailur, ordekek bailiren, Gaztelerriko lautada zabal eta eguzkitsuen benetako irudi, non batera eta bestera egiten baitu urre koloreko labore mardulak.

Emango al dizkio Probidentziak Espainiari Antolin Paparrigopulos asko! Haiei esker, denok gure tradizio ondarea eskuratu eta etekin itzela atera ahal izango genioke. Paparrigopulosen nahia zen —eta da, bizi baita oraindik, bere lanak prestatzen diharduelarik— bere kritikarako goldearen hortza arlo berean aurretik jardundako goldariek baino zentimetro bat sakonago besterik ez bada ere sartzea, zuku berriei esker

laborea mardulago haz zedin, eta buruxkek hobeto bihitu zezaten eta irina hobea izan zedin eta espainiarrok ogi espiritual hobea eta merkeagoa jan genezan.

Esana dugu Paparrigopulosek bere lanak prestatzen diharduela argitara emateko. Eta halaxe da. Elkarren lagunek esanda zekien Augustok hura egiten ari zen emakumeei buruzko azterlan haien berri, baina artean ez zuen eta oraindik ere ez du deus argitaratu.

Badira, nola ez, beste zenbait erudito, espezie horren ezaugarri den karitateaz, Paparrigopulos begiz jo eta halako ospea eskuratuko duela susmatzen baitute, aldez aurretik bekaitz, hura gutxietsi nahian dabiltzanak. Hala, batek dio Paparrigopulos, azeriak bezala, buztanarekin bere aztarnak ezabatu, eta gero jira eta bira ibiltzen dela beste bide batzuk urratuz, ehiztaria nahasi eta oiloa atzematera nondik jo duen jakin ez dezan; eta, egia esan, Paparrigopulosek akatsik izatekotan, behin dorrea amaiturik aldamiok zutik uztea da, hartara ez baitago dorrea ongi ikusi eta miresterik. Beste batek hitz apailatzaile deitzen dio mesprezios, hitzak ongi apailatzea

arte gorenaz ez bailitzan. Beste batek, berriz, atzeritiko hartutako ideiak itzuli zein moldatu egiten dituela leporatzen dio, ahazturik Paparrigopulosek bere gaztelania hain garbi, jator eta garden hartan emanaz, gaztelar eta, hortaz, berezko bilakatzen dituela, Aita Islak Lesageren «Gil Blas» berezko bilakatu zuen bezalaxe. Bada isekaz haren oinarri nagusia jendearen ezjakintasunean fedea izatea dela dioenik, eta halako juzkua ematen duenak ez daki fedea mendiak mugitzen dituela. Berak inongo kalterik egin ez dion jendearen juzku gaizto horien eta beste batzuen zuzengabekeriarik handi eta nabarmena ikusteko, aski da, alabaina, kontutan izatea Paparrigopulosek ez duela oraindik deus ere argitaratu, eta mokoka ari zaion orok, entzundakoez eta isilik ez egotearren hitz egiten duela.

Ezin, beraz, erudito bakan honi buruz idatzi, astiro eta lasai eta inolako arrandia *niboliarrik* gabe egin ezik.

Gizon harekin, erudito harekin alegia, gogoratu zen, bada, Augusto, jakinik emakume-azterketan ziharduela, liburuetatik noski, hori baita emakumeak aztertzeke modurik seguruena, eta

iragan mendeetako emakumeak, horretan ari denarentzat askoz ere seguruagoa baita orobat haiek aztertzea gaur egungoak baino.

Antolin erudito bakarti harengana, egunero-ko emakumeekin aritzeko lotsaz eta, mendeku hartzearen, liburuetan aztertzen zituen harengana, jo zuen Augustok aholku bila.

Bere asmoa azaldu zion bezain pronto oihu egin zuen eruditoak:

— Gaixo jaun Perez, erruki zaitut benetan! Emakumeak aztertu nahi? Ez duzu lan txikia hartu behar...

— Zeu ere horretan ari zara eta...

— Sakrifizioa eskatzen du. Azterketa, azterketa luzea, eramankorra, isila, horixe da nire bizitzeko arrazoia. Hala ere, badakizu, pentsamenduaren langile apala nauzu, apal-apala, nire ondoren etorriko direnek probetxu ateratzen jakin dezaten aritzen bainaiz materialak pilatu eta antolatzen. Gizakion obra talde lana duzu; gauza bat tinko eta iraunkorra izango bada, talde lanekoa izan behar...

— Eta jenio handien lanak? Hala nola «La Divina Comedia», «Eneida», Shakespeareren tragediak, Velazquezen koadroak...

— Talde lana duzu hori guztiori ere, uste baino askoz cre areago. «La Divina Comedia» prestatzen, esaterako, halako talde...

— Bai, badakit.

— Eta Velazquezi dagokionez... karia horretara, ezagutzen al duzu Justik hari buruz idatzitako liburua?

Antolinentzat, giza adimenaren berebiziko obren balio nagusia, bakarra ia, kritika edo iruzkin-liburu bat eragitean datza; artista, poeta, margolari, musikari, historialari, filosofo handiak, halako erudito batek beren biografia egin eta kritikari batek beren obra iruzkinak egin diezaizkien, horretarako dira jaioak. Hala, idazle handi baten halako edo halako esaldik ez du, zuzenean harturik, inongo baliorik, harik eta erudito batek errepikatzen eta hura jaulki zueneko obra, edizioa eta orrialdea aipatzen ez duen arte. Eta lan taldearen elkartasuna edo dena delako hura bekaizkeria eta ezina besterik ez zen. Homerori buruzko iruzkingile klase horretakoa zen, zeinek,

Homero bera berpiztua beren bulegoan kantuz sar baledi, bultzaka botako bailukete, haren obretako testu hilei buruz lan egiten eta haietan zernahi *apax* bilatzen utziko ez liekeelakoan.

— Ongi da, baina, zer iritzi duzu, ordea, emakumearen psikologiaz?

— Horrelako galdera batek, horren zehazgabe, horren orokorki, horren abstraktuki boteak, ez du esanahi zehatzik nire moduko ikerlari apal batentzat, lagun Perez, nire moduko gizon batentzat, ezen jeniorik ez izanik, ezta nahi ere...

— Ezta nahi ere?

— Ezta nahi ere. Ez da ofizio ona. Beraz, galdera horrek niretzat ez du esanahi zehatzik. Horri erantzuteko zera beharko nuke...

— Bai, badakit, zure beste lankide hark bezala, zeinek liburu bat idatzi zuen Espainiako herriaren psikologiari buruz, eta antza denez espainiarra izaki eta espainiarren artean bizi zelarik, halakok hau eta beste halakok beste hura dioela esanez bibliografia bat osatzea besterik ez zitzaion bururatu.

— A, bibliografia! Badakit, bai...

— Ez, ez jarraitu, lagun Paparrigopulos, eta esaidazu al bait zehatzen zer iruditzen zaizun emakumearen psikologia.

— Gauza bat dago lehenengo eta behin planteatu beharra: ba ote du arimarik emakumeak?

— Gizona!

— Ez, ez du balio horrela, besterik gabe zapuzteak...!

«Ba ote du berak?», pentsatu zuen Augustok, eta esan:

— Esaidazu, orduan, emakumeengan arimarena egiten duenaz..., zer uste duzu?

— Agintzen al didazu, lagun Perez, esango dizudana isilpean gordeko duzula...? Baina ez, ez, zu ez zara erudito.

— Zer esan nahi duzu horrekin?

— Zu ez zarela bati entzundako azkeneko gauza lapurtu eta berea bailitzan ematen duten horietakoa...

— Horrela al gabilta...?

— Ai, lagun Perez, lapur txikia duzu berez eruditoa; eta neuk esaten dizut, ni ere halakoxea bainazu. Halaxe ibiltzen gara eruditook, kausi-

tzen ditugun gauzatxoak bata besteari kentzen eta inork aurrea har ez diezagun ahalegintzen.

— Ulertzen dut, bai: biltegia duenak arreta handiagoz gordetzen ditu bere salgaiak lantegia duenak baino; putzuko ura gorde behar, ez iturburukoa.

— Baliteke. Beraz, zuk, ez baitzara erudito, nik plazaratu arte isilpean gordeko duzula agintzen badidazu, esango dizut emakumearen ari-mari buruzko teoria arras interesgarria irakurri diodala XVII. mendeko idazle holandar ilun eta ia ezezagun bati...

— Ea bada.

— Idazle horrek dio, eta latinez esan ere, gizon bakoitzak bere arima duelarik, emakumeek ez dutela denentzako arima bat eta bera besterik, arima kolektibo bat, Averroesen» adimen eragilearen antzeko zerbait, emakume denen artean banatua. Eta gaineratzen du, emakume bakoitzarengan ikusten ditugun sentitze-ko, pentsatzeko eta maitatzeko modu desberdinen zergatia ez dela besterik, ezpada arraza, eguratsa, elikadura eta horrelakoen kariaz sortutako gorputz desberdintasunetik datorrena, eta

horregatik direla hain txikiak. Emakumeek, dio idazle horrek, askoz ere elkarren antz handiagoa dute gizonak baino, oro baitira emakume bakar bat eta bera...

— Horra beraz, lagun Paparrigopulos, nola behin batekin maitemindu orduko, gainerako guztiekin ere maitemindurik nengoela sumatu nuen.

— Jakina! Eta era berean dio hain interesgarria izanik ia ezezaguna den ginekologo horrek, emakumea gizona baino askoz ere indibidualitate handiagokoa bai, baina era berean askoz ere nortasun gutxiagokoa dela; emakumeak gizonak baino norbereagoa, indibidualagoa ikusten du bere burua, baina baita funts gutxiagokoa ere.

— Antzematen diot, bai, nik uste, dena delakoari.

— Berdin dio, beraz, lagun Perez, emakume bakarra edo bat baino gehiago aztertzen badituzu. Aztertzeke aukeratuko duzun emakumea sakon aztertzea, horixe da kontua.

— Eta ez al litzateke hobe izango bi edo gehiago hartzea, erkaketa lana egin ahal izate-

ko? Dakizunez, punta-puntako gauza baita gaur egun erkaketa delakoa...

— Halaxe da, bai, erkaketa duzu zientzia; emakumeei dagokienez, ordea, ez dago erkaketaren beharrik. Bat, bakar bat ondo ezagutzen duenak, denak ezagutzen ditu, Emakumea ezagutzen du. Gainera, badakizu zabaltasunean irabazten den bezainbeste galtzen dela sakontasunean.

— Bai horixe, eta neronek ere sakon aztertu nahi dut emakumea, ez zabal. Bi gutxienez bai, ordea... gutxienez bi...

— Ez, bi ez! Inolaz ere ez! Batekin aski ez izatekotan, hori baita nire ustez onena eta baita nahikoa lan ere, hiru gutxienez. Bitasunak ez du ezer ixten.

— Bitasunak ez duela ezer ixten?

— Ez, noski. Bi lerroekin ez duzu itxiko espazioa. Poligonorik soilena triangelua duzu. Hiru gutxienez.

— Triangeluak sakontasunik ez, ordea. Poliedrorik soilena tetraedroa da; hortaz, lau gutxienez.

— Bi behintzat ez, inoiz ere ez! Bat baino gehiago izatekotan, hiru gutxienez. Hala ere, azter ezazu bat sakonki.

— Horixe egingo dut.

XXIV

Paparrigopulosekin izandako elkarrizketa amaitu eta handik atera zenean, hala zioen berekiko Augustok: «Bietako bati uko egin edota hirugarren bat bilatu beharrean nago, beraz. Nahiz eta azterlan psikologiko horretarako Liduvina bera ere primeran letorkidakeen hirugarren erkagai gisa, erkagai ideal huts gisa. Hiru dauzkat, beraz: Eugenia, nire irudimenari mintzo baitzaio, nire buruari; Rosario, nire bihotzari, eta Liduvina, nire sukaldaria, nire urdailari mintzo zaiona. Eta burua, bihotza eta urdaila dira, beste batzuek adimena, sentimendua eta borondatea deitzen dieten arimaren hiruhak. Buruarekin pentsatzen dugu, bihotzarekin sentitu eta urdailarekin maitatu. Argi dago hori! Eta orain..».

«Orain —jarraitu zuen pentsatzen—, ideia argi bat, argi-argia! Itxura egingo dut berriro ere Eugenia lortu nahi dudala, berriro eskatuko diot ea senargaitzat onartzen nauen, baina, jakina, froga huts gisa, esperimentu psikologiko gisa, eta ziur naizenez errefusatuko nauela..., horixe

baietz! Errefusatu egin behar nau. Gertatutakoa gertatu ondoren, gure azken solasaldian esan zizkidanak esanik, honezkero ez nazake onar. Hitzeko emakumea da, nik uste. Baina..., hitzik ha al dute, bada, emakumeek?; emakumea, Emakumea, horrela, letra larriz, bakarra, milioika emakume-gorputz gutxi gorabehera ederretan —gehiago gora, behera baino— banatzen dena, behartua al dago Emakumea hitzari eusten? Hitzari euste hori, ez ote da gizonezkoen kontua? Baina ez, ez! Eugeniak ez nazake onar: ez nau maite. Ez nau maite eta onartua du honezkero nire oparia. Eta nire oparia onartu eta dastatzen ari bada, zertarako ni maitatu?»

Baina... esandakoan atzera egiten badu —pentsatu zuen gero—, baietz esan eta senargaitzat onartzen banau? Zernahitarako prest egon beharra baitago. Eta, diodana, onartzen banau? Ederra egingo dit! Nik botatako sare berberaz harrapatuko nau! Horra arrantzalea sarez harrapatua! Baina ez, ez! Ezinezkoa da! Eta hala bada? A! Etsi egin behar orduan, derrigorrez. Etsi? Bai, etsi. Jakin beharra dago zorionaren aurrean etsitzen. Eta zorionaren aurrean etsitzea

da apika zientziarik zailena. Esaten ez digu bada Pindarok, Tantalori bere zoriona liseritu ezinak sortu zizkiola zoritxarrak oro? Liseritu egin behar da zoriona! Eta Eugeniak baiezkoa ematen badit, onartzen banau, orduan... psikologia garaile! Gora psikologia! Baina ez, ez, ez! Ez nau onartuko; ez nazake onar, bereari eustearren besterik ez bada ere. Eugenia bezalako emakume batek ez du amore ematen; Emakumea, Gizonarekin buruz buru nor setatsuago eta nor saiatuago jartzten denean, zernahi egiteko kapaz da... Ez nau onartuko, ez!

— Zain duzu Rosarito.

Sentimenduz betetako hiru hitz horiekin eten zuen Liduvinak nagusiaren gogoeta haria.

— Esan, Liduvina, leialak al zarete, zure ustez, emakumeak behin esandakoarekin? Ba al dakizue emandako hitzari eusten?

— Noiz eta nola den.

— Bai, zure senarraren leloa. Zuzen erantzun ordea, eta ez emakumeek egin ohi duzuen modura, gehienetan galdetutakoari erantzun beharrean galdetzea espero zenuten horri erantzuten baitiozue.

— Zer galdetu nahi izan didazu, bada?

— Ea zuek, emakumeek, emandako hitzari eusten dio zuen.

— Zer hitz ematen den.

— Zer hitz ematen den?

— Argi dago bada. Hitz batzuk eustekotan ematen dira eta beste batzuk, ez eustekotan. Eta, hartara, jakineko gauza denez, ez da inor engainatzen...

— Tira, tira, esan Rosariori sartzeko.

Eta Rosario sartu zenean, galdetu zion Augustok:

— Aizan, Rosario, zer uste dun hik, eutsi egin behar zion emakume batek emandako hitzari ala ez?

— Nik dakidala, ez dizut hitzik eman...

— Kontua ez dun hori, baizik eta emakume batek emandako hitzari eutsi behar ote dion ala ez...

— A, bai; beste horrengatik diozu..., emakume horrengatik!...

— Dena delakoarengatik. Hik zer uste dun?

— Nik ez dakit batere gauza horiei buruz...

— Ez zion axolarik!

— Tira bada, horretan lehiatzen zarenez, esango dizut hitzik batere ez ematea dela onena.

— Eta batek emana badu?

— Ez ematea zuen.

«Bistan da —esan zuen berekiko Augustok— neskato hau ez dudala hortik aterako. Baina hemen dagoenez gero, psikologia erabiliko dut, esperimentu bat egingo dut».

— Hator hona, eser hadi hemen! —eta belaun gaina erakutsi zion.

Lasai eta batere larritu gabe obeditu zion neskatoak, aldezturik hala erabakita bailegoen. Augusto, aldiz, nahasturik eta bere esperimentu psikologikoa nondik hasi ez zekiela gelditu zen. Zer esan ez zekienez, bada... egin egiten zuen. Bere bular hatsantuaren kontra estutzen zuen Rosario, aurpegi osoa musukatzen zion, eta anartean berekiko: «Nago ez ote dudan ikerketa psikologikorako behar den lasaitasuna galduko». Halako batean, ordea, gelditu, lasaiturik antza, Rosario beregandik zertxobait aldendu, eta hitzetik hortzera esan zion:

— Baina ez al dakin beste emakume bat maite dudala?

Isilik gelditu zen Rosario, besagainak jaso eta hari adi-adi begira.

— Ez al dakin, bada?

— Augustok berriro.

— Eta niri zer hori orain...?

— Axolako ez zain bada?

— Orain ez! Orain ni maite nauzu, nik uste.

— Hala uste dinat nik ere, baina...

Ezusteko bat gertatu zen orduan, Augustoren aurreikuspenetan ez zegoena, Emakumeari buruzko esperientzia psikologikoetarako bere programan sartzen ez zena: bat-batean besoak lepo jiran jarri eta musuka hasi zitzaion Rosario Augustori. Hauxe pentsatzeko denbora izan zuen ozta-ozta gizajoak: «Neu naiz orain esperimentatua; gizonaren psikologiari buruzko azterlanean ari da neskato hau». Eta zertan ari zen konturatzeke, bere esku dardaratiez neskatoari zirrika ari zitzaiola ohartu zen harriturik.

Bat-batean altxa zen Augusto, Rosario airean hartu eta sofa gainera bota zuen. Neskatoak, aurpegia gorriturik, ez zuen indarrik egiten. Eta

Augusto, hura bi eskuekin besoetatik heldurik, begietara so gelditu zitzaion.

— Ez itzan itxi, Rosario, ez itzan itxi, Jainkoarren! Ireki itzan. Horrela, horrela, gero eta zabalago. Utz iezadan nire burua hire begietan ikusten, hain txiki...

Eta bere burua begi haietan, ispilu bizi bailiren, ikusi zuenean, hasierako asaldura baretuz zihoakiola sumatu zuen.

— Utz iezadan nire burua hire begietan ispilu baten aurrean bezala ikusten, hain txiki... Hori izango baita nire burua ezagutzera iristeko modu bakarra, alegia, nire burua emakume begietan.

Eta ispiluak harriturik begiratzen zion. Rosariok pentsatzen zuen: «Gizon hau ez zait besteak bezalakoa iruditzen; burutik egina behar du».

Bat-batean, neskatoarengandik aldendu egin zen Augusto; bere buruari begiratu zion, gero eskuekin ukitu eta esan zuen ozenki:

— Eta orain, Rosarito, barka iezadan.

— Barkatzeko? Zer bada?

Beldurra adierazten zuen Rosarito gaixoaren ahotsak beste edozein sentimendu baino arago. Ihes egiteko gogoia zuen, bere baitan pentsa-

tzen baitzuen: «Gizon bat zentzugabekeriak esaten edo egiten hasten denean, ezin jakin noraino helduko den. Ni hiltzeko ere kapaz litzateke gizon hau halako zoraldi batean!» Eta malko batzuk atera zitzaizkion.

— Ikusten? —esan zion Augustok—, ikusten? Barkatu, bai, barkatu, Rosarito; zertan ari nintzen ere ez nekinan.

Eta neskak berekiko: «Zertan ari ez den, horixe da ez dakiena».

— Eta, hoa, hoa hemendik!

— Bota egiten nauzu?

— Ez, nire burua defendatzen ari naun. Ez haut botatzen, ez! Alafede! Nahi badun neuk alde egingo dinat eta gelditu hadi hi hemen, botatzen ez haudala ikusteko.

«Bistan da ez dagoela burutik sano», pentsatu zuen neskatoak, eta pena eman zion.

— Hoa, hoa, eta ez nazan ahaztu, e? —koko-tsetik heldu eta ferekatxoak egin zizkion—. Ez nazan ahaztu, ez ahaztu Augusto gizajoa.

Besarkatu eta musu luze eta estua eman zion ahoan. Ateratzerakoan, beldur misterioetsuz beteriko begirada egin zion neskatoak. Eta hura

irten bezain laster, pentsatu zuen Augustok berekiko: «Mesprezatu egiten nau, dudarik ez, mesprezatu egiten nau; barregarri jokatu dut, harregarri, barregarri... Zer daki, ordea, gajo horrek gauza hauen gainean? Zer daki psikologiaz?»

Une hartan Augusto gizajoak Rosarioren espiritua irakurtzerik izan balu are etsituago geldituko zatekeen. Oso bestelako pentsamendua baitzeraman neskato inozoak: «Ez dit ez berehala horrelako trantzerik pasaraziko beste haren mesedetan..».

Berrito asaldatzen hasia zen Augusto. Konturatzeko baitzen nola galdutako denbora berrito etortzen ez den, ez eta, harekin batera, alferrik galdutako okasioak ere. Bere buruarekin amorratzen jarri zen. Zer egiten zuen konturatzeke, eta denbora pasatzearen, Liduvinari deitu zion, eta bere aurrean ikusi zuenean hain lasai, hain pottola, maleziaz irribarre zegiola, halako eta hain ez ohiko sentimenduak hartu zuen, ezen «Zoaz, zoaz, zoaz!» esan eta kalera irten baitzen. Beldur izan baitzen une batez ez ote zion

bere buruaren jabe izateari utziko eta Liduvinari eraso.

Kalera irtetearekin lasaitu egin zen. Basoa bezalako da jendetza; nor bere lekuan jartzen du, bere tokira eramaten du.

«Burutik sano ote nago? —pentsatzen zuen Augustok—. Ez ote da izango ni kalean barna, pertsona normalak bezala —eta zer da pertsona normala?—, behar bezala noalakoan, agian keinuka, tximinokeriaka eta plantak egiten noala, eta nire ustez begiratzen ez didan edota besterik gabe begiratzen didan jende hori benetan niri adi-adi begira dagoela, edota nire bizkar barre egin edo errukitu egiten dela?... Eta burutazio han bera ere ez ote erokeria? Benetan burutik eginda ote nago? Eta azken finean, hala banago ere, zer? Gizon bihoztuna, sentibera, ona, erotu egiten da, bestela kaiku hutsa da. Eroa ez dagoena tontoa da edo lotsagabea. Baina horrek ez du esan nahi, noski, lotsagabeak eta tontoak erotzen ez direnik».

«Rosaritorekin egin dudana —jarraitu zuen pensatzen— barregarrikeria izan da, barregarrikeria hutsa. Zer pentsatu ote du nitaz? Eta niri

zer, horrelako neskato batek nitaz zer pentsatzen duen?... Gaixo txikia! Zeinen inozoki uzten zidan, ordea, ferekatzen! Izaki fisiologikoa da, fisiologikoa arras, fisiologikoa baino ez, batere psikologiarik gabea. Alferrik hartuko dut, bada, esperimentu psikologikoetarako akuri edo igel-txotzat. Fisiologikoetarako gehienez ere... Baina psikologia, eta emakumearena batez ere, ez al da fisiologia hutsa, edo, nahiago bada, psikologia fisiologikoa? Emakumeak ba al du arimarik? Eta niri, esperimentu fisiologikoetan hasteko, prestakutza teknikoa falta zait. Sekulan laborategi batean izan gabea naiz, eta gainera, ez dut tresneriarik. Eta psikofisiologiarako tresneria behar. Burutik eginda ote nago, beraz?»

Kalean barna bere nekeei batere jaramonik egiten ez zion jendetza lanpetuaren artean egingdako gogoeta hauen bitartez barrua hustu zue-nean, lasai sentitu zen eta etxera itzuli zen.

XXV

Victor ikustera joan zen Augusto, haren seme berantiarra laztantzera, etxe hartako zorion berria atseginez dastatzera eta, bidenabar, barrutik zer moduz sentitzen zen galdetzera. Eta harekin bakarka gelditu zenean, esan zion:

— Zer moduz zoak idazten ari hintzen nobela edo..., nola zuan?... a, bai!, *nibola* hura? Pentsatzen diat, orain, semea dela eta, alde batera utzia izango duala.

— Oker hago, bada. Dagoeneko aita naizelako, horretxegatik ekin zioat berriro ere. Bertan isurtzen baitut asebetetzen nauen umore ona.

— Irakurriko al didak zatitxoren bat?

Orrialdeak atera eta hemengo zati bat eta hango beste bat irakurtzen hasi zitzaion lagunari.

— Aldatu egin haute, motel! —egin zuen oihu Augustok.

— Zer ba?

— Irakurri dituan horietako batzuk lizunkeria hutsa baitira ia eta baita hori baino areagokoak ere...

— Lizunkeria? Inolaz ere ez! Gauza gordinak bai, baina ez lizunak. Biluzgorriren bat edo beste bai tarteka, baina erantzitakorik bat ere ez... Errealismoa duk...

— Errealismoa, bai, eta baita...

— Baita zinismoa ere, ezta?

— Zinismoa, bai!

— Zinismoa ez duk lizunkeria, ordea. Gordintasun horien bitartez irudimenari eragiten zaiok, gauzen errealitatea zorrotzago azter dezan; gordintasun horiek zera dituk... gordintasun pedagogikoak. Horixe, pedagogikoak!

— Baita barregarri samarrak ere...

— Baita ere, ez diat ukatuko. Atsegin diat bufoitza.

— Funtsean tetrikoa izaten baita beti ere...

— Horrexegatik. Txiste goibelak, heriozko umorea baino ez diat atsegin. Besterik gabeko barreak tristura ematen zidak, eta baita beldurra ere. Tragediarako prestakuntza besterik ez duk barrea.

— Niri, berriz, higuigarri gertatzen zaizkidak bufoikeria gordin horiek.

Bakartia haizelako, Augusto, bakartia, adi ezak ongi, bakartia... Eta nik zera sendatzearen idazten ditiat... Ez, ez, ez ditiat ezertarako idazten, horrelakoak idazten ongi pasatzen dudalako baizik, eta aski diat irakurtzen dituztenek ere ongi pasatzen badute. Baina aldi berean sendabidean jartzen badut hi bezalako bakartiren bat, bakarti bikoitza...

— Bakarti bikoitza?

— Bai. Gorputzez bezala arimaz ere bakarti.

— Aizak, Victor...

— Bai, bazakiat zer esan behar duan. Aholku eske etorri haiz hire egoera dela-eta, aspalditxotik larria baita, benetan larria, ezta`?

— Bai, halaxe duk.

— Igarri egin diat. Entzun bada, Augusto, ezkon hadi, ezkon hadi lehenbailehen.

— Zeinekin, baina?

— To, bat baino gehiago al zagok, ordea?

— Eta nola asmatu duk hori ere?

— Oso erraz. Galdetu izan bahu «norekin, baina?», ez nian pentsatuko bat baino gehiago

dagoenik ez eta bat bera ere badenik; hik, ordea, «zeinekin, baina?» galdetu didak eta, jakina, bi, hiru, hamar edo auskalo zenbaten artetik izan beharko zeinekin.

— Egia duk.

— Ezkon hadi, bada, ezkondu, maitemindua haukatenetako edozeinekin, eskuerago duanarekin. Eta ez gehiegi pentsatu. Begira, ni ere pentsatu gabe ezkondu ninduan; ezkontarazi behar izan gintiztean.

— Emakumearen psikologi esperimentuetara emana nabilek orain, ordea.

— Emakumeari buruzko psikologi esperimentu bakarra ezkontza duk. Ezkontzen ez denak ez dik sekulan ere Emakumearen arima psikologikoki esperimentatzerik izango. Emakume-psikologiako edo ginepsikologiako laborategi bakarra ezkontza duk.

— Horrek ez dik erremediorik, ordea!

— Ez eta benetako ezein esperimentaziok ere. Edozein dela ere, kontuak aldeaz aurretik atereaz eta ez zirt ala zarteko erabakiak hartuaz, zerbait esperimentatu nahian hasten bada, ez dik sekulan ere deus egiazkorik ikasten. Sekulan

ez hadi fida bere soin atalen bat moztu ez duen zirujauarekin, ez eta burutik eginda ez dagoen zoroen sendagilearekin ere. Psikologia jakin nahi baduk, beraz, ezkon hadi.

— Hortaz, mutilzaharrok...

— Mutilzaharrena ez duk psikologia; metafisika hutsa duk, hau da, fisika baino harantzagoa, gauza naturalak baino harantzagokoa.

— Eta zer duk hori?

— Hi hagoen egoera, gutxi gorabehera.

— Metafisikan al nagok bada ni? Ni ez nagok eta, Augusto maitea, gauza naturalak baino harantzago, honantzago baizik!

— Berdin duk.

— Nola berdin?

— Bai; gauza naturalak baino harantzago edo honantzago esatea gauza bera duk, espazioa baino harantzago edo honantzago gauza bera den bezalaxe. Ikusten al duk marra hau? —eta marra bat egin zuen paper batean—. Luza ezak alde batetik eta bestetik infinitoraino eta bat egingo ditek muturrek, itxi egingo ditek infinitoan, han oro elkartzen baita eta oro nahasten. Marra zuzen oro zirkunferentzia erradio infinito-

duna duk eta infinitoa ixten duk. Berdin duk, beraz, gauza naturalak baino honantzagokoa zein harantzagokoa izan. Ez al zagok argi?

— Ez; ilun-ilun zagok, oso ilun.

— Hain ilun dagoelako, horrexegatik, ezkon hadi.

— Hainbeste duda zatozkidak, ordea, burura...!

— Hala hobe, Hamlet txiki hori, hala hobe. Duda egiten duk'?, beraz, pentsatzen duk; pentsatzen duk?, beraz, bahaiz.

— Bai, duda egitea pentsatzea duk.

— Eta pentsatzea duda egitea eta duda egitea besterik Sinetsi, jakin eta irudikatu, dudarik egiteke egiten da; ez fedea, ez jakituriak, ez irudimenak ez ditek duk eskatzen, dudak suntsitu egiten baititu; ezin, ordea, dudarik egin gabe pentsatu. Eta dudak bilakatzen ditik fedea eta jakiturgia, gauza estatikoak, geldiak, hilak direnak, pentsamendu, zeina, aitzitik, gauza dinamikoak, egonezina, bizia baita.

— Eta irudimena?

— Bai, horretan bazagok dudarik egiterik. Dudatan egoten nauk nire *nibolako* pertsonaiei

zer esan edo eginarazi, eta zerbait esan edo eginarazten diedanean ere dudatan gelditzen nauk ongi egin ote dudan eta benetan nik jarritako hori dagokien ala ez. Baina... zernahi onartzen diat! Bai, bai, egin daitekek dudarik irudikatzerakoan, irudikatzea ere pentsatzeko modu bat baita...

Augusto eta Victor solasaldi niboliar horretan murgilduta zeuden bitartean, nik, irakurle, eskuartean duzun eta irakurtzen ari zaren nibola honen egile naizen honek, irribarre egiten nuen enigmatikoki, ikusirik nire pertsonaia niboliarrak nire alde eta nire jokabideak justifikatzen ari zirela, eta pentsatzen nuen nire batean: «Jakingo balute gizajook ni haiekin egiten ari naizena justifikatzen ahalegintzen besterik ez direla ari! Hala, zerbait zuritzeko arrazoi bila gabiltzanean Jainkoaren aurrean justifikatu besterik ez dugu egiten. Eta ni naiz bi deabrutxo niboliar horien Jainkoa.

XXVI

Eugeniaren etxerantz abiatu zen Augusto azken psikologi esperimentuari, behin betikoari ekiteko prest, nahiz eta beldur zen neskak errefusatuko ote zuen. Eta eskaileretan egin zuten topo, haietatik behera baitzetorren hura Augusto igotzen has zenean.

— Zu hemen, don Augusto?

— Bai, baina kalera zoazenez, beste baterako utziko dut; banoa.

— Ez, goian da nire osaba.

— Ez nuen zure osabarekin hitz egin behar, zurekin baizik, Eugenia. Utz dezagun beste baterako.

— Ez, ez, goazen gora. Lehenbailehen gauzak.

— Zure osabaren aurrean ordea...

— Ba! Anarkista da! Ez diogu deituko.

Eta berekin igoarazi zuen Augusto. Gizajoa, esperimentatzaile-aireekin joana, gel sentitzen zen orduan.

Egongelan biak bakarrik gelditu zirenean, Eugeniak, sonbrerua kentzeke eta sartu zeneko kale soinekoa aldatzeke, esan zion:

— Ea bada, jakin dezagun zer esan behar didazun.

— Bada..., bada... —totelka hasi zen Augusto gizajoa—, bada..., bada...

— Tira, zer bada?

— Ezin atsedean harturik nabilela, Eugenia; mila buelta eman dizkiedala buruan azkenekoz hitz egin genuenean elkarri esandako gauzei, eta hala eta guztiz ere ezin dudala onartu, ez, ezin dut!

— Eta zer da onar ez dezakezuna?

— Hauxe, bada, Eugenia, hauxe!

— Eta zer da hauxe?

— Zu eta biok lagunak besterik ez izatea...

— Lagunak besterik z!... Gutxi iruditzen al zaizu, don Augusto jauna?, ala gehiegizko iruditzen zaizu elkarren lagunak izatea?

— Ez, Eugenia, ez, ez da hori.

— Zer da, bada?

— Jainkoarren, ez iezadazu sufriarazi...

— Zerorrek sufriarazten diozu zeure buruari.

- Ezin dut onartu, ez!
- Zer nahi duzu, bada?
- Zu eta biok... senar-emazte izatea!
- Azkenean!
- Azkenera heltzeko hasi egin behar.
- Eta eman zenidan hitza?
- Ez nekien zer nioen. — Eta Rosario hura...
- Jainkoarren, Eugenia, ez horrelakorik gogorarazi!, ken ezazu burutik Rosario!

Orduan Eugeniak sonbrerua kendu zuen, mahaitxo baten gainean utzi, atzera ere eseri eta esan zuen mantso eta handikiro.

— Beraz, Augusto, zu, azken finean gizona izaki, hitzari zertan eutsirik ez duzula uste duzunez, nik ere, emakume bat besterik ez bainaiz, ez dut hitzari zertan eutsirik. Gainera, libratu egin nahi zaitut Rosariorengandik eta baita lotu zaitzaketen gainerako Rosario edo Petra guztien-gandik ere. Ez zure eskuzabaltasunagatiko esker onak ez eta niri Mauriciorekin gertatuagatiko despatak lortu ez zutena —ikusitako zeinen zintzo ari natzaizun—, kupidak lortuko du. Bai, Augusto, pena ematen didazu, pena handia! —eta hori

esatearekin batera bi zartadatxo eman zizkion eskubiko eskuaz belaun batean.

— Eugenia! —eta besoak luzatu zizkion heltzekoa eginez.

— Kontuz, gero! —egin zuen oihu haren besoak saihestu eta bere burua babesten zuela—, kontuz!

— Baina aurrekoan..., azkenekoan...

— Beste egoera bat zen, ordea, hura!

«Hona ni igel bilakatua», pentsatu zuen psikologo esperimentalak.

— Bai —jarraitu zuen Eugeniak—, izan ere, lagun bati, lagun baino ez denari, eman dakizkioke halako aukeratxoak, hain zuzen ere zerari..., hau da, senargaiari eman ez dakizkiokeenak!

— Ez dut bada ulertzen.

— Ezkondutakoan azalduko dizut, Augusto. Baina orain, geldi-geldirik, entzun?

«Hau eginda dago», pentsatu zuen Augustok, honezkero gel sentitzen baitzen goitik behera.

— Eta orain —gaineratu zuen Eugeniak zutiturik— osabari deitzera noa.

— Zertarako?

— Zertarako izango da, bada? Honen berri emateko!

— Egia da! —bota zuen Augustok, harrituta. Handik pixka batera Don Ferminekin itzuli zen.

— Hara, osaba —esan zion Eugeniak—, hemen duzu don Augusto Perez, berarekin ezkontzeko eskatzera etorria. Eta nik baiezkoa eman diot.

— Miresgarria! Miresgarria! —oihukatu zuen don Ferminek—. Miresgarria! Hator hona, maita, hator besarka hazadan! Miresgarria!

— Hain miresgarria iruditzen al zaizu gu ezkontzea, osaba?

— Ez, miresten dudana, txoratzen nauena, menderatzen nauena zera da, nola ebatzi duzuen arazo hau, biok bakarrik, bitartekaririk gabe... gora anarkia! Eta lastima, lastima da zuen nahia burutzeko agintaritzara jo beharra... Nahiz eta, jakina, zuen barrurako halakorik onartzen ez duzuen, ezta? *Pro formula, pro formula* besterik ez. Nik bai baitakit senar-emaztetzat dituzuela jada zuen buruak. Eta, izatekotan, nik, Jainko anarkikoaren izenean, neuk ezkondu egi-

ten zaituztet! Eta horrekin aski. Miresgarria!
Miresgarria! Zeure etxean zaude gaurdanik, don
Augusto.

— Gaurdanik?

— Arrazoi duzu, bai, betidanik izan baita
zurea. Nire etxea... nirea? Bizi naizen etxe hau
zurea izan da betidanik, nire anai-arreba guztie-
na izan da betidanik. Baina gaurdanik... ulertzen
didazu.

— Ulertzen dizut, bai, osaba.

Atea jo zuten orduan eta Eugeniak:

— Izeba!

Eta izeba egongelan sartu eta hangoa ikusi-
rik, esan zuen ozenki:

— Bapo, ikusten dut, bai! Eginda dago, beraz.
Lehendik ere banekien nik hau.

Augustok bere baitan: «Igela, goitik behera
igela! Eta denen artean harrapatu naute».

— Gurekin bazkaltzera geldituko zara gaur,
noski, ospatzeko... —esan zuen doa Ermelindak.

— Zer erremedio! —atera zitzaion gel gizajo-
ari.

XXVII

Bestelako bizimodua hasi zen orduan Augustorentzat. Egun osoa ematen zuen ia andregaiaren etxean, psikologia ez, baina estetika ikasiz.

Eta Rosario? Rosario ez zen berriro haren etxera itzuli. Beste batek, emakume arrunt batek eraman zion hurrengoan arropa lisatua. Ausartu ere ez zen egiten galdetzen zer dela-eta ez zen engoitik Rosario etortzen. Zertarako, igarri egiten baitzuen... Eta mesprezio hark, mesprezio hutsa baitzen hura, ondo asko zekienez, ez zion minik egin eta, aitzitik, umore onez hartu zuen. Ederki hartu behar zuen ordaina, bai, Eugeniarekin. Nahiz eta honek berdin jarraitzen zuen: «Kontuz gero, eta eskuak geldirik!» Ez baitzen makala neska!

Begiratzen baino ez zion uzten Eugeniak, begiratzen baino ez, gogoa pizten ziolarik hartara. Behin esan zion Augustok:

— Hau da gogoa zure begiei bertso batzuk egitekoa!

Eta hark arrapostu:

— Egin itzazu!

— Hobe litzateke, ordea —gaineratu zuen Augustok—, bitartean pianoa joko bazenu, inspiratu egingo ninduke eta.

— Badakizu, alabaina, Augusto, zure eskuza-baltasunari esker piano klaseak alde batera uzteko aukera izan dudanetik, ez dudala behin ere jo eta, gainera, ez dudala batere atsegin pianoa jotzea. Ez baitit neke gutxi eman!

— Berdin dio, jo ezazu, Eugenia, jo ezazu nire bertsoak egin ditzadan.

— Tira bada, behingoz besterik ez bada ere!

Eseri egin zen Eugenia pianoa jotzeko, eta jotzen zuen bitartean hauxe idatzi zuen Augustok:

*Han-hemenka zebilen aire arima gorputzetik
urrun*

ideiaren bruma galduetan

han, esferek kantatzen omen duten

musikaren nota artean galdua;

eta bakarrik zegoen nire gorputza

arimarik gabe eta triste harantz eta honantz.

Elkarrekin bizitza lantzeko sortuak

ez ziren bizi; hura materia huts
eta hau izpiritu huts izaki
elkar osatu nahian, Eugenia goxoa!
Hara non sortu ziren, ordea, zure begiak
nire bideko goialdetik
argi biziaren sorburu,
eta aire arima hartu
eta, zeru goibeletik zalantzazko lurrera eka-
rririk,
nire gorputzean sartu; eta harrezkero,
harrezkero baino ez naiz bizi, Eugenia!
Zure begiek, iltze gorriak iduri,
nire gorputza arimari eratxiki
eta sutsuki eragiten diote amets nire baitan
odolari
eta tira ideiak haragi dituzte bilakarazten.
Nire biziko argi hori itzal badadi,
eta espiritua eta materia elkarrengandik
bereizi,
galduko naiz bruma zerutiarretan
eta sakonaren ilunpe suntsikorretan.

— Zer iruditzen zaizkizu? —galdetu zion
Augustok irakurri ondoren.

— Nire pianoa bezalakoak, musikaltasun gutxikoak edo ia batere gabeak. Eta «omen» hori sartzea...

— Bai, lagunartekotasuna ematearren sartu dut.

— Eta «Eugenia goxoa» hori, berriz, betegarri bat iruditzen zait.

— Zer? Betegarri bat al zara, bada, zu?

— Hor bai, bertso horietan bai! Eta gainera, oro har, oso zera iruditzen zait, oso...

— Badakit, bai, oso *niboliarra*.

— Zer da hori?

— Ezer ez, Victor eta bion artean asmatutako ziri bat.

— Entzun bada, Augusto, nik ez dut nahi zirik nire etxean behin ezkontzen garenetik aurrera, aditzen? Ez ziririk ezta zakurrik ere. Hasi pentsatzen, beraz, zer egingo duzun Orfeorekin...

— Baina Eugenia, Jainkoarren!, badakizu-eta nola aurkitu nuen, gizajoa!, eta nire konfidentea da gainera...! Berari botatzen baitizkiot nire bakarrizketa guztiak...!

— Behin ezkondu ondoren nire etxean ez da, ordea, bakarrizketa gehiagorik izango. Sobran dago zakurra!

— Jainkoarren, Eugenia, haurra ekarri arte besterik ez bada ere...

— Baldin badakargu...

— Bai, noski, baldin badakargu. Eta bestela, zergatik ez zakurra?, zergatik ez zakurra, diotenez, zuzentasun handiz esan ere, dirurik izanez gero gizonaren lagunik onena izango bailitzateke...?

— Ez, zakurra, dirurik izanez gero, ez litzateke gizonaren laguna izango, ziur naiz. Dirurik ez duelako da hain zuzen ere haren laguna.

Beste behin esan zion Eugeniak Augustori:

— Entzun, Augusto, gauza gogor bat aipatu behar dizut, oso gogorra, eta alde zurretik eskatu behar dizut barkatzeko baldin eta esango dizudana...

— Esan, Eugenia, Jainkoarren!

— Badakizu izan nuela senargai bat...

— Bai, Mauricio.

— Ez dakizu, ordea, zergatik bidali behar izan nuen lotsagabe halakoa...

— Ez eta jakin nahi ere.

— Ondratu egiten zaitu horrek. Ongi da; bidali egin behar izan nuen alferrontzi lotsagabe hura, baina...

— Zer? Atzetik al dabilkizu oraindik?

— Oraindik ere bai!

— Nik harrapatzen badut!

— Ez, ez da hori. Atzetik dabilkit bai, baina ez zuk uste duzun asmoz, bestelakoz baizik.

— Ea!, ea!

— Ez larritu, Augusto, ez zaitetz larritu. Mauricio gizajoak ez du hozka egiten, zaunka egiten du.

— Egin ezazu, bada, esaera arabiarrek dioena: «aidera zakurra zaunkaka ateratzen zaizun aldiero geldituz gero, sekulan ez zara azkenera iritsiko». Alferrik da harriak botatzea. Ez iezaiozu jaramonik ehin.

— Zeini?

— Badaezpada ere, poltsikoan ogi pusketa batzuk eramatea eta zaunkaka ateratzen zaizkigun zakurrei botatzea, goseak direlako egiten baitute zaunka.

— Zer esan nahi duzu?

— Orain Mauriciok zera besterik ez duela nahi, zuk edozein lanbide edo ogibideren bat bilatzea beretzat; eta hartara bakean utziko omen nau, baina bestela...

— Bestela...

— Mehatxu egiten dit esanez nire atzetik ibiliko dela ni konprometitzearren.

— Lotsagaldua!, alproja!

— Ez zaitez asaldatu. Nire ustez, onena bizitzeko adina emango dion edozein lanbide albait urrunen bilatu eta begien bistatik kentzea izango da. Gainera, halako errukia edo badiot nik gizajoari, badakizu nolakoa den, eta...

— Arrazoi duzu, beharbada, Eugenia. Eta tira, uste dut dena konpondu ahal izango dudala. Bihar bertan hitz egingo dut nire lagun batekin eta bilatuko diogu enpleguren bat, nik uste.

Eta halaxe izan zen, aurkitu zion enplegua eta baita urruti samar destinatzea lortu ere.

XXVIII

Muturra okertu zuen Augustok goiz batez Liduvinak gazte bat zain zuela iragarri eta Mauricioekin topo egin zuenean. Etxetik bidaltzekotan egon zen hari entzun ere egin gabe, baina erakargarri gertatzen zitzaion behiala Eugeniaren senargai izandako gizon hura, Eugeniak lehen maite izan eta oraindik ere nolarebait apika maite zuena; agian bere emazte, Augustoren emazte, izango zenaren intimitate batzuk, Augustok ezagutzen ez zituenak, jakingo zituen hura; hura... Bazuen lotura bat harekin.

— Eskerrak ematera natorkizu, jauna —hasi zen apal-apal Mauricio—, Eugeniaren bitartekari-tzaz, egin didazun mesede eskerga dela eta...

— Ez didazu zertan eskerrik eman, jauna, eta aurrerantzean nire emazte izango dena bakean utziko duzula espero dut.

— Nik ez dut-eta batere molestatu!

— Badakit zer diodan.

— Bidali ninduenetik, eta ondo egin zuen ni bidaltzen, izan dudan ondoen saiatu naiz kontso-

latzen eta baita, noski, haren erabakiak errespetatzen ere. Eta berak besterik esan badizu...

— Ez ezazula, arren, nire emazte izango denaren izenik berriro aipa, eta are gutxiago egiari huts txikienik ere egin dionik inolaz ere aditzera eman. Kontsola zaitetz ahal duzun moduan eta utz gaitzazu bakean.

— Egia da, bai. Eskerrik asko, bada, berriz ere, egin didazuen mesedeagatik, enplegutxo hori emateagatik. Hori betetzera joango naiz eta ahal dudan moduan kontsolatuko naiz. Ez dakit badakizun, baina nirekin neskato bat eramateko asmoa dut...

— Eta niri zer hori, jauna?

— Zera, ezagutzen duzulakoan nagoela...

— Nola? Nola? Adarra jo nahi didazu ala?

— Ez... ez... Rosarito izena du, lisaketa taller batean egiten du lan eta, oker ez banago, arropa lisatua eramaten zizun lehen...

Zurbildu egin zen Augusto. «Denak ote dakizki honek?», pentsatu zuen, eta horrek aurreko susmoak baino areago aztoratu zuen, gizon hark Eugeniaz berak ez zekiena zekielako susmoak

baino areago. Baina bat-batean bere oneratu eta esan zuen ozenki:

— Eta zer dela eta zatoz orain honekin?

— Uste dut —jarraitu zuen Mauriciok, ezer entzun ez balu bezala— mesprezatuei utzi egin behar zaigula elkarren artean kontsolatzen.

— Zer esan nahi duzu, ordea, gizona, zer esan nahi duzu? —eta dudatan gelditu zen Augusto ez ote zuen gizon hura hantxe bertan, Rosaritorekin azken pasadizo hura izandako toki berean, lepotik heldu eta itoko.

— Ez horrela asaldatu, don Augusto, ez horrela asaldatu! Esan dudana besterik ez dut esan nahi. Hark..., nik aipatzerik nahi ez duzunak, mesprezatu egin ninduen, bidali egin ninduen, eta neskato gajo horrekin egin dut topo, beste norbaitek mesprezaturia bera ere eta...

Augustok ezin izan zuen gehiago jasan; zurbildu egin zen aurenik, gero sutan jarri, Mauricio-ri bi besoetatik oratu, airean jaso eta sofa gainera bota zuen, zer ari zen ondo konturatzeke, hura jo eta bertan itotzeko asmoz edo. Eta orduan, sofa gainean zegoela konturatu zenean, hauxe bota zion Mauriciok hotz-hotzean:

— Begira orain zure burua nire begi ninietan, don Augusto, eta ikusiko duzu zeinen txiki ikusten duzun...

Augusto gizajoa urtzekotan egon zen. Besoetako indarra behintzat erabat urtu zitzaion, eta egongela lainotzen hasi zitzaion. «Ametsetan ari ote naiz?» pentsatu eta hara non ikusi zuen Mauricio, bere aurrean zutitua, irribarre gaiztoa eginenez esaten ziola:

— Lasai, ez da ezer gertatu, don Augusto, ez da ezer gertatu! Barka iezadazu, bat-batean eman dit... zer egin dudan ere ez dakit..., ez naiz konturatu ere egin... Eta eskerrik asko, eskerrik asko berriz ere! Eskerrak zuri eta baita... hari ere! Agur!

Mauricio irten bezain pronto, Liduvinari deitu zion Augustok.

— Esan, Liduvina, nor izan da hemen nirekin?

— Gizon gazte bat.

— Nolakoa?

— Nik esan beharko al dizut, bada?

— Benetan izan al da norbait hemen nirekin?

— Jauna!

— Ez..., ez..., zin egizu benetan izan dela gazte bat hemen nirekin eta zuk esango duzu gainera nolakoa...: garaia, ile-horia, ezta?, biboteduna, ez argala baizik eta lodi samarra, sudur xorrotxa... Hemen izan al da?

— Ondo al zaude, jauna?

— Ez al da ametsa izan?

— Biok amets bera egin ez badugu...

— Ez, ezinezkoa da aldi berean bi lagunek amets bera egitea. Gauza bat batena bakarrik ez denean, orduantxe jakiten dugu, hain zuzen ere, gauza hori ez dela amets...

— Zaude bada lasai, hemen izan baitzen diozun gazte hori.

— Eta zer esan zuen irteeran?

— Irteeran ez zuen nirekin hitz egin..., ikusi ere ez mien egin...

— Eta zuk, Liduvina, ba al dakizu nor den?

— Bai, badakit nor den. Zeraren senargai izandakoa...

— Bai, aski da. Eta orain, noren senargai da orain?

— Gehiegitxo jakitea litzateke hori.

— Emakumeek inork irakatsi gabeko hainbeste gauza dakizkizuenez...

— Eta, aldiz, irakatsi nahi dizkigutenak ikasterik ez dugu lortzen.

— Ongi da, Liduvina, esan egia: ez al dakizu norekin dabilen orain zer hori... tipo hori?

— Ez, baina baditut nire susmoak.

— Zer dela eta?

— Diozunagatik.

— Tira, deitu orain Domingori.

Zertarako?

Jakiteko oraindak ametsetan ari naizen ala ez, eta benetan Liduvina zaren, haren emaztea.

— Edota Domingo bera ere ametsetan ari ote den? Bada, ordea, nik uste, gauza bat hobea.

— Zein?

— Orfeo etorraraztea.

— Arrazoi duzu; horrek ez du ametsik egiten!

Handik pixka batera, Liduvina joana zelarik, zakurra sartu zen.

«Hator hona, Orfeo —esan zion nagusiak—, hator hona! Gaixo txikia! Egun gutxi emango dituk honezkero nirekin bizitzen! Hark ez hau etxean nahi. Nora botako haut, ordea? Zer egin-

go diat hirekin? Zer egin behar duk hik ni gabe? Hiltzeko ere kapaz haiz eta, bazakiat! Zakurra baino ez duk izaten kapaz bere burua nagusirik gabe ikusi eta bertan hiltzeko. Eta hire nagusia baino gehiago izan nauk ni, hire aita, hire jainkoa! Ez hau etxean nahi; bota egiten hau nire ondotik! Etxean enbarazu egiten al diok bada hik, leialtasunaren irudi haizen horrek? Auskalo...! Zakurrak, isilik egoten bada ere, etxean berekin bizi direnen pentsamendu isilpekoenak ere jakin egingo ditik eta... Eta hau da ezkondu beharra, ezkondu beste erremediorik ez zaukaat..., bestela, sekula santan ez nauk ametsetik aterako! Esnatu egin behar diat».

`Gaina, zergatik begiratzen didak horrela, Orfeo? Malkorik gabeko negarrez ari haizela ematen dik eta...! Zer edo zer esan nahi al didak? Hitzik ez dualako sofritzen ikusten haut. Azkar esan nian hik ametsik egiten ez duala! Hi bai ari haizela ametsetan, Orfeo! Zergatik gaituk, bada, gizonak gizon, ez bada zakur, katu, zaldi, idi, ardi eta klase guztietako abereak, etxe abereak batez ere, hor ditugulako'? Iritsiko al zian bada gizonak bere gizatasuna, biziaren abe-

retasunaren zama deskargatzeko etxe abererik gabe? Gizonak zaldia domestikatu izan ez balu, ez al gintuzkek ibiliko gutariko erdiak beste erdiak bizkar gainean hartuta? Zuei zor zaizue, bai, zibilizazioa. Zuei eta emakumeei. Baina ez al duk, bada, emakumea ere beste etxe abere bat? Eta emakumerik ez balego, gizonak gizon izango al lituzkek? Ai, Orfeo, kanpotarrak botako hau etxetik!»

Eta bularraren kontra estutu zuen, eta zakurrak, benetan ematen baitzuen negarrez ari zela, bizarra milikatzen zion.

XXIX

Listo zegoen dena ezkontzarako. Augustok ezkontza apal eta isilkakoa nahi zuen. Hark, aldiz, bere emazte izango zenak, nahiago zuen nonbait ospe eta entzute handiagoa ematea.

Egun hura hurbilduz zihoan ahala, gero eta irriki biziagoa zuen senargaiak harekin harreman estuxeagoak izan eta halako salbuespentxoak egiteko. Eugeniak, berriz, gero eta tinkoago eusten zion zuhur izateari.

— Egun gutxi barru bata bestearenak izango gara eta, Eugenia!

— Horrexegatik, hain zuzen ere. Hasi beharra daukagu dagoeneko elkar errespetatzen.

— Errespetua..., errespetua...; errespetuak alde batera uzten du maitasuna.

— Zuk uste duzu hori... Gizona azken finean!

Eta Augustok zerbait arraroa sumatzen zion, zerbait bortxatua. Bere begiradei itzuri egiten saiatzen zela ere iruditu zitzaion inoiz. Eta bere amarekin akordatu zen, bere ama gaixoarekin, nola betidanik irrikatu izan zuen bere semea

behar bezala ezkontzea. Eta orain, Eugeniarekin ezkontzear zegoela, Mauriciok Rosario berekin eramango zuela esan izanak, horretxek atsekabetzen zuen. Jeloskor zegoen, izugarri jeloskor eta amorraturik okasio hura pasatzen utzi zuelako, neskatoaren aurrean barregarri gelditu zelako. «Han ariko dira orain biak nire bizkar barre eginez —zioen berekiko—, eta gusturago ariko da gainera Mauricio, Eugenia utzi eta niri pasata eta Rosario berekin eramanda». Behin baino gehiagotan egon zen bere konpromisoa hautsi eta Rosario konkistatzera, Mauriciori neskato hura kentzera joateko zorian.

— Eta zer gertatu zen neskatila harekin, Rosario harekin? —galdetu zion Eugeniak ezkontza baino egun batzuk lehenago.

— Nondik nora oroitarazten didazu orain hori?

— A, oroitzapen hori atsegin ez bazaizu, ez dizut aipatuko!

— Ez..., ez..., baina...

— Behin gure arteko elkarrizketa bat eten zuenez, bada... Ez al duzu gehiago haren berririk

izan? —eta aldetik aldera zulatzen duten horieta-ko begirada egin zion.

— Ez, ez dut gehiago haren berririk izan.

— Nor ote dabil hura konkistatzen edo nork ote du honezkero konkistatua...? —eta begirada Augustorengandik kendu eta hutsartera, begiratzeko zuena baino haruntzago begira gelditu zen.

Susmo arraro andana pasa zitzaion burutik senargaiari. «Honek bazakik zer edo zer» pentsatu eta esan zuen ozenki:

— Ezer ba al dakizu, bada?

— Nik? —erantzun zuen batere axola ez bali-tzaio bezala eta berriro ere Augustori begiratu. Misteriozko itzal bat zebilen bien artean.

— Uste dut honezkero ahaztua izango duzula...

— Zer dela eta aipatzen didazu hainbeste bider zer hori... neskatila hori?

— Ez dakit bada!... Eta gaia aldatuta, zer gertatzen ote zaio gizon bati, lortu nahi duen neska becte batek kendu eta berekin eramanez gero?

Hori entzutearekin odol olde bat igo zitzaion burura Augustori. Gogo bizia sartu zitzaion handik irten, korrika Rosarioren bila joan, bereganatzen...

tu, harekin batera atzera Eugeniarengana itzuli eta esateko: «Hara hemen, nirea da eta ez... zure Mauriciorena!»

Hiru egun falta ziren ezkontzarako. Pentsakor irten zen Augusto andregaiaren etxetik. Gau hartan ez zuen ia lo egiterik izan.

Biharamunean, esnatu berritan, Liduvina sartu zitzaion gelara.

— Gutun bat duzu hemen, jauna; oraintxe ekarri dute. Eugenia andereñoarena dela uste dut...

— Gutuna? Harena? Haren gutuna? Uztazu hor eta zoaz!

Liduvina irten eta Augusto dardarka hasi zen. Ezinegon arraro batek astintzen zion bihotza. Rosario etorri zitzaion gogora, eta gero Mauricio. Ez zuen, alabaina, gutuna ukitu ere egin nahi izan. Izaturik begiratu zion gutun azalari. Ohetik jaiki, aurpegia garbitu, jantzi, gosaria eskatu eta zanpa-zanpa barruratu zuen. «Ez, ez dut hemen irakurri nahi», esan zuen berekiko. Etxetik irten, hurbileneko elizara joan, eta han, meza entzuten ari ziren zenbait eliztarren artean, hantxe ireki zuen gutuna. «Kontrolatu egin beharko dut nire

burua hemen —esan zuen berekiko—, ez baitakit zer esan nahian dabilkidan bihotza.» Eta hala zioen gutunak:

«Augusto estimatua: Lerro hauek irakurtzera-koan Mauriciorekin izango naiz, zure eskuzabaltasunari esker destinatu duten herrira bidean; eta eskuzabaltasun horra esker orobat disfrutatu ahal izango ditut nik ere nire errentak, Mauricio-ren soldatarekin batera elkarren ondoan ongixko bizitzeko adina emango baitigute. Ez dizut barkainenik eskatzen, hau ikusi ondoren jabetuko baitzara, nik uste, nik ez zintuzkedala sekulan zoriontsu egingo eta askozaz ere gutxiago zuk ni. Behin lehenengo zartada hau gainditua duzunean, berriro idatziko dizut eta argituko zer dela eta egiten dudan orain eta modu honetan pauso hau. Mauriciok ezkontza egunean berean alde egitea nahi zuen, elizatik atera ondoren; oso korapilatsua zen, ordea, bere plana, eta alferrikako krudelkeria iritzi nion gainera. Eta beste inoiz ere esana dizudan bezala, lagun izaten jarraituko dugulakoan Trago. Zure lagunak,

Eugenia Domingo del Arco

P.S. Rosario ez dator gurekin. Hortxe gelditzen zaizu eta harekin kontsola zaitetzke».

Gorputza banku baten gainera erortzen utzi zuen Augustok, behea jota. Handik gutxira, belaunikatu eta erretzeari ekin zion.

Elizatik irtetean, lasai zihoala iruditu zitzaion; lotsak gindako lasaitasuna zen hura, ordea, ikaragarria. Eugeniaren etxerantz jo zuen, eta han aurkitu zituen osaba-izebak lur jota. Ilobak gutun bidez adierazi zien hartutako erabakia eta gau osoan ez zen gehiago azaldu. Bikoteak tren bat hartu zuen arratsean, Augusto andregaiarekin azkenekoz elkarrizketatu eta oso denbora gutxiren buruan.

— Zer egin behar dugu orain? —esan zuen doa Ermelindak.

— Zer egingo dugu, bada, andrea —erantzun zion Augustok—, aguantatu besterik!

— Lotsagarria da hau! —egin zuen oihu don Ferminek—; honelako gauzek ez lukete behar bezalako zigorrik gabe gelditu behar!

— Eta zuk diozu hori, don Fermin, zuk, anarkista horrek...?

— Hori ez da kontua. Gauza horiek ez dira horrela egiten. Gizona ez da horrela engainatzen!

— Bestea ez du, bada, engainatu! —esan zuen hotz Augustok, eta baita gero izutu ere zein hotz esan zuen ikusita.

— Engainatuko du bai..., engainatuko du... ez dudarik izan!

Deabruzko plazerra sentitu zuen Augustok Eugeniak azkenean Mauricio ere engainatuko zuela pentsatzerakoan. «Ez nirekin, ordea», esan zuen apal, berak bakarrik entzuteko moduan.

— Ongi da, jaun-andreok, sentitzen dut gertatu dena, eta zuen ilobarengatik batez ere, baina alde egin behar dut.

— Ulertuko duzunez, don Augusto, guk... — hasi zen doa Ermelinda.

— Jakina!, jakina! Baina...

Ez zegoen egoera hura luzarazterik. Augustok beste gauzatxoren bat esan eta alde egin zuen.

Han zihoan, bere buruarekin, gertatzen zitzaionarekin, edo, hobeki esan, gertatzen ez

zitzaionarekin izaturik. Burlarik handiena itxuraz bederen hain hotz jaso izanak, baretasun hark, dudatan jartzen zion bere existentzia bera ere. `Besteak bezalako gizona banintz —zioen berekiko—, bihoztuna alegia, edota, besterik gabe, gizon bat banintz, benetan existituko banintz, nola jasan nezake hau, jasan dudan bezain lasai?» Eta, konturatu gabe, bere gorputza ukitzen hasi zen, eta baita atximurka egin ere, ea ezer sentitzen ote zuen.

Bat-batean norbait zango batetik tiraka ari zitzaiola sentitu zuen. Orfeo zen, Augusto kontsolatzera bidera irtena. Poz handia hartu zuen, bai arraroa!, Orfeo ikustearekin; besoetan hartu eta esan zion: «Poztu hadi, Orfeo nirea, poztu hadi! Poztu gaitezen biok! Ez haute etxetik botako; ez haute nigandik aldenduko; ez gaitiztek bata bestearengandik bananduko! Elkarrekin biziko gaituk nola bizitzan ala heriotzan ere. Ez zagok kalterik gauza onen bat ez dakarrenik, kaltea oso handia eta gauza ona oso txikia izanik ere, edo alderantziz. Hi, hi leiala haiz, Orfeo nirea, hi leiala haiz! Bazakiat batzuetan hire zakur emearen bila ibiliko haizela; ez haiz harga-

tik etxetik ihesi joaten, ez nauk hargatik abandotzen; hi leiala haiz. Eta begira, sekula alde egin beharrik ez izateko, zakur eme bat ekarriko diat etxera, bai, ekarri egingo diat. Ze orain, nire bila irten ote haiz nire pena kontsolatzearen, ala hire zakur emeari bisita egin eta bueltan topatu nauk? Dena dela, hi leiala haiz, hi bai, eta engoitik inork ere ez hau nire etxetik botako, inork ez gaitik elkarrengandik bereiziko».

Etxean sartu zen, eta bere burua berriro ere han ikusi bezain laster, bakarrik, lehen bare zegoela eman arren, bat-batean hasi zitzaion ekaitza ariman. Halako sentimendu batek hartu zuen, elkarrekin nahasita sentitu zituelarik tristura, tristura mikatza, jelsia, amorrua, beldurra, gorrotoa, maitasuna, kupida, mesprezioa eta, batez ere, lotsa, egundoko lotsa, ikaragarria baitzen zein barregarri gelditzen zen jakitea.

— Hil egin nau! —esan zion Liduvinari.

— Nork?

— Hark.

Gelan sartu zen eta atea itxi. Eta Eugenia eta Mauricioren irudiekin batera, Rosariorena ere azaltzen zitzaion bere baitan, berari burlaka

hura ere. Eta ama zetorkion gogora. Ohe gainean etzan zen, burukoari ausikika, bakarrizketari utzi eta mutu gelditu zen; arima agortzen ariko balitzaio bezala sentitu eta negar batean hasi zen. Negar eta negar egin zuen. Eta aiene isil hartan urtu egiten zitzaion pentsamendua.

XXX

Sofa zoko batean hondoratua aurkitu zuen Victorrek Augusto, lurra baino beherago begira.

— Zer duk hori? —galdetu zion, esku bat besagainean jartzen ziola.

— Hau zer den galdetzen didak? Ez al dakik zer gertatu zaidan?

— Bai, bazakiat zer gertatu zaian baina kanpotik, han da, neskak zer egin duen; ez zakiat, ordea, barrutik zer gertatzen zaian, ez zakiat zergatik hagoen horrela...

— Ezinezkoa ematen dik!

— Amodio batek egiten dik alde, a-renak; ez al dauzkak oraindik hor b, c, edo x-renak, edota n-etako beste edozeinena?

— Ez diat uste txantxetarako garaia denik.

— Bai horixe, hauxe duk txantxetarako garaia.

— Ez duk, ordea, amodioa min egiten didana; burla duk, burla, burla! Burla egin zidatek, iseka egin zidatek, barregarri utzi naitek; erakutsi nahi

izan zidatek..., auskalo!... existitzen ez naizela edo.

— Hori duk zoriontasuna!

— Ez burlarik egin, Victor.

— Eta zer dela eta ez diat burlarik egin behar? Hi, Augusto maitea, esperimentatzaile izan nahi eta esperimentatu gertatu haiz; igeltzat hartu nahi izan huen hura, eta hara non hark hartu hauen hi igeltzat! Murgil hadi, bada, putzuan, eta kro-kro egin eta bizi!

— Berriro eskatzen diat arren...

— Ez txantxetan aritzeko, ezta? Txantxetan ariko nauk, bada. Honelakoetarako egina zagok burla.

— Hondagarria duk hori, ordea.

— Hondatu beharra zagok eta. Gauzak nahasi beharra zagok. Nahasi batez ere, dena nahasi. Loia eta esnaldia, fikzioa eta errealitatea, egia eta gezurra, dena laino bakar batean nahasi. Hondagarria eta nahasgarria ez den txantxak ez dik deustako balio. Haurrak barre egiten zioke tragediari; agureak negar egiten dik komediarekin. Hura igel egin nahi izan huen, eta hi egin hau

hark igel; onar ezak, bada, eta hartzak igeltzat hire burua.

— Zer esan nahi duk horrekin?

— Hire buruarekin esperimentatzeko.

— Bai, nire buruaz beste egiteko.

— Ez diat baietzik ez ezetzik esango. Hori lukek irtenbide bat, besteak beste, baina ez onena.

— Orduan, haiek bilatu eta jo eta bertan hiltzeko.

— Inor besterik gabe hiltzea zentzugabekeria duk. Gehienez ere gorrototik libratzeko balio dik, arima gaiztotu besterik ez baitu egiten horrek. Aihertsu batek baino gehiagok sendatu izan dik bere aiherra, eta bere biktimari erruki izan eta are hura maitatzera ere heldu duk, behin bere gorrotoa harengan ase eta gero. Gaizkintzek libratu egiten haute sentimendu gaiztoetatik. Legeak sortzen baitu bekatua.

— Eta zer egin behar diat nik?

— Entzunda egongo haiz mundu honetan hik besteak irentsi ala besteek hi irentsi, beste aukerarik ez dagoela.

— Bai, besteei burla egin, bestela besteek egingo diate burla.

— Ez; bazagok beste aukera bat, nork bere burua irenstea, nork bere buruari burla egitea. Irents ezak hire burua! Irenten duenak gozatu egiten dik, baina etengabe gogoratzen duk bere gozaldien akabantzaz eta ezkor bilakatzen duk; irentsia denak, berriz, sofritu egiten dik, baina beti zagok bere penak noiz amaituko zain eta baikor bilakatzen duk. Irentsi ezak hire burua, eta hire burua irensten hartuko duan plazerra eta irentsia izatean hartuko duan mina elkarrekin nahasi eta neutralizatu egingo direnez, erabateko patxadaz, soseguz jabetuko haiz; ikuski-zun huts izango haiz hire buruarentzat.

— Eta hik esaten dizkidak, Victor, hik, horrelako gauzak?

— Nik, bai, nik esaten dizkiat Augusto!

— Garai batean hire pentsamenduak ez zituan, bada, hain... hain hondagarriak.

— Orduan ez ninduan aita.

— Eta aita izateak zer...?

— Aita izateak, eroa edo ergela ez bada behintzat, gizonak duen gauzarik ikaragarriena

pizten zio bati: ardura! Gizadiaren ondare iraunkorra uzten zioat nire semeari. Aitatasunaren misterioaz gogartzen hasiz gero, erotzeko adina zagok hor. Eta aita gehienak erotzen ez badira tontoak direlako duk... edo aita ez direlako. Poztu hadi, beraz, Augusto, hura ihesi joan izanari esker ez baihaiz, agian, aita izango. Eta nik ezkontzeko esan nian; ez, ordea, aita izateko. Ezkontza esperimentu... psikologikoa duk; aitatasuna, berriz... patologikoa.

— Aita egin naik ordea, Victor!

— Zer? Aita egin hauela?

— Bai, neure buruarena! Uste diat oraingoa benetan jaio naizela. Sofritzeko gainera, hiltzeko.

— Halaxe duk, bai, bigarren jaiotza, benetakoa, minaren bidez etengabeko heriotzaren kontzientziara jaiotzea duk, beti hiltzen ari garelako kontzientziara. Baina hire buruaren aita egin bahaiz, hire buruaren seme ere egin haiz.

— Gezurra ematen dik, Victor, gezurra ematen dik gertatzen zaidana gertatzen zaidala, nork eta hark! egin didana egin ondoren, nik oraindik hain lasai entzun ahal izatea zorrozta-

sun hauek, kontzeptu joko hauek, ateraldi izugarri hauek, eta baita okerragorik ere...

— Zer?

— Ni distraitzea. Amorratzen jartzen nauk nire buruarekin!

— Komedia duk hori, Augusto, geure buruaren aurrean, norberaren baita delako horretan, kontzientziaren oholtzan antzezten dugun komedia, aldi berean komiko eta ikusle gisa jokatzuz. Eta minaren agerraldian mina antzezten diagu eta desegokia iruditzen zaiguk orduan, bat-batean, barregura sartzea. Eta orduantxe izaten diagu hain zuzen barregurarik handiena. Komedia, komedia duk mina!

— Eta minaren komediak bati bere buruaz beste eginarazten badio?

— Suizidioaren komedia!

— Benetan hiltzen duk, ordea!

— Komedia hori ere!

— Zer duk orduan benetakoa, egiazkoa, sentitua?

— Eta nork esan dik komedia benetakoa eta sentitua ez denik?

— Orduan?

— Oro gauza bat dela eta bera; nahastu beharra zagok,

Augusto, nahastu beharra zagok. Eta nahasten ez duena nahastu egiten da.

— Eta nahasten duena ere bai.

— Balitekek.

— Orduan?

— Honelaxe bada, berriketan, zorroztasunetan aritu, hitz eta esamoldeekin jokatu... Denbora pasa!

— Haiek ariko dituk, bai, denbora pasa!

— Baita hi ere! Ikusi al duk inoiz hire burua orain baino interesgarriago? Nola zakik batek halako soin atala baduela, minik ematen ez badio?

— Tira, eta zer egin behar diat nik orain?

— Egin..., egin..., egin...! Be, hasia haiz hire burua drama edo nobela bateko pertsonaia sentitzen! Aski diagu, bada... *nibola* batekoak izatearekin! Egin..., egin..., egin... ! Gutxi egitea iruditzen al zaik honela hizketan aritzea? Ekintzarako mania duk, alegia, pantomimarakoa. Gauza asko gertatzen omen duk halako antzezlan batean aktoreek keinu asko egin ditzaketenean,

eta pauso handiak egin eta borroka itxurak egin eta salto egin eta... Pantomima! Pantomima! Gehiegi hitz egiten dute!, ziotek beste batzuetan. Hitz egitea *egitea* ez balitz bezala. Hasieran Hitzza izan zuan eta Hitzari esker egin zuan oro. Orain, esate baterako, hor, armairu horren atzean ezkutatuak zer batek... *nibolagile* batek hemen esaten ari garena takigrafiaz jaso eta argitaratuko balu, ez lukek harritzekoa izango irakurleek deus ere gertatzen ez dela esatea eta, aitzitik...

— O, barrua ikusiko balidate, Victor, izan ziur ez luketela halakorik esango!

— Barrua? Noren barrua? Hirea? Nirea? Guk ez diagu barrurik. Hemen deus ere gertatzen ez dela esateko beren barruak ikusi beharko litizketek, bereak, irakurleenak. Drama, nobela edo *nibola* bateko pertsonaiaren arimaren barru bakarra zerarena duk...

— Bai, egilearena.

— Ez, irakurlearena.

— Ziurtatzen diat, bada, Victor...

— Ez ezak deus ere ziurta eta irents ezak hire burua. Hori duk seguruena.

— Irensten diat, irensten diat. Itzala, fikzioa bainintzen hasi ninduan; urteetan ibili nauk fantasma baten modura, lainozko panpin baten modura, nire existentzian bertan ere sinetsi gabe, ezkutuko jenio batek jolastearren edo bere barrua hustearren asmatutako pertsonaia fantastiko bat nintzela iruditzen zitzaidalarik; orain, aldiz, hark zer egin didan ikusirik, haiek zer egin didaten ikusirik, burla honen, burla ikaragarri honen ondoren, orain bai!, orain sentitzen diat, sumatzen diat nire gorputza, ez diat dudarik nire benetako existentziaz.

— Komedia! Komedia! Komedia!

— Nola?

— Bai, komediaren barruan sartzen duk erregearena egiten duenak bere burua erregetzat hartzea.

— Zer nahi duk, ordea?

— Hi distraitzea. Eta gainera, esan bezala, ezkutuko *nibolagile* batek esaten ari garena entzun eta egunen batean argitaratuko balu, *nibola* horren irakurleak, instant batez besterik ez bada ere, duda egitea bere gorputz errealita-

teaz eta bere burua pertsonaia *niboliartzat* baino ez hartzea, guk bezala.

— Eta hori, zertarako?

— Hura aske uzteko.

— Entzunda nagok, bai, horixe dela artearen alderdirik askatzaileena, existitzen dela ere ahaztarazten diola bati. Hor aritzen dituk batzuk buru-belarri nobelak irakurtzen, bere buruari jaramonik ez egitearren, penak ahaztearren...

— Ez, artearen alderdirik askatzaileena zera duk, duda eginarazten diola bati existitzen den ala ez.

— Eta zer duk existitzea?

— Ikusten? Hasia haiz sendatzen: hasia haiz hire burua irensten. Hire galdera horrek frogatzen dik. «Izan ala ez izan!»..., Hamletek esana, Shakespeare asmatu zutenetariko batek.

— Bada, niri, Victor, huskeria galanta iruditu izan zaidak beti «izan ala ez izan» delako esaldi hori.

— Esaldiak, zenbat eta sakonagoak izan, orduan eta hutsagoak izaten dituk. Ez zagok sakontasun handiagorik hondorik gabeko

putzuarena baino. Zer iruditzen zaik denetan benetakoena?

— Bada... zera... Descartes hura: «Pentsatzen dut, beraz banaiz».

— Hori ez, haxe baizik: A berdin A.

— Hori ez duk ezer, ordea!

— Eta horrexegatik duk benetakoena, ezer ez delako. Eta Descartes beste huskeria hori hain dudaezina iruditzen al zaik?

— Bai horixe!...

— Ongi da; Descartesek esan al zian hori?

— Bai!

— Eta ez zuan egia. Ze, Descartes fikziozko izakia, historiaren asmakeria besterik izan ez denez, bada... ez zuan existitu... eta ez zian pentsatu!

— Eta nork esan zian, bada, hori?

— Hori ez zian inork esan; berez esan zuan.

— Orduan, izan eta pentsatzen zuena pentsamendu hori bera al zuan?

— Jakina! Eta, pentsa, horrek esan nahi dik izatea pentsatzea dela eta pentsatzen ez duena ez dela.

— Argi zagok!

— Ez ezak, bada, pentsatu, Augusto, ez ezak pentsatu.

Eta pentsatzen lehiatzen bahaiz...

— Zer?

— Irents ezak hire burua!

— Nire buruaz beste egiteko, ezta?...

— Horretan ez nauk sartuko. Agur!

Victor handik atera eta han utzi zuen Augusto bere burutazioetan galdua eta nahastua.

XXXI

Augustoren arimako ekaitz haren ondoren barealdia etorri zen, barealdi ikaragarria alabaina: bere buruaz beste egitea erabaki zuen. Hil egin nahi zuen bere burua, handik baitzetozkion zorigaitzak. Baina bere asmoa burutu aurretik, itsasoan galduta dabilenak taula kaskar bati heltzen dion bezala, kontakizun honen egile naizen honi aholku eskatzea erabaki zuen. Garai hartan nire saiakera bat irakurria zen Augusto; saiakera hartan, gainerik besterik ez bazen ere, suizidioa aipatzen nuen eta, halako zirrara egin bide zion, niri irakurritako beste gauza batzuek bezala, ezen ez baitzuen mundu honetatik alde egin nahi izan ni ezagutu eta nirekin hitz-aspertutxo bat egin gabe. Eta hala abiatu zen hona, Salamancara, hogeitasei une baino gehiago baitira hemen bizi naizela, bisita egitera.

Haren bisita iragarri zidatenean halako irribarre enigmatikoa egin nuen eta nire bulegoko liburutegira pasarazteko agindu. Fantasma baten modura sartu zen, nire liburutegiko libu-

ruen gainean dagoen olozko nire erretratuari begiratu, nik keinua egin eta nire aurrean eseri zen.

Nire literatur eta, neurri batean, filosofi idazlanei buruz hasi zitzaidan; ongixko ezagutzen zituela erakutsi zidan eta horrek, jakina, atsegin eman zidan. Berehala hasi zitzaidan, alabaina, bere bizitza eta zorigaitzak kontatzen. Eten eta esan nion ez alferrik aritzeko, berak bezain ongi ezagutzen nituela bere bizitzako gorabeherak, eta halaxe frogatu nion bere barru-barruko xehetasunak, sekretu handientzat zituenak, aipatu nizkionean. Ikaraz betetako begiez begiratu zidan, izaki izugarri bat bainintzen; iruditu zitzaidan aurpegiko kolorea eta eitea aldatzen zitzaizkiola eta are dardarka ere ari zela. Txunditurik neukan.

— Gezurra ematen du! —zioen behin eta berriro—. Gezurra ematen du! Ikusi ezean ez nuke sinetsiko... Ez dakit esna ala ametsetan ari naizen...

— Ez esna, ez ametsetan —erantzun nion.

— Ez dut ulertzen..., ez dut ulertzen —gaineratu zuen—; baina, antza denez, nitaz nik neu

adina dakizunez, nire asmoa zein den ere asma-
tuko duzu agian...

— Bai —esan nion—. Hik —eta doinu larde-
riatsuz indartu nuen «hik» hori—, hik, hire zori-
gaitzek abailduta, hire buruaz beste egiteko
ideia deabruzkoa taxutu duk, eta hori egin aurre-
tik, nire azken saiakeretako batean irakurritako-
ak eraginda, niregana jo duk aholku eske.

Durduzatuta bezala dardarka ari zen gizajoa,
eta poseitu baten modura begiratzen zidan. Jai-
kitzen ahalegindu zen, nigandik itzuri egiteko
edo; ezin zuen. Ez zuen indarririk.

— Ez hadi mugitu! —agindu nion.

— Baina..., baina... —hasi zen totelka.

— Baina hik ezin duk hire buruaz beste egin,
ezta nahita ere.

— Nola? —egin zuen oihu, bere burua halako
ukazio eta kontraesanean ikusi zuenean.

— Bai. Batek bere burua hiltzeko, zer duk
beharrezko? —galdegin nion.

— Hartarako adorea izatea —erantzun zidan.

— Ez —esan nion—, bizirik egotea!

— Bai horixe!

— Eta hi ez hago bizirik!

— Bizirik egongo ez naiz, bada? Hil egin al naiz, bada? —eta zertan ari zen konturatzeke, bere gorputza haztatzen hasi zen.

— Ez, gizona, ez! —erantzun nion—. Lehen esan diat ez hengoela ez esna ez lo, eta orain esango diat ez hagoela ez hilda ez bizirik.

— Argi hitz egin behingoz, Jainkoarren! Hitz egin argi! —erregutu zidan asaldaturik—. Arratsalde honetan ikusitakoak ikusita eta entzundakoak entzunda, beldur bainaiz ez ote naizen erotuko.

— Ongi da; egia esan, Augusto maitea —esan nion ahalik eta ahotsik goxoenaz—, ez duk hire burua hiltzerik, ez baihago bizirik, eta ez hago bizirik, ezta hilda ere, ez baihaiz existitzen...

— Nola ez naizela existitzen? —egin zuen oihu.

— Ez, ez haiz existitzen fikziozko izaki gisa baino; ez haiz, Augusto gizajoa, nire fantasiaren eta nik asmatutako —eta idatzitako hire mentura eta ibilaldien kontakizuna irakurtzen duten nire irakurleen fantasiaren fruitu besterik; hi ez haiz nobela edo *nibola* edo dena delakoko pertsonaia besterik. Badakik, beraz, hire sekretua.

Hori entzutean begira gelditu zitzaidan giza-joa, begiratzen dutena zulatu eta areago doazela ematen duten horietako begiradaz, gero nire liburuen gainean dagoen olioeko nire erretratuari begiratu zion, atzera kolorea eta arnasa itzuli zitzaizkion, bere oneratu, bere buruaren jabe egin, ukondoak nire aurrean, aldamenen zeukan ohetxoan jarri eta, aurpegia esku artean harturik eta begi indartsuez begiratu, esan zidan emeki-emeki:

— Begirazu ongi, don Miguel..., ze, litekeena baita zu oker ibiltzea eta zuk sinetsi eta niri esaten didazunaz guztiz kontrakoa gertatzea.

— Eta zer duk guztiz kontrakoa? —galdetu nion, berezko bizitzaren jabe egiten zela ikusirik kezkatuta.

— Litekeena da, nire don Miguel maitea —gaineratu zuen—, ez ni, baizik eta zu izatea fikziozko izakia, benetan existitzen ez dena, ez bizi-rik ez hilda ere... Ez ote da izango zu nire istorioa munduari helarazteko aitzakia besterik ez izatea...?

— Horixe besterik ez genian behar! —oihukatu nuen haserre samar.

— Ez zaitez horrela aztoratu, jaun Unamuno —erantzun zidan—, zaude lasai. Nire existentziari buruzko dudak azaldu dituzu zuk...

— Dudak ez —eten mon—; ziur zakiat hi ez haizela existitzen nire nobelagintzatik kanpo.

— Ez, bada, horrela urduritu nik ere zure existentzia jartzen badut dudatan eta ez nirea. Goazen harira: ez al da zuk esana, eta behin baino gehiagotan gainera, don Quijote eta Sancho benetakoak ez ezik, Cervantes bera baino benetakoagoak direla honezkero?

— Ez diat ukatuko, baina esandako horri eman nahi nion zentzua...

— Tira, utz dezagun alde batera zentzu horren kontua eta goazen beste gauza batera. Ohean geldi-geldirik eta lotan dagoen gizon batek amets egiten duenean, zer da gehien existitzen dena: bera, amets egiten duen kontzientzia gisa hartuta, ala bere ametsa?

— Eta bera, amets egilea existitzen dela amesten badu? —erantzun nion nik.

— Orduan, lagun don Miguel, hauxe galdetuko nizuke: zer gisa existitzen da bera: bere buruaz amets egiten duen amesgile gisa, ala

berak amestutako amesgai gisa? Eta ohar zaitez, gainera, nirekin honela eztabaidan aritzea ontzat ematen duzunez gero, onartu egiten duzula orobat nire existentzia aske eta berezkoa.

— Ez, hori ez! Hori ez! —esan nion gartsuki—. Eztabaidatu beharra zaukaat nik, eztabaidarik eta kontraesanik gabe ez nauk bizi, eta kanpoan ez dagoenean eztabaidatu eta kontraesango didanik, neure baitan asmatzen diat. Elkarrizketak dituk nire bakarrizketak.

— Eta zuk taxututako elkarrizketak ez dira agian bakarrizketa huts besterik izango...

— Balitekek. Berriro esaten diat eta esango, hi ez haizela nire baitan baino existitzen...

— Eta nik berriro iradokitzen dizut existitu, zeu ez zarela existitzen nire eta asmatu uste dituzun gainerako pertsonaien baitan izan ezik. Ziur naiz nire iritzi berekoak liratekeela don Avito Carrascal eta don Fuljenzio handia ere...

— Ez aipa zer hori...

— Tira, aski da, ez ezazu maiseatu. Eta esaidazu, zer iritzi duzu nire suizidioaz?

— Nire iritzia duk, hi nire fantasian baino existitzen ez haizenez, berriz esaten diat, eta fin gogoak ematen didana besterik egiterik ez duanez, eta hik hire buruaz beste egitea gogoak batere ematen ez didanez, ez duala hire buruaz beste egingo. Horixe!

— Gogoak batere ez emate hori, Unamuno jaunt, oso espainiarra da, baita oso itsusia ere, ordea. Eta gainera, ontzat emanik ere zure teoria bitxi hori, alegia, ni benetan existitzen ez naizela eta zu bai, ez naizela ezer, fikziozko izaki, zure fantasia nobelatar edo *niboliarraren* fruitu besterik, hala ere nik ez dut zertan egon zuk «gogoak emate» deitzen duzun horren, zure apetaren, menera. Fikziozko izaki direlakoek ere badute beren barne logika...

— Entzunda nagok, bai, kantata hori...

— Halaxe baita; nobelagileek, dramaturgoek ez dute berek sortutako pertsonaiarekin nahi dutena egiterik, inolaz ere ez; nobela-fikziozko izaki batek ez du, artearen legera, ezein irakurlek espero izango ez lukeenik egiterik...

— Nobelako pertsonaia batek agian ez...

— Orduan?

— *Nibolako* pertsonaia batek, ordea...

— Utz ditzagun bufoikeria horiek, iraindu eta barru-barruan mintzen bainaute. Nik, dela neurez, eta hala uste dut nik, dela zuk emanda, eta hala uste duzu zuk, badut neure nortasuna, neure izaera, neure barne logika, eta logika horrek nire buruaz beste egiteko esaten dit...

— Hik hala uste, oker habil, ordea!

— Ea, zergatik nabil oker? Zertan nabil oker? Azal iezadazu non dagoen nire okerra. Zientziarik zailena nork bere burua ezagutzea denez, ez da harritzekoa ni oker egotea eta nire atseka-been irtenbiderik onena suizidioa ez izatea, baina frogia iezadazu. Ze, zaila bada, lagun don Miguel, nork bere burua ezagutze hori, bada beste ezaguera bat hori bezain zaila...

— Zein duk? —galdetu mon.

Irribarre enigmatiko eta maltzurrez begiratu eta esan zidan emeki-emeki:

— Nork bere burua ezagutzea baino are zailagoa da, ba, nobelagile edo dramagile batek irudikatzen edo irudikatu uste dituen pertsonaiak ondo ezagutzea...

Urduritzen hasia nintzen Augustoren ateraldi horiekin, bai eta pazientzia galtzen ere.

— Eta berriz diot —gaineratu zuen—, ontzat emanik ere zuk eman didazula izaera, eta fikziozko izaera gainera, ezin didazu halere, besterik gabe, gogoak ematen dizulako, zuk diozunez, nire buruaz beste egitea eragotzi.

— Beno, aski duk! Aski duk! —oihukatu nuen ohetxoan ukabilkada bat emanik— Isildu hadi! Ez diat tentelkeria gehiago entzun nahi!... Nire kume batengandik, gainera! Eta dagoeneko aspertuta naukaanez eta gainera hirekin zer egin ez dakidanez, oraintxe erabaki diat hik hire buruaz beste egin ez, baina neronek hilko haudala. Hilko haiz, beraz, eta laster gainera! Oso laster!

— Zer? —oihukatu zuen Augustok asaldaturik—. Hiltzen utziko nauzula, hilarazi egingo nauzula?

— Bai, hilarazi egingo haut!

— Ez, hori sekulan ere ez! Sekulan ez! Sekulan ez! —oihukatu zuen.

— A! —esan nion, penaz eta amorruez begiratzten niola—. Prest hengoen hire burua hiltzeko

eta ez duk nahi nik hiltzea? Hire buruaz beste egin behar huen eta ez didak utzi nahi hi hiltzen?

— Ez horixe; ez baita gauza bera...

— Entzunda nagok, bai, antzeko kasurik.

Behin entzun nian nola tipo bat irten zen gauez pistola batekin bere burua hiltzeko prest; lapur batzuk irten omen zitzaizkioan bidera eta eraso egin; hark aurre egin, haietako bat hil eta gainerakoak ihesi joan omen zituan; eta bere bizia beste batenaren truke erosi zuela konturatu eta alde batera utzi omen zian bere asmoa.

— Ulertzekoa da —esan zuen Augustok—; kontua norbaiti bizia kentzea zen, gizon bat hiltzea, eta beste bat hil zuenez gero, zertarako hil behar bere burua? Suizida gehienak hiltzaile frustratuak dira; beste inor hiltzeko adorerik ezagatik hiltzen dute bere burua...

— To, ulertzen diat, 'bai, Augusto, ulertzen diat! Hik esan nahi duk Eugenia edo Mauricio, edota biak, hiltzeko adorerik izanez gero, ez hintzatekeela heure burua hiltzeaz pentsatzen ariko, ezta?

— Bada, hain zuzen ere bi horiek... ez!

— Nor, orduan?

— Zu zeu! —eta begietara begiratu zidan.

— Nola? —egin nuen oihu eta zutitu—. Nola?

Ni hiltzea bururatu zaik?, hik? eta ni?

— Eser zaitez eta lasaitu. Ez duzu gero pentsatuko, lagun don Miguel, lehenengo aldiz gertatuko litzatekeela fikziozko izaki batek, zuk diotzun bezala, izaera... fikziozkoa eman uste ziona hiltzea, ezta?

— Gehiegizkoa duk hau —nioen nik, bulegoan alde batetik bestera ibilki—, neurritz kanpoko duk hau! Horrelakoak ez dituk gertatzen zeretan baino...

— *Niboletan* baino —borobildu hark trufaz.

— Aski da! Aski! Aski! Jasanezina duk hau! Nigana aholku eske etorri eta heu hasten haiz dudatan jartzen neronen existentzia lehenik, eta gero ea eskubiderik ba ote dudan hirekin gogoak ematen didana egiteko, horixe, bai, gogoak ematen didana, zeraren puritan jartzen zaidana...

— Ez izan horren espainiarra, don Miguel...

— Eta gaineratik hori, alua! Espainiarra nauk bada, bai, espainiarra sortzez, heziketaz, gorputzez, espirituz, hizkuntzaz eta baita lanbide eta

ofizioz ere; espainiarra oroz gain eta ezer baino lehen, eta espainiartasuna duk nire erlijioa, eta nik sinetsi nahi dudan zerua Espainia zerutiar eta betierekoa duk, eta nire Jainkoa Jainko espainiarra, Gure Jaun Don Quijote-rena; espainieraz pentsatzen duen Jainkoa eta espainieraz esan zuena: izan bedi argia!, eta haren hitza espainierazko hitza izan zuan...

— Ongi da, eta? —eten zidan atzera errealitatez itzularaziz.

— Eta gero ni hiltzeko ideia ere bota duk. Hik ni hil? Ni? Hik? Ni nik sortutako batek hil? Nahikoa duk. Ez diat gehiago onartuko. Eta hire atrebentzia eta azaldu dizkidaan aburu suntsitzaile, bitxi eta anarkiko horiek zigortzeko, ebazten diat eta erabakitzen hi hiltzea. Hire etxera heldu orduko hilko haiz. Hil egingo haiz, nik esaten diat, hil egingo haiz!

— Baina, Jainkoarren!... —egin zuen oihu Augustok, oraingoan erregu antzean, beldurrez dardarka eta zurbil.

— Ez Jainko eta ez Jainko ondoko. Hil egingo haiz!

— Nik bizi egin nahi dut, ordea, don Miguel, bizi egin nahi dut, bizi nahi dut...

— Ez al huen, bada, hire buruaz beste egiteko asmorik?

— O, horregatik bada, zin degizut, jaun Unamuno, ez dudala nire buruaz beste egingo, ez dudala Jainkoak edo zerorrek emandako bizi hau kenduko; zin degizut... Zuk hil nahi nauzun honetan, nik, aldiz, bizi egin nahi dut, bizi, bizi...

— A ze bizimodua! —egin nuen oihu.

— Bai, dena delakoa. Bizi egin nahi dut, berriro ziria sartuko badidate ere, beste Eugenia eta beste Mauricioren batek bihotza urratuko badidate ere. Bizi egin nahi dut, bizi, bizi...

— Ezinezkoa duk honezkero..., ezinezkoa duk...

— Bizi, bizi egin nahi dut..., eta neu izan, neu, neu.

— Hi ez haiz, ordea, nik nahi dudana beste-rik...

— Ni izan nahi dut, ni! Bizi egin nahi dut! — eta aieneka mintzo zen.

— Ezinezkoa duk..., ezinezkoa duk...

— Entzun, don Miguel, zure seme-alabengatik, zure emaztearengatik, gehien maite duzuna-rengatik... Gogoan izan zu ere ez zarela zu izango... hilko zarela...

Nire oinetan belaunikatu, eta oihuka erregutu zidan.

— Jainkoarren, nik, don Miguel, bizi egin nahi dut, izan nahi dut!

— Ezinezkoa, Augusto gizajoa —esan mon, esku batetik heldu eta altxatzen laguntzen nion bitartean—, ezinezkoa! Idatzita zaukaat eta atzeraezina duk; ezin duk bizirik jarraitu. Ez zakiat honezkero hirekin zer egin. Jainkoak, gurekin zer egin ez dakienean, hil egiten gaitik. Gogoan zaukaat gainera ni hiltzea ere bururatu zitzaiala...

— Baina nik, don Miguel...

— Berdin zio; bazakiat zer esaten dudan. Eta beldur nauk, izan ere, azkar hiltzen ez bahaut ez ote nauan azkenean heuk ni hilko.

— Esan ez genuen ordea...?

— Ezinezkoa duk, Augusto, ezinezkoa. Iritsi duk hire ordua. Idatzita zagok eta ezin diat atze-

ra egin. Hil egingo haiz. Honezkero ezer gutxirako balioko dik, gainera, bizitzak...

Baina, Jainkoarren!...

— Ez bainarik, ez Jainkorik eta ez ezer. Hoa!

— Ez, beraz, e? —esan zidan—. Beraz, ez? Ez didazu utzi nahi neu izaten, lainopetik irteten, bizitzen, bizitzen, bizitzen, neure burua ikusten, neure ahotsa entzuten, neure gorputza ukitzen, sentitzen, min hartzen, neure baitan izaten. Ez didazu utzi nahi, beraz? Fikziozko izaki hil behar dut, beraz? Ongi da, nire jaun sortzaile don Miguel, hilko zara zu ere, zu ere bai, eta irten zineneko ezerezera itzuliko zara... Jainkoak ez zaitu gehiago amestuko! Hil egingo zara, bai, hilko zara, nahi ez baduzu ere; hilko zara zu eta baita nire istorioa irakurriko duten guztiak ere, guzti-guztiak, bat bera ere ez da geldituko! Ni bezalako fikziozko izaki; ni bezalaxe! Denak hilko dira, denak, denak. Neuk esaten dizuet, Augusto Perez-ek, zuek bezalaxe izaki fikziozko, *niboliar* naizen honek. Zeren zu ere, nire sortzaile hori, don Miguel nirea, beste izaki *niboliar* bat besterik ez baitzara zu ere, eta izaki *niboliarrak* dira

zure irakurleak ere, ni, Augusto Perez, zure biktima, naizen bezalaxe...

— Biktima? —egin nuen oihu.

— Biktima, bai! Hiltzen uzteko ni sortzea! Hilko zara zu ere! Sortzen duenak bere burua sortzen du eta bere burua sortzen duena hil egiten da. Hilko zara, don Miguel!; hilko zara zu eta hilko dira ni pentsatuko nauten guztiak! Hil gaitzen, bada!

Bizitzeko grinaz, hilezkortasun irrikaz egindako azken ahalegin horrek lur jota utzi zuen Augusto gizajoa.

Eta bultza egin nion aterantz eta burumakur atera zen. Bere gorputza haztatu zuen, ordurako bere existentziaz beraz ere duda egingo bailuen. Nik malko iheskor bat xukatu nuen.

XXXII

Gau hartantxe alde egin zuen Augustok ni ikustera etorritako hiri honetatik, Salamancatik. Han joan zen, heriotza-epaia bihotzean eta jabe-turik ezen harrezkero, saiatu arren, bere buruaz beste egitea alferrikako litzatekeela. Gizajoa, nire epaia gogoan, ahalik eta gehien luzatzen saiatzen zen etxera itzultzea; halako tiramen misteriotso batek, halako barne indar batek erakartzen zuen, ordea, etxera. Penagarria izan zen bidaia. Minutuak kontatuz zihoan trenean, minutuak benetan kontatuz ordea: bat, bi, hiru, lau... Bere zorigaitz guztiak, Eugenia eta Rosariogana-ko maitasunezko liluramen triste hura guztia, ustel irten zitzaion ezkontzaren pasarte hura guztia, ezabatu egin zitzaizkion oroimenetik edota, hobeki esan, laino batean urtu zitzaizkion. Do-do suma zitzakeen eserita zegoeneko eserleku eta bere gorputzaren zama bera ere. «Egia ote benetan existitzen ez naizela? —zioen berekiko—. Arrazoi ote du gizon horrek, bere fantasiaren fruitu besterik ez naizela, fikziozko izaki

hutsa naizela dioenean?» Triste-triste, guztiz mingarria izan zen azken bolada hartan bere bizimodua; are tristeagoa, mingarriagoa gertatu zitzaion, alabaina, hura guztia amets huts izan zitekeela pentsatzea, eta ez bere amets, gainera, neurea baizik. Mina baino izugarriago irizten zion ezerezari. Norberak bizi dela amestea..., tira; baina norbera beste batek amestea!...

«Eta zergatik ez naiz, bada, existituko? — zioen berekiko—. Zergatik? Demagun egia dela gizon horrek irudikatu nauela, amestu nauela, sortu nauela bere irudimenean; baina, ez ote naiz honezkero besteenean bizi, nire biziaren istorioa irakurtzen dutenenean? Eta hala, hainbaten irudimenean bizi banaiz, ez al da benetako hainbatena eta ez bakar batena dena? Eta nire fikziozko bizitzaren kontakizuna jasoko duen liburuko orrialdeetatik, edo, areago, liburu hori irakurriko dutenen adimenetatik —zuenetik, orain irakurtzen ari zaretenonetik— sortua banaiz, zergatik ez naiz existituko betiereko arima mingarri gisa? Zergatik?

Deskantsu hartu ezinik zebilen gizajoa. Begien aurretik pasatzen zitzaizkion Gaztelerriko

mortuak, artadiak, pinudiak; mendietako gailur elurreztatuei begira zihoan, eta ikusirik atzeko aldean, bere buruaren atzean, bruma batean bilduak, bere bizitzako lagunak, heriotzara deitua sentitzen zuen bere burua.

Etxera iritsi zenean atea jo zuen, eta Liduvinak ireki eta ikusi zuenean zurbildu egin zen.

— Zer baina, Liduvina? Zer dela-eta ikara aurpegi hori?

— Jesus! Jesus! Hila dirudizu, jauna, bizirik bainoago... Beste mundukoa ematen duzu aurpegi horrekin...

— Beste mundutik nator, Liduvina, eta beste mundura noa. Eta ez nago ez hilda ez bizirik ere.

— Erotu al zaizu, baina? Domingo! Domingo!

— Ez deitu senarrari, Liduvina. Eta ez nago eroa, ez! Eta ez nago, esan dizut, hilda, nahiz eta laster hilko naizen, ez eta bizirik ere.

— Zer diozu baina?

— Ez naizela existitzen Liduvina, ez naizela existitzen, fikziozko izakia naizela, nobeletako pertsonaiak bezala...

— Liburuetako kontuak dira horiek! Har ezazu suspergarriren bat, sartu ohean, tapatu ondo eta ez jaramonik egin fantasia horiei...

— Baina zer uste duzu zuk Liduvina, existitzen al naiz?

— Tira, tira, utzi alde batera nahaspila horiek, jauna; afaldu eta ohera! Bihar beste egun bat izango da eta!

«Pentsatzen dut, beraz banaiz —zioen berekiko Augustok, eta gaineratu—: Pentsatzen duen oro da eta den orok pentsatzen du. Bai, den orok pentsatzen du. Banaiz, beraz pentsatzen dut».

Ez zuen afaltzeko batere gogorik, eta ohitura-ren poderio hutsez eta bere zerbitzari leialen erreguei men egitearren, bi arraultza uretan paseak ekartzeko eskatu zuen, hori besterik ez, afari arin bat. Baina arraultza uretan paseak jaten ari zela, halako apetitu bitxi bat sartu zitzaion, jan eta jan egoteko amorrua. Eta beste arraultza pare bat eskatu zuen, eta xerra bat gero.

— Horrela, horrela —esaten zion Liduvinak—; jan, jan. Ahuldadea izango duzu, ez besterik. Jaten ezduena hil egiten da.

— Baita jaten duena ere, Liduvina —esan zion Augustok triste.

— Ez goseak, ordea.

— Eta zer axola dio goseak ala beste edozein gaitzek jota hiltzea?

Eta gero pentsatu zuen: «Baina ez, ez! Nik ezin dut hil; bizirik daudenak hiltzen dira, existitzen direnak, eta ni, existitzen ez naizenez, ezin hil..., hilezkorra naiz! Ni bezala jaio ez eta existitzen ez denarena bezalako hilezkortasunik ez dago. Fikziozko izaki bat ideia bat da, eta ideiak beti dira hilezkorrak..».

— Hilezkorra naiz! Hilezkorra naiz! —egin zuen oihu Augustok.

— Zer diozu? —esan zuen Liduvinak berehala harengana etorrira.

— Ekartzeko orain... ez dakit bada!..., urdaiazpiko gozoa, fianbreak, *foie-grasa*, dagoena... Egundoko tripa zorriak ditut eta.

— Horrela ikusi nahi zaitut, jauna, horrela. Jan, jan, apetitu ona duena sano baitago eta sano dagoena bizi baita!

— Ni ez naiz bizi, ordea, Liduvina!

— Baina, zer diozu!

— Horixe ezetz, ni eznaiz bizi. Hilezkorrak ez gara bizi, eta ni ere ez naiz bizi, iraun egiten dut; ideia naiz ni! ideia naiz!

Zanpa-zanpa hasi zen urdaiazpiko gozoa jaten. «Baina jaten badut —zioen berekiko—, nolatan ez naiz bizi? Jaten dut, beraz existitzen naiz! Dudarik ez. «Edo, ergo sum! Nondik nora ote dut honenbesteko apetitua?» Orduan akordatu zitzaion behin baino gehiagotan irakurria zuela nola hiltzera kondenatuek, kaperan igarotzen dituzten orduetan, jan egiten dutela. «Sekula ez naiz horretaz konturatu... —pentsatu zuen—. Ulertzekoa da Renanek bere 'Jouarreko Abadesa' idazlanean kontatzen diguna...

Ulertzekoa da hiltzera kondenatutako bikote batek, hil aurretik, bizirik irauteko eta erreproduzitzeko sena sentitzea, baina jatekoa!... Baina bai, bai, gorputza da babes bila ari. Arima, hilko dela jakiten duenean, tristetu edo asaldatu egiten da; gorputzari, aldiz, gorputz sana izanez gero, jateko gogo amorratua sartzen zaio. Jakinaren gainean jartzen baita gorputza ere. Bai, nire gorputza da, nire gorputza babes bila ari. Zanpa-zanpa jaten dut, hiltzear nago beraz!»

— Liduvina, ekarri gazta eta pastak... eta fruta...

— Gehiegixko iruditzen zait, jauna; gehiegi da. Kalte egingo dizu!

— Esaten ez zenuen, bada, jaten duena bizi dela?

— Ez horrela, ordea, ez zu orain jaten ari zaren bezala... Eta badakizu, jauna, esaerak diotena: Más mata la cena, que san Avicena.

— Ni ez nazake hil, ordea, afariak.

— Zergatik?

— Ez naizelako bizi, ez naizelako existitzen, esan dizut lehen ere.

Senarraren bila joan zen Liduvina, eta esan zion:

— Domingo, uste dut etxeko jauna erotu egin zaigula... Oso gauza bitxiak esaten ditu..., liburuetako gauzak..., ez omen da existitzen... Zer dakit nik!

— Zer dugu, jauna? —esan zion Domingok sartu zenean—. Zer gertatzen zaizu?

— Ai, Domingo —erantzun zuen Augustok mamu baten ahotsez—, ezin dut; izugarrizko beldurra ematen dit oheratzeak!...

— Ez zaitez, bada, oheratu.

— Ez, ez, oheratu beharra daukat; ez naiz gauza zutik egoteko.

— Paseotxo bat egin beharko zenuke nik uste, jauna, afaria jaisteko. Gehiegi afaldu duzu. Zutitzen ahalegindu zen Augusto.

— Ikusten, Domingo, ikusten? Ez naiz gauza zutik egoteko.

— Jakina, halako betekada egin ondoren...

— Ez, gizona, errazago eusten zaio zutik karga eta guzti. Ez naiz existitzen, horixe da kontua. Begira, orain dela gutxi, afaltzen ari nintzela, barneratzen nuen guztia ahotik hondorik gabeko kupel batera erortzen ariko bailitzen iruditu zitzaidan. Jaten duena bizi da, arrazoi du Liduvinak, baina arrats honetan nik jan dudan bezala, desesperazioz jaten duena ez da existitzen. Ni ez naiz existitzen...

— Tira, tira, utzi alde batera txorakeriak; har ezazu kafea eta kopa, jandako guztiari bultza egin eta pausa dadin, eta goazen paseotxo bat egitera. Nik lagunduko dizut.

— Ez, ez naiz gauza zutik egoteko, ikusten?

— Egia da.

— Zatoz, zuri helduta joango naiz. Gaur gauean zuk nire logelan lo egitea nahi dut, zuretzako jarriko dugun koltxoi batean, gaubeila egin diezadazun...

— Hobe izango da ni ez oheratzea, jauna, eta han, butaka batean gelditzea...

— Ez, ez; zu oheratzea eta lo egitea nahi dut; lo egiten, zurrungaka sentitu nahi zaitut...

— Nahi duzun bezala.

— Eta orain entzun, ekarri paper plegu bat. Telegrama bat jarriko dut, eta nik jarritako helbidera bidaliko duzu ni hil bezain pronto...

— Baina, jauna!...

— Egin esandakoa!

Obeditu egin zion Domingok, eta papera eta tintontzia eraman zizkion, eta hona Augustok zer idatzi zuen:

«Salamanca.

Unamuno.

Irabazi duzu. Hil naiz.

Augusto Perez «

— Bidali ni hil bezain pronto, entzun?

— Nahi duzun bezala —erantzun zuen morroiak nagusiarekin eztabaidan ez jarraitzearen.

Logelara joan ziren biak. Halako dardarizoa zuen Augusto gizajoak biluzten hasi zenean, non erantzeko arropari heltzen ere ez baitzuen asmatzen.

— Erantzi nazazu zuk —esan zion Domingori.

— Zer duzu, ordea, jauna? Deabruak ikusi zaituela ematen du eta! Elurra bezain zuri eta hotz zaude. Nahi al duzu medikuari deitzea?

— Ez, ez; alferrik da.

— Ohea berotuko dizugu.

— Zertarako? Utzi! Eta erantzi nazazu goitik behera, zeharo; utz nazazu nire amak munduratu ninduenean bezala, jaio nintzenean bezala... Inoiz jaio banintzen!

— Ez horrelakorik esan, jauna!

— Orain etzan nazazu, etzan nazazu zuk zeuk ohean, ezin baitut mugitu.

Domingo gizajoak, izaturik bera ere, oheratu egin zuen nagusia.

— Eta orain, Domingo, esan belarrira, poliki-poliki, aita gurea, agur maria eta salbea. Horre-

la..., horrela..., emeki-emeki..., emeki-emeki...-
eta buruz errepikatu zituenean—: Orain, begira,
har ezazu eskuineko eskua, atera iezadazu, iru-
ditzten zait ez dela nirea, galdu izan banu beza-
la..., eta lagundu aitaren egiten... horrela...
horrela.... Hilda behar du beso honek... Begiratu
ea pultsurik daukadan... Orain utz nazazu, utzi
ea lo kuluska bat egiten dudan...; baina tapa
nazazu, tapa nazazu ondo...

— Hobe izango da, bai, lo egitea —esan zion
Domingok, tapakien goialdea jasotzen zion bitar-
tean —; loarekin pasako zaizu...

— Loarekin pasako zait, bai... Baina esan, lo
egin, amets egin, ez ote dut bizi osoan besterik
egin? Laino bat besterik ez ote da izan hori guz-
tia?

— Tira, tira; utzi gauza horiek. Horiek guztiak
Liburuetako gauzak besterik ez dira, nire Liduvi-
nak esaten duen bezala.

— Liburuetako gauzak..., liburuetako gau-
zak... Eta zer ez da liburuetako gauza, Domingo?
Ba ote zen, bada, ezer, nolabaiteko libururik,
kontakizunik, hitzik, pentsamendurik izan aurre-
tik? Eta geldituko al da ezer behin pentsamen-

dua agortu eta gero? Liburuetako gauzak! Eta nor ez da liburuetako gauza! Ezagutzen al duzu don Miguel de Unamuno, Domingo?

— Bai, paperetan irakurri dut zer edo zer hari buruz. Gizon arraro samarra omen da, harira ez datozen egiak idazten dituen...

— Ezagutzen al duzu, bada?

— Nik? Zertarako?

— Unamuno bera ere liburuetako gauza da... Denok gara liburuetako gauza... Eta hilko da bera ere, bai, hil egingo da, nahi ez badu ere... hilko da! Eta horixe da nire mendekua. Ez dit bizitzen utzi nahi? Hil egingo da, bada, hilko da, hilko da!

— Ongi da; uztazu bakean gizon hori, Jainkoak erabakiko du noiz hilko den, eta zu lotara!

— Lotara..., lotara..., amets egitera... Hil..., to egin..., lo egin..., amets egin agian!... Pentsatzen dut, beraz banaiz; banaiz, beraz pentsatzen dut... Ez naiz existitzen, ez! Ez naiz existitzen... ama! Eugenia... Rosario... Unamuno... —eta loak hartu zuen.

Handik pixka batera goititu egin zuen ohetik gorputza, zurbil, arnasbeharrez, begiak oro beltz

eta ikaraz beterik, iluna baino harantzago begira eta oihukatuz: «Eugenia, Eugenia!». Beregana joan zen Domingo. Burua bular gainean erortzen utzi, eta hilda gelditu zen.

Medikua iritsi eta artean bizirik zegoela pentsatu zuen hasieran, eta odola ateratzea eta sinapismoak jartzea aipatu, baina berehala jabetu zen benetako egoera tristeaz.

— Bihotzekoa izan da... asistoli atakea —esan zuen medikuak.

— Ez, jauna —erantzun zuen Domingok—, betekada izan da. Ikaragarri afaldu zuen, ohi ez bezala, sekula ez bezala, zera nahi izango balu bezala...

— Bai, aurrerantzean jango ez zuen guztia jan, ezta? Beharbada aurrez sumatuko zuen bihotzak hil egingo zela.

— Bada nik —esan zuen Liduvinak— buruko zerbait izan dela esango nuke. Egia da neurririk gabe afaldu zuela, baina itxura batean zertan ari zen konturatzeke, eta kirtenkeriak esaka...

— Zer-nolako kirtenkeriak? —galdetu zuen medikuak.

— Existitzen ez zeta eta horrelako gauzak...

— Kirtenkeriak? —gaineratu zuen medikuak hartz artetik eta bere buruarekin ariko bailitzan—. Nork jakin hura existitzen zen ala ez, eta are gutxiago berak... Norberak daki gutxien bere existentziaz... Besteentzako baino ez da existitzen...

Eta gero, gaineratu zuen ozenki:

— Bihotza, sabela eta burua, hirurak gauza bat eta bera dira.

— Bai, gorputzeko atalak dira —esan zuen Domingok.

— Eta gorputza gauza bat eta bera da.

— Dudarik gabe!

— Zuk uste baino gehiago, ordea...

— Eta ba al daki, jaun horrek, zenbateraino uste dudan nik?

— Egia da hori ere, eta konturatu naiz ez zarela leloa.

— Ez dut halakotzat nire burua, jaun medikua, eta ez zait buruan sartzen nola batzuek edozeinekin topatuta ere, kontrakoa erakutsi arte, tontotzat jotzeko ohitura duten.

— Tira, bada, esaten ari nintzenez —jarraitu zuen medikuak—, urdailak odola osatzen duten

zukuak sortzen ditu, horiekin bustitzen ditu bihotzak burua eta sabela, beren eginkizunak bete ditzaten, eta buruak gobernatzen ditu sabelaren eta bihotzaren mugimenduak. Beraz, Augusto hiru gauzez hil da, gorputz osoaz, sintesiz.

— Nik, berriz, uste dut —esan zuen Liduvinak— nire jaunari buruan sartu zitzaiola hil egin behar zuela eta, jakina, hiltzen lehiatzen dena, hil egiten da azkenean.

— Argi dago —esan zuen medikuak—. Norberak hilko denik sinisten ez badu, hiltzeko zorian egonda ere ez litzateke agian hilko. Aldiz, dudarik txikiena sartu eta hiltzea besterik gelditzen ez zaiola pentsatuz gero, galdua da.

— Suizidioa izan da eta suizidioa besterik ez nire jaunarena. Etorri zen bezala etorrita afaldu zuen bezala afaltzea suizidioa da, suizidioa besterik ez. Nahi zuena lortu du!

— Nahigabeak akaso...

— Eta handiak, handiak oso! Emakumeak!

— Bai, bai! Baina, tira, orain ehorzketa presatzea beste atarramendurik ez zaigu gelditzen. Domingo negarrez ari zen.

XXXIII

Augusto hil zela jakinarazten zidan telegrama jaso nuenean, eta gero zehatz-mehatz nola izan zen jakin, pentsakor gelditu nintzen ea ongi egin ote nuen, ni ikustera eta bere buruaz beste egiteko asmoari buruz aholku eske etorri zitzaidan arratsalde hartan esan niona esanez. Damutu ere egin nintzen hura hil izanaz. Hark arrazoi zuela eta berea egiten, bere buruaz beste egiten utzi behar izan mola ere pentsatu nuen. Eta berpiztuko ote nuen pentsatzen has nintzen.

«Bai —esan nion nire buruari—, berpiztu egingo dut eta egin dezala gero nahi duena, egin dezala bere buruaz beste, halako apeta badu». Eta hura berpizteko ideia buruan, loak hartu ninduen.

Lokartu eta pixka batera, Augusto agertu zitzaidan ametsetan. Zuri zegoen, hodei bat bezain zuri, eta ertzak sartaldeko eguzkiak iluminaturik edo. Adi-adi begiratu zidan eta esan:

- Hemen nauzu berriro ere!
- Zertara hator?

— Zuri agur esatera, don Miguel, betiko agur esan eta agindu bat ematera, bai, agintzera, ez erregutzera, nire menturen *nibola* idazteko agintzera...

— Idatzita zagok!

— Badakit, dena dago Idatzita. Eta beste zer-bait ere esan behar dizut, alegia, pentsatu duzun hori, ni berpiztea, gero neronek nire buruaz beste egin dezadan, hori disparate bat dela, areago oraindik, ezinezko gauza dela.

— Ezinezko gauza? —esan nion nik: hori guztia ametsetan, noski.

— Ezinezko gauza, bai! Zure kabinetean elkarrekin hizketan aritu ginen arratsalde hartan, oroitzen?, zu esna eta ez orain bezala, lo eta ametsetan, zeundela, esan nizun guk, fikziozko izakiok, zuk diozun bezala, badugula geure logika eta alferrik ariko dela gu irudikatzen gaituena gurekin nahi duena egiten saiatzen, oroitzen?

— Oroitzen nauk, bai.

— Eta ziur naiz orain, lehen bezain espainiar izanik ere, ez dizula gogoak batere ematen, ezta?

— Ez zidak, ez, gogoak batere ematen.

— Ez horixe, lotan eta ametsetan ari denari ez dio gogoak batere ematen. Eta bai zuk bai zure herrikideak ere lotan zaudete eta ametsetan, eta gogoia duzuela egiten duzue amets, baina benetan ez duzue gogorik.

— Eskerrak lotan nagoen —esan nion—, bestela...

— Berdin dio. Eta ni berpizteari buruz, esan behar dizut ez duzula horrelakorik egiterik, ezin duzula nahita ere, edo nahi duzula amets eginda ere...

— Baina, gizona!

— Batek sor dezake, bai, baita akabatu ere, fikziozko izaki bat, hezur-haragizko bat bezalaxe, zuk hezur-haragizko gizona eta ez haragi-fikziozkoa eta hezur-fikziozkoa deitzen duzun horietakoa; behin hura hil ondoren ez dago, alabaina, berpizterik, ez horixe! Gizon hilkor eta haragizko bat, hezur-haragizkoa, airea arnasten duena, sortzea erraza da, oso erraza, errazegia tamalez...; gizon hilkor eta haragizko bat, hezur-haragizkoa, airea arnasten duena, hiltzea erraza da, erraza oso, errazegia tamalez...; baina berpiztea?, ezinezkoa da berpiztea!

— Horixe ezinezkoa! —esan nion.

— Gauza bera gertatzen da —erantzun zidan—, gauza berbera, zuk fikziozko izaki deitzen diezun horiekin; erraza da guri izana ematea, errazegia agian, eta erraza, berebat, errazerraza, gu hiltzea, errazegia tamalez; baina gu berpiztea?, ez da jaio benetan hildako fikziozko izakirik benetan berpiztu duenik. Don Quijote berpizterik badela uste al duzu? —galdetu zidan.

— Ezinezkoa! —erantzun nion.

— Bada, gainerako fikziozko izaki guztiokin ere gauza bera gertatzen da.

— Eta berriro ere amesten bahaut?

— Ezin bi bider amets bera egin. Berriro amestu eta ni naizela uste izango duzun hori beste bat izango da. Eta orain, lotan eta ametsetan ari zarelarik, eta halaxe onartzen duzu, eta ni amets bat naizelarik, eta halaxe onartzen dut, berriro esango dizut orain, lehengoan hainbeste-ko haserrea eragin zizuna: adi, nire don Miguel maitea, ez ote den gertatuko fikziozko izakia zu zeu izatea, benetan existitzen ez dena, ez bizirik ez eta hilik ere; ez ote zaren aitzakia hutsa izango nire istorioa eta neurea bezalako beste istorio

batzuk, munduan zehar batetik bestera ibil daitezzen. Eta gero, benetan hilko zarenean, zeure arima ez ote dugun guk geuk garraiatuko. Ez, ez, ez zaitez asaldatu, lotan eta ametsetan ari bazara ere bizirik baitzaude oraindik. Eta orain, agur!

Eta laino beltzean desagertu zen.

Hiltzen nintzela egin nuen gero amets, eta azken hatsa hartzen nuela amesten nuen unean berean esnatu nintzen, halako bular estualdi batez.

Eta horixe da Augusto Perezen istorioa.

HILETA OTOITZA HITZATZE MODURA

Ohitura izaten da nobela bukaeretan, heroia edo protagonista hil edo ezkondu ondoren, gainerako pertsonaien harrezkeroko nondik norakoen berri ematea. Hemen ez diogu jarraituko ohitura horri eta, beraz, ez dugu aipatu ere egingo nondik norako joera izan zuten Eugenia eta Mauriciok, Rosariok, Liduvina eta Domingok, don Fermín eta doa Ermelindak, Victor eta bere emazteak eta Augustoren inguruan azaldu zaizkigun guztiek, eta Augustoren heriotza bitxiagatik zer sentitu eta pentsatu zuten ere ez dugu esango. Salbuespen bakar bat egingo dugu, Augustoren heriotza sakonen eta modurik benetazkoenean sentitu zuenarekin, alegia, bere zakur Orfeorekin.

Hala izan zen, bai, Orfeo umezurtz gelditu zen. Ohe gainera salto egin eta bere nagusi hila usaindu zuenean, bere nagusiaren heriotza usaindu zuenean, hodei beltz lodi batek bildu zuen bere zakur espiritua. Lehendik ere bazuen

horrelako eskarmenturik, hainbat zakur eta katu hil usainduta eta ikusita zegoen, saguren bat edo beste hilda ere bai, eta gizaseme hilik ere usaindua zen; bere nagusia hilezkorra zelakoan zegoen, ordea. Jainkotzat baitzuen nagusia. Eta hura hilda sentitzean, bizitzan eta munduan zuen fedearen oinarriak oro hankaz gora jartzen zirela sentitu zuen bere baitan, eta halako goibelaldi handi batek bete zion bularra.

Eta nagusi hilaren oinetan uzkurturik, pentsatu zuen: «Gaixo nagusi nirea!, gaixo nagusi nirea! Hil egin da; hil egin zait! Dena hiltzen da, den-dena; dena hiltzen zait. Eta okerragoa da niri dena hiltzea ni denetarako hiltzea baino. Gaixo nagusi nirea!, gaixo nagusi nirea! Hemen datzan hau, zuri eta hotz, laster ustelduko denaren usaina, jateko haragi usaina dariona, hau ez da honezkero nire nagusia. Ez da, ez. Nora joan da nire nagusia?, nora laztantzen ninduena, hizketan egiten zidana?

Bai animalia arraroa gizasemea! Sekula ez dago aurrean duenera. Zergatik ez dakigunean, orduantxe laztantzen gaitu eta ez guk gehien laztantzen dugunean, eta haren menera jartzen

garenean, orduantxe errefusitzen gaitu eta zigortzen. Ez dago jakiterik zer nahi duen, eta auskalo berak ere ba ote dakien. Iduri du beste nonbait dagoela beti, eta ez dagoen horretan, eta begiratzen ari denari begiratu ere ez dio egiten. Harentzako beste mundu bat edo izango bailitzan. Eta, jakina, beste mundurik bada, hau ez da.

Eta, gainera, oso modu korapilatsuan egiten du hitz, edo zaunka. Guk orro egiten genuen eta haren antzera egitearren ikasi genuen zaunka egiten, eta hala ere ez dugu elkar ulertzen. Hark orro egiten duenean baino ez diogu benetan ulertzen. Gizasemeak orro edo oihu edo mehatxu egiten duenean ederki ulertzen diogu gainerako animalioek. Bai baitirudi orduan ez dagoela beste mundu batean distraita!... Baina bere modura egiten du zaunka, hitza, eta horren bidez asmatu du ez dagoena eta dagoenari erreparatu ez. Gauza bati izena jarri dionetik, ez du gehiago gauza hori ikusten, jarritako izena entzun, edo idatzita ikusi, besterik ez du egiten. Gezurretan aritzeko, ez dagoena asmatzeko eta nahasteko balio dio hizkuntzak. Eta aitzakiak

jarri besterik ez du egiten besteekin edo bere buruarekin hitz egitearren. Zakurrok ere kutsatu gaitu eta!

Animalia eria da, ez dago dudarik. Beti dago eri! Lotan dagoenean baino ez du ematen nola-bait onik edo dagoenik, eta ez beti, batzuetan lotan dagoenean ere hitz egiten baitu. Eta hori ere kutsatu ez digu, bada! Zenbat gauza ez dizkigun kutsatu!

Eta iraindu egiten gaitu gainera! Zinismoa deitzen dio, hau da, zakurtasuna edo zakurkeria, axolagabekeria edo lotsagabekeriari, nork eta berak, animaliarik hipokritenak. Hipokrita bilakatu du hizkuntzak. Hain da horrela ezen hipokrisiari antropismoa deitu beharko bailitzaioke, axolagabekeriari zinismoa deitzez gerotan. Eta hipokrita egin nahi izan gaitu, alegia, komiko, itxurati, gu, zakurrok! Gu, zakurrok, gu ez baikin-tuen gizonak, zezena edo zaldia bezala, indarrez menperatu eta domestikatu, geure borondatez egin baikenuen harekin bat, hitzarmen bialdeko bidez, ehiza ustiatzeko. Guk bilatzen genion harrapakina, hark ehizatu eta gure parte aema-

ten zigun. Eta hala sortu zen, kontratu sozial bidez, gure partzuergoa.

Eta horren ordainetan horra: gu prostituitu eta iraindu egin gaitu! Gu itxurati, tximu eta zakur jakintsu egiten saiatu da! Zakur jakintsu deitzen diete barregarrikeriak antzezten erakusten dieten zakurrei, hartarako jantzi egiten baitituzte eta itxuratxarki ibiltzen erakusten, atzeko hanketan jarriak, zutik! Zakur jakintsuak! Horra zeri deitzen dioten gizonak jakituria, barregarrikeriak antzeztu eta bi hankatan ibiltzeari!

Eta, jakina, bi hankatan jartzen den zakurrak aurrez aurre erakusten ditu lizun eta zinikoki bere lotsariak! Halaxe egin zuen gizonak ere zutitu zenean, zutikako ugaztun bilakatu zenean, berehala sentitu baitzuen lotsa, eta erakutsitako lotsariak estaltzeko behar morala. Eta horregatik omen dio haien Bibliak, hala entzun diet nik behintzat, lehen gizonak, alegia, bi hanka gainean ibiltzen hasi zen lehenak, lotsa izan zuela bere Jainkoaren aurrean biluzik agertzeko. Eta horretarako asmatu zuten jantzia, sexua estaltzeko. Baina hasieran bai gizonak bai emakumeek jantzi bera jartzen zuten, ez zuten elkar

bereizten, ez zuten beti ongi bereizten sexua, eta hortik sortu dira hamaika giza gehiegikeria, haiek zakurrenak edo zinikoak direla esaten saiatzen direnak. Haiek, gizonak, okertu gaituzte zakurrok, beraiek eman digute zakurtasuna, zini-kotasuna, horixe baita gure hipokrisia. Zeren, zinikotasuna hipokrisia baita zakurrarengan, gizonarengan hipokrisia zinikotasuna den bezalaxe. Elkar kutsatu dugu.

Jantzi berdina jarri zuten hasieran gizonak zein emakumeek; baina elkar bereizten ez zutenez, sexu bakoitzarentzat jantzi desberdina asmatu behar izan zuten. Galtza horiek gizona bi hankatan jarri izanaren ondorio hutsa dira.

Bai animalia bitxia gizona! Sekula ez dago egon behar duen lekuan, horretara baitago, eta gezurretan aritzeko hitz egiten du, eta jantzi egiten da!

Gaixo nagusia! Laster lurperatuko dute horretarako egina duten leku batean! Gizonak gorde edo pilatu egiten dituzte hildakoak, eta ez dute uzten zakurrek edo beleek jan ditzaten! Hartara animalia guztiek, gizonarengandik hasita, munduan uzten duten gauza bakarra gera

dadin: hezurak. Pilatu egiten dituzte hildakoak!
Hizketan egin, jantzi eta hildakoak pilatzen
dituen animalia! Gaixo gizajoa!

Gaixo nagusi nirea!, gaixo nagusi nirea!
Gizon bat izan zen, gizon bat besterik ez, gizon
bat soilik! Nire nagusia izan zen, ordea! Eta zen-
bat gauza ez zidan zor, hark hala uste eta pen-
tsatzen ez bazuen ere!... zenbat! Zenbat gauza
ez ote mon erakutsi nire isiluneekin, nire milika-
dekin, hark, bitartean, hitz eta hitz eta hitz egi-
ten zidalarik! «Ulertuko ote didak?», esan ohi
zidan. Horixe baietz, ulertzen nion, bai, bere
buruari mintzo zitzaiola hitz egiten zidanean, eta
hitz eta hitz eta hitz egiten zuen. Bere buruari
mintzo zitzaiola hitz egiten zidalarik, bere baitan
zegoen zakurrari hitz egiten zion. Neuk iraunara-
zi nuen bizirik haren zinikotasuna. Bai bizimodu
zakurra izan duena, bizimodu zakurra benetan!
Eta a zer zakurkeria edota, hobeki esan, a zer
gizonkeria, horiek biek egin diotena. Gizonkeria
Mauriciok egin diona; emakumekeria Eugeniak
egin diona! Gaixo nagusi nirea!

Eta hona orain hemen, hotz eta zuri, geldirik,
jantzita, bai, baina hizketarik gabe, ez kanpoko

ez barrukorik. Honezkero ez dauka bere Orfeori zer esanik. Eta Orfeok ere honezkero ez dizu bere isiltasunarekin zer esanik.

Gaixo nagusi nirea! Zer izango ote da orain hartaz? Non ote dago haren baitan hitz eta amets egiten zuen hura? Han goian beharbada, mundu garbian, lurreko ordeka altuan, oro kolore garbizko lur garbian, Platonek ikusi bezala, gizonak dibinoa deitzen dioten hark; lur azal hartan, nondik erortzen baitira harri bitxiak, non baitaude gizon garbiak eta purifikatuak airea edan eta eterra arnastuz. Hantxe daude, berebat, zakur garbiak, San Hunberto ehiztariarenak, Santo Domingo Guzmangoarena, ahoan zuzia duela, San Rokerena, zeini buruz eta haren irudia seinalatuz hala baitzioen sermolari batek: «Hara San Roke, bere zakurtxo eta guzti». Han, mundu garbi platonikoan, ideia haragituaren munduan, han dago zakur garbia, zakur benetan zini-koa. Eta hantxe dago nire nagusia!

Nire espiritua purifikatzen sentitzen dut heriotza honen, nire nagusiaren purifikazio honen ondoan, eta baita hura azkenean desegin zeneko lainorantz jotzen ere, laino horretatik

sortu baitzen eta laino horretara itzuli —Orfeok laino beltza hurbiltzen sentitzen du... Eta nagusiagana doa saltoka eta buztanari eraginez—. Nagusi nirea! Nagusi nirea! Gaixo gizona!»

Domingo eta Liduvinak jaso zuten gero zakur gaixoa bere nagusiaren oinetan hila, nagusia bezalaxe garbi eta laino beltzean bildua. Eta Domingo gizajoa, hura ikusirik, hunkitu egin zen eta negarrari eman, ez dakigu ongi bere nagusiaren heriotzarengatik ala zakurrarenagatik, nahiz eta segur aski leialtasun eta fideltasun eredu zoragarri hura ikusita egin zuen negar. Eta esan zuen:

— Esango dute berriro ere penaz ez dela inor hiltzen!